


FAKIRRAREN AHOTSA

HARKAITZ CANO



HARKAITZ CANO

Fakirraren ahotsa



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.eus/ebook>

© 2018 Harkaitz Cano

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2018ko azaroa

Edizio hau: 2018ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Lurgain ez den Larzabali,
fikziozko Imanol hau posible egiteagatik.

Sendatu nahi ez duen zauri batek
kortejatu egiten gaitu lehenbizi,
eta gero, iseka egiten digu.

PATTI SMITH

INTRO

“Agian enbaltsamatzaile bat naiz”, dio Jean Pharo-sek. “Edo agian taxidermista bat... Kanta batek iraute-ko modu bat da: disekatzeta. Agian modu bakarra. Edo hori, edo jendeak bere kasa oroit dezan esperantza izatea... Eta barkatuko didazu, baina *jendeaz* ez naiz sobera fio; jendea ahanzkorra da, jendea gutiziatsua eta utzia da, jendea soinuari iritsi behar duen lekura iristea eragozten dion oztopoa besterik ez da, hormak, lasto zakuak, txorimaloak... *Jendea* traban dago musiki-karentzat. Zuk jendea ikusten duzun lekuan, koskak ikusten ditut nik, gainditu beharreko forma gogaikarriak”.

Idazleak harriduraz so egin dio Pharoosi.

“Ez begiratu niri horrela. Kanta batek irauten duena irauten dugu guk ere. Ez askoz gehiago. Bizitza gutxi dago kanta batean kabitzen ez denik. Xaman jibaroa da kantaria: zure burezur barruko larre eta zelai bakoitza tolestu eta sartuko du kanta batean, utziz gero. Txikitzea, irauteko bide bezala. Txikitzea, patrikan eramateko. Papiroflexia musikala. Zuek ere, idaz-

leak, ez zarete hobeak: edozer parasitatzen duzue eta edonor, zuen bizitza eta ingurukoena... Eskura harra-patzen duzuen edozer. Ez duzue ezer eta inor errespetatzen... *Vous faites feu de tout bois*... Ez da sutarako egoki ez zaizuen egurrik”.

Bere burua defendatzea legokioke idazleari, baina horretarako arnasa hartzeko etena egin beharko luke sikiera Pharosek eta ez dirudi isiltzeko asmorik duenik.

“Estiloak eta enparauak, esango didazu... Jakina, izan daiteke estiloa inportantea, baina nire ustez, laburbilduz, bi kantari mota daude: bizirik daudenak eta hilik daudenak”.

“*Doz tipoz zolamente*”, dio Pharosek gaztelaniaz, bere betiko umore kaustikoaz eta sekula galdu ez duen frantses doinuarekin. Tamainako pellokeria bota eta lasai arraio geratu da. Zehaztera egin du gero: “Hobe esan: gazte antza hiltzen direnak eta beste guztiak...”. Gauza bakoitzarentzat teoria bat duen horietarik da Pharos, eta bere teoriaren arabera, anglo-saxoiek, oro har, joera dute gazte hiltzeko. Izar handi eta neurotikoak sortzen ditu *mainstream*-ak, eta izar handi eta neurotikoek ez daramate ongi urteak betetzea, negozioaren ataria haiek baino hobeto kokatzen diren umemokoz nola betetzen den ikustea, bizitzaren

bultzaizeak nola zokoratzen dituen eta nola bultzaize horri kontra eginda edo egin gabe bizitzen jarraitzea nekeza bihurtzen zaien, “ez baita erraza hau: hurrup mojito bati eta laztan-nazan-eguzki, oroit dezadan oroitu beharrekoa edo lanean segi, baina dibertsio fri-boloen neurgailua ez beste fusible guztiak -klak, klak, klak- itzalita jada... *No ez facil eso: retirarse a una izla*”.

Billie Holiday, George Michael, Prince, Michael Jackson, Whitney Houston... Nahastu megalomaniari konpainia txarrak. Edo minaren kontrako sendagaiak gertuegi izan eta zuzi bat bezala gehien distiratu zenuen unea gero eta urrunago ikustea. Pospoloa eskuetan izatea, hain gertu, eta inoiz eskuetan izan uste zenuen zuzi petoa berriz, hain urrun. “Gazte hiltzea hobe”, pentsa lezakete. Esan eta egin. Esan eta ez *izan*. Hastapenetan hiltzen dira zenbait: Jeff Buckley Mississippiren ibaiadarretako batean modu misterio-tsuan hondoratzen hogeita hamar urte besterik ez zituela, goitik behera jantzita, Led Zeppelin abesti bat murmurikatzen zuen bitartean... Nick Drake amitrptilina gaindosi batekin, hogeita seirekin. Zer esanik ez Amy Winehouse aipatzen hasita, 27en kluba, Brian Jones, Jimi Hendrix, Janis Joplin, Jim Morrison, Kurt Co-

bain... Zorte txarra, parrandaren gehiegia, hiltzeko presa, deskontrola, desesperazioa.

Gutziz kontrakoa dira, hala dio Jean Pharosek, berak *kantari mediterranearrak* deitzen dituenak, urteak betetzen darraiten *crooner* italiarrak eta frantse-sak; zaharrago hiltzen dira haiek, oro har, eta asko, edonork esango luke, hil ere ez direla egiten.

“Hara, biran dabilta oraindik, edo irla greziarren batean bizitzaren erretiro samurraz eta kokainatan gastatu ez duten puskaz gozaten, lehiaz kanpo, beharrik”.

Charles Aznavour dauka Pharosek gogoan, Paolo Conte, edo amerikarretan mediterranearena zen Leonard Cohen quebectarra, “Toscanako egonaldiei eta Viagrari esker hirurogeita hamarrek ongi beteta segail eta zutun hil zena. Nina Simone bera Frantziara ezkutatatu zen azken urteetan, *dans sa maison de campagne*, eta ez da kasualitatea: minbiziak eraman zuen hirurogeita hamar urterekin”. Hau da Pharosen teoria-ren funtsa: errazagoa dela European zahartzea, zaharragoa delako Europa.

Salbuespenek ematen digute hauspoa. Peggy Lee eta Eartha Kitt, Mick Jagger eta Bob Dylan. “Alde ederra dago, bada, Bob Dylan bezala bardo antipatikoare-

na jotzen ibili edo hogeita zazpi urterekin hiltzearen artean! ". Pharosek miresten baitu Bob Dylan. Batez ere Dylanen esaldiak miresten ditu, egiaz, bereak bailira bezala erabiltzen dituenak ("Zoriontsu al zara, Dylan jauna?"; "Zoriontsu? Niri zoriona ez zait interesatzen").

Orduan aipatu du idazleak Herve Vilard. Ezagutzen ote duen jakin nahi du, baina Jean Pharosek ez dio jarraitzen utzi.

"Herve Vilard, *bien sûr!* Azken bira iragarri du berriki: 1946an jaio zen, Bon Scott jaio zen urte berean. Solaskide etsigarria izan liteke Pharos une batetik aurrera; edonor narrita dezake haren jakinduria entziklopedikoak, areago, idazlea bezala, azken hitzaren jabe izatera ohitutako norbait.

"1946... *La même année que Bon Scott*".

Vilardek zein Scottek autoa konpartitzen dute: bata auto batean hil zen; bestea, jaio. AC/DCko kantaria Alistair Kinnearren kotxean hil zen, 33 urterekin, katolikoan langa mitikoan, Kristoren adinean, mozkorraldi alimaleko baten ondoren. Herve Vilardez, aldiz, taxi batean erditu zen ama. Sei urte zituela bereizi zuten harengandik, eta Truffaut-en filmetako pertsonaien trazako bihurtu zen geroztik, Antoine Doinel gi-

sako bat, umezurtz-etxe eta adopzio bizitza gogorra pairatu behar izan zuena. Gazterik zaletu zen kanta-gintzara. Hogei urte zituela, mundu mailako *hit* bat konposatu zuen, gaur ere oraindik bere kanten artean gehien argitzen duen zuzia, melodrama puntu justuaz eta nostalgiaz ondutako kanta, orkestratua izateko egokia. Jean Pharošek kanta hura egin zenean hamar urte baino ez zituen arren, abestu egingo lizuke, eskatuko bazenio, munduko kanta guztiak dituenek kaskezurrean sartuta.

Inork ez eskatu arren, berdin abestu dio:

*“Capri c'est fini,
et dire que c'était la ville
de mon premier amour,
Capri c'est fini,
je ne crois pas
que j'y retournerai un jour...”.*

Jour eta *amour*. Erran gabe doa, Herve Vilardek ez zuen artean Capri ezagutzen. Ez zen bertan sekula izan: Parisko metroan Capriko irlaren iragarki turistiko bat ikusita bururatu zitzaion paradisu lurtarrari egingdako gorazarrea. Eta frantsesei amodiotan goiztiar

hasi eta nerabe izaki jada maitaleak luze zerrendatzeko kaier premia suposatzen zaiela onartuta ere (“*no zon maz que topicoz, ¿eh?*”), ez zegokion inola ere hogeituro urteko Herve Vilard gazteari malenkonia bustialdi despetxatu hura, lehen maitasunaren jatorria hain urrun ipintzea, non eta Caprin, non eta iragarki baten afixan ageri zen irla italiar beretzat ezezagunean, bere burua hirugarren pertsona eszeptiko eta oroitzaille bilakatzea, noiz eta hain gaztetan, artean hasiberri eta musugorri zelarik, zer oroiturik ia ezer ez zeukanean.

“Zer kontatuko didazue niri amodioaz jada ez da kidanik, hogeituro urte dauzkat, errimatu ditut *un jour* eta *premier amour*, izan ez naizen arren izan naiz izan gabe urdin turkesazko hondartza haietan, eta ez naiz gehiago hara bueltatuko, amaitu da uda eta amaitu da maitasuna, ez gara sekula Caprira itzuliko”. Eta, hala ere, bai ongi deskribatzen duela jarrera horrek hogeituro urteko sukar lehargarria, edonondik begiratzen zaiola ere gehiegizkoa eta tragikoa den jarrera, sortzeko moduaren paradigma bera: “Antzipatu naiz eta antzipatu natzaio malenkoniari, murgildu natzaizue tristezia katartiko horretan; onena eta txarrena etortzeko dau dela badakidan arren –objektiboki, hala behar luke–, lehenaldirik ez dudalako bizi dut etorkizunaren nostal-

gia, sortzaile naizen aldetik dena jada igaroa den lekuan nago, talaia hartatik kantatzen dizuet, egotzi dut nire burua paradisutik beste inork egotz nazan baino lehen; hala behar du, ez dakit zer ikusten den goi hartatik, baina utz iezadazue horizontearekin buruz buru aritzen, utzi etortzeke dagoenarekin espekulatzen, etortzear dagoen horrek benetan etortzen denean deusezta nazan gero, arrazoia ken diezadan, edo, auskalo, agian eman". Laga Rimbaud-i Rimbaud izaten, Rimbaud izaten saiatu ezean ez baitago iraunkor izan daitekeen deus sortzerik hogei urte dituzunean.

"Bereizi hau: bereizi kantari baten ahotsa eta haren bizitza", esango dizu Pharosek. "Badakit ez dela erraza, baina saiatu biak banatzen". Ahotsarekin noraino iristen den eta noraino iristen den ukondo, ukabil eta oinekin, ibilian edo arrastaka. Eta nola bizitzak eta kantagintzak elkarri lagundu egiten dioten edo enbarazu; eta nola jendeak zuk kantatzen duzuna zarela uste izateak lagundu egiten dizun edo enbarazu; enbarazu, zure bizitza amaitutzat emateraino, "*Capri c'est fini*", edo, kontrakoa, bukatu dena komedia dela ulertzeko. "*Capri c'est fini*" esatea, katartikoki malenkonioa uholde batean murgildu eta entzuleak bertara eramatea -hau ongi ulertzea komeni da-, ez da ezeren

amaiera, ez eta paradisuatik egotziak izan garela sines-
teko modua ere, baizik eta *“Capri c'est moi”* esateko
beste modu bat, errealizazio bat, diskoko orratza,
cd-aren laser izpia, ordenagailuaren konpresio bina-
rioa bitarte (*“tu comprends, dis?”*). Bi eratako kanta-
riak baitaude Pharosen ustez, esan dugu: hilak eta bi-
ziak, zero eta bat. Eta, halere, esan liteke kantariak
badaukatela hilezkortasunarekin tratu faustiko bat
beste inork ez daukana, kanta barruan denak daudela
bizirik -edo, beste era batera esanda, denak hilik ha-
siera-hasieratik: zer kontenplazten du kantariak bere
ahotsa grabaturik entzuten duen bakoitzean, bere he-
riotzaren aurrerapena ez bada?-. Hildako lagunak
ahotsa ahanzturak irensten duen lehen gauza izan
arren, salbuespenaren pribilegioa daukate kantariak.
“Un privilège unique”, esango dizu Pharosek, txinpar-
tak begietan. Aktoreek ere badutela pribilegio hori
erantzungo dio idazleak. Baina ezetz Pharosek, hori ez
dela zehazki horrela: aktoreen aurpegiak geratzen di-
rela batez ere, ez horrenbeste haien ahotsak. “Akto-
reak, ahoa eta begiak ongi edo gaizki zabaltzen daki-
ten txotxongiloak baino ez dira, jostailu singleak edo
genetikak bedeinkatutako altzari sofistikatuak”, esan-
go dizu (*“les marionnettes, les meubles”*).

Herve Vilard baino urtebete geroago jaio zen Fakirra, 1947an, eta gaur bisitan etorri zaion idazleak Pharosi esan dionez -hau ezin lezake hark inolaz ere jakin-, lehen diskoa baino lehenago, 1966ko udazkenean, Antigua auzoko villa batean grabatu ei zuen bere lehen kanta erregistratua izan zitekeena, haren dantza taldekoekin ibili ohi zen ezagun batek erosita-ko gailu batean. Erdi txantxetan egindako bertsio jostari bat zen, izatez, idazlearen arabera. Eta kantariek hortxe ematen dute beren onena: euren burua serioegi hartzen ez dutenean.

Harritu egin da Pharos hori entzutean. Fakirraren grabazio galdu bat, amateur batek egina? Duela berrogeita hamar urte izan zen hori, eta duela mende erdi ez zeukan edonork grabagailua etxean.

“Grabatu dezagun zerbait”.

“Baina zer?”.

“Nahi duana. Trastea probatzeko modua izango duk”.

“Kanpoko zaratarik ez duk sartzen?”.

“Sartuta ere bost, bare zagok giroa. Ea ba, denok isilik orain!”.

Pentsatuta edo pentsatu gabe, Fakirrak kanta hura hautatu zuen, Herve Vilardena, modako kanta, uda

guztietako berbera: *Capri c'est fini*. Hala esan dio idazleak Pharosi, “zinta honetan egon daiteke Fakirraren lehen grabazioa”. Pharosek hasperen eszeptikoa egin du.

Sekula Fakirrak grabatu zuen lehen kanta hura izateak, esan dio Pharosi idazleak, bere patuarekin luke zerikusia, ironikoki. Zeure burua modu goiztiarrean paradisutik egozteak, zuhurra da ala masokista? Gertrude Steinek esan ziola uste da: “Picasso jauna, egin didazun erretratu horrek ez du nire antzik batere”. Eta Picassok erantzun: “Egon lasai, egunen batean zuk izango duzu-eta erretratuaren antza”. Edo beste era batera esanda: “Tristezia hau ez dagokit niri, malenkonía hau ez dagokit niri, nostalgia hau ez dagokit niri...”. Eta horri erantzun: “Egon lasai: egunen batean egokituko zaizu”. Egokituko zaizkizu. Tristezia. Malenkonía. Nostalgia.

Edo gordinago esanda: “Heriotza hau ez dagokit niri”.

“Egon lasai, egunen batean egokituko zaizu”.

Ezerk ez baitu irauten, zirriborroak ez bada.

Hori da funtsa ulertu nahi duenarentzat: kantatzen duzun abesti horrek ez izan arren gaur zurekin zerikusirik, denboraren poderioz zeuk izango duzula haren

antza. Intimoki dakizu hori, egunen batean zeu gera-tuko zarela kanta horren barruan kaiolatuta, itzuliko zarela noizbait kanpaleku honetara. Utzi badaezpada jan-edanak eta lo-zakua kantaren barruan, denak beharko dituzu eta itzuliko zaren egunean.

“Kanta bat, finean, leku bat da, okupa daitekeen espazio bat”, esan dio idazleak, pedanteria apur batez.

Pharosek ezezkoa egin du buruarekin, horretan ere ezin duela idazlearekin bat etorri.

Kanta bat hasperen bat dela. *“Un souffle, un suspiro”*.

Ez da exajeratu behar ahoskeraren kontua. Frantses doinua gorabehera, batzuetan ongi esaten ditu eseak Pharosek. *“Suspiro”*, adibidez, ongi esan du. Eta Homerok ere ohartarazi gintuela erantsiko du gero, “jakingo duzu, idazlea zara”, Akilesen ahotan jarri zuela hura: bizitza ez dagoela ez lapurtu eta ez erosterik, eta eztarritik alde egiten dizula beti –*“eztarritik, ulertzen?”*–, eta behin galdu duzularik, ez dela berriro itzultzen.

Gero esan du kanta bat denbora dela. Denbora enkapsulatua. Besterik ez.

“Argazki baten memoria laua da. Kanta batena, berriz, hedakorra”.

Isilik geratu dira biak tarte batez, grabaketa estu-dioko aire girotuaren txistua adi-adi entzuten.

Pharosek oso ongi ezagutu zuen Fakirra. Hainbat diskotan izan zen bere soinu ingeniaria. Estimatzon zuen.

“Je l'aimais bien ce couillon”.

Idazleak, bere aldetik, apenas ezagutu zuen. Haren aitak bai, ordea.

“Izatez, gure aita izan zen 1966an bere lehen sol-datarekin magnetofonoa erosi eta Fakirrari kanta hura grabatu ziona. Berea da zinta. Bobina bikoitzeko aparaturik ez da jada etxean. Aspaldi bota genuen harri-ka, mudantzaren batean galdu zen, astuna zen eta leku gehiegi okupatzen zuen. Aparaturik ez dugu etxean gordetzen, baina zinta bakar hau bai... Entzuteko bi jira-gurpil behar dituzten aparatu horietako bat bazenu...”.

“Revox, ze llaman”.

“Ez nekien”.

“En fait, ça s'appelle Revox”.

Ematen duena baino sinpleagoa da, baina badu artisau lanetik. Hartu zinta mutur bat eta erantsi bobi-

na hutsean. Gero, sakatu *play*. Zinta horiek urte luzez mugimenduan jarri ezean, ordea, ezabatu egiten direla ohartarazi dio Jean Pharosek. Eremu magnetiko jakin batean sartuz gero ere, berdin gerta daitekeela zinta hutsik egotea.

“Entzun dezakegu?”.

Nagia ematen dio Pharosi. Badaukala tresneria egokia estudioan, baina denbora beharko lukeela dena prestatu eta gertu izateko. Ez izateko itxaropen lar, dena den: “*Puede que ezté completamente vazió*”. Askotan etorri zaizkio zinta eta kasete zaharrekin aspaldiko ustezko grabaketen magiaren pagotxa eskaintzera, “dokumentu historiko bat” eta abar, baina esperientziak diotsa gehienetan ez dela halakorik gertatzen.

Idazleak ulertzen ditu erreparo horiek, prest dago dezepziorako, eta zinta entzungarri izanik ere, bera ere jakinaren gainean dago oso litekeena dela Fakirra-ren ahotsaren erregistroa hor ez egotea: “Gure aitak-eta gainetik grabatzen zuten, zer zekiten haiek, nola jakin garai hartan Fakirra *norbait* izatera ailegatuko zenik noizbait, kantari ezagun bat, bai zera”. Baina, hala ere..., polita litzateke *Capri c'est fini* kanta bertan egotea; amaiera biribila liburuarentzat. Idazteke due-

lako oraindik azken atala, huraxe falta zaiola aitortu dio idazleak. Bo. Pharosek ezagutzen ditu bere kasta-koak: komertzialki erabili nahiko du, liburua-ren sal-menta kanpaina *verité* apur batez hornitu, “dokumen-tu ezezagunaren” xarma, aurkikuntzaren primizia. Ba-dirudi idazleak Pharosen pentsamendua irakurri duela, hizketan jarraitu baitu: “Polita litzateke, ez ezerगत, kanta honek esan nahi duenगतik baizik. Lehen genioena: garai hartan Fakirrak abesten zituen kanta konbatiboetik ez delako, baizik eta zerbait askoz friboloagoa, olgetarakoa, denbora-pasakoa...”. Profetikoa ez ote zen kanta hura? Frantsesetik abestua, gainera, eta ez euskaraz, ez hizkuntza debekatuan. Frantsesa zen modernitatearen hizkuntza sasoi har-tan. Zoriak nahi izan zuen Fakirrak Parisera ihes egin eta erbestean pasatu behar izatea hainbat urte. Kanta hura grabatu zuenean oraindik ez zekien fitsik horre-taz, jakina.

Idazleak aitortu dio, zinta bere kartoizko kutxa ka-ratuan Pharosen esku utzi aurretik, Fakirrari buruzko nobela idazten zuen bitartean zinta aldean eduki duela denbora guztian. Arren ongi zaintzeko eskatu dio, ikusten da kosta egiten zaiola fetitxea inoren esku lagatzea.

“Ne t'inquiète pas. Reviens dans deux jours”.

Luze egingo zaizkio bi egun hauek, baina hainbeste hilabete itxaron badu, egongo da zain beste egun pare batez ere, ala?

Ezerezak ere batzuetan laguntzen duelako aurrera egiten; ezerezari edo itxaropenik ezari itxaropen tanta bat eranstea aski delako zenbaitetan, gehienetan, ia beti. Itxaropena ezjakintasuna da kasu honetan. Ez jakitea zinta horretan Fakirraren ahotsa aurkituko ote duen ala ez.

BIZARDUNAK

“Non ibili haiz bart?”.

Etxe apal bateko semea da Imanol Lurgain. Apal, neurri bateraino, badutenez badaezpadakotasunaren luxua. Bi manteleria joko dituzte gurasoek, baina horietako bat, dotoreegia delakoan, ez dute sekula erabiltzen, *badaezpada*. Badaezpada, zer? Ingalaterrako erregina tea hartzera noiz etorriko zain daude? Mila-hariko mihiseria fin hura epe luzerako inbertsio antzeko bat da, edo bizitza aseguru baten funtzioa betetzen du. Sineskeria bat da; manteleria ukigabeak garbi eta salbu dauden bitartean, salbu geundeke gu. Sardexka-koilarak, beste hainbeste: igandeetan soilik ateratzen dituztenei “zilarreria” esaten die aitik, nahiz eta ez diren benetan zilarrezkoak. Koilara da musika-tresna erabiliena plater sakon lozazkoetan tin-tin; burgesiaren seinalagarri litzateke sardexka koilara baino maiztuago egotea, eta ez da hori kasua. Labanak zorrotz badaude, janaria hezurretik bertan deus laga gabe banatzeko intentzioagatik da, ez nork bere xerra sarri-sarri jateko ohitura duelako. Badator txorroskile-

roa bizikletan: duintasun kontua da labanak ez kamus-
tea, dotorezia ebazteko modua ia. Seme-alaben gal-
tzak lisatu aurretik patrikatan ahaztuta geratu diren
txanponak Orlando tomate poto batean gordetzen
ditu amak, Margaritak. Txanpon horiek dira aurreztu
dezakeen guztia. Ez zaio jatekorik falta izan sekula,
baina xumetasunaren eta ordutegi estuen eskolan
hazia izan da Imanol. Bost senidetan gazteena, gizo-
nezko bakarra da bera, lau ahizpen ondoren jaiotako
bihurri kontsentitua. Ez du, honenbestez, txikiegi ge-
ratutako arropak herentzian jasotzeko anaia nagusirik.
Horren orde, emakumeen eguzki epelean hezia,
muxu, mimo eta karizia, gaztetatik garatu du saldotik
bereizteko pitxia single edo kolore deigarri batek izan
dezakeen garrantzia balioesteko sena. Aitaren figura
salbuespena da eta gutxiengoa bere etxean.

Arrebak sukaldean izarak biltzen, aurrez aurre.
Hori da oroitzen duen lehen gauza. Hori da oroitzen
duen lehen dantza: ertzak ertzarekin bat etortzearen
magia eta poza. Izara tolestea, inoren hatzak zureekin
ukitzeko aitzakia. Handia eta zabala zena, laukizuzen
bihurtzen zen eta armairuko kaxoian gordetzen, mihi-
seria ukigabeen gainean. Labanda eta lila usaina dago

geletan. Argizariarena pasilloan. Arrain-zoparena sukaldean.

Vespinoan ibiltzea maite du eta haizeak aurpegian eman diezaion, baina, aita jauntxo baten txoferra duelako, Imanoli ez zaio autoa gidatzea sobera gustatzen. Nahiago du besteek eraman dezaten. Kontzientzia soziala eta klase kontzientzia hortik ote datozkio, aitaren txofer lanetik beretik? Inoren zain eta inoren zerbitzura bizi den aita zintzo baten ispiluari begiratuta ikasi du ez duela inoren zain eta inoren zerbitzura bizi nahi. Ez lanean eta ez beste inon. Gurasoak ispilutzat hartu behar baitira, baina ez sekula autorretratutzat. Desenfoke azkarra bilatzea da nerabearen errebeldia, eta batez ere, ispiluari garaiz ihes egitea.

“Non ibili haiz bart?”.

“Dantza taldearekin, entseatzen”.

Amen-amen. Ohitura kristauak badira etxean, eta ez gutxi: konfesioa eta penitentzia, lehengusu-lehengusinen bataio eta jaunartze bazkarietako argazkiak. Gero, kristauak izan arren gustagarri diren ohiturak ere bai. Zenbait baraualdiren ondorengo oturuntzak. Erramu egunean adar bat bedeinkatu eta sarrerako atean jartzea. Nori ez zaio erramuaren usaina gustatzen? Eta, are garrantzitsuagoa: nori ez zaizkio atepak

gustatzen? Erljioak baditu bere moduak etxeetan sartzeko.

Imanol fantasia eta barne mundu handiko haurra zela berretsi zuten berehala gurasoek, begirakune pentsakorrekoa, baina miopiak zeukan erruaren parte bat. Betaurreko biribilak jarriko ditu nerabezaroan, ar-mazoi arinekoak. Laster utziko du bizarra luzatzen, nahiz eta dantza taldean hasi berritan egunero moztu. Garaiak eskatzen duelako edo ongi ematen diolako lagako du bizarra. Azken lerroan jartzen dute beti taldean, baldarra delako eta altuegia dantzarako.

Bere adiskide Juanjo Bengoak konbentzimendu handiz esaten duen bezala, "Franco diktadorearen es-terminio kulturalaren kontra borrokatzeko dugun modua da dantza taldea". Zer egiten dute Franco dik-tadorearen kontra? Bada, dantza. Dantza bakarrik?

"Non ibili haiz bart?".

"Dantza taldearekin, entseatzen".

"Hain berandura arte?".

Burua apaldu eta arrain-zopa hurrupatu du Imanolek. Ez du erantzun.

“Kontzertu klandestino bat, Ibaetan”. Zabaldu da zurrumurrua. Eztabaida denez aurrerabidearen bisagra, asanbladan eztabaida daitekeen kontua da kantiariaren bizarra ala lokalaren zokoa ote den ilunagoa. Lehoiaren ilajea, txima-bizar gazte eta sarri haietako ile bakoitzean hasten da dena. Tabako hariren bat geratzen bazaio inori bizarrean dilindan, nekez nabaritu-ko da, kolore berberetako delako, kamuflaje iluna, tabako zein bizar. Sinetsita daude iraultza eguzki-lore bat dela, bere burua argirantz jiratzen duena. Baina argirik ez bada, orduan zer?

“Aizu, aski da! Pikutara eguzki-loreak: metaforak burgesak dira”.

Ate ttipi bat, eskailera batzuk. Soto krakatsu bat besterik ez da lokala. Kantaldia hasita dago jada. Aintzakotzat hartzeko beste xehetasun bat: zigarroen keak pitzatutako giroa dela kantategiaren erdia. Celtas gehienbat; agian Bisonte bakarren bat. Ideales, beharbada? Amek eta izebek trikotatutako artilezko jertseetan lapatuta geratuko da zigarroen usaina; tabako gogorraren kirats zaharminduak moztutako die arditik dutena. “Artaldearen premia duzulako dakizu ardi bat zarela”. Erretzaile zein ez, denek dute usain berbera, norbere izerdiarenak soilik ñabartua. Zutika-

ko esekitokietan, etxe mokekatuetan barrena, tabakoa-
aren kiratsa salatuko duten bandera mortuak izango
dira panazko jakak bihamunean.

Soto hain ilun eta ezkutuan are zirrargarriagoa da
“kaleak hartzeari buruzko kanta” entzutea. Satorra-
rena jotzen ari dira satorzulo hartan, baina, sinetsita
daude hala dela, satorra bilakatzen hasia da azeri.
Otsoari burua mozteaz ari da kantaria: ez da zentsu-
rari itzuri egiteko pentsatutako irudi sotilik han.

Katakonbatan bilduta daudenentzat kanta ez da
deus lirikoa. Are gehiago, susmagarria litzateke lirika:
deiadar bat da kanta, lotura guztietatik askatzean ate-
ratzen den harrabotsa.

“Antigua auzoko lagun batek abestuko du orain”.

Hainbeste buru kalpartsurekin ezin haren aurpegi-
rik ikusi. Mikrorik ez da, jakina; ozen hitz egin behar du
aurkezleak eskailerapekoek entzun dezaten.

Kantari hau bada zerbait ezberdina: ahotsa lakarra
du eta ahalko balu ere ez luke leundu nahi, energia
eta indar gehiegi inondik ere, ezin disimulatu, ezin de-
zake dosifikatu ere. Neska batek -agian bere arreba
batek- behin esan zion: “Ahots polita daukazu”. Sus-
traitu zen laudorioa lur samurretan. Egoa sinesbera da
eta nonbait finkatu behar ditu atzamarrak. “Ahots po-

lita daukazu”. Jabetu gabezegoen. Egia da, eta, gainera, sinetsi egin du. Bi gauza diferente dira, eta biak dira inportanteak.

Kaleko hizkuntza erabiltzen du bere kanten letretan, eta erabili ahala jaso eta gogoangarri bihurtu. “Lehengo batean, kalearen erdian...”. Denok ikusitako gauzak. Denok entzundako gauzak. “Ez bezatu hitzak, ez bezatu ahotsa. Aldarri bat da, nabaritu dadila hala dela”.

Lokalera jende berria sartu ahala, lepoak jiratzen dira, jakin-minez eta beldurrez. Beldurrez eta jakin-minez begiratzen dute barrurantz sartu berriek ere.

“Nor da tximaluze hori?”.

“Betaurrekoduna? Imanol izena duela uste dut”.

John Lennonen antzekoak ditu Imanol Lurgainek betaurrekoak, ttipi eta biribil. Sorbaldaraino erortzen zaio tabako koloreko ile sarria.

Etxera eramango duten panfletoa da soto iluneko ke artean konpartitutako ereserki bakoitza. Hatzek zakar kolpatutako gitarra -bi akorde doi, ez dakizki askoz gehiago-, salaketari laguntzeko aitzakia hutsa. Buila eta txaloa. “Jendeak badakizki leloak eta nik ez, atzeratuta nabil”. Atzenduta geratu nahi ez duena, entzundakoa ez jakiteaz lotsa dena, lotsak darama ikas-

tera eta ez kantaren mezuak. Lotsak garamatza, baike, zer ikasten dugun oso ongi jakin gabe, gauzak presaz ikastera.

Eta etorkizuna gu jabetu orduko iragan bihurtzea, modu barkaezinean litzateke lotsagarri.

“Gaur aurrekoan baino jende gehiago etorri da, ala?”.

Gero eta gehiago dira. Hala uste dute. Hala kome-ni zaie sinestea.

Txalo klandestinoak. Gora eta goraren baten ujua tarteka; deiadarren bat berandu iritsi eta letrarik ez zekienak bere burua justifikatzeko, ausarkeriarekin norgehiagokan (“entzungo ote da hau dena kaletik?”). Hondartza ertzeko olatuetara hurbildu bai, baina bus-titzen ez diren oinen lasterka herabea. Irrintzirik ez, gaur. Txapela pasatu dute, “dirua presoentzat da”.

Iraultza eta kontrairaultza, dena egiten da entzutez. Inork zerbait aditzera duelako. Aditu eta entzun-dakoa sinetsi, eta horren ondoren, erabaki bat hartu, zenbat eta zenbat aldiz izan da horrela? Gutxi gorabe-herakoa denik sinetsi gabe “entzutez” dakigun hura, lelo irmoegi edo testigantza badaezpadakoegi bat aditu ondoren ahotan hartu eta behin eta berriro erre-pikatu dugu: eroso dago eztarrian, sortzez gurea balitz

bezala. Entzunez eraiki, entzundakoaz fidatuz. Eta berdin deseraiki, mesfidatu, iraindu. Gutxi gorabehera bihurtzen gara garena, entzutez eta ezarian. Hausnarketak ez du hor tokirik; inori entzundakoak geure ez-tarrian hartzen duen lekuaz besterik ez gara ari. Belarritik ahora dagoen distantzian ebazten da ia dena.

1967ko salbuespen egoeraren ondoren, norbaitek *kantatu* du eta kantaria salatu. Imanol bederatzi egunez eduki dute ziegan atxilo.

Egon da hamabi orduz hormari begira eta pentsatu du horma hori begiradaz txikitzea zein litzatekeen eder, baina horma ez da mendrenik ere higatu. Betaurrekoak kendu dizkio uniformedunak eta galdeketa gelako mahai gainean paratu. Betaurrekoez gabetzea destolesteko modu bat da: haietatik gandutsu ikusten du orain bere burua. Aspaldi jabetu zen honetaz: betaurrekoak erantzita hitz egiten badiote, errazago ahazten dituela esaten dizkietenak. Begiekin ere entzuten da, nonbait. *“Más te vale cantar”* horren serio esan diotenean *–“pero si ya canto”*, bere artean-ohartu da ez daukatela bere kantaldi klandestinoen berri. Kemena eman dio horrek.

Imanoli malkoak ateratzen zaizkio hormaren kontra burua bultzatu eta borrarekin sudurra zanpatzen diotelarik. “Zerriak”, esaten dio bizkarretik aurpegirik ez duen ahots horrek, “zerri zikinak: inurriak bezala zanpatuko zaituztegu”. Inurri erraldoiak ikusten ditu bere irudimenean Imanolek, zerriak bezain handiak diren inurriak. Segidan, ordea, hatz puntez birrindu daitezkeen zerri ttipiak ikusten hasi da, inurrien eskalakoak. Inoren inkongruentzia bihur liteke gure indargune: “Aklaratu hadi: zerriak gaituk, ala inurriak?”. Eta gero, bestea etorri da, *polizia zintzoa*, odol orbanez eta zorritz betetako manta horrekin. Dardarka dago, baina uko egin dio tapakiari.

“¿Qué pasa, que la manta no es lo suficientemente buena para ti?”.

Egurtzen duten bakoitzean Hernaniko azeri-dantzarekin gogoratzen da, jaietan bizkarrean maskurikolperik ez jasotzeko nola ibiltzen ziren dantzari bu-ruhandiengandik iheska. Bederatzi egunez ez du abesten eta ez du *kantatzen*. Ezta bere arreba guztiak banan-banan bortxatuko dituztela esaten diotenean ere.

“Son muchas, pero no vamos a dejar ni una, ¿verdad? Por mis huevos que las vamos a poner a todas mirando a Cuenca”.

Listu zein odolbildu, irentsi egiten ditu biak, haiek ahotik botaz gero gorputzaren zati bat galduko duen beldur. Ubeldurak dira gutxienekoa. Baina zer esan buruko minaz. Burukomin horiek hil arte pairatu beharko ditu, horma baten aurrean edo igogailu bateko ateari begira hogeita hamar segundo baino gehiago pasatzeko ezintasun patologikoarekin batera.

Txofertza laneko uniformeak soinean duela jaso du aitak komisaldegian. Arrotza egin zaio haren besarkada. Aurpegiko ubelduez, ez dio ezer galdetu. Autoko maletategia ireki du aitak zerbait erakusteko.

“Amak eta biok gitarra berri bat erosi diagu”.

Ahaztua zuen. Bere urtebetetze egunean atxilotu zuten. Bigarren gitarra bat erosi diote. Badaezpada?

Elizako sotora poliziarik sartzen ez denez, parrokie-tan elkartzen dira. *Kaptazioa*, hitz inportantea da hori: mezua badu norbaitek, baina mezua helarazi egin behar da, mezuak iritsi egin behar du lekuetara, mezua barneratu egin behar da eta hitzetik hortzera

lau haizetara hedatu; ez da jende guztia ideietara aldi berean iristen. Koldar pasiboak konplize bihurtu behar dira, badago zeregin franko: papera lortu, inprenta lanak, multikopistak, vietnamitak, propaganda eta buzoneoan lagunduko duten bolondresak behar dira, materialarentzat ezkutalekuak, pintadak egiteko jendea.

Tabako usainari erantsi: tinta beltzarena.

“Nola antolatuko dugu hau?”.

Iraultzaileak katekistei txanda hartzen ari dira elizaren lokaletan. Txanda hartu beharrik ere ez: batzuetan berberak dira. Natxo Neira, esate baterako, katekistaren semea. Badira gizonezkoak, nahiago dutenak beste gizonezkoen arrimuan dantza egin emakumezkoekin baino, gizonezkoen artean intimitatea sortzeko aukerak ere badirelako dantza taldeak; izarak toles-tean bezala, aitzakia bat inoren hatzak norberarenekin ukitzeko. Bitartean, ezpata-dantza, mutil-dantza, arin-arina, fandangoa, irradakak. Tartean da Imanol, oraindik *Fakirra* ezizena inork jarri ez diona. Eta tartean da Juanjo, oraindik inork *Bekaintiro* ezizena jarri ez diona. Eta tartean da Carmen, oraindik inork *Mata Hari* ezizena jarri ez diona.

“Gitarra berria?”.

“Aurpegia bezalaxe, ez al dun nabari? Komisaldegikoen opari”.

Korrea berak erosi du, Ervitin. Peruko indigenek egina, saldotik bereizteko pitxia single edo kolore deigarri batek izan dezakeen garrantziaren jakitun.

Juanjok eta Carmenek bigarren ahotsak egiten dizkiote.

“Ez deitu bigarren ahotsak: hemen denok gaude lehen lerroan”.

“Ez al da horrela politagoa geratzen?”, Carmenek.

“Inporta zaigu ba guri asko, *politagoa* izatea!”, Juanjok.

Bertsiorik soilena hautatu dute.

Kantak eta kopia tradizionalak jasotzen dituzten paperak pasatzen dizkiote elkarri, eskuz kopiatuta. Ramon Yoldi ezagutzen duten arte: idazmakina daukan bakarra da taldean eta azkarrena mekanografiatzen. Berez etorri zaio goitizena: *Teklas*. Larruz enkoadernatutako liburu baten dotorezia du haien begietan makinaz jotako paper sorta grapatuak. Aski da aza-lean koloretako kartulina bat jartzea.

“Chistu y tambolín”.

“Chistu y tambolín, ¿y qué más?”.

“Chistu y tambolín, señor”.

“No me has entendido: ¿de qué tipo de actividades estamos hablando?”.

Carmen gerarazi dute bezperan kolean. Estu hartu dute.

“Nebarekin nindoan... Negar batean hasi zuan Jo-sutxo, izututa. Baina eskarmentua eman nahi zidaten bi polizia potzolo besterik ez zituan”.

“Eskarmentua haiei eman behar genieke guk”, Juanjok. “Hemen gauzak latz aldatuko dira aurki”.

Elizako sotoetan egiten denez dena, bertan grabatu dute Imanolen lehen diskoa ere. Lehen disko hau izango da bere karrera osoan izengoitiarekin argitaratuko den bakarra: Gilles Larramendy. Iparraldean egingo dituzte gero kopiak, Baionan.

Grabazioa fabrikara bidali aurretik kezka bat sortu zaie:

“Ezizenarena ongi zagok, baina... Eta ahotsa eza-gutzen badute? Orduan hireak egin dik, Imanol”.

Ahotsa, ahotsa beti. Bakarra eta ezaguterraza baita Imanolena.

Diskoak 33 rpm edo 45 rpm-etara birarazi daitezke. Norberak hautatu behar du biniloa etxean xixta-tzen duenean, grabatua izan den abiaduraren arabera. Tronpatuz gero, efektu azeleratu eta desazeleratu

celebreak sortzen dira: marrazki bizidunetako pertsonaia berriak hitz-jarioak edo ahots lodi eta satanikoak.

“Zenbat erreboluzio minutuko, esan duk?”.

Zorriek ez dute: beti ekibokatzen dira hasieran; 33 rpm-koa 45 rpm-etara jartzen dute, eta alderantziz.

“Eta fabrikara bidali aurretik ahotsa motelduko bagenu? Nekez ezagutuko lukete horrela”.

Halaxe egin dute: Imanolen ahotsa distortsionatu, abiadura aldatuta. Apur bat mozorrotu, ezberdin entzun dadin. Erreboluzioen garaia da eta grazia egiten dio erreboluzioak aldatuta bere ahotsa ez ezagutzeko moduan argitaratuko dela jakiteak.

Haiek ez bezala, profesionalizazio eske dabilta beste batzuk: kontzertuak eman eta kobratu egin nahi dute trukean. Prest daude zentsuraren uztaitik pasatzeko. *Interpreteak* dira, *artista* estatusa nahi dute, *variedades* karneta. “Horiek ez daude burutik sano”, pentsatzen du Bekaintirok. “Bila dezatela benetako lan bat”, pentsatzen du Mata Harik. “Hileroko jorrala nahiko dute, gainera!”, pentsatzen du Fakirrak. Imanolek ez du sekula kantaldi bat emateagatik kobratu. Ogitarteko bat edo afari bat, asko jota. Nola kobratuko du, bada? Iraultza egiteagatik kobratu?

“Dibino saldoa da Ez Dok Amairu, komisaldegietan torturatzen den bitartean aingeruen sexuaz abesten duena. Haiek beti libre, haiek beti perfumaturik”.

Mokofin kuadrilla galanta iruditzen zaie talde hura guztiei. Guztiei, katekistaren semeari, Natxo Neirari salbu. Neirak bereizi egin nahi lituzke artea eta politika.

Antiguan Vespinoa hartu eta atzealdean Juanjok gitarra zorroan daramala Oriorainoko bidea egin ondoren, ezkutuko kantaldia eman dute elkarte batean. Ez tarri erlatsa duen arren, Juanjok lagundu dio *erretagordiako ahotsekin*. Ez dira *bigarren ahotsak*, ados, baina gustu txarrekoa eta elizkoia litzateke *koruak* direla esatea ere. Itzulerakoan, Vespinoa gasolinarik gabe geratu eta oinez egin behar izan dute ordu txikitetan Aginagatik Usurbilerainoko tarte: euripean anguletara atera diren ontziak baino ez dira ikusten iluntasunaren erdian, lanparatxo laruen artean dir-dir eta kulunka. Usurbilgo frontoian egunsentiari itxoin eta tailer batean eskatu dute hurrengo gasolindegiraino heltzeko erregaia. “*Shell o no shell*, hori da kuestioa!”. Txinoak edo troskoak izatea komeni den eztabaidan harrapatu ditu egunsentiak.

Gau hartan sortu da beraien arteko esamolde konplizea, une hartatik aurrera hitzetik hortzera erabiliko dutena: “Noski, Trotski”.

“Galdera bat eginez gero, erantzungo didak?”.

“Noski, Trotski!”.

“Larrutan egin al duk sekula?”.

“*Nao, mao... Mao-o-meno... Tse Tung*”.

“Hori baiezkoa da ala ezezkoa, Imanol?”.

“Noski, Trotski!”.

“Alegia, ez”.

“Egia esan, ez”.

Txantxa lehenbizi, egia gero. Kostata, baina egin dituzte Baionako Kordelierren karrikako Goiztiri etxean lau kantako disko txikiaren kopiak. Borrokarako disko bat da ezinbestean Gilles Larramendy ezizenaren pean atera dena. Azalean, kartzelan dauden hiruko talde pila bat irudikatu ditu haien adiskide batek barroteen atzean, tinta trazu sotilekin. Beste batzuk berriz, dantzan marraztu ditu, festan eta danborra jotzen. *Ez dugu jairikan behar eta Hik eta nik* kantak dakartza 45 rpm-ko diskoak A aldean. B aldekoak berriz, *Langille batek dio eta Atzo, gaur, bihar* titulatzen dira. Kontrazalean esaldi hau ipin dezaten eskatu du: “Za-

palduta dagoen Euskadi guziari diska hau eskeintzen diot".

Boikoterako deia egin dute Mata Harik, Fakirrak eta Bekaintirok, dantza taldea Natxo Neira eta bere ki-deen esku geratu eta Ez Dok Amairurekin elkarlanean hasi denean. Ez dezatela gehiago haiekin kontatu.

"Hona dantzara gatoz, beste kontuak, hemendik kanpo. Hau ez da politikarako tresna bat", leporatu die Natxo Neirak. Ez daude guztiak harekin ados, baina katekistaren semea izateak badauzka bere abantailak: berak bakarrik dauka entsegu-gelako giltza.

Akabo dantza, ongi etorri kantagintza. Hendaiako etxetresna elektrikoen denda batean saltzen dituzte diskoak, telebista, garbigailu, hozkailu, irrati eta musika ekipoen artean. Han erosita pasatzen dituzte mugan barrena, ezkutuan, batzuek zein besteek. Zerbait egiten dutela sentitzen du jendeak, estraperloan dabiltzala, beren xumean mugarrien garraio. "*Contrôle des passeports*", "*Rien à déclarer*".

Ohitura da Frantziako muga igarota Espainian zentsuratzen diren filmak ikustera Hendaiara joatea. Beldurra pasatzen dute poliziaren garitaren aurretik igarotzean. "Eta beldurra pasatzea bada jada apur bat iraultzaile izatea, ala?", zuritzen dute euren burua.

"Salga del coche, abra el maletero", "Chistu y tambo-lín, ¿y qué más?", "No me ha entendido bien, ¿de qué tipo de actividades estamos hablando?". Polizia espainiarrak lehenbizi, frantsesak, gero. Eta alderantziz, itzulerakoan. Baina merezi du beldurra pasatzea, disko klandestino bat -altxor bat- badakarzu autoan ezkutatuta. Gaur pasatutako beldurtxo bakoitza beldurrik gabeko etorkizun baten alde egindako trabes ttipia da. Kuba, Vietnam, Aljeria... Orokorra da oldea eta saihetsezina. Inork ez du iraultza hartatik kanpo geratu nahi. Iritsiko da eguna eta prest egotea kome-ni da.

"Zerbait egin behar da libertatera heltzeko, ala? Bakarrik ez da iritsiko".

"Noski, Trotski!".

Txabi Etxebarrieta etakideak Pardines guardia zibila hil du. Segidan Guardia Zibilak hil du Txabi Etxebarrieta, segada batean. 1968. urtea da. ETaren lehen hildakoaren eta lehen etakide hilaren urtea. Horretaz ari da Juanjo gauzak errotik aldatuko direla esan duenean?

Dantza bakarrik? Egin zerbait zuk ere: vietnamita etxean gorde egun batzuez, besterik ez bada. Lantzean behin zeure burua beldurra pasatzera derrigor-

tu, arrazoiarekin edo gabe; zerbait egiten ari zarela, zerbait egin zenuela -oharkabeen etorkizunean koka-tzen dira jada pentsamenduak-, zenezakeen doitxoak, hori justifikatu ahal izateko inoiz, gaur bertan, hemen eta orain, zeure buruari.

Ez “ni han izan nintzen”, baizik eta “han ibili ginen gu ere”. “Han ibili ginen gu. Ez Natxo Neira sasikume hura bezala”.

“Prest zaude gehiago konprometitzeko?”.

Bero da Renault Dauphinearen barruan. Garrantzi-tsua da galdera inportanteak autoa geldirik dagoela egitea. Autoak zarata handiegia ateratzen du bestela, motor hotsak solemnitatea eragozten du. Errepide bazter honetan ez da inor ageri, baina leihatila itxi du Juanjok, zer gerta ere. Eskularru-kutxaren azpiko al-fonbran orban lehor handi samarrak daude, lokatzare-nak diruditenak eta odolarenak direnak.

“Orain badakizu zer eskatuko dizudan, ezta?”.

Jakina badakiela. Hilabeteak dira Juanjo harat-honat dabilela. Apenas ikusi du Imanolek azken asteo-tan.

“Prest zaude gehiago konprometitzeko? ETak gu bezalako jendea behar du”.

Bekaintirok baiezkoa jasoko du, badaki hainbeste, baina nahi gabe erabili du “gu” hura azken esaldian, eta, aurrerantzean ere kaptazioaren ataka hartan tokatuz gero, formula berbera memorian gordetzea ideia ona izan daitekeela otu zaio. “Prest zaude... *gu* bezalako jendea... *du*”. Zu, gu, hark. Interpelazioa, inklusioa eta helburuko hirugarren pertsonaren prestigio urruna, hurrenez hurren eta tarte laburrean modu bilgarrian formulatua. Zaila da minutu batean ezezkoa erabakitzea, hazia, lurra eta loreontzia aldi berean eskaintzen zaizkizunean.

Berehala eman dio hasperen baten ondoren zehaztapena dakarren baiezkoa:

“Baina nik ez diat armarik hartuko, armarik ez”.

Juanjo Bengoak lasaitu egin du laguna; ez kezkatzeko, lau fronte daudela eta “toki asko lan egiteko”, fronte kulturean ikusten dutela bera baliagarrien.

“Hiruko talde bat sortu behar duk, ezizenekin funtzionatu. Esango diagu aurrerago zer egin”.

“Carmen eta herorri, hirurok, Juanjo?”.

“Nik badiat jada beste talde baten ardura. Aspal-dian nagok barruan. Carmenekin hitz egin, nahi

baduk. Baina hemendik aurrera hobe nik deus jakiten ez badut. Ezer gertatuz gero, *Seiko* duk kontaktua. Bera jarriko duk hirekin harremanetan”.

“Seiko?”.

Hirukoekin funtzionatzen zuten. Hirukoak baino gorago zegoelako deituko zioten Seiko, hala pentsatu du Fakirrak.

Elkarren berririk ez izatea da ideia, baina ez du beti funtzionatzen. Ezizenak garrantzitsuak dira. Etxe batean elkarrekin *entxopinatuta* zeudela jarri zion Juanjok berea: halako gizona seko lo ohean luze-luze ikustean, aho zabalik eta eskuak bular parean gurutzatuta, *slip* zuri zalangatua baino soinean ez zuela.

“Fakirra ematen duk lo hagoenean, badakik?”.

Barre egin du Imanolek, algara leizetsua. Animalia bat etxekotu nahi duenak bezala asmatzen duzu ezizen bat norbaitentzat; goitizena da sarri adiskideen haragia munduan txertatzeko aurkitzen dugun modua. Imanoli *Fakirra* geratu zaio gerra-izen, Juanjori behiala *Bekaintiro* geratu zitzaion bezala.

“Ez didak inoiz hire ezizenarena argitu”.

“Istripua izan genian behin pistola garbitzen”.

“Plural maiestatikoak galbidera eramango hau egunen batean...”.

“Kasu honetan ez duk maiestatikoa batere: ez nengoan bakarrik”.

“Zauritu egin zinen?”.

“Zauritu egin *ginen*...”.

“Nola? Bi zineten, ala?”.

“*Bixar* eta biok”.

“Bi kide... elkarri tiroka?”.

“Ez, zehazki: niri besoa zeharkatu zidaan tiroak eta Bixarri sorbalda. Nire ondoan eserita zegoan hura. Ederra piura, pentsa: bi gizon odolusten Kanbon, gauaren erdian putetxeko madrearen xendratan barrrena mediku bila, etengabe kalatzen zitzaigun autoa gidatu ezinik!”.

Orduan ulertu du Imanolek autoko orban lehorrena. Odola *lagunen sua*-ren ondorio izan dela pentsatzea seinale ona iruditu zaio, zelanbait. Agian beldur da ekintzarako nahiko ote duten, nahiz eta, bestalde, bera lako lastofardoa bankuak atrakatzen jarrita, atetik atera orduko atxilotuko zuketen. Gorpuzkera hura behin ikusiz gero, zaila da ahazten. Zerbaitegatik jar-tzen zuten dantza taldean azken ilaran. Mutil puska handiegia da dantzarako, monolito kankailua, baina “baldar arina” ere bai, baldar zenbaitek izaten dakiten moduan.

Urte berean jaioak dira biak, 1947an, Imanol eta Juanjo, Fakirra eta Bekaintiro. Bost urte zituztenetik ezagutzen dute elkar: esku pilotan lehenbizi, Neira katekistarekin jauna hartzen gero eta elizako sotoan Nartxorekin dantzari geroago. Pausoak ikasi, dantza tradizionalak berreskuratu, abestiak kantatu. "Ahots polita daukazu", hortik eratortzen diren gauzak.

Buzoiak, zuloak, komandoak. Bekaintiro hasia da buzoneoekin: buzoiak berriak dira eta sarrailarik ez da portaletan. Bere hirukoarekin egin duen Paseo Berriko pintaketa etorri da gero: Nescafe poto hutsa pinturaz bete eta ontziaren ahoari spontex bat lotuta margotu dute "Gora Euskadi askatuta" pintada erraldoia, Etxebarrieta hil eta handik egun gutxira, 1968ko ekainean.

"Zergatik botatzen diok hainbeste kafe esnari? Nescafea garestia duk, seme".

Pintada egiteko zeukan gogoia, ez kafea hartzekoa. Konturatuko zen Bekaintiroren ama gero, ederra da bada hura ez konturatzeko, spontex bat ere faltako zitzaiola.

Astean bitan elkartzeko da Fakirra bere ardurapean daudenekin liburuak trukatzeko: Gramsciren *Kartzelako gutunak*, Mata Harik hiztegi baten laguntzaz italiaratik itzuli eta Teklasek makinaz joak; Frantz Fanonen,

Les damnés de la terre, Paristik ekarritako François Masperoren edizioan, Cahiers Libres bildumakoa, ertzean marra berdea beste apaindurarik ez duen liburu maiztua. Maoren *Liburu gorria*, nola ez. Oraindik Gorden *Le Chinoise* filma ikusi ez arren, guateke baita entzun dute Claude Channesen *Mao Mao* kanta itsaskorra (“*Le Vietnam brûle et moi je hurle: Mao Mao!/ Le napalm coule et moi je roule: Mao Mao!/ C'est le petit livre rouge/ Qui fait que tout enfin bouge!*”).

Rouge eta *bouge*. Gorritu eta mugitu. Barre egin eta dantzatu. Dantzatu eta irakurri. Irakurri eta eztabaidatu. Gizakia eraldatu behar ote den lehenbizi gero mundua aldatzeko, ala goitik inposatu behar ote den proletargoaren diktadura, “zentzatuko ditiagu gero oraindik proletario direnik ere ez dakiten herritarrak”, dio Bekaintirok. Determinismoari buruz eztabaidatzen dute eta kontra daudela erabakitzen. “Hogei urteren buruan mundu berri bat izango dugu”. Ados dago Mata Hari. Greta Garboren antza duelako deritzote horrela eta Magisteritza ikasten ari da, aitaren enpresan lanean jarri nahi duten gurasoen iritziairekin kontra. Bizitzan beste helburu batzuk, dauzka, ordea: Tibetera joan nahi luke budistekin bizitzera. Haren ahotik en-

tzungo dituzte lehen aldiz ezezagunak zaizkien hainbat hitz: mantra, yoga, Dalai Lama.

Seiko buruzagia ez du Fakirrak aurrez aurre ikusiko. Txosten bat helaraziko dio hilero eta Norteko geltokiko kontsignan utzitako mezuen bitartez argibideak jasoko ditu harengandik: irakurgaiak, ia beti. Carmen Ponce, alias *Mata Hari*, eta Ramon Yoldi, alias *Teklas*-ekin, osatu dute komando kulturalen barruko taldea. Hiruko taldera Fidel Castroren hitzaldi bat ekarri du gaur Fakirrak Urgull mendiaren puntan egin duten bilerara. Azukre-kanaberen nazionalizazioaren ondoren bizi izan den prozesuaz mintzo den hitzaldia osorik irakurri die Imanolek bozgoran, "*compañeros revolucionarios*", bere ahots leizetsuarekin Fidelena imitatuz; den bezain luze eta aspergarria, apasionatuki entzun eta eztabaidatu dute. Fakirraren azentu kubatarra da onena, ordea, Mata Harik filmetan belarria jarrita bere kasa ikasi duen italiarra bezain ona. Hitzaldi hartan Fidel Castrok kontatzen ez duena da oso kezkatuta dagoela jada kubatarren ron kontsumo gehiegizkoarekin, eta, zehazkiago, kontsumo horrek lan errendimenduan eragiten duen kaltearekin. Garagardo ona ekoizten ikasteko, RDAtik adituak bidal diezazkioten eskatu

berri du Castrok, apurka-apurka rona garagardoarekin ordezkatzeko joateko.

Kursaal zubia Fakirraren Vespinoan zeharkatu eta Gaxen areto zabaldu berrira hurbildu dira Bekaintiro eta biak Pasoliniren *Mamma Roma* ikustera. Imanolek lo hartu eta Juanjok ukondoaz esnarazi du: sakonak dira bere aharrausiak, zerrategiko zurrunga sendoak.

Film komertzialagoak ere ikusi izan dituzte, jakina: *Charada, Vacaciones en Roma, La dolce vita...* Fellini-renaekin txoratzen, gauez eta betaurreko beltzekin ibiltzen hasi da Fakirra Vespinoan. Mata Harik gerritik heltzen dio Kursaal zubiko farolen pean Bulebarre-rantz doazela: "*Marcello, Marcello!*", aldarri egiten du barreari eutsi ezinik, "*Sono innamorata di te, Marcello!*". Sinetsiko lioke, Carmen Mastroianni baino Anita Ekberg askoz gehiago gustatzen zaiola jakingo ez balu. Aitari lapurtutako eguzkitako betaurreko beltzak bere John Lennonen lente ttipien gainean ipinita daramatza Imanolek. Neguan eta gauez baino ezin erabil ditzake eguzkitako betaurrekoak; aitak ez lizkioke udan utziko, lanerako behar dituelako. Bilbao plazako iturri paretik pasatzea aski, Fontana di Trevin daudela irudikatzeko. Anita Ekbergen gorputza zuri-beltzean eta bere oinez ibiltzeko era. Marcello Mastroianniren

alkandora zuri tentea eta betaurreko beltzak erantzeko modua. Alain Delon Marcello Mastroianni baino dotoreagoa ote den eztabaida amaiezina.

“Bozkatu dezagun, aho batez erabaki behar da!.”.

Mastroiannik irabazi du.

Baina pozak ez du asko iraun. Norbaitek mihia dantzatu du. Beti dantzatzen du norbaitek mihia. Seikoren oniritzia idatziz jaso eta bere hirukoa modu eraginkorrean ekintzan sartu aurretxoan atxilotu dute Fakirra. Leku estalira eraman dituzte Teklas eta biak, Martuteneko kartzelara, Bekaintiro eta beste hainbat lagunekin batera. Mata Hariri garaiz pasatu diote abisua; ihes egitea lortu du. Beste modulu batera eraman dute Teklas, baina Fakirra dagoen blokean ere ez da ezagunik falta.

“Hi, hontzarmario, non lo egingo duk erosoago, goiko literan ala behekoan?”.

Bixarrek egin dio eskaintza, Bekaintiroren adiskideak.

“Hi haiz Bixar famosoa, orduan?”.

Azkenik jarri dio aurpegia.

“Istorio asko entzun ditiat hiri buruz”.

“Ez ote zuan beti istorio berbera izango, mila aldiz errepikatua?”.

Bekaintiro eta Bixar Renault Dauphine autoan odolusten, Kanboko errepideetan. Bitxia da: ume masailgorri batek baino bizar gutxiago dauka, ez zuen *Bixar* hala imajinatzen.

“Ez galdetu zergatik deitzen didaten horrela. Eta ez, ez diat nire zikatriza erakutsiko”.

Marrazkilari trebea da Bixar. Bere moduluko preso guztien erretratuak egin ditu astebetean, ikatz-ziriz. Horrekin nahikoa ez eta kartzela funtzionarioen kariataturekin hasi da gero.

“Zer habil horien erretratu robotak egiten?”.

“Aspertu egiten nauk eta”.

Oparitu egiten ditu. Bixarrengandik ikasi du Fakirrak sekula ahaztuko ez duen zerbait: “Ez dago ezkerrekoa edo eskuinekoa ez den zapatarik; ez dago izaterik, besterik gabe, zapata”. Fakirrari dagokionez, espetxean egon den hilabeteetan hiru gauza egin ditu: kantatu, irakurri eta laranjak jan. Kantatzeak atentzio gune sentiarazten du, errepertorio zabala dauka eta tropen morala tinko mantentzeko balio du. Jaten duen bezala irakurtzen du, konpultsiboki. Bera baino zaharrago diren presoek pasatutako liburuak dira, gehienetan, materialismo historikoari buruzkoak. Laranja adina marxismo atal irentsi du hilabete gutxitan, mur-

txikatu gabe. Literatura? Poesia? Ramon Yoldi alias *Teklas*-i esana dio behin baino gehiagotan: “Burges txiki-kien kontuak dira horiek”. Amorratuta dago Teklas kartzelan, ez hainbeste askatasuna galdu izanaz, idazmakinarik ezean koaderno batean eskuz idatzi beharraz baizik.

Santu izena dauka Fakirraren jaioterriak. San Sebastian.

“Hiri bat, martiri bila. Bolondresak behar dira”.

Dioklezianok hiltzea agindu zuena da hiriari izena emateko hautatua: Sebastian. Haren guardia pretoriarretako baten kapitain izendatu eta huts egin zion enperadoreari. Jende askok uste du geziz josia hil zela, baina ez da egia. Mantegna, Botticelli, Giorgetti, Rubens, Bernini... San Sebastian molde horretan betikotu zuten pintore eta eskultoreek daukate errua. Milanen hazi eta Erroman hil zen; bertako katakonbatan dago ustez ehortzia. Karrera militarriari uko egin zion, Ebanjelioa predikatzeko. Zer zen, baina, Sebastian? Damutua, traidorea, bakezalea? Gaur egungo hitzek ez dute fitsik balio duela bi mila urteko leialtasun eta traizioei buruz ari garelarik. Diokleziano enperadoreak

ez zion Sebastiani barkatu, hori behintzat esan daiteke. Mendeku gisa, Mauritaniako gezilari talde bati agindu zion geziz jos zezan. Hainbeste gezi jaso zituen haren gorputzak, triku bat ematen baitzuen. Mauritaniarrek hiltzat eman eta bazterrean laga zuten. Patua zer den, zegokion heriotza heroikoa ez zitzaion zegokionean ailegatu. Bizirik atera zen Sebastian. Baina adiskideek erregutu ziotenaren kontra, ez zuen Erromatik ihes egin nahi izan. Ezin esan apal eta diskretu jokatu zuenik: osatutakoan, irainka hartu zuen Sebastianek Diokleziano enperadorea. Geure mentalitateak eraman gaitzake pentsatzera indultatzea merezi lukeela trantze horretatik onik atera den edonork. Horren orde, bigarren heriotza bat opa izan zion enperadoreak: "Bukatu hasitako lana". Lehenbiziko heriotza baino are gogorragoa izan zen bigarrena; Sebastian martiria kolpeka erail zezatela agindu zuen. Zergertatzen da jipoiekin, baina? Kolpeak ezin direla piktorikoki hain erraz irudikatu. Garrotea adieraz liteke, kolpea ez. Ubelduak ez du alderik alde haragia zeharkatzen duen gezi batek adina luzitzen. Horregatik uste du jende guztiak arbola bati edo zutabe bati lotuta gezikatua izan ondoren hil zela. Arteak aukeratuko lukeen amaiera ez du beti bizitzak hautatzen, gero bizi-

tzak arteak kontatzen diona sinesten duen arren. Hori da izan, artearen akabuko garaipena: munduak harekiko duen sinestetasuna. Baiki, gezikatua hiltzea, lehen heriotza hori zegokiokeen San Sebastiani parametro estetikoan arabera, nola zegokiokeen, demagun, Andy Warholi 1968an Valerie Solanasek tirokatu zuenean hil izana, eta ez, kirurgia badaezpadako baten ondorengo konplikazio arruntaren ondoren, ia hogeitaz geroago.

Bigarren heriotza bat bigarren zigor bat da, ala lehenari ihes egin dionarentzako oparia? Bada dioenik Sebastian Ostiako hondartza batean jipoiturik hil zutela, non eta, hamazazpi mende geroago Pier Paolo Pasolini hilko zuten lekutik hurbil. Martiri zaharrak, martiri berriak: errepikatzen diren klipseak. Hondartza hari zor dakioke San Sebastian hiriaren euskarazko izena: Donostia. “Done Ostia, Ostian akabatu zuten santua”.

Claude Debussy ere liluratu zuen istorio honek: *Le martyre de Saint Sébastien* konposatu zuen; Gabriele d'Annunziok ipini zizkion piezari hitzak. Erdi Aroan, Errenazimentuan, Barrokoan... Garai guztietako artistek erretratatu dute. Etzanda eta zutik. Gezi askorekin nahiz bakarrarekin. Anbiguitate halako batekin: oina-zean eta plazerean. Are, batere gezirik gabe ere bai.

Lo itxura agonikoan edo estasitik gertu. Geziekin soilik, edota gorputza ziztatzen dioten hegaztiekin sufrikarioa areagotuz, gezi-mutur bizidunen segida eternala bailitzan txorien mokokada. Muhammad Ali boxeolaria bera, pantera beltzen aldeko, Vietnamgo gerrara joateari uko egin zion intsumitua, geziz josita erretratatu zuen Carl Fischer argazkilariak *Esquire* aldizkariko azalean. Ikono kristaua hautatu zuen salatzaile, ordurako Ali islamera bihurtua egonagatik: boxeo prakamotz zuriekin morrosko beltza aldareetara igoa. San Sebastian erkinaren negatibo hormonatua zen Ali, gimnasioko martiria. Pita haria erabili behar izan zuten argazkilariaren estudioan giharretara itsatsitako gezurrezko geziek teink euts ziezaieten beren lekuan. Antzezpen bat izanagatik, sufrikario hutsa izan zen saio hura: martiriarena jokatzeko hasita, arriskua daukazu martiri bilakatzeko. 1968an gertatu zen hori, New Yorken, Valerie Solanasek Andy Warhol tirokatu zuen urte berean. Bitxia da, 1968 berberean, Yukio Mishimak XVII. mendeko Guido Reniren koadroa hartu izana abiapuntu, zertarako eta, berak ere bere burua martiri gezikatuaren gisan zuri-beltzean erretratatzeko. Guido Reniren koadroan San Sebastianen aurpegiak ez du minik ageri. Bi gezik baino ez diote soina

zulatzen: besapean bata, saihets batean bestea. Reniren kopia hutsa egin ote zuen Yukio Mishimak argazkirako San Sebastianen larru biluzian sartu zenean? Ezta hurrik eman ere. Mishimak, bi gezi hauez gain, hirugarren bat opa dio bere buruari argazkian, sabelaren behealdean, hain justu; bi urte geroago *seppuku*-a eginez katana sartuko duen puntu zehatzetan. Argazki hau, honenbestez, *hara-kiri* bidezko Mishimaren suizidioaren iragarpena litzateke. Baina bada aurrekari gehiago: Mishimak baino hogeita bi urte lehenago jada, Frida Kahlok bere burua erretratatzen zuen orein gorputz batekin, bederatzi geziz zeharkatua, pairatu zituen ebakuntza mingarrien adierazle.

Uzta zapuztera zetozen zomorroen aurkako patroia zen Sebastian deuna, edo izurri beltzaren kontra-koa; izurri zein euli, biak irudikatzen dituzte geziek. San Sebastian da tabernetako lanpara euli-erakarlea, eztitan bustitako soka hilgarria. Aitzakia perfektua ere izan zen artistentzat zentsurari beldurrik izan gabe gizonen anatomia erakusteko; begiak itxita edo erdi itxita gehienetan, ah-edo-oh dario ezpainenatik martiriari. Logikoa, beraz, martiri homoerotikoaren biluztasuna bere egin izana gay komunitateak, izurritik babesteko patroia izatetik hiesaren kontrako ikono bila-

katu arte. Plaga beti, zomorroak beti: “Hel iezaio
honi, Sebastiani, martiriari, azeriaren txorimaloari, ez
niri!”. Praktika luzearen ondoren ere gutxi dira estasia
eta sufrimendua bereizten dakiten pintoreak. Aldea-
ren sotila ikusteko, moztu burua edozein San Sebas-
tiani eta itsatsi aurpegi hori aldizkari pornografiko ba-
tean orgasmoa itxuratzen ari den gizonezko baten le-
poari. Igartzen al da aldea? Ba hori.

Egiari zor, izena ematen dion santua ez dago hi-
rian sobera present. Portuko souvenirren dendan
poztu egiten da saltzaile-katekista, *gutar bat* estanpa-
txo eske inguratzen zaionean –“*solo se lo llevan los de
fuera*”-. Artzain Onaren katedral ondoan dagoen libu-
rutegi eklesiastikoan, martiriaren bizitzari buruzko
zerbait baduten galdetuz gero, ezetz esango dizute,
eta ez *dutela sekula halakorik izan*, “Bartzelonako ar-
tzapezpikutzak atera zuela behin zerbait uste dut,
baina agortuta dago”. Agorrezina da, ordea, Sebastian
deuna, nola den mina agorrezina eta plazera mailega-
tua. Badirudi, lehen kolpean, elizak berak bazterrean
utzi edo ezkututzen duen santu honek martiri interes-
garria izan behar lukeela. Zergatik ez etekin gehiago
atera? San Sebastianen irudiak dituzten katiluak egi-

nez, kasu; panpinak edo hortzetako txotx-ontziak, gezien ordeztu txotxak ipinita.

Izurriaren beldur bizi gara beti. Txorimaloa behar, hari hel diezaioten zomorroek, izurriak, txori esker txarrekoek. Hari hel, eta ez guri.

Bederatzi hilabeteko kartzelaldiaren ostean kalean da Imanol Lurgain. Bere tortura metodo makurrengatik ezaguna den Meliton Manzanasko polizia-burua hil berri du ETAK eta erorketa gehiago egon dira. 1970ean, atxilotutako etakide andana akusatuen aulkian eseraraziko duen Burgosko prozesua hastearekin batera, muga pasatu eta Iparraldera ihes egin dute Bekaintiro eta biek. Gauza bera gertatuko da Teklas eta Mata Harirekin bi aste geroago.

“Zuek biok, zergatik zabilzate beti elkarrekin?”.

Bekaintiro eta Fakirra elkarri begira geratu dira. Elkarrekin daude, baina batetik bestera zorabiatzen dituzte. Ez dute etxe berean astebete baino gehiago egiten.

“Zuetako bat Arakisen etxera joanez gero, hobeto”.

“Jakina, hala egingo dugu”.

Fakirrak ez du sekula Bekaintiro horren otzan ikusi.
“Nor zen hori?”.

“Ez al duk ezagutzen? Seiko duk, hark agintzen dik. Hoa hi Arakisenera, ni geratuko nauk hemen”.

Seiko, hirukoen nagusia. Oharkabean pasatzen den aurpegia du, labainkorra, karikaturarako zirrikiturik uzten ez duen horietakoa. Simetrikoa baina ez bereziki ederra, arrunta. Besteek pentsatzen duten bitartean, Seikok erabakiak hartzen ditu. Besteek atearen bestaldetik zelatatzen duten bitartean, Seikok zeharkatu egiten ditu.

Arakisen etxea deitzen dioten hori hutsik dago. Lurdes Arakistain, alias *Arakis*, Parisen bizi da exiliatuta, baina bertan utzi ditu arropak eta liburuak. Inor ez da ETako lehen buruzagi emakumezkoaren gauzak ukitzera ausartzen. Horregatik deitzen diote oraindik *Arakisen etxea*. Hura Paristik noiz itzuliko zain baleude bezala. Tenplu gisakoa da eta bilera gela ere bai; lantzean behin, gonbidatuen etxea. Itzal luzekoa behar du Arakis horrek. Fakirra bertan bizi delarik, haren koadernoak eta liburuak ikuskatzen ditu, ezin dio tentazioari eutsi. Simone de Beauvoirren hiru liburuki aurkitu ditu, besteak beste, eta tarte mortuetan hirurak irakurri. Egunez egun jarraitu dute Burgosko

epaiketa: Meliton Manzanas hiltzea leporatzen dioten komandoko Mario Onaindia nola aterarazi duten aretotik, Genevako konbentzioa aplikatu diezaioten eskatu duelako oihuka. *Eusko gudariak* kantatzen hasi direnean eten dute epaiketa. Nazioartean harrabots handia sortzen ari da prozesu honekin eta Eugen Bëihl kontsul alemaniarra bahitu du ETAk presioa egiteko. Bixar ez dago ados, bahiketa kalterako izan daitekeela uste du, baina behingoz, mapan dago euren borroka, Aljeriako independentziaren pare. Denen harridurarako, epaia eman baino hiru egun lehenago aske utzi dute RFAko Bëihl kontsula. Bixarrek arnasa hartu du.

Atean kax-kax jo eta Seikok irratia entzutera jais-teko agindu duela ohartarazi dio Bekaintirok Fakirrari. Auzipetuetatik sei heriotza zigorrera kondenatuak izan dira. Sei horietatik hiruk, bina heriotza zigor jaso dituzte.

Bixar gelan batera eta bestera dabil, biraoka. Seikok, aldiz, tenpleari eusten dio:

“Zaudete lasai. Hitz eginda dago dena: penak konmutatuko dizkiete”.

“Nola dakizu hori?”.

“Bëihl doan askatu genuela uste duzu, ala? Dena hitz eginda dago: Alemaniak eskua sartu du eta ez diete heriotza zigorra ezarriko”.

Seikok esanda bezala gertatu da. Bëihl kontsularen bahiketaren arrakastak indartu egin du bere posizioa eta ahuldu Bixarrena. Ondorengo egunetan jakingo da Zuberoako herri ttipi batean eduki zutenean ihes egitea lortu zuela Bëihlek, eta herritar batzuei laguntza eskatzean jendarmeei barik bahitzaileei deitu zietela hauek bahitua berriz ere haien esku uzteko. Erresistentziaren alde borrokatutakoak izaki, ez zuten ezelako politikari alemaniarrik nahi inguruan, nonbait.

Imanolek Arakisen etxeko logelako zokoan aurkitu duen *L'Express* aldizkariaren ale batean irakurri du John Lennonek eta Yoko Onok IRAren aldeko adierazpenak egin dituztela. Seiko gelara sartu zaionean jabetu egin da zer ari zen irakurtzen.

“Ez duk bada pentsatuko gitarrarekin bakarrik urrutira iritsiko garenik, ala?”.

Seikorekin txorakeria gutxi. Arakisen etxean elkartzen dira Bixar eta biak, Fakirrak ezagutzen ez dituen beste buruzagi batzuekin estrategia ildoak eztabaidatu eta bozkatzeko. Luzeak izan ohi dira bilerok, sarri amaiezinak. Bixarrek berak aitortu zion Fakirrari loak

hartu zuela behin bozkatu aurretik. Imanolek gutxien espero duenean -ordu txikitan sarri-, ohe ondoan eserita agertzen zaio Seiko oharkabea, katukiro eta isil. Susto galanta hartzen du beti.

“Arakisen etxea behar diagu, Imanol”.

Inoiz ez “sentitzen diat” bat, inoiz ez “mesedez” bat. Ez sarraila, ez kisketarik gabeko etxe batean bizi-tzearen desabantailak. Arakis bertan bizi zenean ere berdin jokatu ote zuen harekin? Buruzagiaren loa etengo ote zuen Seikok, berea eteten duen bezala? Ezezkoan dago.

Fakirrak badaki halakoetan txintik esan gabe etxetik kanpo joan behar duela. Ez luke egin behar, baina Bekaintiorenara jaisten da, loreontzi baten pean gordetako giltza hartu, atea zabaldu eta sofán etzatera, bertan lo segitzeko.

Arauk arauak dira. Harat-honat dabilta, binaka pasatzen dute muga eta bietako batek pistola eraman behar izaten du beti derrigor. Erabili ala ez, goizago ala beranduago, tokatuko zaio Imanoli arma aldean eraman beharra. Eta behin pistola aldean eraman behar baduzu, hobe nola erabiltzen den ikasi, zer gerta ere.

“Hurrengoan hator nahi baduk gurekin Landetara”, eskaini dio Bekaintirok.

“Garbi utzi niala uste nian: nik ez diat armarik hartuko”.

“Noski, Trotski...”.

Barre egin dute. Ukiezin dirau, arrunkeria guztietatik kanpo, Imanol eta Juanjo kideko biki bilakatzen dituen kode konpartituak.

“Ez hadi aztoratu, baina Seikok zalantzak ditik hirekin”.

“Zalantzak? Zer-nolako zalantzak?”.

“Deus larririk ez. Lasaitu egingo huke Landetara gurekin etorriko bahintz. Behin bakarrean, sikiera, dudak uxatzeko”.

Fakirrak bere betaurrekoen patilla igurtzi du, irratiko dialean emisora bila balebil bezala.

“Ulertzen duk zer dagoen jokoan, ezta? Hator tiro batzuk botatzera, itxura egiteagatik besterik ez bada ere”.

Baso erdian galdu eta zuhaitzen kontra egiten dute tiro, errepidetik ahalik eta urrunen. Edozein zuhaitzen kontra. Zuhaitzen enborretan asmatuz gero, enbor

zartatuak esango die buruan zuten helburua erdietsi ote duten ala pinudiko beste bat, destatu zutenaz bestelako arbola. Erraza baita formazioan jarritako pinu batailoi baten kontra tiro eginez gero batean ez bada bestean asmatzea.

“Zergatik deitzen diote Seiko?”.

Sorbaldak altxatu ditu Bekaintirok.

Elkarri tiro egiten erakusteko ez dute denbora sobera. Rafaga bat, bi rafaga. Kargadorea bete eta hustu. Eskularruekin bada hobe, baina gaur eskularrurik gabe ari dira. Gero garbituko dituzte burdinak, hatz-markak ezabatzeko. Kontzientziaz garbitu, xehe eta zehatz: une horietan ebazten da profesionaltasunaren kinka. Esan diezaiotela Bekaintirori, bestela. Munizioa ere ez daukate alferrik galtzeko, nahiz eta aurki kutxa berriak jasotzekoak diren.

Bixar ikatz-ziriz bere koadernoan marrazten ari da, besteak tiroka ari diren bitartean.

“Zertan habil?”.

“Seikoren erretratua egiten”.

“Kostako zaik: gizon horrek ez dik aurpegirik”.

“Begiratzen ez dakialako diok hik hori, Imanol”.

Landetako basoan ahalik eta denbora gutxien pasatzea da agindua. Etxean ikas zitekeena -karga-des-

karga, oinak lurrean nola landatu, pistola nola gorde galtza barrenean-, hobe ikasita ekartzea. Ez da kome-
ni inor aztoratu eta tiroak entzun dituelako jendarmeei
deika hastera. Presaka ikasi behar punteria zorrozten.
Eta gero, hanka. Basoaren erdian geratzen dira bala-
zorroak. Balak, enbor azalean sartuta, bospasei zenti-
metroko sakoneran. Haragian bidea zein aise egingo
lukeen berunak, horretan, hobe ez pentsatzea.

Bekaintirok asaltoko fusila probatu du gaur. Viet-
namgo gerrako argazkietan baino ez du lmanolek ha-
lakorik ikusi. Enborren azalak ixtantean zartatzen dira
kalaxnikovarekin, zurekin zerikusirik ez daukan beste
norbaitek zerorrek erabiltzen duzun arma ez besteko
piroteknia bat han ezarri izan balu bezala. Hain azkar
heltzen dira balak beren helburura, zaila baita zeuk
jaurti dituzunik ere sinestea. Hori da tiratzaile hasibe-
rriaren lehen gomuta, inoiz ehizan aritu izan balira
jada aspaldi jakingo zuketena: armak eskuetan har-
tzean beste batzuk direla denborak. Hori, eta, inoiz
erabiltzen hasita, ez dutela sekula inor horren urrunet-
ik tirokatu beharko, agidanean. Gertutik tiro eginga
distantziaren eta zutaz-besteko-pirotekniaren senti-
pen hori mantenduko ote da, ala ebidenteegia izanen

da kausaren eta efektuaren arteko lotura? Kalaxniko-
va eskaini dio Bekaintirok.

“Probatu nahi duk?”.

“Ez, eskerrik asko”.

Pistola bai, ordea. Pistola probatu du. Bizitzan
behin, jakiteagatik zer sentitzen den arma bat eskue-
tan izanda. Bere begirada miopeak pinu batean asma-
tu du, nahiz eta berak bakarrik dakien destatu duena
izan ote den. Seiko hurbildu da harengana, pozarren:

“Beste kargadore bat?”.

Uste baino gehiago gustatu zaio, nahiz eta ez lu-
keen sekula aitortuko.

“Eta aseguraa, segurua da?”.

Bekaintirok irribarre egin du. “Noski, Trotski!”.

“Bigarren bat botako diat orduan, aseguratzeaga-
tik”.

Bere etxean gauzak horrela egiten direla oroitu du
Imanolek: *badaezpada*.

Seikok punteria ona du: enborrei barik, pinaburuei
destatzen die. Bitik bat asmatzen du. Imanolen jarre-
rak buruzagia konbentzitu duela dirudi. Baina Seiko
haiengandik aldendu eta armak osteratzearen
sartzen ari direla, zira urdinaren txanoa erantzi eta

burdina gorria balitz bezala itzuli dio pistola Fakirrak Bekaintirori.

“Azken aldia duk arma bat ukitzen dudala, entzun?”.

Tirorik egin ez duen bakarria izan da Bixar marrazkilaria, izatez. Koadernoak jiratu eta Seikoren erretratuak erakutsi dio autoan doazela: alkandora berea du, dudarik gabe, baina pinaburu bat marraztu dio aurpegiaren ordean.

“Etxea behar diagu, Imanol”.

Arakisen etxea. Oraingoan ez biltzeko, ordea. Eskailerarik ez duen etxe bakarria da inguru guztian, ezer gordailatzeko ere, huraxe proposena. Kutxak ekarri dituzte, astun samarrak eta egurrezkoak. Biren artean dakartzate. Kasualitatez ala ez, Bixar ez dago gaur haiekin, eta Fakirrak ez ditu Seikorekin datozen morroi gazteak ezagutzen. Iratzargailu bat manipulatzeko ari direla iruditu zaio Imanoli, testuingurutik kanpokoak dirudien esaldia entzun du: “Batez ere, kasu orratz luzeari, orratz luzea da delikatuena”. Baionako ZUP auzora bidali dute Fakirra gau batzuk pasatzera, *quartiers sensibles* deitzen dieten horietara, eta Arakisen

etxera itzuli denerako desagertuak dira jada egurrezko kutxak. Bixarrek eta Seikok ez diote elkarri hitzik zuzentzen. “Desadostasunak izan dituzte”, laburbildu du Bekaintirot, sorbaldak altxatuz.

Dena ez dira armak, ordea. Ikastaroak antolatu dituzte militanteentzat. Mundu guztiko herrialdeen askapen mugimenduez. FLQri buruz. Aljeriako independentziaz. Nikaraguako sandinismoaz. Euskal eskulturren pizkundeaz. Gizarte eredu berriez. Euskara batuari buruzko ikastaroak ematen dituzte. *Hizkuntza debekatuan* alfabetatzearen garrantziaz mintzo dira. Lucas Azurmendi jaitsi da Paristik eta semiotikari buruzko hitzaldia eman die: “Parisen azterketarik ez dago jada: eskolak kalean ematen hasi dira unibertsitatean 68az geroztik. Ordutegiak ere ez dira zurrunik: eskola guztiak audio zintatan grabatu eta noiznahi joan zaitezke zernahi hitzaldi entzutera, ikasgaia zure lerrokoa ez izan arren”.

Imanol Parisko istorio hauek liluratu dute gehien. “Irakasleak horrela galdetu zigun, zein ote zen gure deitura, erreparatu ote genion geronen deituraren esanahiari... Armarri bat bezalakoa dela... «Zein da zure deitura?», galdegin zidan niri. «Azurmendi». «Zein hizkuntza da hori?». «Euskara». «Eta zer esan

nahi du zehazki Azurmendi horrek?». Pentsatu gabea nintzen, deiturek ezabatu egiten dute esanahia, ezta? Edo hala uste nuen nik... Inprobisatu egin behar izan nuen... Esan nion orduantxe jabetu nintzela Azurmendi *hazur mendi* izan zitekeela, hezur mendi bat, alegia. Eta berak, pozarren, nirekin bete-betean asmatu balu bezala, ikaskide guztien aurrean: «Destinoa, zurea eta denona, deiturak berak dakar, noranahikoa eta profetikoa duzu zuk, *montagne d'ossements* jauna!». Adarra jotzen ari zitzaidan, jakina”.

Lucasek gitarra ikusi duenean jotzen ba ote dakien galdetu dio Fakirrari. Baietz honek, baina kantatzeko aitzakia dela beste ezer baino gehiago.

“Kantaria zara?”.

“Bai”.

Aspaldi ez zioten galdetu. Ongi sentitu da esan dionean. Lucas Azurmendik poemak idazten dituela aitortu dio orduan, eta bidaliko dizkiola zenbait, gustuko baditu kanta ditzan. Teklas lehenbizi, Lucas orain. Aspaldion ez zaio kantatzeko testuak egingo dizkionik falta. Azurmendiren ahotan entzun du lehen aldiz Leonard Cohenen berri Fakirrak, eta nahi duenean Parise-ra bisitan joan dakion gonbita luzatu dio.

Hori baino lehen, ordea, Seikok lanean jarri ditu Fakirra eta Bekaintiro.

Hendaiako zineman gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino. Aretoko andrazko ia denak dira mugaren alde hartakoak, zinezale hendaiarrak edo Urruñatik etorritakoak. Mugaz bestaldeko gizonezkoak, aldiz, binaka edo hirunaka datoz Hegoaldetik, zinefiliaz baino gehiago abenturaren kilikagatik (“Zuk ez duzu *oraindik* ikusi? Eta zeren zain zaude ba?”). Oxi-genoa hartzeko modua da Iparraldean filmak ikustea, ordu batzuetan bederen frankismo berantiar agoniko hari zirrikitu batetik ihes egitea: zakatzen irekidura estuarekin arnasa hartzera ohituta dagoenak, ugaztunaren birrikak dituela sentitzen du, benetako birrikak eta benetako airea, ordu batzuez.

Areto sarrerako kartelean Jon Voight eta Dustin Hoffman; erraldoia eta ipotxa; ile horia eta beltzarana. Kotaraino bete da aretoa. Entzun dute, zurrumurrua dabil, jakin nahi dute, ezin ikusi arte etsi. Oscar saria eman diote X kalifikazioa duen film bati. Dezepzionatuta itzuliko dira etxera: ez da hainbesterako; *Midnight*

Cowboy filmak dezakeena baino askoz gehiago lezake haien irudimenak.

Plazera da eskuarentzat patrikaren forrua, baina ez du zertan beti norberarena izan: tentuz hautatu behar du Bekaintirok eskua nori sartu. Zakur zaharra da, ez du lehen aldia. Hatz luze eta delikatuak berea ez den sakelan samurkiro sartzeko une egokia hautatzea da gakoa, arnasari eutsiz hatzak sakelaren forraduran barneratzea, estore bateko bi listoi apartatu eta zirrikitutik begiratzten duenak bezala. Ezaguna egin da film hasierako kanta: Nilssonek abestutako *Everybody's talkin'*, Jon Voight dutxa bat hartu ondoren *cowboy* alkandora eta kapelua janzten ari den bitartean entzuten dena. Maleta hartuta, badoa Texistik. Gigolo bezala lan egiteko prest dago New Yorken, baina ez dauka negozioetarako abildaderik: Rizzok lagundu beharko dio, Dustin Hoffmanek hezurmamitzen duen pajarook. Patrika barruko gogortasun tentea ukitu du kanta amaitu orduko Bekaintirok hatz puntekin, “bingo, hauxe duk nahi nuena”. Neguan errazagoa da eskua sartzea, gabardinetako patrikak ahozabalagoak dira.

Hirugarren aldia da honezkero Bekaintirok *Midnight Cowboy* ikusten duena. Buruz dakizki elkarrizke-

tak, liluratzeko du Manhattango kaleetako jendetzak eta gordinkeriak, nahiz eta, egiari zor, ez zaion filma bereziki gustatzen. Gehiago gozatu zuen Jacques De-rayren *La piscine* ikustean, Romy Schneiderri eta Jane Birkin bira: gorputz ederrak igerilekuan luze etzanda, bikini estuak eta Alain Delonek Schneiderri bizkar biluzia adar berde batekin igurzten dionekoa (“inork ez dit bizkarra zuk bezala azkuratzen”). Ia ia usaindu egin zitekeen protagonisten gorputzetan behera irris-tatzen zen izerdia.

Ezin izan dio gizonari aurpegia ikusi. Burberry jakaren forradura laztandu du lehenbizi, ongi jositako gabardinaren juntura. Patrika bilatu du ondoren. Gogo eman dio tarte batez eskua bertan goxo uzteko. Lokargarria da oihala ukimenean; zer eskularru diren zenbait patrika. Baina berehala tupust egin du hatz artean diru-zorroa baino estuagoa eta gogorra den ertz trinkoarekin. Oihaletik bereiz, erakuslearen azazkalaren eta erdiko hatzaren mamiarekin matxardatu, eta poliki-poliki atera du azal gogorreko liburuxka, dokumentu preziatua, zilegi den ihesa, Donostiako Gestoría Arribaseko estalki gris eta guzti.

“Pasaporte espainiarrak behar ditugu, zuek ikusi nondik atera”.

Seiko harro egongo da egindako lanaz. Badaukate jendea gero pasaporte haiei argazkia aldatzeko. Eta garrantzitsuena: badauzkate pasaporte faltsu haiekin harat-honat ibiltzeko prest dauden militanteak.

Bekaintiro pasaporte-arrantzan dabilen bitartean, Imanol kanpoan geratu da, zaintza lanetan.

Orduan jabetu da Bekaintiro baduela Jon Voightekin kidekotasunik Fakirrak, gorpuzkeran, behintzat: biak dira baldar arinak, kankailuak, Imanol beltzarana goa den arren. “*Cowboyaren zapatak gustatzen zaizkidak. Baionan halakorik topatzerik izango dudala uste duk?*”. Bekaintirok barre egin du, txantxetan ari delakoan. Horixe besterik ez du behar Fakirrak pistola-rik gabeko kuartero bilakatzeko.

Imanol hasi da algaraka oraingoan, Bekaintirok lapurtu berri duen pasaporteko izen-deiturak irakurri dituenean:

“Bekain, hik bai arrano begia! Ez al duk inor errespetatzen, ala?”.

“Zergatik diok hori?”.

“Benetan ez haiz konturatu nori lapurtu dioan pasaportea?”.

“Pasaportetara nagok ni, ez aurpegiak ikustera”.

Ignacio Neira Salazar, 1947. Kidekoa. Eta ez adinez bakarrik.

“Natxo Neira?”.

“Gure Natxo?”.

Natxo Neira, katekistaren semea. Barre egin dute gogotik.

“Hark dantza taldea lapurtu ziguan. Guk hari pasaportea!”.

Hori baino garrantzitsuagoa da agiria atera berria duela gizasemeak eta lau urterako balioko duela, iraungitze datari dagokion lerroa aldatu beharrik gabe.

Matrikula espainiarreko auto guztiak irekitzen saiatu dira geltokira bidean, deskuidoan norbaitek bakarren bat zabalik utzi balu ere. Behin halaxe lortu zuten pasaporte bat. Inoiz ez da jakiten noiz.

Baiona Ttipira itzultzeko trenaren zain, ibilbide luzeko bidaiariekin gurutzatu dira Hendaiako nasan. Terminusera heltzen diren trenak arrain nagi eta mutur-luzeak dira akuarium bateko kristalaren kontra. *Cul-de-sac* baten utzikeria eta xarma dauzka geltoki koxkorrak. *Hendaye-Gare*. Esbastikadun bandera luzeak zintzilikatu eta palmondo-orriekin ornatutako tren bagoi batean gertatu zen. Gauerdiko *cowboyak*. Han-

txe bertan luzatu zion birritan eskua Hitlerrek Francori 1940.ean. Francok, Führer-ari bostekoa emateko asmoz, hasiera-hasieratik erantzi zuen eskularru bat. Hitlerrek, bigarren estutuan baino ez zuen bere eskui-neko eskularrua erantzi. Franco berbati egon zen; Hitlerrek aho zabalka egin zuen. Ez ziren ongi konpondu.

Lanean ari da Bixar. Tinta usaina dago eta mahaiko lupa handi batekin behatzen die pasaportearen xehe-tasunei, marraztu ahala.

“Segundo bat”.

Bost minutu izan dira, isil-isilik Bixarren lan patxada-tsu, zehatz eta xeheari begira hipnotizatuta egon direnak. Seikok ere badu bere *tailerra*, baina haiei ez die sartzen uzten.

“Laster bukatuko diat”.

Pintzel bat hartu, ahora eraman eta koska batez ileen erdiak erauzi dizkio, bizpahiru ileko pintzel ñimi-ño bihurtu arte. Pintzela baino gehiago dirudi orain orratza, listuarekin tentetutako bibote baten puntako ile zorrotza. Orduan xuxurlatu dio Bekaintirok Fakirra-ri: “Erabiltzen dituen lan tresnengatik deitzen ziotek Bixar. Bahekie, ezta?”. Lucasekin gogoratu da. Izen-

degia. Azurmendi. Hezur mendi. Montagne d'ossements. Behar dira pasaporte faltsuak. Behar dira, itxuraz, armak. ("Ez duk bada pentsatuko gitarra- rekin bakarrik urrutira iritsiko garenik, ala?").

Putz egin dio Bixarrek azken tinta ukituari. Lanpa- ra pean zabalik lehortzen laga du pasaportea.

"Ezin diagu erakundea Seikoren eskuetan utzi. Eta nik bakarrik ezin ditiat zaldi honen bridak eutsi. Nola egingo dugu hau?".

Ia goizaldea da Bixar agurtu eta Arakisen etxe ata- rira heldu direnean.

"Hirekin bakarka hitz egin nahi nian, Bekain... Bi- xarrek ez zakik oraindik ezer, are gutxiago Seikok. Baina Bordelen lana eskaini zigutek Teklasi eta bioi. Hara joango gaituk bizitzera ziurrenik".

Bekaintiro ezustean harrapatu du iragarpenak. Ez dio esan, baina ondotxo daki Bekaintirok Imanolen nahien berri. Lehen pausoa baino ez da Bordel. Parise- ra joan nahi du berak. Gero eta baxuago hitz egiten diote elkarri, badaezpada. Fakirraren kasuan, ez du meritu makala, zaila baita bere ahots tzarra ezkuta- tzea. Bi ahots zidor baino ez dira, izarrek populatuta- ko gau itzelean euren emari xumea isurtzen.

“Bordele edo nahi duana. Baina Bixarri kontrola hartzen lagunduko zioagu lehenbizi”.

Carmenen laguntza izango dute horretarako. Bere begi berde handiena eta bere goitizenarena. Anita Ekberg. Romy Schneider. Hain sinpleak dira gauzak batzuetan.

“Seiko distraitzea zure kontu, Mata Hari”.

Guateke pribatua egin diote: Fakirrak gitarra jo ahala dantzara atera du Seiko Mata Harik. Bien bitartean, Bekaintirok eta Bixarrek Arakisen sukaldeko arma biltegia hustea da asmoa.

Jada hutsik dago, ordea.

GERICAULTEN ZALDIAK

Fakirrak, ispilu aurrean jartzen denean, kandela baten sugar dardartia ikusten du sarri aurpegiaren ordeztu: sugar atzemanezin bat, oraintxe bere aitaren irudikoa, oraintxe atzo goizera arte izan zen gazte lehoi tximadunarena. Etzidamu izango den agure hil-zorikoarenak ditu hazpegiak bat-batean, bibote zuria-ri bizar beltz sarria gainjartzen zaio edo haur aurpegi bizargea... Bata bestearen atzetik denak, horiek dira suaren soslai ezberdin eta aldakorak; ez dute irauten, baina etengabe txandakatzen dira ispiluko islan. Su baxuan jarritako aurpegi baten promesa neurtua diren nerabearen hazpegi uzkurrek, konturatu orduko, gainezka egiten dute. Noiz uzten dio aurpegi batek zirriborro izateari, noiz irakiten digu oharkabea behin izan eta betirako uste genuen bisajeak, noiz ematen du aurpegi batek amore, aurpegi baten promesa doia zelarik agindu zigun erretratu umorik sekula ematera iritsi gabe? Atzo gaztaro aurpegi dantzari bat zena, ardatz bihurri baten gainea bueltaka, pitbull masail erorien euskarri finko bilakatzen da helduaroan. Piz-

gailu izeki bat da Fakirraren bisajea ispilu aurrean, kullunka urduri eta bertikal bat. Ez da derrigor nartzisis-moa ispilua bisitatzera garamatzana, denboraren makinari egin nahi diogun soako azkarra ere izan liteke. Kuku bat orakuluaren argi itsugarriari, ez besterik.

Fakirra da lebitazioa eta telekinesia dakizkiena. Kristal apurtuen gainean edo txingarren gainean oinez ibili dena. Ahotik sua jaurtitzen duena, gasolina edaten duena, lanparetako argia berdin, kinkeetako olioia. Zuzia irenstea erretzen ez dena da Fakirra, iltzedun ohean egiten du lo eta bost axola zaio mina. Ezpata eztarrian behera sartzen du eta besoak zabaltzen ditu denok ikus dezagun ez dagoela han tranparik. Kandelari bi muturretatik su eman eta erretzen ez dena delako bera.

Bazuen etxe hark zer edo zer. *Arakisen* etxea izan zen beti, inoiz ez berea, pena eman zion, hala ere, hura utzi eta Bordelera aldatzeak. Bekaintiro eta gainerakoengandik urrun bizi da orain; Lucas Azurmendi-rengandik eta Paristik gertuago, ordea. Hegazkinetarako piezak egiten dituen ingeniarietza enpresa batean dihardu delineante, etorkin espainiarrak eta hegoa-

merikarrak dauden inguru batean. Teklas ere auzoan bizi da, eskerrak horri, badu tarteka norekin jardun, mozkortu eta abestu. Betaurreko lodiek hontza begirada egiten dioten adiskidearekin. Halakoxea baita Teklas: haren hontza aurpegia ikustean lepoari jira osoa noiz emango ote dion da otutzen zaizun lehen gauza. Hauspoa eman dio Teklasi bere poema bat abesteko modukoa dela esan dionean.

“Lau sokako gitarra?”.

“Bi goikoak apurtu egin zaizkidak, Teklas, eta ez diat dirurik berririk erosteko”.

Bertsu gertatzen zaio Teklasi Olivettiarekin: “p” tekla izorratua du eta “o” letra erabiltzen du haren ordeaz. Gero, banan-banan marrazten dizkie boligrafo beltz batekin beheranzko isatsak, letrarik letra. Norbaiti erakustekoa bada idatzia, Imanolek berak marrazten dizkio; txukunago geratzen da, Teklasek baino askoz ere pultsu hobe dauka.

Txileko jendea ezagutu dute Bordelen eta Violeta Parra eta Victor Jararen diskoak entzun dituzte haiekin. Txiletarrek tabakoaren ordeaz erromeroa erretzen dute pipan: usain gozoa du, baina kea lodia da eta aiseegi itzaltzen da; behin eta berriro piztu behar izan dute pipatzaileek. Elkarrekin *voodoo* erritu bat egite-

kotan geratu dira, txiletarren esanetan “Francoren heriotza aurreratu dadin”. Lurrean biribil bat eginez kandelak piztu eta telebista jarri dute, batere katerik sin-tonizatu gabe, elurra soilik pantailan eta aparatuaren zurrumurru estatikoa airean txistu-mistuka. Kandela beltz lodi bat ipini dute telebista gainean.

“Desnúdense”, agindu die ezustean txiletarretan zaharrenak.

Zalantza egin dute une batez.

“Desnúdense por la revolución”.

Nola ukatu hori.

Telebista gaineko kandelarekin zigarro bana piztu dute denentzat. Lurreko kandelen inguruan eseri dira txiletarrak eta gauza bera egin dute Teklasek eta Faki-rrak.

“Nosotros no fumamos...”, Teklasek, herabe.

“Lo mismo da: prendan la foto”.

Begiak itxita su eman diote diktadorearen argazkia ageri den egunkari ebakinari. Txiletarrak trantze egoeran sartu dira. Gero, lurrean kandlekin egindako zirkuluaren barruan errautsak erortzen utzi, eta in-tsentsua eta salbia hostoak erre dituzte.

“La salvia es para purificar”.

Teklas eta Fakirra barregarri sentitu dira, kikilduta eta deseroso parte hartu dute sorginkeria ahalegin hartan, baina txiletarrek erritual horretan itsu-itsuan sinesten dutenez, errespetuagatik, ez dira ezer esatera ausartu.

“Todos a una y quemén un pichintún más de saliva, no se me arruguen”.

Zer galdurik ez daukatela esan nahi duen begirada trukatu dute Teklasek eta Fakirrak. Esandakoa bete eta kandela beltza itzali dute, denetan azken. Elkarrekin mozkortu dira gero.

Baina atzekoz aurrera atera da zerbait. Hurrengo goizean, Pinochet jeneralak La Moneda jauregia hartu duela esan du irratiak, Salvador Allende hil dela estatu kolpearen ondorioz. Francok bizirik jarraitzen du, jakina. Txileko lagunak topatzean haiek ezagutzen ez dituzten itxurak egingo dituzte aurrerantzean Fakirrak eta Teklasek, zerbait lotsagarria konpartituko balute bezala.

Bordelen bizi direlarik ere, tarteka Sokoara jaisten dira, Bekaintiro eta haren emaztea, Raquel, bisitatze-

ra. Aita izan berritan pozik beharko lukeen arren, mi-kaztuta topatu dute Juanjo Bengoa.

“Bëihl kontsularen bahiketaren ondoren asko in-dartu da sektore militarista”.

“Mata Hariri buruz ba al dakik ezer?”.

“Hegoaldean zabilek hura, baina ez zakiat zertan. Ez zidak aspaldi idatzi. Azken gutunean Josutxo solfeo ikasten hasi dela besterik ez zidaan kontatzen”.

“Zenbat urte zauzkak ba bere nebak honezkero?”.

Bekaintioren etxean gela bat daukate, bisitak etortzen direnerako. Maitekorra da umeekin Fakirra, eta are maitekorragoa Bekaintioren alabatxoarekin. Baina berak ez du sekula seme-alabarik izango. “Maita ditzadan, ez dute zertan nireak izan: patriarka-tuaren uztarritik askatu behar ditiagu ume guztiak”, esan ohi du, edota, “umeak gustatzen ote zaizkidan? Helduak bezala, batzuk bai eta beste batzuk ez. Ez za-kiat zergatik gustatu behar zaizkidan guztiak”. Gorro-to du, sarri hitz egin izan dute horretaz, “aita eta ama” hitzak erabiltzea; “ninia”, “maitea” eta “laztana” hi-tzak erabiltzea; “printzesa”, “*mi rey*”, “*amor*” eta “*querida*” hitzak erabiltzea; nortasunaren kontrako erasoak dira, nahiz eta berak maitaleei “*mon coeur*” irristatzen dien eta “panpoxa”, tarteka, edo “mona-

murtxo", bestela. "Zerbaitetarako jarri ziguten izen bat: erabil dezagun ba. Dei diezaiogun izenetik elkarri, kamaradok. Ezta, Agnes?". Agnesek txupetea zurru-patzen du mausta-mausta.

"Agnes ados dago nirekin".

"Noski, Trotski!".

Esku batetik heldu eta besoa astintzen dio umea-ri, irribarrez hasi arte.

"Besotxo ttipia dik gero, tokadisko batena ematen dik".

"Hi beti gauza bera pentsatzen!".

"Noiz grabatuko duk diskoa, bide batez?", jakin nahi izan du Raquelek.

Teklasekin etorri ohi da gehienetan Fakirra, eta halaxe gertatu da gaur ere. Baina ez datoz biak bakarrik: Agnesen jaiotza ospatzeko xanpain botila bat litzatekeen arren logikoena, horren ordeztu –"detaile bat izan beharko diagu, ala?"– ahate bat dakar besapean. Besapean eta nekez: bizirik baitago ahatea. Raquel harri eta zur geratu da:

"Un canard? C'est une blague? Tu es fou!".

Raquelek berehala eskaini du bere burua ahatea labean erretzeko: badaki nola lumatu eta zerekin atondu. Baina hil, nork hilko du? Teklasek eta Fakirrak

elkarri begiratu diote eta gero Bekaintirori. “Ardo hau ez da oso aproposa, *ça irait bien, un Beaujolais*, ezta Raquel?”, bota du honek, hitz beste eginez.

Harentzako moduko lorategitxo bat badutenez, beste baterako utzi dute momentuz sakrifizioa: “Gizendu egingo dugu apur bat bitartean”, zuritu dute ahateari baino euren buruei emana dirudien moratoria. Bizitza erdia kemenaren ikasketari emana eta beste erdia zeure koldarkeria mozorrotzeko modu sofistikatuen bila. Gizentze kontu hura aipatzea nahikoa izan da, gainera, inoiz egin behar ez zuten akats larria egiteko. Ez sekula hau egin jatera zoazen ahate batekin: ahateari izen bat eman.

“Geure kontu Gretel gizentzea”.

Handik astebetera, Fakirra eta Teklas berriro Bordeletik jaitsi direnean, ahatea bizirik dago oraindik. Hantxe dabil, ahateen ibilera trabatu eta zurrun horrekin batera eta bestera. Fakirra beldur da bere oparia hain mehetuta ikustean:

“Ez zaigu ba gosez hilko, ala?”.

Flakiak jota dago eta gaixo itxura dauka. Agian heriotza naturala izatea espero dute, kutxilloaz lepoa egin beharrik ez izateko?

“Badakik arra dela? Ezin dik Gretel izan”.

“Orduan izan dadila Hansel”.

Zein da distantzia egokia Hansel hiltzeko? Etxetik gertu dagoen basotxo batera eraman dute. Teklas, Bekaintiro eta Fakirra: hiru musketier ahate baten kontra. Baina baso ataritik ikusi egiten da oraindik haien etxea.

“Hobe baso erdira joaten bagara”, bota du Bekaintirok.

Are barrurago sartu dira. Behin honetaz gero, hori da dagoena. Basoko bizitza ez-hain-basatia eta basoko bizitza guztiz basatia. Aukeratu bi horien artean bat: zure etxetik ikus daitekeen zatia ala ezkutuan geratzen dena.

“Zer gogorarazten dizu honek?”, galdetu dio Imanoli Bekaintirok.

Elkarrengandik gertuegi diruditen pinu altuen bertikaltasuna. Bala-zorroak orbel artean. Enborren kontra egindako tiro probak. Ez dira hainbeste hilabete joan, baina beste bizitza bat dela begitantzen zaie.

“Egin izan duzu hau lehenago?”.

“Askotan ikusi diat egiten”.

“Ez duk gauza bera”.

“Hain zaila ere ez duk izango”.

Bekaintirok eta Teklasek adar batetik zintzilik jarri dute ahatea, buruz behera; erromatar dira haiek, aha-teen erreinuko Kristo gurutziltzatzen. Ez dago uste zuten bezain ahul; luma sorta ederra askatu du, espantu eta karranka. Galanta iskanbila.

Teklasek, notario:

“Nagok, hau ez dela horrela egiten. Enbor moztu bat behar genikek gainean jartzeko”.

“Heldu iezaioak hik mokotik eta ebakiko zioat nik gero zintzurra; baina heldu fuerte!”.

“Ume jaioberri bat ematen dik, badakik ez zaizkidala jaioberriak gustatzen!”.

“Ez haiz batere erraza jartzen ari...”.

“Ez nauk ni izan *Hansel* bataiatu duena, Teklas”.

“Hago isilik, hik *Gretel* jarri hion eta, kalekumea!”.

Haiek zalapartak, haiek hego astinduak eta gihar bulkadak.

“Ziur nahikoa zorrotz dagoela? Lepomozten hasi eta erdibidean geratzea ez huke pulamentua izango”.

Gertatu ohi da: kalte gehiago egiten duela labana kamutsak. Ez soilik ahatearen lepoan. Duda egiten du Fakirrak, alkandora kendu beharko ote lukeen ala ez, odolarekin ez zipriztintzeko. Renault Dauphine autoko

orbanak oroitu ditu. “Estanpatua ekarri behar huen, Marcello, ez hire alkandora zuri bakarra”.

Lerratu diote labana lepoan, zintzuraren bila. Lepo-sagarrik balu, koordenadak aiseago hartuko lizkioketela otu zaio Teklasi. Indarra egin eta labanaren ahoa ahatearen eztarrian sakatzea besterik ez dute falta, baina ezin.

Raquelek, bien bitartean, aranak eta masustak murtxikatu ditu egurrezko ontzi batean saltsa egiteko. Ohea egin dio ahateari, tentuz hautatutako patata ttipi, zuritu gabeekin: patataren mamia baino gozagoa da labetik pasatutako azal lakarrarena. Berdin gertatzen da ahatearen azal kurruskatsurekin. Demontre, a zer gosea! Baratzetxo bat badutenez lorategian, azken momentuan hartuko ditu ezkaia eta mihi-lua, arnagarri oraindik eta lurtar. Luze joan zaio Raqueli itxaronaldia; behin eta berriro begiratu dio labean pasatu beharreko denbora neurtzeko logelatik hartu duen iratzargailuari. Albistegia birritan irratian; zerbait gertatu ote zaien kezka eta gertatutakoaren berri buletinak emango dion esperantza irrazionala. Ahatea lumatzen dutenerako, berandutu egingo zaie. Ezin gehiago zain egon eta, belarrak hartu ditu atari-

ko ortutik: sorginaren konjurua musketierrak etor daitezzen ezkaiaaren usainera. Eta, halere, ez datoz.

Aitzakia jarri dute: Morgon botila bat nahi zutela erosi, ahatearekin batera Beaujolais ardoa ongi letorkeela aipatu zutenez aurrekoan. Bekaintirok eta Fakirrak poltsa batean ekarri dute azkenik ahatea, jada lumatuta eta berripaperez txukun bilduta. Raquel berehala jabetu da ez dela eskuarki irakurri ohi duten egunkaria. Pardela egiteko modu txukunegia ezaguna egin zaio, hartara ohitutako dendariaren toles eta guzti.

“L'Équipe? Esan egia: Jean-Clauderri eraman diozue hiltzeko, ala?”.

Teklasek lotsatuta lokia haztatzen duen bitartean, baietz egin dute Bekaintirok eta Fakirrak, burumakur eta herabe. Jean-Claude, Frantziako Tourraren eta Stade Toulousain errugbi taldearen zale amorratua da. Eta inguruetakoa harakin bakarra.

“Zenbat kobratu dizue, ene gudari koitaduok?”.

Fakirrak eta Bekaintirok elkarri begiratu diote, apuruagatik irribarre egiteraino deseroso.

“Deus ez, Raquel. Ordainduta dago”.

Hansel libre utzi eta harategian hildako ahate bat erosi dutela, hori, Morgon botila hustean esango diote. Edo agian sekula ere ez.

Traktorearen gurdian zutik, frantsesez esan duena gaztelaniaz errepikatu du kapatazak:

“Nos vamos a repartir los surcos de la siguiente manera”.

Argibideen zain geratu dira hiru lagunak.

“Hori da hori aginpidea... Mahastietako Seiko urrea al da?”.

“Hago isilik, Imanol”.

Extremadurako ijito sendi zabalarekin eta Nimesko familia batekin partekatzen dute lo lekua. Bekaintiro, Teklas eta Fakirra, mahatsa biltzera jaitsiak dira, balentria proletarioaren esperientzia bizi asmoz. “Jornalariaren jurnalaz abesten duk hik, baina jornalero aritu al haiz sekula?”. Alor berean jarri dituzte hirurak; uza biltzen hasiberriak izateaz gain, eguzki galdatan ego-teko ohitura gutxien dutenak dira, nabarmen. Tenaza zorrotz banarekin ari dira mahats-mulkoak biltzen. Kapataza urrundu ahala, gero eta ozenago hasi dira ijitoak koplak abesten: *“Carita buena, carita de recoger”*.

Gero, lanaren mekanika neketsuak gain hartu dio txantxa giroari. “Ari nauk proletario bihurtzen”, pentsatu du bere artean Fakirrak, Tomas ijito gazteak eskainitako zahatetik edaten ari dela.

Teklasek bi eskuak behar ditu mulkoen zuztarra etengo badu. “Nire tenazak kamutsago zaudek”, desenkusatu dira bere hontza begi erraldoiak norbait begira duela ohartu denean. Fakirrari berriz, umotze puntu betean dagoen mahats mordoa eskuetan hartzea naturarekin hari zuzena izatearen pareko begitantzen zaio. Euforiko dago. Teklasek beste nonbait topatu du euforia:

“Ikusi al duzue Tomasen emaztea?”.

“Niri haren ama gustatzen zaidak”.

Txantxatzat hartzen dituzte Imanolen ateraldiak, baina Fakirrari emakume helduak gustatzen zaizkio, horixe da egia.

Saskiak mahatsez betetzen doazen heinean, elkarri begiratzen diote hiru adiskideek, zeharka; batak bestearen saskiak ikuskatzen dituzte, barne lehian. Bekaintirot bildu du gehien; Fakirra da denen artean motelena. Altua izatea: hainbeste makurtzearen makurtzez xixko egina du gerria. “*Carita buena, carita de recoger*”. Bazkalostean, eltzeko kafea edaten duten

bitartean, gitarra atera du Tomasek eta kantari hasi da haren emaztea. Lotsa poxia ezarian uxatu eta ahotsaren uhina apurka-apurka ozenagotuz, koplaxoren bat hasi da gaztelaniaz abesten Imanol ere, gainerakoek esku-zarta alegeraz lagundu bitarte.

Bigarren egunean Teklasek hatz bat moztu du deskuidatuta tenazekin. “Eskerrak kamutsenak ziren!”, lagunek adarrean. Tomasen amak bere lepoko paineluarekin bildu dio zauria eta “interesantearena egiteko” aholkatu dio, odol lar gal ez dezan: ukondoa belarri parean duela zuhaitz baten kontra bermatu eta hatza gorantz begira jar dezala, eskolan galdera egiteko txanda eskatzen duen ikaslearen gisako. *Preguntón* ezizena jarriko dio norbaitek, eta hala deituko diote extremeñoek une hartatik aurrera. *“Pregúntale al Preguntón”*. “Hau ez da zuentzat, zergatik etorri zarete mahatsa biltzera?”, galdetu diete Nimeskoek, tankera hartuta. Dirua behar dutela, “Denok bezala”. Ez dute itxura sinesgarria eman. Nimeskoak ez dira, ordea, inoren bizitzan muturra sartu zale: sinesten ez duzunarekin konformatzea ere ezinbestekoa da kamaraden artean. Zuztarra beheraxeagotik moztuta samurrago dagoela eta orduko mahats-mulko gehiago aterako dituztela aholkatu die Tomasen amak, errukituta. “Mila

esker, Felisa”, eskertu dio Fakirrak, begirada haren eskote izerditutik ezin bereizi. “Zuen kasa konturatuko zinetela uste genuen, bestela lehenbiziko egunean esango genizuen”. Baina harroak izan. “*iHaber preguntado el primer día, Preguntón!*”.

Laugarren egunean, denak ortozik jarri eta oin zolekin mahatsa zapalarazi diete, molde zaharrean. Makinekin egiten dute jada zukutzea, baina botila batzuk, etxekoentzat, oinekin zapalduta egitea da gutizia, mendetako usadioa galtzeak pena ematen dielako mahasti jabeei. Arto landare lehorren bigungarriak dituzten ohantzeetan egin dute lo, denak elkarrekin.

“Tomasen ama, Felisa, alarguna omen duk”.

“Zer seta sartu zaik Tomasen amarekin, Imanol?”.

“Egia al duk honi Felisa gustatzen zaiola?”.

“Imanolekin ez zagok jakiterik, Teklas”.

Bosgarren egunean, porru eginda, Bordelera itzuli dira Teklas eta Fakirra eta Sokoara jaitsi da Bekaintiro.

“Laster ikusiko dugu berriro elkar, ala?”.

“Noski, Trotski!”.

Alorrak banatu, izerdia bota, arrastoan sartu, “*carita buena, carita de recoger*”. Jada badakite zer den mahatsa biltzea, eta are garrantzitsuagoa dena: *esan*

dezakete badakitela. Beren bizitzako lehen balentria proletarioa izan da eta beren bizitzako azkena.

“Carita buena, carita de recoger; ¡ay, quien más recoja, que la luna se lo pague a él!”.

Handik gutxira Lucas Azurmendiren beste gutun bat jaso du Paristik. Gogo handia dauka haren poemekin zer egin duen entzuteko. Bisita bat egin behar liokeela aholkatu dio.

“Paris pil-pilean zagok, gustatuko zaik”.

Jendea kafetegietan eserita, kalean dabilen jendea-ri begira. Uste orokorraren kontra, hiri iluna da arratsean Paris. *La ville lumière*, argindar artifiziaia estreinakoz bertan jarri zelako ipini zioten izen hori, ez berez argi natural berezirik duelako. Horixe gogorazteko daude hor eraikinok: zeu ez zarela bertan bizi. *Chambre de bonne* bat da zure etxea, txapitula, ganbara; neskame jaioa neskame hilko da. Itsasorik gabe-ko zenbat itsasargi auzo altuetan, bokazioa ofizioa baino inportanteagoa baita hemen; “marinel izateko ez da behar itsasorik, Sena daukagu”. Udazkena astu-na da parkeetan ere, neoi gorri eta metro sarrerako fa-rola laruen balizagatik ez balitz nekezagoa litzateke

hiriaren goibeltasunak ito gabe lekuetara iristea. Be-
leak beldurgarri handiak dira Champ de Marsen eta
Montmartren, kaioen tamainakoak ia.

Teklasek konbentzitu du Bordeletik Pariserako pau-
soa ematera.

“Non lan egingo dugu, ordea, Teklas?”.

“Montmartren oraindik mahastiren bat geratzen
dela entzun diat...”.

Azkar sortu dira harremanak. Gela merke bat alo-
katu diete Lucas Azurmendiren lagun batzuek eta lan
gutxi eginda pobre eta zoriontsu bizi dira Parisen.

“Ezetz asmatu nor bizi zen hemen zuen aurretik?”.

“Napoleon Bonaparte?”.

“Agian ezagutuko duzue: Lurdes Arakistain”.

“Arakis?”.

“Orain Mexikora exiliatu da”.

“Nahita ere. Badirudi bere pausoen atzetik gabil-
tzala...”.

Gutxien uste duenean, izen handien ondoan abes-
teko aukera izango du Imanolek, euskal errepresalia-
tuen ordezkari bezala. Paco Ibañez kantaria aurkeztu
dio Lucasek, eta berak ere abesten duela entzun ordu-
ko Théâtre de la Villen ospatzekoa den Frantziako Al-
derdi Komunistaren jaialdira gonbidatu du.

Théâtre de la Ville, kotaraino beterik. Fakirra apur bat kikilduta sentitu da hainbeste jenderen aurrean.

“Primeran egon haiz, izugarri polita izan duk. Hi ez haiz gustura aritu?”.

Baietz esan dio Pacori, zer esango dio ba? Pacok, kantari gehienek legez, adrenalina borborka izan ohi du kontzertuen ondoren: “Orain muskuilu batzuk jatera joango gaituk Rodanoko lagun batek ekarritako ardo zuriarekin, eta gauean gogoratu Tunisiako hirukote bat entzutera goazela, beste adiskide batzuen etxera. Badauzkak Cuarteto Cedrón ikusteko sarrerak? Bestela lortuko ditik nire anaiak...”. *Troupe* polita dute inguruan, zaleak eta akainak, nola bereizi jende eza-gunaren arrimura biltzen direnak parasito likatsuetatik? Batzuetan ezinezkoa da. Gauarnoteka batean azkenak -hitz egiteko modu bat da- hartu orduko barreiatzen doaz artistak. Zaila da denak merezi bezala agurtzea, zorion aitortza eta besarkada artean joan direnen kontu egitea zehazki; batzuk bitan musukatzen dituzu eta beste batzuek agurtu gabe alde egiten dute.

“*Cous-cousa* gustatzen zaik?”.

“*Cous-cousa*, Paco?”.

Nola esango dio Fakirrak ez duela sekula probatu, ez dakiela zer den ere, amazighen dantza bat dela

esango balio ere berdin sinetsiko liokeela. “Cous-cousa... jakina... Zalea nauk, nori ez zaiok bada gustatuko cous-cousa? *Excous-cousez-moi, mais le cous-cous... c'est la folie!*”, antzeztu du Fakirrak. Jatun bizia da Paco, bizitza koska handitan ahoratzen duen horietakoa.

“Gustura egon haiz orduan, ala?”.

“Ez nauk gitarrista ona...”, desenkusatu da Fakirra, Pacoren Passage Molière-ko atelierrera bidean.

“Hara bestea! Ezta ni ere!”. Biek barre egin dute ozarki, Aita Noel eta Père Noël, afaritan euren ahotsa urrunera heltzen dela sentitzen duten bi gizonezkoren ahots ozenak. “Nor naizen jakin nahi baduzu, itxi begiak eta entzun”. Dohain bat duzula deskubritzen duzunean, “ahots polita daukazu”, zer egin dohain horrekin? Funtsean, erabili, munduari eskaini, eta horren trukean inoren arreta jasotzera ohitu.

Moustakiren ondotik egokitu zaio eszenatokira ateratzea. Borroka kantak abestu ditu. Txalo egin diote, txalo zaparrada ez, baina ezta txalo zirimiria ere. “Parisko txaloak dituk, motel, zein duk arazoa? Théâtre de la Ville, Paris!”. Txiki sentitu da, baina txiki sentitzeak lagundu dio jakiten handi sentitu nahi duela egunen batean.

“Primeran egon haiz, Imanol”.

“Hik uste, Paco?”.

“Jakina, berealdiko ahotsa daukak! Ezer izateko-tan, agian apur bat...”.

“Agian apur bat?”.

“Iritsi dituk kazolak, kasu! Hara... zuek ere azaldu zarete? Baina izan al zarete kontzertuan, sasikumeok? Ziur ez zaretela festara zuzenean etorri? Ongi ezagutzen zaituztet, gero! Hator, Imanol: hau ere euskalduna duk, baina lerro gogorrekoa, ojo... ez zaizkiok hi bezalako troskoak gustatzen, kar-kar...”.

Jende gehiago heldu da, tropelka. Eztei batera doan *zazou* andana dirudi azken talde honek. Marx anaien kamarotea da Pacoren atelierra. Fakirrak bostekoa luzatu dio jendetzaren erdian aurpegirik ikusi aurretik aurkeztu dioten gizasemeari.

Biak geratu dira harri eta zur.

“Seiko? Hi hemen?”.

“Ez esan lehendik ezagutzen duzuela elkar?”.

Pacok sartua du enegarren muskuilua ahoan:

“Hmmmm! Gozoa, oso gozoa; etsaitu zaitezte gura baduzue, ni afaltzera noak”.

“Ez da etsaitzeko premiarik izango”, bota du Faki-
rrak irribarre behartu batekin. “Ez da etsaitzeko pre-
miarik izango, lehendik etsaituta gaudelako”.

“París fabrica adversarios respetuosos”, bota die
lepotik heltzen diela Pacok, baratxuri eta perrexiletan
beratutako muskuiluak bata bestearen atzetik irentsiz.

Parisen dagoelako izango da agian; Seiko oroitzen
zuen baina samurrago mintzo dela iruditu zaio.

“Ez didak esango Carrero Blancoren heriotzarekin
poztu ez haizenik, ala?”.

Carrero Blanco: haren Dodge auto leherrarazia
hegan. *“¡Voló, voló, Carrero voló!”*.

“Bëihl kontsularena garbiagoa iruditu zitzaidan,
egia esan”.

“Niri ere bai, baina Bëihl kontsula ez zuan Franco-
ren oinordeko zuzena...”.

Fakirrak ez dauka gaur, hain zuzen, borroka politi-
koaz lar hitz egiteko gogorik. Pacoren azken esaldia
geratu zaio iltzatuta, “ezer izatekotan, agian apur
bat...”. Agian apur bat, zer? Harritu egin da bere bu-
ruaz, bere jarreraz, borrokarekiko orain sentitzen duen
desatxikimendu ttipiaz, bere sorterriko kontuak ale-
tzen hasteko irrikarik ezaz. Moustakiren goxotasuna
nahi luke kantatzeko. Edo Rafael Albertiren *A galopar*

horrek antzoki guztia zutik txaloka jarritz ekarri duen zoramena. Imanolek ikusi du Pacok jendearen baitan eragin duen zirrara eta zirrara hori sortzeko gaitasuna desio du berarentzat. “Agian apur bat zer, Paco?”. Seikok gazte izu bat aurkeztu dio Imanoli, erretako komando batetik ei datorrena. *Erretako komandoak. Déjà vu.* Biak bakarrik geratu direnean baino ez dio bere izena esan:

“Fabio”.

“Fabio?”.

“Bai, Fabio”.

Bedi Fabio, baina ez zaio oso izengoiti sinesgarria iruditu. “Ezizen bat asmatzen hasita, aukeratzea zeukan beste bat”, otu zaio. Jan dute bakailaoa ardo beltzez lagundua, Rodanoko zuria glo-glo muskuiluekin amaitu zaielako. Fideua bat dator gero eta gitarra hartzea hurrena. *Caminito de Erandio* abestu dute eta *Los ladrones*. “Patxarana ere badaukagu, nafarra! Ezkurako basaranekin egina!”. Ducadosa erre eta erre dabil bere burua Fabio bezala aurkeztu duena, politikaz suhartasun askirekin hitz egiten duen mintzalagunik topatu ez duelako zapuztuta.

Lotara erretiratu dira asko, atelierreko txokoetara. Lekua sobera dago, eta ez balego ere bost, gozo

daude elkarren gainka nahas-mahas erdi besarkatuta. Alkandora hegai-puntadunak puntuzko jertse-lepoetatik kanpo gizonezkoak; emakumezkoak zapatak erantzita sofan etzanik, oinbular gurutzatuak batak besteari laztan eginez, zetazko mediak elkarri igurtzita sunagi bat piztu guran bezala. Pompidou ondoan egoitearen abantailak: goizeko lehen metroa hartzea nahikoa izango dute, Passy, Grenelle, La Villette edo nobere periferiara itzultzeko. Latin Auzoan bizi direnak ibaia oinez zeharkatu besterik ez dute, hemisferioz aldatzea, Paris erdigunea Senak bitan banatutako garezurra den heinean.

Bat-batean gogoratu da Paco:

“Ostias, tunisiarrak. Ez gaituk haienera joan! Seko ahaztu!”. Inguruan lo daudenei begiratu die; sorbaldatik helduta bakarren bat astindu eta esnatzen saiatu da, alfer-alferrik. “Zergatik ez dit inork tunisiarrena gogorarazi?”. Gero, Fakirrari begiratu dio. “Ea hurrengo astean... Sinets iezadak: festa itzelak egiten ditiztek, gero!”.

Baretu da apur bat giroa. Bere burua Fabio bezala aurkeztu duen gizon isila atelierreko koadroei begirabegira dago, jakin-minez. Gitarrari akorde trauskilpare bat igurtzi eta belarrira inguratu zaio Paco Faki-

rrari: "Hitz egin duk euskaldun gaztearekin? Ez harritu bide militarrean oso gora egitea horrek, borondate sendoegiko horietakoa duk, esanekoegia. Ulertzen didak, ezta? Aprobetxatu orain, bigunago dagoela. Seiko ez duk eragin ona horrentzat. Agian hik erakar dezakek Frente Obrerokoen alde. Begia keinatu dio gero. "*Ya se sabe: ¡París fabrica adversarios respetuosos!*". Pacorena ote da esaldi hori? Arerio ondraduak. Galdetu nahi lioke hori ere, baina gizon hau urakan bat da, berehala egin du berriz ere hitz beste.

"Kanta berri bat entzun nahi?".

"Adi-adi naukak".

Orduan etorri zaio berriz ere bukatu gabeko esaldia gogora Imanoli, bart gaueko alkohol aparretatik bueltan: "Berealdiko ahotsa daukak! Ezer izatekotan, agian apur bat...". Igarri behar zuen, norbaitek gustura kantatu duzun galdetzen dizunean, izango da agian ez duelako zure lanak asebate. Zeure autoexigentzia maila intuitze aldera galdetzen dizu, hark bere iritzizintzoarekin zu mintzeak merezi ote duen ala ez neurtzeko. Profesionalak uste du amateurrari aski zaiola norbere gozamina, eta gozamen hori gertatu bada, bedi; iritzirik eman ez eta kritikan gehiegi ez sakontze-

ko modua litzateke hori. Paco berririo ere kantari hasi aurretik ausartu da Fakirra:

“Benetan gustatu zaik nire zatia?”.

“Horixe baietz, kristoren ahotsa daukak”.

“Baina...?”.

“Ez zagok bainarik: kristoren ahotsa daukak eta punto. Diamante gordina”. Eten ttipia egin du. “Horre-
xegatik joango nindukek ni kanta-eskola batzuk har-
tzera, ahots hori alferrik galtzen utzi ez eta ondo abes-
ten ikasteko. Eta orain, utziko ahal didak behingoz gi-
tarra! Primizian, *ici, pour vous tous dans cette salle ce
soir...!*”.

Ponpezia itxuratu eta guzti, aurkezpena eta kanta beretzat direla sinetsi du, hasiera batean, Fakirrak: no-
labaiteko ordaina eman nahi diola, entzun berri duen
egia mikatza konpentsatzeko. Nori abesten ari zaio,
bestela? Izatez, esango luke bera dela han lo ez dago-
en bakarra, Fabio musugorriarekin batera.

Samurtasunez abestu du Pacok, egunsentiari da-
gokion tonuan. Sotil eta leun, baina ez Fakirarentzat,
hain justu. Mahukatik tira egin dio Fabiok, esna dago-
en laugarrena seinalatzeko:

“Anna Karina aktorea al da hori?”.

“Zenbat edan duk hik? Tankerarik ere ez du-eta! Ibizakoa duk, Manuela izena dik”.

“Ez zioik izen horrek batere pegatzen”.

“Konfiantzan: hiri ere ez Fabiok”.

Paco, Ibizako emakumearentzat kantari. Harentzat eta ez beste inorentzat. Txalo bakarti eta bakanak, eta, hala ere, Théâtre de la Villekoak bezain gozoak. Fakirrak beretzat nahi lituzkeenak. “Inoiz izango dituk”, pentsatu du.

Ibizako gosariak birentzat diren jakitun abiatu da Fakirra metrorantz, baina atelierra utzi aurretik besotik kateatu du bere burua Fabio gazte lotsatiarekin.

“Goazemak, arerio ondradu hori, sobera gaudek gu biok hemen”.

“Eta Seiko?”.

“Aspaldi joana izango duk, oilarrarekin ttanko esnatzen denetakoa duk hura. *Diziplina*. Noiztik zarete adiskideak?”.

“Gaur bertan ezagutu diat”.

“Orduan ez dago dena galduta”, pentsatu du Fakirrak, bere artean.

Granitozkoa da Parisko egunsentia batere lorik egin ez duzunean. Balkoi batetik bota dizuten balde-

kada bat argi monumental. Erdibiderik ez du hiriak: edo ilunegia da, edo argiegia.

“Eta hi, Fabio, non bizi haiz, asko galdetzea ez bada?”.

“XII. barrutian”. Ahultasun une batek mokokatu dio gazteari kontzientzia. Zalantza egin du, baina nekatuegi dago ispilu jokoetarako.

“Egia esan, ez nauk Fabio, Karlos duk nire benetako izena”.

“Askoz ere goitizen egokiagoa duk *Karlos*, inondik ere, hire benetako izena ezkutatzen hasita”.

Amore eman du. Orain bai, elkar errespetatu baino gehiago egingo dutela iruditu zaio. Sabaian freskoak marraztuta dituen La Coupole-ra sartu dira *brioche* bana eta kafea gosaltzera, uretan pasatutako arrautza pare batekin.

“Aholku bat nahi baduk, Karlos, egin nik bezala eta eskatu binaka kafeak. Titarexka honekin, nora goazak ba?”.

Orduan bai, bere benetako izena Pello dela aitortu dio.

“Pello Huarte”.

“Hiri bluesa gustatuko zaik, ala, Pello?”.

Besagaina goratu du.

“Bluesa?”.

“Memphis Slim ikustera joango gaituk gaur gauean. Txoratzekoa duk”.

Kafe hutsak binaka, *pichet de vin rouge, demi de bière*-ak eta bluesa, herriminaren kontra.

Handik egun batzuetara, Cuarteto Cedrón-en kontzertuaren aurretik, zilar kolore deigarritz osatutako mosaikoa soinean daraman emakume bat topatuko dute Pellok eta Imanolek Théâtre de la Ville ondoko terrazan. Kapelua ere zilar paperez egina duela dirudi, ispilu-emakumea balitz bezala. Fakirra inguratu zaio bere soinekoaren zergatiaz galdezka. Irribarrez itzuli da Pellorengana.

“Zer esan dik?”.

“Soineko situazionista bat dela”.

“Zer demontre duk hori?”.

“Niri galdetzen didak? «Zure desioen isla besterik ez naiz», bota zidak. Ez zioat txortetik ere ulertu”.

“Erabat pitzatuta zagok jendea hiri honetan”.

Ikasi dute leziorik ederrena: begira diezaiokezu zeure zilborrari edonon, baina Parisen bazaude, munduaren zilborrean begiratzen diozu zeureari.

“Emadazu eskala bat. Zurea, naturala”.

Eman dio Fakirrak. Lore sorta bat eskatu balio, berdin emango lioke. Bera baino hamar urte zaharragoa da madame Duprez. Emakume puska, bizi puskak piztu eta bizitutakoa.

Esperientziaren talaiatik egin du bere diagnosia:

“Baritonoa. Bon: afinazioa ederra, baina ahotsa beste leku batetik atera dadin saiakera egin beharko zenuke. Bestela, hamar urteren buruan eztarririk gabe geratuko zara. Ez duzu tarteka marrantarik izaten?”.

Marranta, galdetzen dio? Duprez irakasle paristarrek jakingo balu hiru kantaldi nola egin zitzakeen egun berean, eta, gainera, gitarraren hatz mami go-gortuez sokei kolpea kolpearen atzetik eman, nekazari gaztelarren moldera gitarra goldatu. Eztarri urratze-gintzatik dator; etxeko giroan jasotako ohitura gozagarriaz gain, borrokarako tresna izan da betidanik ahotsa beretzat. Sekula bururatu ez ordura arte, kanta eskolak jasotzerik. Baina bere lagunik miretsienak eta mentoreak hala iradoki badio, zerbaitegatik izango da.

Irakaslearen gomendioa: “Zuk aukeratu: manifestazioko lehen lerrorako moduko ahotsa nahi duzun, ala nahiago duzun Jacques Brel izan”. Berak, atzora arte, manifestazioko lehen lerroa aukeratuko zukeen zirki-

nik egin gabe, baina orain ez dago horren seguru. Kanta eskolaren ondoren Brelen disko bat erosi du. Brassens eta Leo Ferre ondo ezagutzen ditu jada; Brel, ez horrenbeste. Liluratuta geratu da kontzertuan dena eman eta bisik sekula eskaintzen ez duen gizonaren ahotsarekin.

Ospe ona du bere kanta-irakasle paristarrak. Emakume atsegina da Jacqueline Duprez, soprano izandakoa, eta normalean ez du ikaslerik hartzen Place des Vosges ondoko bere etxean. Batek daki Pacok nola konbentzitu duen. Termino horietan sekula pentsatu gabea zen: *ahotsa kokatu*. Diafragmarekin abestu behar dela esan ohi dute, ipurmasailak estu eta bizkarraren tente, baina Imanolek ezker orkatilatik abesten du gehiago: oinetako minez amaitzen ditu kantaldiak. Baldar arinaren ajeak. Urteekin taburetea estimatuko du eta oineko hatz lodia gainean abesten hasiko da, indarra bertatik baletorkio bezala.

“Oso ondo abestu duzu; nik eskola batzuk hartuko nituzke”. Oin bat onespenean, bestea onespene gehiago jasotzeko gauzak beste era batera egin behar gertatuzkeela iradokitzen duen aholkuan. Bi-pareta gazi-gozoa: bi esaldi kontraesankoraldi berean. Jende gutxi erabiltzen duen estrategia, auskalo zergatik; hain

eraginkorra da, izan. *Iritzizintzo* esaten zaion hori, aldiz, hausnarketarik gabeko krudelkeria zabarrari lotuegi egon ohi da gehiegitan.

Hasieran frustragarri samarra da: eskala osatzen ere ez dio Jacquelinek uzten: “Ez, horrela ez... Ireki xuabeago ahoa, sentitu zure ahotsaren erresonantzia aurpegian gora, irribarre egin, erlaxatu zure mihia, hartu arnasa diafragmatik...”.

Fakirrak kanta bat osorik abestu nahi lioke Duprez, abesti haren gainean gomendio zehatzak jaso, lanerako balioko diotenak, grabaziorako, eta ez beti eskalarekin gora eta behera aritu, asperdurarekin amorratu bitarte. “Eskala on bat ematen didazun arte, kantarik ez”. Eskala, eskailera, igo eta jaitsi, tinbrerik jo ezin, aterik inork zabaldu ez, ataritik kalera ezin atera. Unagarriak suertatzen zaizkio ariketa haiek guztiak.

Halako batean utzi dio berarenetik abesten. Euskaraz egin du Fakirrak, Duprezek frantses azentua –“*Oh là là, quelle horreur!*”– zuzendu ez diezaion. Zeuk beste inork ez dakien hizkuntza munizio bezala erabil daitekeen une bakan horietako bat.

“Ondo, *mais...* nik goragotik abestuko nuke. Kontzertu batean ezingo duzu inoiz horren baxu abestu, baldin eta ohetik jaiki berritan ez bada”.

Fakirrak pentsatzen duena esango lioke gustura: “Ez ni zuk ohetik jaiki berritan duzun itxura irudikatzerara bultza, gainera jauzi egingo dizut bestela...”.

“Behin gertatu zitzaidan, Imanol: baxutik kanta bat prest eraman nuen etxean goizean goizetik entseatuta, eta estudiora iritsi ginenerako nire grabe guztiak alde eginak ziren. Akabo. Aukeratu beti abesteko zeure tonalitatea zein den gau beranduan; afa-lostekoa da balio duen erregistro bakarra”.

Arazorik ez kontu horrekin. Duprez andereak asko jakin zezakeen eztarria kokatzeaz, baina afa-lostei zegokienean ez zion Fakirrari aurre hartuko.

“Niri ez didate grabeek alde egingo, zaude lasai”.

“Kasu, Imanol: grabeak egunsentiko txori herratuak dira”.

Paristarren hitz egiteko modu fin hura. Haiek bai, hegazti herratu. Gitarrarekin lagunduta abestu dio beste bat.

“Ahaztu gitarra, Imanol”.

“Nola?”.

“Gitarra, ahazteko. Taberna zulorako ongi dago, baina... ez zara aski ona kokotsa beheratu gabe jotzeko. Eta mikrotik aldentzen bazara, arazoak izanen dituzu aforo handiko antzokietan, ulertzen?”.

Mikroa, jakina, detaile bat zen. Aforo handiko antzokiak lortzeko prezioa bazen hura, prest zegoen gitarra baztertzeko.

“Oso itsusia da hatzak trasteetan ongi kokatzeko kokotsa makurtzen duen kantari bat eszenatoki gainean”.

Paristarren dotorezia. Tentetasuna lehenbizi; gero, gainerako guztia.

Egun gogorra izan da eta oso bakarrik sentitzen da Parisko neguan. Gamelu larruz egindako bota kanpero batzuk ikusi ditu eskaparate batean. Parisen oinez ibiltzeko derrigorrezkoak direla erabaki du. Aski izango da horiek ordaintzeko hiru egun baraurik pasatu eta Brelen disko preziatua Sena ertzeko bukinista bati birsaltzea.

Tunisiarrek erritmoa baino zerbait hobea daukate: taupada. Fakirra ez da haien tresnak izendatzeko gai, lautaren antzeko sokazko instrumentua da salbuespen

bakarra, eta liluraz geratu da hari begira. Lehenengo aldiz bere bizitzan, musikaren alderdi ia solidoaren kontzientzia hartu du, planotik altxatzen den eskultura entzungarri baten aurrean egotearena. Zenbat denbora behar izan ote du musikari bakoitzak bere tresnarekin hain modu naturalean bat egiteko? Horixe gertatzen zaio Parisen eszenatoki gainean ikusi dituen musikari askorekin, elkarrengandik bereizi ezinezkoak begitانتzen zaizkiola tresna eta musikaria, jende hura, eszenatokitik kanpo eta tresnarik gabe ezin imajinatzeraino. Inoiz bere ahotsarekin harreman natural hura berbera izatea amesten du.

Tunisiarrekin harago joan da kontua, kontzertua amaitzera doala dirudienean trukatu egin baitituzte tresnak lautistak eta perkusionistak, eta trukatu ondoren ere, naturaltasun berberarekin jarraitu dute denek jotzen, nola jarraitu duten haizezko instrumentistarekin erlojuaren kontrako norantzan berriro ere tresnak trukatu dituztenean, denboraren giltzari atzerantz eragiteko gaitasuna balute bezala. Ezinago eder eta hunkigarriago iruditu zaio Fakirrari ikus-entzulearekin jolastu eta kontzertuari suspentsea eta lilura eranste-ko modu hau. Ezinago eder eta hunkigarriago, eta, aldi berean, etsipengarria, musikari haiek beste upel

bateko sagardoa eta beste sagardotegi bateko upela diren uste osoa baitu. Esan beharrik ere ez, abestu ere denek abesten dutela.

Tunisiarrak apartamentuz aldatzekotan dira; eta dena ospatzen dutenez, festa bat egin dute haien alokairuko etxe zaharrari agur esateko.

“Partitzeko tenorea ospatu, bueltatzen garenean itzulera ospatzeko”.

Pacok diotsa momentua dela etxekoei telefonoz hots egiteko.

“Hemendik beretik, tunisiarren etxetik?”.

“Jakina! Nondik, bestela, Imanol? Poztuko duk hire ama Margarita!”.

“Baina... Deus pagatu gabe?”.

“Espabilatu, gizona! Gaur gauean doan duk guztiontzat telefonoa, zer uste duk, hauek faktura ordainduko dutela, ala? Azken gaua ditek hemen!”.

Leku askotako jendea dago telefonoz hots egiteko zain, gehienak hego-amerikarrak, Perutik eta Argentinatik etorriak. Francoren argazkia erre zuten txiletarrekin akordatu da Imanol. “Telefonoaren guatekea” esaten diote agur festa hari. Bere aurretik, emakume segail bat, telefonoan errusieraz mintzo. Fakirra xaramelatutageratu da hizkuntzarekin.

“Tu es une espionne russe?”.

“C'est pas ce que tu crois, j'ai une tante à Moscou... Baina paristarra naiz jaiotzez”.

Frantsesez edo gaztelaniaz hitz egin lezakete biek, baina lehen gau horretan, gehiago hitz egin du Tatianak errusieraz, Fakirrak hala eskatuta, eta berak, Tatianak hizkuntza debekatua erabil dezan erregutu diolako, euskaraz esan dizkio hitz batzuk, “panpoxa” edo “monamurtxo”.

Itzultzailea dela argitu dio Tatianak, dozena erdi hizkuntza dakizkiela.

“Dozena erdi hizkuntzatan maitatu dezakezu, beraz?”.

“Edo gorrotatu. Nondik begiratzen zaion”.

“Indiferentzia ez den bitartean...”.

“Indiferentziak ez du hizkuntzarik. Indiferentzia mutua da”.

Lebitazio puntu batez ibiltzera ohituak daude paristarrek, denak ala denak berez direna baino bizpahiru zentimetro altuago agertzeraino munduaren begietara. Alkandorarik gabe jantzi arren gizonezkoei jertseak elegante ematen diela iruditu zaio Fakirrari, eta gaine-

tik jartzen duten gaban edo jaka da -bigarren eskukoa baina dotorea- horren arrazoia ziurrenik. Bera ere halaxe dabil aspaldi, nahiz eta artileak azkura eragiten dion eta gorritasunak sortzen azalean. Munduan beste hiririk ez balego bezala jokatzeko dute paristarrek, eta buruaskitasun horrek halako enkantu bat ematen die, haiek daukatenik ez dakiten, baina Fakirraren begietara nabarmena den zaurgarritasun bat: aski da horretarako, finezia eta portaera sofistikatuko gizon-emakumeak lipar batez haien habitatetik kanpo imajinatzea.

“Ezin dut sinetsi oraindik Louvren izan ez zarenik”.

“Ez dut denborarik izan...”.

“Baina... *Les copains d'abord* gustatzen zaizu?”.

“Brassensen kanta? Jakina!”.

“Eta ez zara Gericaulten *Medusaren baltsa* ikustera joan? *Bon sang!*”.

Otzan doa Fakirra Tatianaren ondoan; itsu bat da bere itsu-neskarekin. Zaldien koadroz betetako gela bateraino eramán du. Tatiana bera baino gertuago dago axola duten gauzetatik, hala iruditzen zaio. Horrek, Tatianarengandik gertuago egon nahi izatera darabera bera.

“Gericaulti zaldiak gustatzen zitzaizkion ikaragarri”.

“Ezagun da”.

“Carle Vernet bere maisuari ere bai, baina berehala ikasi zuen Gericault gazteak harekin ikasi beharrekoa: «Aldea dago: nire batek aise irentsiko lituzke bere sei zaldi», esan zuen Gericaultek”.

“Apala, gure mutila”.

“Ez zeukan apal izateko motiborik. Hogeita hamabi urterekin hil zen, eta hara, ez zen Picasso izango, baina historiarako geratu den koadro sortaren egile da... Waterlooko desastrea adierazteko, zaldi bat erabili zuen. Bere muskuluen tentsioa eta urduritasuna, tximista bat gertu erori balitz bezala eta dena une horretantxe argitu: hor dago izua eta desastrea, zaldia-
ren gihar bakoitzean. Ez dago soldadu alerik, eta, hala ere, dena kontatzen digu gerrako porrotari buruz”.

Jeloskor sentitu da Imanol. Gericaultez, Gericaulten zaldiaz. Bataren talentuaz, Tatianaren begiak malkotzeko bestearen gaitasunaz. Ageriko abantailei heldu behar izan die gero zeloak uxatzeko: “Gericault hilik zagok eta zaldia ez duk koadrotik aterako”.

“Nola hil zen?”.

“Gauza bakoitza bere garaian, laztana. Hori gero-ago kontatuko dizut”.

“*Bien sûr*, irakasle andrea”.

“Epsomeko derbyari buruzko koadro hau. Begira horri: zaldi bakar batek ere ez du hankarik lurrean...”.

“Hegaz doazela dirudi”.

“Hain zuzen ere, bereziki garaikidea iruditzen zait hau. Beha koloreen erabilerari. Salbuespena: norma-lean baino askoz ere alaiagoak dira hemen”.

“Non dago Brassensek aipatzen duen *Medusaren baltsa?*”.

“Apurka-apurka... Ez diot zure harridura aurpegia ikustearen plazera nire buruari ukatuko, baina lehen-bizi beste zerbait erakutsi nahi dizut. Zatoz”.

Hurbildu egin behar izan dute hormara, Epsomeko zaldi karrerakoak baino puskaz txikiagoak dira koadro hauek.

“Hona hemen Medusarena ulertzeko lehen irudia, ttipi hori: morgeko hilotz baten burua da. Koadroa pintatzeko, morgera bisitak egiteaz gain, Gericaultek bertatik lapurtu zituen oin eta zango erauziak, dokumentatzeko... Trapuz bildu eta etxera. Harategitik baletor bezala. Imajinatzen? Hildako gorpuen kiratsa omen zegoen bere atelierrean”.

“Utzi asmatzen, Tatiana: hogeita hamabi urterekin hil zela esan duzu... Bere buruaz beste egin zuen?”.

“Ez zaitzala mito erromantikoak itsutu, *mon amour*. Gericault ez zen suizidatu”.

“Beha beste hauei. Salpêtrièreko psikiatrikoko gai-xoen erretratuak egin zituen garaikoak: kleptomano bat, ludopata bat... Horiek ere zoroen artean sartzen zituen... *Et voilà!* Hor dago”.

Hantxe dago, baiki, *Medusaren baltsa*. Georges Brassensen *Les copains d'abord* kantan aipatzen zen baltsa hura: “*Non, ce n'était pas le radeau de la Méduse, ce bateau...*”.

“Inpresioa egiten du, ezta?”.

Koadroa erraldoia da eta irudikatzen duen egoera larria: haren eskalak sorosle izatera bultza nahi du behatzailea. Irudiari isilik begiratzen utzi dio Imanoli Tatiak, bere begi miopeekin xehetasun bakoitza xuka diezaion. Soako konplizea trukatu dute koadroa arkatzez kopiatzen ari den arte ederretako ikasle batekin. Tatiari gustatzen zaio ahapeka mintzatzea, parean duten koadroa lapurtzeko intentzioa balute bezala.

“Benetan gertatu zen. Frantziarrek ondo gogoan zeukaten 1816ko *Méduse* ontziaren naufragioa”.

“Istorio asko daude hor. Nobela oso bat”.

“Zenbaitek esperantzari buruzko koadroa dela diote”.

“Esperantza? Naufragio bat zela uste nuen”.

“Mauritaniako kostaldean naufragatu zuen *Médu-se* ontziak”.

Mauritania? Neira katekistari aspaldi ikasita daki Imanolek mauritaniarrak zirela Dioklezianok hala aginduta Sebastian gezikatu zuten soldaduak. Esan egin behar lioke gero, seguru Tatianak ez duela xehetasun horren berri. Baina Tatiana oso sartua dago bere gida paperean, eta ez dio tarterik uzten.

“Hamahiru egun pasatu zituzten jitoan 146 gizon-
nezkok eta emakumezko batek. Galleta sorta bat, ardo
upel batzuk eta bi ur edukiontzi baino ez zeuzkaten
denentzat bizirauteko. Lehen egunean bukatu zitzaiz-
kien denak”.

“Eta gero?”.

“Gero borroka, hilketak, kanibalismoa eta suizi-
dioa... Frantziarentzat lotsaizunerako motiboa, man-
txa beltz bat...”.

Norbere lotsa: txiletarrak, Francoren argazki errea,
kandelen zirkulua, La Moneda jauregia, Salvador
Allenderen kasko okerra, Pinochet jeneralaren bibo-
tea.

“Hamabost baino ez zituzten erreskatatu”.

“Eta hor, non ikusten duzu zuk esperantza?”.

“Behatu koadroaren hondoan, horizontean: ontzi ttipi bat ez duzu han ikusten? Hari laguntza eske ari dira”.

“Beltza al da baltsaren brankan doan gizaseme hori? Afrikarra?”.

“Esklabotzaren abolizioaren alde zegoen Gericault”.

Olatuak, zeru ubela, laino ilunak, gorri printza bat horizontean. Orotariko jarrerak baltsan dauden bizi-rauleen artean.

“Eskuinean beheko aldean dagoena”, jarraitu du Tatianak, “belaunpean habe hori duena, beti iruditu izan zait olatu batek gurutzetik bota duen Kristo iltzatu”.

“Desiltzatu esan nahiko duzu...”.

“Horixe bera. Ikusten dut ikasten ari zarela”.

“Eta pentsalari greziar itxurako bizardun hori? Ez al dago lasaiegi naufragoa izateko?”.

“Ez dugu denok jarrera bera desesperazio uneetan ere, ala?”.

“Inorekin sentimentalki katigatu aurretik eskubide unibertsal hau behar genuke, agian”, pentsatu du Fakirrak, “behin bederen, hura une desesperatu batean nola portatzen den ikusteko eskubidea”.

“Ez zait oso errealista iruditzen. Bizirik zenbat atera zirela esan duzu?”.

“Hamabost”.

“Nik hemeretzi zenbatu ditut hor”.

“*Gorpuak eta gorputzak* daudelako. Ez duzu bereizten zeintzuk diren hildakoak?”.

Imanolek begiak ñarrotu, lepoa eskuinaldera makurtu eta betaurrekoen patilla igurtzi du. Hilik daude hasieran biziduntzat jo dituen lau.

Medusaren baltsa ikusmiratu ondotik, alferrik da koadroei begira segitzea. Arnasa hartu behar duzu. Bukinista baten postalak maiseatzen entretenitu dira Sena ertzean. Lehenaz gain piztu zaio begirada Tatianari *Hadrianoren oroitzapenak* liburua ale bat eskuetan hartu duenean. Zabalduegin du, usaindu. Gero liburua itxi eta bularrean estutu du. Mojen eskolatik etxera letorkeen hamalau urteko neskatila dirudi. Heziketa laikoa jaso zuen, ordea, Tatianak. Inbidia handia ematen dio horrek Imanoli, *Ni Dieu ni maître*. Kosta egiten zaio hainbeste askatasun duen emakume baten buruan sartzea. “Paristarrok beti prest gaude larrrua jotzeko: erne eta txukun”, bota zion behin, zuzen eta zorrotz. Gutxik dakite Tatianak bezala egiantzekotasunari lustrea emateko txantxa erabiltzen. “Hori bai,

goizean goiz nork bere ohea egiten dugu. Hadrianok ere halaxe egiten zuen: enperadorea izan arren, ez zion inori bere ohea egiten uzten. Informazio gehiegi oparitzea litzateke”.

“Hadriano enperadoreaz ari zara?”.

“Irakurri duzu Marguerite Yourcenar?”.

“Yourcenar?”.

“Marguerite ere ez? Ai, ai, ai...”.

Burua astindu du Tatianak eta mihiaz aurreko ez-paina bildu, patrika ttipiegitik diru pizarrak ateratzeko ahalegin handia egin beharko balu bezala: “*Marguerite* ere ez? Ez daukak, bada, ezer ikasteko!”.

Marguerite, Emil, Albert. Imanolek gorroto du Tatianak, osaba-izeko balitu bezala, idazleei izenetik beretik deitzeko daukan ohitura.

Hadrianoren oroitzapenak oparitu dio.

Bukinisten postalei begira berantetsi dira gero, Imanoli gehiago gustatzen zaion arren Tatianak liburu eta grabatu zaharren artean zenbat gozatzen duen ikustea, bera zer suma ibiltzea baino.

“Begira hemen: gure lagunaren postalak!”.

Espero gabeko zerbait topatu duenaren poz hori adierazteko modua, paisajeari kutsatzen zaiona. Esker-rak eman nahi lizkioke horregatik. Horregatik, eta

existitzeagatik. Baina Tatiana aurreratu egin zaio, besaburuan jarri dio eskua, samur. Serio jarri da bat-batean.

“Teoria ezberdinak daude”.

“Zeri buruz?”.

“Gericault. Nola hil zen jakin nahi zenuen, ala?”.

“Ahaztua nuen honezkero”.

“Zenbaitek diote zalditik erori zela, baina ez da segurua”.

Gericaulten *Gizon kleptomanoa* eta *Emakume ludopata* erosi dizkiote Sena ertzeko saltzaileari. Baita hirugarren postal bat ere.

“Ziur hau ere Gericaultena dela?”.

“*Bien sûr*”.

“Ez dirudi ba”.

Ez da zaldirik ageri, ez deus ilunegirik ere.

Muxua deritzon marrazkia da, bikote bat biluzik izara artean. Horrelakoetan ohi denez, izara arterago gizonezkoa, ageriago emakumezkoa.

“Jatorrizkoa ez dut sekula ikusi, baina zirriborro ttipi bat dela esango nuke: ikatzez eta *guache* zuriarekin egina. Garbi dago emakumezkoa aurrez aurre eta biluzik erakutsi nahi zuela pintoreak, baina akrobazia

ezinezkoa da gizonezko batek ohe ertzean inor era horretan erori gabe sostengatzea, ez duzu uste?”.

Eskultura klasikoan, noski, zerbaiteko balio dute oihal eta tapakiek: lotsariak estaltzeko adina, bueloa hartzen duen eskulturaren zatiari eusteko oinarria izan ohi dira.

Lasterketan zango bakar batekin ere lurrik ukitzen ez zuten Epsomeko derbyko zaldiekin akordatu da Fakirra, emakumea ohe ertzean dilindan, lebitatuko balu bezala, erori gabe ikustean. Gero irribarre egin du. Irribarre bat esan nahi duena: “Nahi baduzu gero probatuko dugu etxean”.

Metroko bagoiak leporaino beteta datoz. Haiek baino beranduago etorri diren bidaiari oldarkorrei sartzen utzi diete, jendetasunez. Hurrengo trenaren zain geratu dira. Ez daude bakarrik eta ez daukate batere presarik. Hurrengo metroa ere ez da aurrekoa baino hutsago etorri.

Joaten utzi diote. Geltokian zain denbora gehien daramatenak izan arren, plazer hartzen dute iritsi berriei sartzen utzita. Doala metro bat eta datorrela hurrengoa. Handik puska batera, tren bat erdi hutsik heldu denean, elkarri begiratu eta bata besteari

aurre hartu nahian, harrapataka jaulki dute biek: “Adiskideak, lehenbizi!”.

Hauspo bakarrarekin egin duten algarak bidaiari bakanen atentzioa piztu duela ohartu direnean, eskua elkarren ahora eraman dute listua irentsi eta lagunaren barrea itotzeko. Trenaren triki-traka zalapartatsuak berarekin eraman ditu Fakirraren aitanoel ahotza eta Tatianaren txolarre irria, besarkatuta biak, etxera ertzak zimurtuta helduko diren postalak patrikan daramatzatela ahaztuta.

Hurrengo goizean, dutxatik atera berri, Tatianak igandez jantzita eta bufanda luzea lepotik zintzilik duela topatu du Imanol, ohea egin nahian. Trauskil ari da, ordea: izarekin batera, bufanda muturra ere sartu zaio nahi gabe koltxoi azpira.

“Zeure burua urkatu nahian, ala? Utzi niri”.

Internazionala txistukatuz egin du ohea, biluzik, Imanol txokotik adi-adi begira duela.

La moitié du ciel irakurtzen harrapatu du Tatianak, Txinako emakumeen egoeraz mintzo den kronika liburu. *La moitié du ciel*, zeruaren erdia. Desio bat zen hura ala errealitatea? Arakisekin gogoratu da, gustura

bidaliko lioke Mexikora liburu hura, baldin eta haren helbidea balu.

“Nor da Arakis hori? Askotan aipatzen duzu”.

“Ez dut ezagutzen, baina arima bikiak garela uste dut. Bere etxean bizi izan nintzen sasoi batez, bere gauzen artean. Bere liburuak-eta...”.

“Irakurri duzu oparitu nizuna?”.

“Hadrianorena?”.

“Yourcenarrena”.

Jakina, *izeko Marguerite*-rena.

“Oraindik ez”.

“Masperok ateratako liburu marxista horietaz gain, beste zerbait ere irakurri beharko zenuke tarteka”.

François Masperok La Joie de Lire liburu-denda ireki aitzin, L'Escalier izeneko beste bat izan zuela azaldu dio Tatianak, “ttipia eta katu-txiza usaina zuen lokal bat”. Gaur egun, ordea, Saint-Michel inguruko La Joie de Lirea hurbiltzen dira pentsamendu, filosofia eta iraultza gose diren sasi-intelektualak, Masperok berak editatutako liburuak erostera. Erosleetako zenbait Espainiatik etortzen dira, frankismoak debekatutako liburuen egarri. Masperori buruzko istorio asko dakizki Tatianak: eguna joan eta eguna etorri, François

Maspero jabetzen da hainbat liburu falta zaizkiola. Mordoxka bat, baldin eta ostirala bada. Egunak eta egunak daude liburuak lapurtzeko ere. Ebasle gehienak trakets samarrak dira, ez dakite disimulatzen, baina zer esan behar die harrapatuta ere? Bere edizioak bereziki garestiak ez diren arren, pentsatu nahi du diruz larri dabiltzalako ebasten dituztela Althusser eta Paul Nizanen liburukiak, ez bera izorratzeagatik. Poliziari abisatu behar lioke? Nola egingo du zelatariaren lan hori aita Buchenwalden hil eta ama Ravensbrücke-ra deportatu zioten liburuzainak?

“Martxa honetan itxi egin beharko dut denda”.

Norbaitek gomendioa eman dio:

“Zergatik ez duzu sotoan boxeolari bat jartzen?”.

Esan dioten posturan, balirudike eguberrietako pinu bat jartzeaz ari direla.

“Nola boxeolari bat?”.

“Liburu bat lapurtzen harrapatzen duzunari hiru aukera emango dizkiozu: edo liburua itzultzen du, edo ordaindu egiten du, edo jipoitxo sinboliko baten bidez pagarazten diozu”.

“Burutik zaude... Muturrekoak emanda konpondu nahi dituzu lapurretak?”.

“Aste batzuetako kontua baino ez da izango: zurrumurrua zabaltzen denean, ebasteari utziko dio jendeak”.

Ideia ez zen hain ona suertatu: jende gehienak nahiago zuen muturrekoa jaso eta liburua etxera eramanean. Horrelakoak ziren sasi-intelektualak. Masperok boxeolariari ere zerbait ordaindu behar izaten zionez, negozioa are gehiago hondoratzea baino ez zuen lortu. Esana zuen inork boxeolaria eta Maspero elkarrekin ikusiak zituela lan egun luzearen ostean zerbait edaten, eta liburu-saltzailea barik boxeolaria zela han errondak ordaintzen zituen, denda hartan dirua irabazten zuen bakarra bera zelako.

Agian elezahar bat baino ez zen, baina Tatianak entzunda bezala kontatu dio Imanoli, erositako prezioan. Badaezpada, ez dute libururik lapurtzen La Joie de Lire liburu-dendan. Beste denda batzuetan bai, eta ez dira horregatik errudun sentitzen.

Tatianak liburu mordoxka dauka, Fakirrak askoz guttiago. *Hadrianoren oroitzapenak* liburutik, ordea, ale bana daukate. Maite diren liburuetatik bi ale erostea. Horixe zegokien, beharbada, maitaleei: liburu guztiak binaka erosi eta nork bere aldetik azpimarra-

tzea, gela ez, baina bai biblioteka bat norberarena; eta gero azpimarrak konpartitu eta konparatzea.

La Coupolen izan da, gosari beranduan. Lucas Azurmendi aurkeztu nahi dio Fakirrak Teklasi, biak idazle, biak poeta. Susmo hori du, ongi konponduko direla. Hasieran samur joan da dena, Baudelaire eta Verlaine, Rimbaud eta Lautreamont, badute zer konpartitua. Montaigne irakurtzeko aholkatu dio Azurmendik eta kasu egingo diola hitz eman Teklasek. Urte batzuk gazteagoa da Teklas eta autore publikatua Azurmendi, lezioa jasotzea egokitzen zaio lehenari eta gogo onez entzuten dio beteranoari. Lucasek indarkeria mota guztiak gaitzesten dituela esan duenean uhertu da kontua.

“Guztiak?”.

“Jakina, salbuespenik gabe”.

“Indarkeriari kontra egiten diona ere bai?”.

“Hara, nik ere hik bezala pentsatzen nian lehen, baina... guztiak diodanean guztiak dituk”.

“Insurgenteen eta askapen mugimenduen kontra hago, beraz”.

“Bazaudek antolatzeko beste bide batzuk”.

“Eta norbere defentsan aritzeko eskubidea, senak agindutakoa?”.

“Sena bezatu ezean, ez gaituk ezer. Gainera, zerbaitek esaten zidak, sena zerbait kolektiboa dela ulertzen duala hik... Eta senak ezin taldearena izan”.

“Zer esan nahi duk horrekin?”.

“Subjektibitatea orokortzearen atrebentzia duk iraultza guztien galbidea. Talde txiki baten ustea besterik ez dena orokortzat ematea. Pentsatzea masa sozial handia dagoela zure erabaki bakoitzaren atzean, eta are, gaur zurekin dagoen masa sozial berberak automatikoki zurekin jarraituko duela bihar ere. Hor zagok nire ustez zuen akatsa...”.

“*Gure* akatsa? Bakarra nagok mahaiaren alde honetan, nik dakidala”.

“Zerbaitek esaten zidak senak *huts* egiten dien haien aldeko bandera astintzeko prest dagoen horietakoa haizela herorri”.

“Bada, niri, zerbaitek esaten zidak elkarrizketa bakkarrizketa bezala ulertzen duen hitzontzi trebe horietakoa haizela hi”.

“Hitz egiten ari gaituk, lasai arraio, ala?”.

“Lasai arraio ez, baina hitz egiten ari gaituk”.

Haien artean isilunea sortu eta inguruko mahaie-tako mintzaira lokarrigabea presente egin da, eulizto ulergaitzen zurrumurruen gisako.

“Liskar bila bahabil...”.

Zilarrerria hotsa lozazko plater eta katiluetan; ez-pata ttipiegiekin egiten diren duelo urrun eta nagiak.

“Liskar bila banabil, zer? Lautreamont gora eta Montaigne behera, eta orain amaitu gabe uzten dituk esaldiak?”.

Ziztada batzuk leku mingarrietan jasotzen dira; beste batzuk, mina iraunkortzeko gaitasuna duten le-kuetan. Zenbaitetan, bi lekuak dira leku bera.

“Madrilgo Rolando kafetegiko atentatua astakeria galanta izan duk, edonondik begiratzen dela ere”.

Rolando kafetegia: hildako zibilak, polizia frankis-ten habia behar zuen lekuan. Egoera hartzen ari den ziaboga zakarra ikusita, Fakirra saiatu da biak bare-tzen.

“Tira, mutilak... Bion letrak abestea gustatzen zai-danarekin, ez zarete orain bata bestearekin muturtu-ko, ezta?”. *Arerio ondraduak* Parisen, hura zen leloa, ala? Baina eztabaidak bere horretan jarraitu du. Tinko eta gotor norberaren jarrerak. Intrantsigente izatea le-poratu dio Lucasek Teklasi.

“Hitz egingo diagu hogei urte barru”.

“Bizitza duk handiena. Ez hago ados horretan? Bizitzarik gabe ez zagok ezer”.

“Arrazoi duk: ez zagok ezer bizitzarik gabe. Ez one-tik eta ezta txarretik ere”.

“Integrista batek bezala hitz egiten duk”.

“Eta hik erlatibista baten epelkeriarekin”.

Kafea amaitu gabe alde egin du Teklasek. Larria da hori, Parisko kikarak diren titare ttipiak izanik. Handik bi egunera, bere harridurarako, Seikorekin eta Pellore-kin ikusi du urrunetik Saint-Lazare geltoki inguruko ka-fetegi batean.

“Zerbait egiten duzu jendaurrean, ongi pasatzen duzu ala ez, eta jendeak ongi pasatzen du zurekin ala ez. Zuk ongi pasatzeko ez dute zertan entzuleek ongi pasatu, eta alderantziz. Orain, zer gertatuko litzateke, menturaz, denok pasatuko bagenu ongi?”.

“Sinplea ematen du horrela esanda”.

“Eta zergatik izan behar dute konplikatuak gau-zek?”.

Iturriko urari aditzearen parekoa da Tatianarekin mintzatzea. Bai, agian arrazoi du. Horretan ere bai.

“Kantari bezala ari zarapentsatzen, baina bizitzan berdin-berdina da: elkarrekin gaude eta elkarrentzat antzezten dugu. Tarte batez gertatzen da hori. Gero, oholtza utzi eta hanka. Dena aldatzen da: aldakortasuna da irauten duen bakarra”.

Tximista erortzen den unea: Gericaulten zaldiko gihar bakoitza, kandela batez gertutik argitua bezala. Zenbat horrelako une zaizkigu oparitzen?

“Une bat besterik ez da mundualdia, edo bai, bederen, mundualdiaren baitan merezi duen puska”.

Tatianak edozertaz konbentzitzen zaitu –“tira, bai, arrazoi duzu”–; bere xarmaren parte da. Bois de Boulogneraino joaten tematu da gaur, liburu asko erosi dituelako aspaldion eta aleak “umezurtz” dauzkalako. Nagia ematen dio Fakirrari Bois de Boulognerainoko trena hartu beharrak. Hotz dago giroa.

“Eta Luxenburgora joango bagina, besterik gabe?”.

“Ez da gauza bera. Lorategietara ez, basora joan behar dut gaur”.

Indi gaztainak, lizarrak, intsusak uraren ondoan. Horiek dira gaur Tatianaren *beharrak*. Basoko bizitza ez-hain-basatia eta basoko bizitza guztiz basatia, ez dago besterik. Erosten duen liburu bakoitzean hosto

bat, ohitura hori du: hostoak ondo aukeratu eta gero liburuen barruan gordetzekoa. Orriak eta hostoak, masailik masail. Etxean pilatuta dauzkan aleak hartu, zabaldu, eta beti erortzen da zerbait lurrera. Hostorik ezean, liburua “umezurtz” dagoela esaten du. Loreak ere zanpatzen ditu batzuetan: amapolak, bioletak, begoniak... Baina nahiago ditu hostoak, gehiago iraun eta hobeto zahartzen direlako liburuen barruan.

“Imajinatu jada ni ez nagoenean. Imajinatu jada Parisen bizi ez zarenean: *Hadrianoren oroitzapenak* zabaldu eta hosto bat topatzen duzunean nitaz gogoratuko zara. *Tatianaren oroitzapenak* izango dira”.

“Zu gabe eta Parisen egotea. Bi gauza horiek batera, pentsaezinak dira niretzat”.

“Pentsaezinak diren gauzetan pentsatzea da garunaren oparia, *n'est-ce pas?* Pentsagarria dena pentsatzeko bada soilik pentsamendua, bai aspergarria, ez?”.

Eskutik irabazten dio beti Tatianak.

Bois de Boulognen heze dago lurra. Gamelu ileko botak lohituko zaizkio; hobe estimazio handirik ez dien mokasinak hartu izan balitu, lokatzez eta legarrez estalitako estrata haietan barrena mokasinekin ibiliz gero Tatianak gogotik barre egingo liokeen arren.

Egina du inoiz: nahita desegoki jantzi, Tatianaren algarak goizean goizetik entzutearen gozamina bere buxuari oparitzeagatik.

“Les fleurs du mal-en edizio berri bat atera dute. Zer sartuko diogu barruan, zerbait pozoitsua? Pozoitsua eta ustela! Jasmin lorea? Belladonna hostoa? Edo zerra itxurako bat nahiago du berorrek, gaztainondoa-rena bezalakoa?”.*”*

Analfabeto samar sentitzen da haren ondoan, baina astigar hosto batekin arriskatu da Imanol. Ezetz, Tatianak: “Gozoegia, gehiegi maite dute erleek astigarrak Baudelairearen liburu batean sartzeko”. Landare igokariak erabat estalitako enbor bati begira geratu da hurrena.

“Ez al da zoragarria?”.

Gericaulten zaldiekin lortzen duen berbera lortzen du huntzari begira jartzean ere: Imanol zuhaitz haren jeloskor sentiaraztea. Fakirra ez da bereziki hostozale edo mendizale; are gutxiago, Parisen dagoenetik. Beste gauza batzuk deskubritu ditu, eta ez ditu lehen-goak sobera faltesten. Saint-Lazare geltokian Seiko eta Pellorekin ikusi zuenetik, gutxiago egoten da Te-klasekin. Pello obreristen aldera erakartzen saiatzeko aholkatu zion Pacok, eta horren orde, borroka arma-

tuaren aldekoenek limurtu dute, itxuraz, Teklas. Ez du gehiago harekiko itzalik Imanolek. Nostalgiaz oroitzen du bere lidergo galdua: Bekaintirokekin zinean lokartu eta Mata Harirekin Vespinoan ibiltzea, Fidel Castroren hitzaldiak. Urrun geratu da hura guztia.

Tatianarekin bizi da Neuve des Boulets karrikan, nahi bezain ozen jar ditzakeen diskoekin, gaztainondo hostoz betetako liburuekin eta lagunek bidalitako gutun eta postalez betetako tiradera duen gau-mahaitxo batekin, bere lehen LP handia iritsi denean. Bere-berea den disko luzea, bere izena eta grano lodiko zuri-beltzezko argazkia lehen aldiz azalean: lehoi txima luze eta beltzaranak, ahoa zabalik, munduari aldarrika, Paco Ibañez gitarrarekin lagun. Madame Duprez harro egongo da.

Kosta zaio, baina behin hasi delarik, ezin du utzi. Yourcenar irakurtzen ari zarenean, ezinezkoa da loak hartzea.

“Zer da insomnia, pentsamenduak, arrazonamenduak, silogismoak eta definizioak eraikitzeko geure adimenak duen seta maniako hori ez bada? Zer da insomnia, bada, begi itxiekiko ergelkeria bedein-

katuaren edo ametsen eromen jakintsuaren aldeko abdikazioari uko egitea ez bada? Lorik egiten ez duen gizakia –gehiegitan nozitzen dut hori nire larrutan azken hilabeteotan–, kontziente izan ala ez, gertakarien berezko joanaz fio ez dena da. Inoiz ez zait gustatu maite ditudan haiei lo egiten duten bitartean so egitea: nitaz ari dira atsedean hartzen, badakit hori; eta badakit baita ere, loa, nigandik ihes egiteko duten modua dela”.

Tatiana lo dagoen bitartean irakurri du lehen aldiz *Hadrianoren oroitzapenak*, bere burukomin kroniko eta bere insomnio gauetan. Artearen munduari belarritik tira egiteko modu bat iruditu zaio Yourcenarren pasarte hura. Lo zegoenari miresmenez begiratzea maitasun ekintza samurtzat ikusten baitzen gehiegitan, Klimten eta Rodinen lotiak lekuko.

Hainbeste denbora zabaldu ere egin gabe eduki ondoren, erabat harrapatu du Tatianak oparitutako liburuak.

“Jende guztiak bezala, hiru modu baino ez dauzkat giza-existentziaren nondik norakoak ebazteko: nire burua azter dezaket, bide guztietan zailena eta arriskutsuena da hau, baina baita emankorrena ere; gainerakoak beha ditzaket, akaso, baina haiek ia beti lor-

tzen dute euren sekretuak ezkutatu edo, okerrago, egiaz batere sekreturik ez izan arren halakorik badutela sinetsaraztea; edo, azkenik, liburuetara jo dezaket, lerro artean jaiotzen diren perspektiba akatsak gorabehera”.

Indar gehiagoz azpimarratu du pasarte hau eta asterisko bat ipini dio alboan, garbi gera dadin non pausatzen den bere pentsamendua.

“Nire burua behatzeari dagokionez, hartara derrihortzen naiz, azken beltzeraino harekin bizi beharko dudan izaki honekin akordio suerteren bat erdiesteko besterik ez bada ere; baina ia hirurogei urteko elkarbizitza gorabehera, handiak dira tronpatuta egoteko aukerak oraindik. Sakon-sakonean, nire autoezagutza iluna da, barrukoa, adierazi gabea, konplizitate bat bezain ezkutukoa”.

Masak noiz altxatuko zain egoteak zentzurik ba ote du, masa horretako kideek beren burua ezagutzen ez badute? Altxatze kontziente bat espero dute, auto-kontzientziarik gabeko gizakiek egina? “Ez dakigu ezer geure buruari buruz”, pentsatu du Fakirrak.

“Sarri hitz egiten da gaztetako ametsei buruz. Baina sarriago ahazten dira gaztaroko kalkuluak.

Amets dira kalkulu haiek ere, eta ametsak bezain zoro”.

Kalkulatzailea ote den galdetu dio Imanolek bere buruari. Eta izatekotan, zertan den kalkulatzailea.

“Bigarren postuan geratu denak bere esku daukan bakarra: esaneko izatearen arriskua, errebelatzearen arriskua, edo guztietan larriena, transakzioarena”.

Seikoren eta Bixarren arteko lehiaz akordatu da. Eta bera lehiakorra ote den galdetu dio bere buruari. Izan beharko ote lukeen. Izan nahi ote duen. Prest ote dagoen izateko. Neurtu ote daitekeen –kalkulatu– konpetitiboa izateak ordainarazten duen prezioa. Bada lehiakorra, baina ez dago onartzeko gertu. “Izatekotan, nire buruarekin lehiatzen dut”, dio bere artean. Gezur polita da.

Porte de Clichy eta Clignancourteko geltokien artean eta Maréchaux bulebarraren azpian dago Rue de la Moskova. Kalearen izenak ez dirudi kasualitatea. Kalexka estu bat da, egiaz. Etxea ez da egokiena bilerak egin eta iheslariei aterpea emateko, baina horrexetarako darabilte apartamentua.

Seikok bereganatua du Pello. Teklas ere haien orbitan dabil. Hirurak dabilta orain Imanol limurtu guran.

“Oraindik ez duk armak uzteko sasoia”.

“Ez ote da hobe goizegi utzi izanaz penatzea, beranduegi utzi izanaz baino?”.

“Ez niri esan noiz den goizegi eta noiz beranduegi”, ihardetsi dio Seikok, gurasokeria aire batez. Abangoardia armatuaren alde dago. Beraren ustez, gerra dinamikari eutsi behar zaio eta obreristak eta haien jarraitzaileak ez dabilta zuzen indargunea beste leku batean jarrita. “Gerra dinamika” esan liteke eta ados egon. “Jendea hil” esatea, zailagoa da hori. Agian ez luke Fakirraren aurrean horrela formulatuko, baina humanista bat, sakon-sakonean, ekintzadunen pentzura abantaila ateratzen duen besoak antxumatutako individualista burgesa baino ez dela uste duenetakoa da Seiko. Ba ote da lur azalean ekintzaile peto-petorik, ekintzaile ez direnei buruz honela pentsatzen ez duenik?

“Ez duk bada pentsatuko gitarrarekin bakarrik urrutira iritsiko garenik, ala?”.

Esaldi hori entzuna du Imanolek lehenago inoren ahoan. Berria da, ordea, ahots tinbre hau: Pello ari da

hizketan, entzundakoaz fidatuz. Hausnarketak ez du hor tokirik; inori entzundakoak geure eztarrian hartzen duen lekuaz besterik ez gara ari.

“Lehenaz beste gogortzen ari haiz Parisen, Pello. Hiri honek higan kontrako eragina izatea espero nian”.

“Parisen ezagutu genian guk elkar, zer dakik hik nolakoa nintzen ni lehen?”.

Seikok irribarre egin du Fakirra eta Pello mokoka ikusitakoan.

“Eta hi, Teklas, ados al hago bi hauekin?”.

Teklasek bere hontza begiekin begiratu dio betaurrekoen akuarioaren bestaldetik: irenste ahalmen handia du begirada hark, baina hasieran ez du hitzik ebaki. Lehenbizi pentsatu eta gero idaztea izan da beti bere estiloa, Lucas Azurmendirekin izan zuten ikamikan jarrera aldaketa bat ikusi bazion ere.

“Gogorrago ematen ez badiegu, deus ez da aldatuko”.

Haren hontza aurpegia ikusitakoan, lepoari jira osoa noiz emango ote dion da otutzen zaizun lehen gauza. Bada, badirudi, jiratu duela apur bat honezke-ro.

“Horrela pentsatzen duk orain?”.

“Horrela pentsatu izan diat beti”.

“Xaloegia haiz, Imanol”.

“Eta zer, niri xalotasuna gustatzen bazait, Pello?”.

Fabio, Karlos, Pello. Zein da bere benetako izena?

Xaloea izateak ez dauka tentela edo memeloa izatearekin zerikusirik. Banitateak ere egiten gaitu xalo, beharbada. Zer ginateke geure banitaterik gabe? Eta geure xalotasunik gabe, zer ginateke? Xalotasunik gabe ez legoke anbiziorik. Xalotasunik gabe ez litzaiguke otu ere egingo geure burua eta mundua aldatzen hasterik. Ezta besteen burua eta geure mundua ere. Xalotasunik gabe, zinismoaren aurpegi harrikara baino ez litzaiguke geratuko, edo haren aldagai gaingabetua den eszeptizismo moldabera.

Zein da arazoa? Imanol ez beste guztiak direla han ekintza gizonak? Kontua da ekintza gizonak, hala utzi zuen idatzita Marguerite Yourcenarrek, ez dutela diariorik idazten: memoriak soilik. Eta hori ere, ez berehalakoan, garaiak baretu eta ekintzetatik apartatzen diren sasoi urrunean baizik, bizitzaren amaieran. “Eta ekintza gizonak memoriak idazten dituztelarik, harritu egiten dira, eskuarki”. “Dinamika” itsusia ez zen bezala, “harritu” ere ez zen hitz desegokia; zabala zen eta abegikorra, anbigua eta baikorra, aukeran. “Harritu” ez besteko hitz itsusiagorik pasatu zaio burutik Faki-

rrari, baina nahiago izan ditu bere gogotik uxatu. Damuari polikiago etor dadin erregutzeko modu adeitsu bat ote da harridura, molde babesgarri bat gauzen zergatian harrapataka ez sartzeko? Zaila da jakiten.

Pellorekin eta Teklasekin begirada konplizeak trukatzan ditu Seikok; zerbait darabilte esku artean. Konspirazioan kide direnen tentsio doi hori nabaritu die, usaindu egiten den zer edo zer: jendaurrean aitor-tu ezin duten zerbait konpartitzen dutela igartzen zaie, bai eta konpartitzen dutenaren indarra partekatzailen kopurua gehiago ez handitzean datzala sine-tsita bizi direla ere.

Frantzian argitaratu den LParen irabazi osoa dakar Fakirrak larruzko zorroan: hamar mila disko saldu dira hiru astetan. Diru asko da hori. Donostian delineante lan egiten zuen sasoian soldata guztia amari nola ematen zion oroitu du. Hala zen garai hartan. Dena amari eman, hark gero nahieran parti zezan, etxeko premien arabera. Arazorik gabe pasatu dute Pellok eta biek Espainiako muga. Estació de França bereizi dira bien bideak. Ezin dute jakin, baina ez dute berriro elkar ikusiko.

“Ez gutxietsi xalotasuna, Pello”.

Izan bitez arerio ondradu: elkar besarkatu dute, gizonak ohi duten moduan. Ez aurrez aurre, baizik eta diagonal zeharrez, bataren aldaka bestearen izterari emanda, ezkerreko hanka eta hankarteak pauso bat atzerago, babesean eta salbu. Gizonak dira, finean; besarkada maskulino orok du bere baitan zezen oldartzearen kondar adarkoi bat, espezieko arrak talentu gehiago edo gutxiagorekin disimulatzen saiatzen direna.

Galerías Preciadosea abiatu da Fakirra, patxadaz. Bertan geratu da kontaktuarekin. Bere kontaktua. Horixe bai ez zuela espero. Enlazea hura izatea.

“Istoria asko entzun ditiat hiri buruz”.

“Ez ote zuan beti istorio berbera izango, mila aldiz errepikatua?”.

Nor eta Bixar berbera.

“Beste norbait espero huen, ala?”.

Muga zeharkatzeko erabili duen pasaporte faltsua erakutsi dio: Bixarren faktoriakoa, Gestoría Arribaseko funda eta guzti. Irribarre egin du Bixarrek bere artelan erabilgarria ikusitakoan.

“Hain gutxi al gara ba buruzagia bera aurrera eta atzera ibili behar izateko?”.

“Txo, gera dadila hau garbi, Imanol: asko gaituk eta, gainera, oso langileak. Hi ikusteko gogoia nian, besterik ez. Gainera, bilera bat izan diagu Canfrancen, parean tokatu zaidak. Bekaintirok eskumuinak bidaltzen dizkik, bide batez”.

“Zertan dabil?”.

“Bigarren haur baten esperoan”.

“Haragiaren iraultza... Gure adinkideen izurria. Benetako iraultza egiteko antzutu egin beharko genitizkeke gudariak”.

Irribarre egin du Bixarrek.

“Ez hadi astapotroa izan”.

“Ez hago ados, ala?”.

“Gustatzen zaidak pentsatzen duana tanpez esateko hire joera hori... Lagunak azkar egiteko modu bat duk. Baina habil tentuz, izan daitekeke lagunak azkar galtzeko modu bat ere”.

Larruzko uhalak askatu eta zeharka begiratu du Bixarrek zorroak barruan dakarrena.

“Diru asko duk hau”.

“Dena duk gutxi presoentzat”.

“Ez zakiat zer esan...”.

“Esadak garagardo hau hik ordainduko duala”.

“*Primera clase*-n etorriko hintzen, behintzat...”.

“Trenean? Jakina! *Dandy* bihurtzen hasia nauk Parisen!”.

“Entzun diat hire diskoa... Ikaragarri zabaltzen ari duk, jende askorengana heltzen ari haiz”.

“Eta hiri, gustatu zaik?”.

“Gero eta hobeto abesten duk”.

“Ondoege, agian? Horrek apur bat kezkatuko nindukek”.

“Ez hadi pasatu, oraindik ez haiz Paco Ibañez”.

Touché.

Imanolek zalantza egin du une batez, esan-ez-esan.

“Seiko ikusi nian aspaldi ez dela”.

Buruz buruko arerio naturalaren aipamenarekin begirada piztu zaio Bixarri.

“Parisen?”.

“Gurutzatu besterik ez gaituk egin, pare bat aldiz”.

“Badakik horrek zer esan nahi duen, ezta? Jendea mobilizatu eta hornigai bila zabilek hura. Kaskagogorra duk”.

“Armak?”.

“Badakik zergatik deitzen dioten Seiko...”.

“Inoiz ez diat jakin... Hiruko taldeen buru delako... Ez duk horregatik?”.

Isilik geratu da berriz Bixar, zalantza-balantza.

“Izan ditik beste goitzen batzuk lehenago: Cartierretik, *Carti*, Casio edo Omega. Azkenean Seiko geratu zitzaioan. Familiatik zatorkiok: bere gurasoek erloju-denda bat ditek Azpeitian eta Zestoako harrobian lan egiten zian berak... Badakik bi gehi bi heure kasa batzen, ala? Detonadoreez eta karbonitratoez jakin beharreko guztia zakik horrek”.

Orduan ulertu du Imanolek Paris utzi aurretik Seikok misterio airez eta harrotasun zaurituarekin bota zuena (“Ez niri esan noiz den goizegi eta noiz beranduegi”; edo “Batez ere, kasu orratz luzeari, orratz luzea da delikatuena”). Eskumuturreko erlojuari begiratu dio.

“Barka, baina trena hartu behar nitek, Bixar”.

“Ekarri hona bostekoa”.

Eskutik heldu eta beregana erakarri du Imanol, besarkatzeko asmoz. Handia da Fakirra, baina ez da askoz txikiagoa Bixar: alkandoraren bular pareko patrikaraino makurrarazi du Fakirraren burua, laguna patrikan sartu eta berarekin eraman nahi balu bezala. Besarkada guztiak ez dira berdinak.

Imanolek astearteetako kanta eskolak galdu ditu joan-etorri honekin. Parisen egon nahi luke berriz le-

henbailehen, Tatianaren alboan gozatzek, madame Duprezen ondoan ospintzen, munduaren zilborrean eta bere maitalearenean.

Sargori da Bartzelonako kaleetan; hobeto egoten zen Galerías Preciadoseko freskuran. Oinez egin du Rambletan barrena, Ravalean eta Bornen itzulinguru bat eman eta Estació de França iritsi arte. Hartuko luke garagardo bat, baina sosik gabe dago. Ideia bat izan du: arazorik gabe aldatu diote txartela. Bigarren klasekoa merkeagoa denez, diferentziarekin sandwich bat afaldu du estazioan eta titularrak irakurri ditu kiosko batean: Björn Borgek Roland Garrosen irabazi duela eta Pescarolo izan dela Le Manseko 24 orduetan nagusi. Londresko Komunaren Ganbaran IRAk lehergailu bat jarri duela ere badakar egunkariak. Hamaika zauritu izan direla dio, alantzeko apalategitik atera gabe albisteak osorik irakurri ezin badu ere. Kargu hartu dio saltzaileak:

“Això no és un carrusel. Si vol llegir el diari, compri'l”.

Patrikan begiratu du. Zortzi pezeta balio du egunkariak, baina duro bat baino ez zaio geratzen.

Hiru urte falta ditu Fakirrak hogeita hamarrak betetzeko: akatsak egiteko daukan tarteak kalkulatu du. Frantsesez pentsatzen du aspaldion, *“une certaine marge d'erreur”*.

Itzali dira honezkero maiatzeko iraultzaren zantzuak Parisen. 68ko maiatza iratiaren iraultza izan zen, belarriz egin zen, aditutakoaren arabera: 400.000 transistore saldu ziren astebetean. Tatianak kontatu zion izan zela programazio osoa jendeak kalean zioenarekin osatu zuen irati kateak. Populuaren ahotsa. Gobernua Parisko espazio irati-telegrafikoa kontrolatu eta eteten saiatu zenean, iratiak kazetariei etxeko ateak ireki zituzten paristarrek, kronikak telefono partikularretatik egin zituzten. Baita atzerria ere, baita deiak zirenik eta garestienak izanda ere. *Telefonoaren guateke* moduko bat.

“68ak denok aldatu gintuen eta betiko”.

“Dena eta beti, debekatzeko moduko hitzak dira, Tatiana. Zuk erakutsi zenidan hori, gogoratzen?”.

“Debekatuta dago debekatzea. Hori ez nizun erakutsi? Asko izan ginen, denon artean egin genuen posible”.

Fakirrak badaki ez dela horren kritiko izateko unea, baina nazkatzen hasita dago kolektiboekin. Bixarrez

harago, inork ez dio presoentzat emandako dirua eskertu.

Tatianari bisajea lausotu zaio: oroitu du bere eza-gunak ziren bi gaztek nola arpilatu zuten eskaparate hautsi batetik telebista bat, eta nola auzotik gehiegi urruntzeko nekerik hartu gabe telebista hura salgai ipini zuten handik astebetera. Hori ere izan zen 68ko maiatza. Eta bai, espazio irrati-telegrafikoarena egia zen, baina bere lagun bat bortxatu egin zuten etxe horietako batean. Ate irekiko komuna giro inprobisatu horrek ez zuen gizakiaren sen iluna zokoratu. Egia hura mingarriegia zen, baita norbere buruari aitortzeko ere; nahiago zuen gertaera kriminal hura ez oroitu edo 67. urtean kokatu, baina egutegia egoskorra zen eta 1968ko udaberrian gertatu zen hura ere. LSDa hartuta zegoen Pauline bortxatu zutenean; Tatianaren adiskidea ez zen hitz hura erabiltzera ausartu, “bortxaketa”, erdi lotsatuta, erdi errudun. Marseilla gogorretik zetorren Pauline, eta izterreko ubeldurak aipatu zituen soilik, harramazkak lepoan, ez zuela besterik oroitzen, azazkalen petik uxatu ezin izan zuen eta astebetez mokadurik probatzeko gogoa kendu zion tipula erregosi usain okaztagarri hura salbu. “Zer tipula eta zer mokadu, Pauline? Bortxatu egin zaituzte!”.

Imanolek esnatu du bere gomuta garratzetatik.

“Joango gara *bar à huîtres* batera orain? Ez legoke gaizki...”.

“Dirurik badaukazu, ala?”.

“Ez”.

“Nik ere ez”.

Baina Tatiana prest dago dauzkan lau sosak gastatzeko. Itzulpen bat entregatu berri du eta aurrerapena kobratu. Fakirrak eskua sartu dio abrigoan, izter babes. “*Méchant*”, goxatu zaio Tatiana.

Kafe bana eskatu dute. Gero garagardoa eta *croque-monsieur* batzuk, ostra dozenarik ez gaur. Otordu desordenatua da intelektualaren topikoa; merezi izango du konbertsazioa edo larru-paxara tamainakoa bada gero. Arratsaldeko egunkariak heldu direnean arretaz irakurri dituzte.

Transatlantiko handiegia da mundua, baina haiek jarriko dute norako egokian.

Agonia luze baten ondoren bere ohean hil da Franco diktadorea, 1975eko azaroan. Paco Ibañezen atelie-rrean mozkortu dira. Denetik bildu da han: anarkistak, komunistak, separatistak, askotariko atzerriratuak...

Teklas besarkatu du, aspaldiko partez. Gauarnoteka batetik bestera ibili dira gero. La Coupolen ere egin dute geldialdia. Xanpainarekin topa egin dute eta taberna jabeek tabernari gazteei gaztigatu diete ez ko-bratzeko horiei gaur tragorik. Errepublika frantsesaren alde egin dute topa eta Errepublika espainiarraren alde, biak parekideak eta garaikideak balira bezala. Hurrengo egunean, bestondo guztien ama buruan ziri-molaka daukatela esnatu direnean, minutu batzuk beharko dituzte diktadorea hil dela gogoratzeko lehenbiziz, benetan sinetsi eta ospatzen jarraitzeko gero. Kallean hegoamerikar itxurako norbait topatzen dutenero, txiletarrak ote diren galdetzen diete Teklasek eta Fakirrak, azaltzen zaila den desesperazio premiatsu batekin. Azkenean topatu dute Valparaisoko bikote bat.

“Txiletarrak zarete?”.

“Bai, zer ba?”.

“Teklas! Txiletarrak dituk!”.

“Benetan zarete txiletarrak?”.

Bina muxu eman dizkiete txiletar zurtuei, bai eta barkamena eskatu ere. Txiletarrek ez dituzte muxuak ulertu, hain gutxi barkamen eskeak. Xanpaina edan dute gosaltzeko bezperako tabernan, baina gonbida-

penak amaitu dira jada: libera parrastada bat utzi beharko dute trukean.

La Coupoleko jabeak zerbitzari gazteari errana: "Haiek eraitsi balute agian mereziko lukete goizean ere xanpaina, baina bart gauekoarekin nahikoa: ohean hil duk diktadorea finean, ez duk hainbesterako".

Amaitu da festa.

NOMENKLATURA

Paris utzi aurretik jaso duen azken gutunean *Otsagabia* ponentziaz idatzi dio Mata Harik Fakirrari, eta Perturrek dituen zailtasunez. “Angel Berazadi Sigmako enpresaburuarena jakingo duk honezkero: enlazea berandu heldu omen zen. Kontua da hil egin zutela. Astakeria galanta. Perturrek ere ezin ditik *Bereziak* kontrolatu”.

1977ko Espainiako Amnistia Legearen ondoren, Tatiana eta biak Paristik Donostiara itzuli direnean, kontzertuak ematen hasi da Imanol, nondik deitu hara joan, atsedetik gabe.

Hazi egin da musikari bezala eta aintzakotzat hartzen dute. Gwendal bretainiarrekin aritu da eta ezagutzera eman ditu Euskal Herrian. Gauza batzuk ez dira, ordea, aldatu: La Navaleko grebalarien aurrean *Mayo* abestu du, langileen uju artean. Portugaleten eta Barakaldon aritu da. Usansolon eta Arrigorriagan. Kaldereroek txalotu dute erremintak elkarren kontra kolpatuz; igitaia eta mailua gurutzatzen diren puntuan egon

da. Errudun sentitu da haien esku zailduen ondoan hartzak horren orbangabe izateaz, hain garbi eta zuri.

Etorriko diren garaiak antzizipatzen dituzten kantak abestea da kontua. Esnatu eta esnarazi, kontzientziak piztu. Barrikadak doinuz jantzi. Sintomatikoa da, hala ere: gero eta letra lirikoagoak idazten ditu Lucas Azurmendik. Sintomatikoagoa, are: gero eta gusturago abesten ditu kanta liriko hauek, fabriketako jendeak gutxien estimatzen dizkionak izan arren. *Perfumatu*en saldoko bihurtzen ari ote da? Ezezkoan dago, baina Duprez kantu irakaslearen lanak eman du bere fruitua, La Navalera joan denean haren manamenduari aurka egin eta gitarra eskuetan hartuta joan den arren. Gitarra eskuetan badu, bere tresna edo lanabes den horrek langileekin erkatu eta haiengana gerturatzen duela iruditzen zaio. Hainbat urte geroago, lepoan aitzurrari bezala helduko dio gitarrari disko baten azalean. Gaztelaniaz abesten duenean txalo gehiago jasotzen ditu Ibar Ezkerrean eta Meatzaldean. Egiari zor, ia beti abesten du Ibar Ezkerrean. Langile masak ez daki euskaraz leku horietan. Gipuzkoan eta Nafarroako herri ttipietan, ordea, kontrakoa gertatzen da: txistu egiten diote euskaldunek kantaren bat gaztelaniaz abestu orduko. Ez du beti lortzen audientziarekin bat

egitea, nabari du bere ondoan abesten duten kantariek harrera hobea dutela. Ainara Irazokik, esate baterako, folk ukituko kanta tradizionalak abesten dituenen. Elkarrekin aritzea proposatu dio. Ari da apurka-apurka euskal musikariak ezagutzen, ongi moldatzen da Ainararekin, ahots hauskor bezain ederra du, nahiz eta urduritasunak *-afonia histerikoa* da termino klinikoak- jendaurrera atera behar duenean disgustu bat baino gehiago eman. Halakoetan, Fakirrak laguntzen dio eztarria limoi-eztiz tenplatu eta bere onera ekartzten.

Somorrostro ezizenaren pean poema batzuk kantagai bidali izan zizkion Gabriel Aresti bezala, espainolizatzen hartzen dute bera ere askok, baina euskaraz abestu nahi lukeen lekuetatik ez diote hainbeste deitzen. Zer egin behar luke, bada? “Euskal abertzaleak okupatu egi daude abertzale izaten kulturaz sobera arduratzeko”, esan ohi dio bere buruari. “Irakurri ere gutxi irakurtzen dute hauek”. Gusturago dago *espainolista* omen diren horiekin. Jende leitua dira. “Guk gutxienez badakigu Alfonsina Storni nor den”, diotsa Comisiones Obrerasen sartuta dagoen Enrike Larrea poeta lagunari.

PSOEren mitin baten aurretik abestu du gaur Barakaldon; baxu-jotzailerik gabe geratu dira azken unean eta Josu Ponceri deitu behar izan dio, Carmenen neba gazteari.

“Gizondu haiz, Josutxo! Bizi-legea duk: zuek gizon-tzen, eta gu aitontzen!”.

Imanolen harridurarako, adeitsu eman dizkio bi muxu Ainarak Josutxori. Gauzek aurrera egin dute bera kanpoan zegoen bitartean, harreman batzuk hautsi eta beste batzuk sortu dira, bere belaunaldiko askok seme-alabak izan dituzte. *Txopo* deitzen dio Ainarak Josutxori, egina dute ezaupidea, elkarrekin ari-tuak izan dira inoiz. “Fina da Txopo”, esan dio Ainara Irazokik, “ez daude baxu-jotzaile on asko gure artean”.

“*Txopo*, Josutxo? Goitizena ere badaukak eta!”.

Koloreak atera zaizkio Ponce gazteari. Eman lau urte: gazte lotsati bihurtzen dira ume negartiak.

“Ez egidak esan oraindik Vespinoan ibiltzen haize-nik...”.

“Ez, bigarren eskuko *Dos Caballos* bat diat”.

Bere ondoren datorren hautagai politikoari, hark bere kasa asmatzen ez zuelako, Sennheiser mikrofo-noa jaitsi eta dagokion altueran jarri behar izan dio

Imanolek. Badu etorria Felipe Gonzalez delako honek, badaki jendea nola piztu.

Ogitartekoa eta mila pezeta kontzertuko, bizi dai-teke horrela, asko kantatuz gero. Baina azken aldion hala badirudi ere, ez da beti hauteskunde garaia izan-go.

Larunbat eguerdian UGTko mitin batean abes de-zake Fakirrak Galdakaon, bezperan Serantesen CCOO-ren beste batean abestu duen ber gisan, eta arratsal-dean Eibarko Astelena frontoian FUTekin beste kon-tzertu bat eman. FUT, langileen frontea, LKlrekin koa-lizioan aurkeztuko da hauteskundeetara. Bostehun pertsonatik gora bildu da frontoian kantaldirako. Hau-teskunde egunean, ordea, ehun bozka eskas jaso ditu FUT-LKl Eibarren. Zer gertatu da gainerako lauhun horiekin? “Kabroi hauek kontzertuetara etortzen dituk, baina gero ez zigutek bozka ematen”, bota dio orain LKl sartuta dagoen Bixarrek Fakirrari.

Espanian Felipe Gonzalezek izango du aurreran-tzean Sennheiserra dagokion altueran jarriko dionik: boto parrastada jaso du eta PCEk espero baino askoz emaitza kaxkarragoa. Euskal Herrian banatuta aurkez-tu da ezker abertzalea: Seikok eta miliek boikota deitu dute eta polimiliak Euskadiko Ezkerrarekin aurkeztu

dira koalizioan. EAjk irabazi ditu bozak. Aspaldian ikasiz Bixarri Imanolek: “Ez dago ezkerrekoa edo eskui-
nekoa ez den zapatarik; ez dago izaterik, besterik
gabe, zapata”.

Telefonoak jo du Imanolen etxean. Hermano sale-
sietatik kontzertu bat antolatuko dute jantokia berri-
tzeko dirua lortzeko. “Abestuko zenuke? Doan beharko
luke, hori bai”. Baietz, Imanolek, birritan pentsatu
gabe. Iparraldean emandako azken kontzertutik hogeit-
libera frantses geratzen zaizkio hilaren bukaerarako.
Eta Sixto piano-jotzaileari eta Josutxori ez die oraindik
Sarako kontzertuagatik zor diena ordaindu. Bankuan
aldatu ditu Parisen aurreztutako liberak. Komisia
kendu ondoren ez dira laurehun pezetara iristen.
Gauza bat da bakarrik ibiltzea, eta besterik talde bat
altxatzen saiatzea, batez ere, Imanolek bezala, ez du-
zunean ezin kolektibotan sekula erabat enkajatu.

Txarra da kalkuluak egiten, baina egin ditu nola-
bait: moskatel botila on bana oparituko die Sixtori eta
Josutxori denbora irabazteko, eta hurrengo kontzertu-
ko ordainetik bere buruari deskontatuta emango die
zor diena. Ideia ona da, baina bi parte ditu, eta ideia
onen bigarren zatiak ahazteko joera du Fakirrak.

Moskatel botila erosi ondoren, Barandira hurbildu da kafe bat hartzeko asmoz.

“Nork esan behar zidan niri Parisko kafe-titare haiek faltan botako nituenik?”.

Enrike Larrea poeta topatu du bertan, Cinzano bat hurrupatzen. Poesiari eskainitako saio bat dauka irratian eta huraxe ari da prestatzen, buru-belarri. Enrikek mahaian pilatuta dauzkan liburuak hartu ditu Imanolek, egileen izen-deiturak frantses doinu perfektuan ahoskatze hutsagatik: “Rimbaud, Baudelaire, Verlaine: hirutasun santua”. Rim-baud-del-aire-Ver-laine! Beti eman dio plazera izen atzeritarrak ahoskatzeak. Nomenklatura hotsandikoen bidez mundua bezatu eta irudimenarekin bidaiatzeak. “Bada halako gozamen bat hitzetan, gauzetan eta pertsonengan ez dagoena”, pentsatu du Fakirrak. “Bada gozamen bat hitzetan, ekintzetan ez dagoena”, etorri zaio segidan. “Baina hitzak ez al dira ekintzaren parte?”, kontra egin dio bere buruari.

“*Vivre, le bateau ivre!*”. Aitanoel teatral bat da Fakirra. Zerbitzariari dei egin dio.

“Cinzano bat niretzat ere, eta ateraiozu beste bat Larreari, honezkero izotzak hurrupatzen ari da eta...”.

Besondotik heldu dio Enrikek.

“Sosik gabe nagok, Imanol...”.

“Ni ere bai, baina ez kezkatu: nire kontu gaurkoa... Esadak, ez duk lagunik behar irratiko saio hori egiteko? Ondo ordainduko ditek irratian, ala?”.

Aitanoel bat da, baina ez galdegin hari poltsarik baduenetz.

Cinzanoa edandakoan Josutxoren etxera igo dira musikarientzat opari behar zuen moskatel botila hiruren artean husteratzen. Enrikeri aurkeztu dio:

“Txopo da, Carmenen neba”.

“Carmen?”.

“Mata Hari”.

Hurrengo astean hasiko da Fakirra irratian kolaboratzen. Oasi bat da Enrike eta bien saioa uhinetan: *chanson française* errefinatua, gainerakoetan folka, eta, oroz gain, pop-rocka besterik jartzen ez duten bitartean.

Jean-Marcek bateria jotzen du, baina pianistak gustatzen zaizkio batez ere. “Bateria-jotzaileak, ononak, zenbat ikus ditzakezu, bada, hemen? Jazzaldira etorritakoren bat agian; urtean bi, asko jota, zortea baduzu. Bateria-jotzaileak gustatzen zaizkien bateria-

jotzaileak, horiek ez dira fidatzekoak”. Sixto piano-jotzailea da, baina Frank Zappa gustatzen zaio. Elkarriketa batean Varese beraren idoloa dela irakurri zion behin Zappari, eta geroztik, Varese bihurtu zen Sixto-ren idolo. “Nire idoloen idoloak nire idoloak dira”. Edonola ere, goizero aldatzen dute iparrizartzat hartzen duten idoloa, gaztetasunaren xarmaren parte da hori, zale amorratuak izatea, ikusiko dugu gero zeren zale. Txopo baxu-jotzaileari –Carmenen neba Imanolentzat beti izango da Josutxo– inork ez daki zer gustatzen zaion zehazki. Dena agian, edo agian ezer ez. Azken finean, baxu-jotzaile guztiak dira erdi autistak. Isila da, “barne mundu handikoa”, modan jartzen ari den esamolde bat erabiltzeagatik. “*Mundo interior*”. Frankismoaren itzal luzetik atera berri, zentzua eta sentikortasuna famatzen hasi dira, testosteronaren kalte. “Barne mundua”, baiki, antidoto egokia dateke. Hala xe da, halaber, “barne edertasuna”. Zentzurik primarioenetatik urruntzeko borondate bat dago airean; hutsala, agian; bihotzeko aldizkarietakoa eta publizitatearena, agian; topiko-uzta ereiten duten irrati-esatari kristau sasiaurrerakoiena, agian. “*Belleza interior*”. Zer da hori? Endekatzen al da, kanpokoa bezala, barrukoa? Barne edertasuna eta barne mundua? Bai,

baina, batez ere, Barne Ministerioa. Gaur ere Poliziak katxeatu ditu Bulebarrean, ohikoa denez.

“Dokumentazioa eta paretaren kontra”.

Betiko magreoa eta libre, joateko aurrera eta da-biltzala tentuz.

“No os metáis en líos”.

Haiek ezetz, hori, inoiz ez. Gero barre, eta kale izkina pasatutakoan besoa ukondo-toles eginda popatik. Enbeltran kalean Carmenekin gurutzatu dira.

“Txintxo ibili, nebatxo!”.

“Gauza bera esan zigun polizia batek oraintxe!”.

Kale Nagusira jiratu orduko Carmenen atzealdeari begira geratu dira Sixto eta Jean-Marc.

“Kristoren atsoa zagok Carmen”.

“Hago isilik, nire arreba haurdun zagok eta!”.

“Eta? Hara bestea! Horrexegatik ba!”.

“Egia al da *Mata Hari* deitzen diotela?”.

“Fakirrarekin batera atera zuan erakundetik, aspaldiko kontuak dituk horiek”.

Sixto Zinkunegiren gau-mahaitxoan Orwellen 1984 liburuaren ale bat dago, lau urte falta zaizkiona profezia betetzeko. Kafeak belztutako azukre kraka duen katilu bat, kutxa apurtua duten hiru kasete. Gazteen logelak. Zapparen *Joe's Garage* rock operaren

posterra eta egunkari ebakin bat dauzka bere horma biluzian itsatsita. Zapparen hitzak, bizitzari begiratze-ko filosofia bat: “Informazioa ez da ezagutza. Ezagutza ez da jakinduria. Jakinduria ez da egia. Egia ez da edertasuna: edertasuna ez da maitasuna. Maitasuna ez da musika. Musika? Musika da dagoen gauzarik onena”. *Amen*. Musikarako bizi da Sixto eta ez beste ezertarako.

80ko hamarkada ahoa zabalik eta biribil etorri da, mundu zaharra pirritan deuseztatuko duen diskoteka bola erraldoiaren gisa, ordura arteko guztia irensteko gertu. Marujan amaituko da gau hura ere, Antzoki Zaharraren atzealdean, tertziopelo gorrizko klub dekadentean. Dekadentziaren xarma laudatzen dute. Zimurra eder. “*La arruga es bella*”, garaiko beste esaldi bat. Laster helduko da Fontvella uraren iragarkia: “*No pesan los años, pesan los kilos*”, abangoardiako eslogana. Gehiago dira, ordea, koñak iragarkiak: “*Un poco de Magno, es mucho*”. Demokrazia heldu da, xaboi eta detergente berriekin. Jertsea igurtzi dio lagunak emakumezko bati, leun dago eta lurrintsu: “*¡Qué suave! ¿Es nuevo?*”, eta lagunak ihardetsi: “*No, ¡lavado con Perlan! ¿Lo probamos?*”. Ligoteorako trikimailu bihurtu da eslogan hura, halabeharrez. Garai berria,

garai perfumatua. Rock sinfonikoa da jaun eta jabe Marujan. *Behind the Lines, Turn It On Again, Misunderstanding...* Genesis, barra-barra. Zorte apur batekin Animals eta Led Zeppelin etorriko dira gero. Dantzatzeko modukorik, apenas. Dantzatu baino gehiago, astindu. Barra ttipia du lokalak, iluna, eta sofak eta butakak sasikonspiratzaileentzat paraturik. Hanpa eta bohemia, lunpena eta farandula, zinegotzi eta txulo, aulki jokoan denak.

Jean-Marc, Sixto, Txopo. Libertarioak dira. Konbentzio guztien aurka daude eta badute kemena haiek eraisteko. Sexu askearen alde daude eta iraultzaren alde, baina amai dadila arren lehenbailehen.

Goizeko zortziak ongi pasatuta heldu dira Zubieta kalean konpartitzen duten apartamentu erraldoira. Bi ordu barru, txirrinaren sastakaiak zulatuko dizkie tinpanoak.

Lisaburdinaren gorria aurpegiaren erdian, Sixto narkotizatuak zabaldu die atea. Pontxe errusiarra eta arroz-opilak dakartza Tatianak eta moskatel botila Fakirrak.

"Bonjour messieurs! Luzea izan al da gaua?".

"Hamarrak dira jada?".

"Eta erdiak, ongi jota".

Kafea prestatu die Imanolek. Akorde batzuekin ahalegindu da gitarrarekin eta Zeca Afonsoren bossa baten hastapenarekin entretenitu da. Bien bitartean, Jean-Marc komunean dago, botalarriak jota. Txopo barkamen eske: kafea nahita ezin zaratatsuago hurru-patu arren, ez du komunetik datozen pisukidearen okadak disimulatzerik lortzen. Zerbait konpartitzen badute, belarriaren fina da hori.

“Goxoa dago”.

“Jean-Marc?”, irribarre pikaroz Tatianak.

“Kafea esan nahi nuen”.

“Pentsatzen dut”.

Haiek baino hamar urte zaharragoak dira Imanol eta Tatiana, izeba-osaba ulerkorren papera bete lezaketek. Txopo zutitu eta Fakirrarengana hurbildu da.

“Izen bat badaukagu. Proposamen bat taldearentzat”.

Txopok izena proposatu duen une berean komune-ko ponpari tira egin dio Jean-Marcek. Ponpa-hotsa eta ur txorrotaren zirimola hodiegan behera. Lixiba usaina eta kresal puntua, sarkor eta nahasian.

“Klabelin Konbo”.

Ez du nahi bezain ozen esan. Konbikzio gehiagoz ahoskatu behar zuen; batzuetan konfiantza falta zaio bere buruarengan.

“Klabelin Komik! Ederra da, Josutxo! Ez al da hala, Tatiana?”, Fakirrak, pozarren.

Klabelin *Komik*? Txopok ez du akatsa zuzendu. *Konbo* edo *Komik*, zer axola? Bedi horrela.

Sixtok, isil-isilik, kafeari muzin egin eta mandarinak jaten dihardu, bata bestearen atzetik. Mandarinen Munstroa deitzen diote piano-jotzaileari.

“Onak dira ajea pasatzeko”.

“Bazkaltzeko cous-cousa prestatuko dizuegu Tatianak eta biok”.

“Cous-cousa? Zer arraiio duk hori?”, Sixtok.

Besoak zabaldu eta burua astindu du Fakirrak, gurasokeriaren goxoan, keinu horrekin bere musikari gazteen mundu murrizta salatu nahiko balu bezala. “Orain ni nauk Paco Ibañez”, otu zaio, eta gustatu zaio Paco Ibañez izatea.

Klabelin Komik izenarekin grabatu duten diskoan, musikarien harridurarako, erabateko askatasuna eman die solo, luzamendu eta luzimenduetarako,

baita sasoiko musika progresiboaren aireak imitatu eta lantzean behin estridentziaren bat sartzeko ere. Parisen ezagututako tunisiar birtuosoek bezala, menperatzen dituzten tresnak jo dituzte, eta baita menperatzen ez dituztenak ere: “Beti zure instrumentua jo-tzeak, ze grazia luke ba?”. Abangoardia eta esperimentalismoa falta dira, eta horretarako etorri dira haiek mundura. Tamalez, ez dira tunisiarrak. Hain gutxi, birtuosoak. *Pureta* eta klasikotzat dute Imanol, eta hasieran beldur apur batekin egin dizkiote proposamenak, Zappa eta Dylan bezalako erreferentzia amerikarrak oso modu berantiarrean bereganatu dituen afrantsesatuarentzat ausartegiak izango direlakoan. Baina pertsona irekia da Imanol: haren harrera baikorra da beti.

Jean Pharos, Karratu estudioetako teknikaria, setatuta dago rock progresiboa ahaztu eta sehaska kanten disko bat atera beharko lukeela. Fakirra ez dago bate-re ados.

“Umeentzako kantak?”.

“Oker hago: sehaska kantak helduentzat dituk. Haiek dituk onuradun nagusiak”.

“Utikan! Zer kontzertu emango dugu publikoa lokarraraziz? Ezta pentsatu ere. Lehenago hil!”.

“Tú mismo, pero con tu voz... deberiaz penzarte-ló...”.

Sixtok, Txopok eta Jean-Marcek ez dute Pharos ezagutzen, bereziki deigarria dena Jean-Marcen kasuan, biak baitira Bordelen jaioak. Karratu estudioetako sarreran egin ditu Fakirrak aurkezpenak. Apur bat kikilduta daude gazteak, gauza asko entzun dituzte eta soinu teknikariari buruz. Ia-ia mito estatusa du haientzat. Estudiora sartu orduko, gitarra bat, tronpetak, saxoa..., korridoreko paretak zintzilik jarritako musika-tresnaz beteta daudela ohartu dira. Fakirrak ez du txantxarako okasioa galdu:

“Pharosekin lan egin ondoren musika utzi eta beste zerbaitera dedikatzea erabaki duten musikariek utzitako oroigarriak dira guztiak...”.

“Mis cabezas de ziervo”, bota du Pharosek, irribarez, hatz erakusle biak lokietan jarrita, orein bainoago zezen.

“¿Habeiz traidó lo que os he pedidó?”.

Jean Pharosek gustuko diskoak eskatzen dizkie taldeei haiekin grabatu aurretik, zein soinu mota lortu nahi duten jakiteko.

“Pas mal, buen guzto”, esaten die gero. Edo: *“Ya veo lo que os va”*.

Jean-Marcek eta Txopok ekarritako diskoak hartu eta kabinara sartu da.

Kristalaren bestaldetik ikus dezakete Pharos, bini-loak azaletik atera, plastikozko estalkia kuido handiz kendu, erpurua galletan duela ertzetik heldu eta argipean diskoa jartzen, zenbateraino zikin dagoen ziurtatzeko.

“Maniatiko samarra da garbitasunarekin”.

Esprai batekin diskoa pulberizatu ondotik, gamuza trapua pasatu dio, distiratsu geratu arte.

“Un disco de vinilo tiene que eztar zepillado como el pelo de Zofia Loren”.

Urteetan barrena grabatuko dituen zientoka disko-etako ia denak euskaraz abestuak izan arren, ez du sekula hizkuntza ikasi. Ez zaio eskaintzarik falta izan, aise lan egin zezakeen Parisko edo Bordeleko estudio-etan, baina, inork ez daki zergatik, Hendaian bizitzea hautatu du eta Donostian lan egitea. Musikariak desio eske joaten zaizkio, soinu bat, efektu bat ehizatu nahian.

“¿Ezto quereiz? Fazil. Tú toca la batería como Angel Celada y ya me encargo yo del rezto”.

Bere purrustadengatik ere bada Jean Pharos eza-gun. Musikariek, errespetua baino gehiago, fedea

diote, eta, zertan uka, beldur apur bat ere bai. Mirariak egin ditzakeela zabaldu da, nahiz eta bere lema nagusiaren jakitun diren denak: *"Zi tocz miegda, zale miegda"*.

Pharosek maite du musika beltza: printzipio beza-la, Quincy Jones nor den ez dakitenek ez dute bere errespetua merezi. Lan eguna amaitzean estudioan geratu eta soinuak moztu eta itsatsi aritzen da. Gutxi-tan erakusten dizkio inori bere lan pribatuen emai-tzak: bada dioenik bost minutuko pieza bat egina duela tenislariak pilota kolpatzean ateratzen dituzten marruak bata besteari josita. Testuingurutik ateratako gauzen indarra gustatzen zaio. Eskultoreen herrian, bere audio-instalazioek ez dute arretarik pizten, ordea.

Bere onenean dago Pharos. Astebete igaro du Sui-tzan, Zuricheko unibertsitate batek eman dion diru-la-guntzari esker trenen hotsak grabatzen.

"Nola trenak grabatzen?".

"Ruidoz de trenez, locomotorras, nuevaz y anti-guaz. Arranqué, ritmo, velocidad, frenada... Todó".

Irudiak soilik ez, soinuak ere artxibatu behar baiti-ra. Disko bat aterako dute orain, trenen hots bilduma-rekin. Harengatik balitz, pentsatu du Imanolek, ez zu-

keen hil arte besterik egingo: trenen hotsak grabatu eta tenislarien erresto-uluekin audio-instalazioak egin.

Setatia da Fakirra kantik amaitutzat eman aurretik. Grabazioa behin eta berriro entzun nahi du, hala eskatzen dio Pharosi. Musikariek eternitatearekin duten lehia hori, hankasartze bat betikotzeko izua, bada ulergarria zentzu bateraino: kanta bakoitza hila-titz bat ere badenez gero, saiatu behar du kantariak ez dezan marmolezko hilarriak bera azpian harrapa. "Agian enbaltsamatzaile bat naiz", dio Jean Pharosek. "Edo agian taxidermista bat... kanta batek irauteko modu bat da: diseinatzea. Agian modu bakarra. Edo hori, edo jendeak bere kasa oroit dezan esperantza izatea". Zein da formula? Nola egin hogeia, edo are, berrogeia urte barru oraindik bizirik jarraituko duten kantak? Hobe lar ez pentsatzea, amildegiaren ertzeko bertigoia sentitu nahi ez baduzu. Erritual zenbait heldu: garagardoa, haxix apur bat, kokaina lerro batzuk. Eternitatearen hautsak dosi ttipitan, eternitatean sobera ez pentsatzeko.

"¿Otga vez?".

Estudioko bunkerrean, kanpoan egun argi edo gau euritsu den batere jakin gabe, Pharosek esaneko jar-tzen diegrabatu berri dutena, baina badaki aski ongi

dagoela. Are gehiago: esperientziak esaten dio alfer-alferrik ari direla, ez dutela harraldia hobetuko. Ezingo luketela hobetu beste hoge aldiz errepikatuta ere.

Fakirra tematu egin da, ordea: “Berriro grabatuko dugu, badaezpada”.

Pharosen harridurarako, korte hau hobe izan da. Kasu, badaki gizon honek zertan dabilen eta zeintzuk diren bere mugak: errespetu bat Imanoli. Kantetako bat hain biribil abestu du, konponketa guztiak baztertu eta *a capella* uztea proposatu baitie teknikariak. Gainerako musikariek amorruez begiratu diote Pharosi.

“¿No querréis vanguardia? Puez maz vanguardia que ezo, imposible...”.

Diskoetan hartutako libertateak aski ez eta Antzoki Zaharreko emanaldian are gehiago luzatu dituzte kantak. Teklatuekin soloak inprobisatu eta *Over the Rainbow*-en bertsio zoroarekin amaitu dute kontzertua. Entzuleria hotz-epel geratu da. Gainera, Fakirra sufritzen ikusi dute tarteka. Estatikoa da eszenatikian; are estatikoagoa, madame Duprezen aholkuz gitarra utzi zuenetik. Festen ondoren udaletxeko kaseran abandonatutako erraldoia ematen du, bere kanperoekin, bere iduneko eta eraztun lodiekin, bere ile-xerlo luzeekin, erortzen hasi zaiolako gero eta luzeago

eta kiribilduago uzten duen ile-matazarekin. Mutilak ez dira kontzertuaren ondoren gustura geratu eta Imanolak badaki. “Zuek ongi pasatu duzue?”, galdetu die. Ez dio erantzunari itxaron: “Ba hori da garrantzitsue-na”. Pacoren hitz tranpatiak oroitzen ditu, behin eta berriro. Parisko gauza gehiago ere bai: begira diezaio-kezula zeure zilborrari edonon, baina Parisen bazaude, munduaren zilborrean begiratzen diozula zeureari.

Kontua da jada ez dagoela Parisen.

Hurrengo larunbatean Tatiana gabe azaldu da entsegura. “Oso ongi egon zen Antzoki Zaharrekoa, baina ez dugu berriro egingo”. Esperimentua apur bat eskuetatik joan zaie. Molde klasikoagoetara itzuli nahi du. Molde paristarragoetara.

Klabelin Komiken amaieraren hasiera da. Sixtorekin lankidetzan estuan jarraituko du Fakirrak, halere, kantari liriko bihurtzeko bidean. Jean-Marci kontzertu puntualetarako deituko dio tarteka eta Txopo herririk herri hasiko da, berbena talde batekin.

“Kontatu dizuet inoiz Arnau, Bartzelonako Terra Lliureko nire lagunarena? Ama lege zaharrekoa zuen hark, Cadaquesekoa, matrimonia larrua jo gabe iri-

tsi behar dela uste duten horietakoa. Eta semea, esanekoa. Emaztea birjina ote den ziurtatzeko gomendatu dio. «Nola, ordea?». «Aise», esan dio amak: «Hartu berrogeita hamar pezetako txanpon bat eta saiatu hari alutik sartzen. Sartzen bada, malo: birjina ez den seinale». Lotan dagoela sartu txanpona eta irrist egin dio barrura berehala. «Horixe bakarrik behar genuen». Birjina ala ez, amari ez dio egirik esango, berari ez zaio asko inporta, damu du amari kasu egin eta katra-mila zentzugabe hartan sartu izana. Hamar ogerleko, hamar ogerleko dira, txo. *La pela es la pela...* Txanpona berreskuratzea da lehentasuna orain: sartu du eskua osorik eta txanponik topatzen ez. «Ez haiz ba hor geratuko, kopon». Sartu du ukondoa orduan, baina ez da txanponaren arrastorik ageri. Beso osoa hurrena, eta ezer ez... Azkenean, mahukak kiribildu eta oso-osorik sartu da bera. Txanponik ez da ageri eta ilun da emakumearen gorputz barruan. Halako batean, pospolo bat piztu eta Terra Lliureko buruzagi bat topatu du. «Hara, nolatan zu hemen? Ez zenituen berrogeita hamar pezeta ikusiko?». «Ez, arrastorik ez. Eta zuk, ikusi dituzu nire komando kideak?»". Batzuetan "komando kideak" esango du eta beste batzuetan "arma zuloa", lortu nahi duen efektuaren arabera mol-

datzen joango da txistea. *Vaudeville* tonura ere ekar dezake nahi izatera, ukitu politikoa kenduta: “Eta zuk, ikusi dituzu nire galtzak?”. Baina Fakirra, *malgré lui*, izaki politikoa da, nahiago du politika *vaudeville*-a baino. Txiste itsusiak kontatzen ditu sarri, garaiko afa-losteetan nagusitzen diren arkeriak eta molde mando-ak. Txiste berdezale amorratua da Imanol. Txiste hura, zehazki, dozena bat bertsio ezberdinetan konta-tzen entzun diote taldekoek, kataluniarrekin bezala (“*la pela es la pela*”) euskaldunekin, birjintasunari edo txanponari, bietan garrantzia zeri eman nahi dionaren arabera. Konta dezake istorio berbera guardia zibile-kin (“eta zuk, ikusi duzu nire Land Roverra?”), armada-ko kideekin (“eta zuk, ikusi duzu nire erregimentua?”), Bob Kennedyrekin (“eta zuk, ikusi duzu nire anaia?”). Konta dezake, matxismo oharkabeari arrazismo ohar-kabea gehituz, ijitoen txiste bezala (“berrogeita hama-rreko txanponik ez zeukan eta duro batekoarekin saia-tu zen”), baita “marikoien” txiste bezala ere, istorio osoari buelta emanez. Jendeak barre egiten duela iku-siz gero, luzatu egingo dizu kontakizuna hurrengoan: “Ilun zegoen emakumearen gorputz barruan, argia-ren-giltza topatzen saiatu zen, baina ezer ez. Pospoloa piztu zuenean pintura prehistoriko batzuk ikusi zituen,

bisonte batzuk, zehazki; apur bat susmagarria iruditu zitzaion, baina ez zion garrantzirik eman nahi izan: ezikusiarena egin eta aurrera jarraitu zuen". Txiste batean, kanta batean bezalaxe, distantzia motzean ebazten da dena. Txistea momentuan bertan hil daiteke edo elur bola bat bezala hazi. Kontatzailearen abildadea eta publikoaren barre eskuzabala edo mizkina dira borrero edo salbatzaile. Gauza bera abestiek. Esan liteke horrela ere: eszenatokiarekiko menpekotasuna soinean darama jada Fakirrak eta handia da mundua eszenatoki bihurtzeko duen tentazioa.

Ez zaio burutik pasatzen bere txisteekin emakumearen gorputza bolatokiko makina batekin alderatzen ari denik. Gizonezkoak ez dira jabetzen, txistebazka areagotzea eskatzen duten barre ozarrak egiten dituzte, sekula amaitzen ez den gutxiespen artilleria hura lanean jartzean ez dago Fakirraren martxa geratuko duenik. "A zer astakeria", "pasatu egin haiz", edota "nola konta dezakek halakorik?", gaztigatuko diote, baina egiaz esan nahi diotena da: "Kontatu beste bat!". Ainara Irazoki isilik dago txoko batean, masaila txantxangorri baten sabela baino epelago, lehertzear, eta ez barrez, hain justu. "Haserretu zaigu Ainara!", deiadar egingo du Fakirrak konturatu de-

nean, bere aitanoel ahotsarekin barrezka. Tatiana da halako astakeriarik ez kontatzeko eskatzen dion bakarra, errietan ere egiten dio Fakirrari tarteka: “Oso gustu txarrekoa da hori, Imanol”. “Ez haserretu, panpoxa: txisteak besterik ez dira”, eta gustu txarrari propina bat emanez, gai da jatetxean berrogeita hamar pezetako txanpona eskupeko gisara uzteko, nabarmenkeriaz. Baina judu errusiarra du ama Tatianak, eta badaki txisteak hori baino askoz gehiago direla. Topikoak sugai idorra dira, eta ez dago deus haiek baino errazago su hartzen duenik.

“Kontatu dizuet inoiz Ryan, IRAko nire lagun irlandarrarena? Zuk ezagutu zenuen, Sixto”. “Nik?”. “Bai, zuk... Cork-eko ilegorri bat, begi grisak zituena. Bada-kizue han oso katolikoak direla oraindik, bi baldintza dauzkate ezkondu ondoren ere larrua jotzeko: logelako argia beti itzalita egotea eta gurasoak hiritik kanpo oporretan... Ba Ryan ezkontzera zihoan eta bere amak esan zion, «aizak, hire emaztegai hori...»”.

Libra esterlinoak. Errublo errusiarrek. Lira italiarrak. Kanbio-dibisa guztiak onartzen zituzten txiste haiek, afalostez afaloste. Istorio lizun berberak, emakumezkoek etsipenez entzuten zituztenak, eta are barre ttipiak imintziotuz, edo nahigabeko barre zintzo-

ak, ohiturazkoak edo kamuflajezkoak, gizonezkoen artean bizirauteko modu bakarra zutaz espero zutena itxuratzea eta emakume zinela ahaztea zelako agian, antzezpena eta mimetismoa landu eta garai hobeen esperoan koraza janzteak.

“Bide batez, Ainara, entzun dut zure diskoa”.

Taupa-taupa jarri zaio bihotza Ainarari. Bere bakar-kako lehen diskoaz ari da. Dena ematen zaion lehen disko hori. Bakarra eta hauskorra. Atzera itzuliz gero ezberdin egingo zenukeena, baina errepikaezina dena.

“Gustatu zaizu?”.

Esku bat Ainararen sorbaldan ipini du Fakirrak, bestea bere bihotz parean:

“Pena da, melodia ederrak dira, baina... dauzka-gun poetekin, Ainara! Ez zenituzke hitzak zerorrek egin behar. Lagun baten aholkua da”.

Ez, ez dira txisteak soilik. Min egitea zer den ere badaki Fakirrak. Sortzaile ororen territorialtasun zeke-na azaltzen da, goiz edo berandu, zuk sabaia jo eta gazteagoak edo ingurukoak indartsu datozela jabe-tzen zarenean: maitatuko dituzu, haien talentua gehiegi zorrozten ez den bitartean. Lagunduko diezu, itzalik egiten ez dizuten bitartean. Zure parametroen

arabera zeure mailara iristen ez den amateurraren xarma mugatua laudatzeko, aldiz, ez daukazu arazorik.

Gezurra dirudi gizon hura berbera izatea eszenatokian *Xori erresinula* abestu berri duena ahots ezinago sentikor eta ñabarduraz beteagoarekin. Baina hori ere bada Fakirra: gizaki oro bezala, ispilu aurrean aldatzen den sugar bat, sugar dantzari atzemanezina, ertz asko dituen eta osotoro ezagutzen zaila.

Denek dakite Fakirrari gehien gustatzen zaiona txisteak pasadizo itxuran kontatzen hastea dela, benetako gertaerak bailiran; txantxazale amorratua da. Agian umore basa horrek erredimitzen du, bizitza asmazioekin txirikordatzeko bere joerak, artea eta txantxa bere bizitzaren luzapenak balira bezala. Inozente egunean lagunei telefonoz deitu eta adarra joz laketzen da, gezurren bat sakatuta. Dibertitzearen plazer hutsez kontatzen ditu gezurrak: "Prestatu maleta: Ekialdeko Alemaniara goazak biran". Sixto eta bere musikariek ezagutzen dute jada, mesfidati harrapatzen dute batzuetan, ez diote erdirik sinesten: "Bai, zerbait entzun diat: Marlene Dietrichekin, ezta?". Izan zitekeen bere adarjotzeetako bat, baina oraingoan egia da.

“Kontatu dizuet inoiz Hanburgoko koro luterano batean kantatzen zuen Manfred nire lagunarena?”.

Pasaportean zigilua zanpa, orrialde sorta bat, atzerriko ibileren kaiertxoak, bizitza egoki ustiatzen ari garen ziurtagiria. Edo ustea. Bixarren pasaporte falsuen akordua eta Hendaia-ko Les Variétés zinemarena. Dokumentua begiztatu eta orrialdeak pasatzea, “tinta berdea jarri ziotek hemen, frantses mugakoa urdina izaten duk eskuarki”, kezka izuren bat, “Sarrerako fetxa lausoegi zagok, utziko ote zidatek gero irte-ten?”. Etxean egon arren pasaportea eguneratuta izate hutsa, bada berez apur bat bidaiatzea jada: antizipazioaren poza eta egon zaren lekuen oroitzapena. Atzeritik gutun bat jasotzearen pare, zigilu hortzikatua agintari baten irudia duena; presidente hori diktadorea den ala ez, ez zaio zigilu bildumatzaileari axola.

Heldu berri zaren lekuan arnasten duzun airea ez da inoiz jatorriko berbera. “Honaino ere iritsi gaituk, Imanol”. Gureak ez diren usainak eta tenperaturak. Hotzegi ala beroegi. Aldea ez da tenperaturarena, zehazki. Ez da adierazten erraza, baina hegazkinetik

atera orduko pentsatzen duzuna zera da: “Hozberoa beste era batera izan da irabiatua hemen”. Adi egon, dena irentsi, adrenalina ziztada sentitu. Ezezagun denak sortzen duen desanparoa eta kitzikadura, gauaren hartz-besarkadara neka-neka eginda eta pozik entregatuko gaituena egunaren akabuan, ohe izatera ailegatzen ez den eskeleto-armazoi batean deseroso lo egitea enbarazu izan ez dadin etxetik urrun gaude-nean. “*Guten Tag. Business or pleasure?*”. Imanolen bozkario eferbeszentea da esatea: “*Business... and pleasure!*”.

“*Mister Erich Honecker!*” oihukatzen du tarteka RDARA heldu orduko bere ahots leizetsuarekin, edo, agian, “*Herr Erich Honecker!*”, zenbait izen atzeritar ahoskatzeak ekartzen dion plazeragatik soilik. “*Herr Erich Honecker!*”. Orbita sobietarrean dabilta, errusieraz ere esan litzake nahi izatera zenbait hitz, Tatianari ikasiak: *Dobry vetxer, Izvinite, Do svidaniya*.

“Ez al dirudi honek Bigarren Mundu Gerrako pelikula bat?”.

Ez da edozein hotel: *nazioarteko hotela* da. Ekialdeko alemaniarrek ez diren beste guztientzakoa, alegia. Alexanderplatzeko hoteleko tabernara sartu direnean ez diete edatekorik atera nahi izan.

“Debekatua: gaueko hamarrak dira jada, ez da edateko garaia”.

Afari pasa: gatz ez gatz ez azukrerik ez duen opil kamutsa. “Baita zopakoa ere, hobea duk ogi txato hau baino”, bota du Sixto Zinkunegik. Hurrengo goizean gosaritara jaitsi direnean, zain dute jada mahaian sobreko hautsekin egindako laranja zukua: haiek eta inguruko hamabost mahai hutsetako gosaltiar ikusezinek, berdin-berdin. Simetria korearra. Errazionamendua eta kalkulua. Zer egin “*made in SESB*” matriuska honekin? Malko bat da panpinarik ttipiena. Monokromia eta Espartako eskola. Eguna hirian barrena pasatu ostean, atarian emakume gazteak eta ez horren gazteak, gaua hoteleko gelan norbaitekin pasatzearen truk bezeroak seduzitu nahian; ezikusiarena egiten du RDAko Poliziak. Espartako eskolak aurrera egin behar badu, denok behar genuke espartar. Agur eta ohore, kamarada. “Noski, Trotski!”. Bekaintioren akordua: aurrezki kutxa batean lan egiten du orain Imanol Landetara tiro probak egitera eraman eta bankuak lapurtzen jarri nahi zuen gizonak.

“Berdintasuna goitik ezarria, eskerrak guk anarkia besarkatzen dugun”, Sixtok Imanoli. Eta Imanolek: “Hik heure buruagatik hitz egin, ni akrata nauk”.

Negu ezberdinen geruzak eraikin zurrunetan ageri. Parke erraldoiak: lanak izan ditzan bonbakatu nahi balitu erasotzaileak; eta berlindarrek, non ezkutatua. Porlana: eman berria gutxi, pitzatua sarri, papurtua tarteka. Grisaren paleta, zerua ere lagun. Paris-ko gris berbera, baina laukiagoa eta barreiatuagoa, Napoleonen arrasto harrorik gabekoa. Deslaitasun laua. RDAko agintariak hasieratik jabetu ziren uniformitatearen arriskuez: horregatik saiatzen ziren gero muralekin eraikinetako horma mutuetan kosmonautak laudatzeko mosaiko koloretsuak marrazten, nekazariei egindako oda grafikoak, agur eta oles iraultzari eta lan kolektibizatuari. Metalezko piruli bat telebistako egoitzarentzat, OVNI erraldoi edo burdinazko maraka, hegazkin baten kabina zeruan kieto, kolore biziz pintatutako gas-hodiak edo jostailuzko iruditu zaizkien tranbiak espaloietan. Arte plastikoetan karrera egin edo opera sublimearekin gozatu ahal izateko heziketa jasotzea biztanle guztiek, hori ez zen utopikoa; gauzatzeko zaila, bai. Baina Ekialdeko Alemanian gauzatu dute gutxi gorabehera, ala? Hurrengo goizean, espedi-

zioko musikariak abstinentsia sindromeak jota daude (“orain diote goizegi dela edateko!”), ilara luzea egin dute Sixtok “ekonomatoa” deitu dion hornigai-dendan saltxitxak erosteko. Martuteneko kartzelako kantinarekin akordatu da Fakirra.

Kuban ibilitako alemaniar bat dute gidari, Hans, gaztelaniaz ongi moldatzen dena.

“Hortik ikus daiteke harresiaren zati bat, baina hobe argazkirik ateratzen ez baduzue”.

Zertaz ari gara harresiaz ari garenean? Horma bat nahikoa ez izateaz. Osagarriak behar ditu murrutik on batek harresi izateko: txarrantxa, dorre panoptikoa, frankotiratzaileak, hotza eragozteko baino gehiago, pultsua baretu eta punteria hobetzea helburu duten abrigo onak janzen dituzten soldaduak.

Teatroetako eszenatokiak erraldoiak dira; aretoak, arnasa eteteko modukoak. Rostockeko antzokian lau piano eman dizkiote aukeran Sixtori: bi Steinway, Schnell alemaniar bat eta Gaveau frantses bat. Lerdea dario dago tresna aukeratu ezinik, batoren eta bestea- ren ñabardura teknikoez dena dakiela dirudien musu- gorri batekin hizketan. Berlin, Weimar, Dresden, Ros- tock. Hemezortzi eguneko bira Ekialdeko Alemanian. Hemezortzi egun eta hamabost kontzertu. Uniformez

jantzitako militar errusiarrak ageri dira noiznahi hoteletan, ekialdeko alemaniarren aldetik jainko txikien pareko tratua jasotzen dutenak; gehiegizko erreberentzia. Errusiako militarrek ere laguntzen dute horretan, enpatxurik gabe onartzen dituzte pribilegioak; merezimenduaren goren gradua geureganatua dugula uste izatearen kalteak, ingurukoek jasaten dituztenak. Apaletsiaren buelta? Etorriko da noizbait; gorrotatuko du apalarazi duenaren hizkuntza, dibisa edo keinua, bandera, begien kolorea. Bien bitartean, graduazio altuko militar errusiarrak graduazio are altuagoko alkohola edanda mozkortzen dira Berlin ekialdeko *nazioarteko* hoteletako kafetegietan.

Sixtok eta Fakirrak etsia hartu dute. Kontzertuak eman eta hanka. Jean-Marc, aldiz, desesperatuta dago. Telefonoz deitu dio Oreretako Komiteetako lagun bati: “Atera gaitzazu hemendik!”.

Dresdenen Gernika berreraiki izan ez balute gertuko zatekeena ikusteak hunkitu ditu, nola zauria ez sendatzea ideia ona izan daitekeen zenbaitetan.

Berlinen, Leninen hogeit metroko estatuak egin die ongiatorria (“sina iezadak autografoa, irakurri ditiat hire lanak, Vladimir Iltx Ulianov!”). Karl Marxen buru erraldoia ikustera joan dira Karl-Marx-Stadt-en. Ez

zuen Hans gidariak zertan argitu, baina badaezpada esan die: “Hor ondoan argazkiak atera nahi badituzue, ez dago arazorik”.

Jende asko etortzen da emanaldietara, orotarikoa, publiko gaztea ere bai. Euli baten hegaldia ez da han entzuten, beldurra ematen du isiltasunaren diziplinak. Ongi antolatua dago dena: eszenatoki atzealdeko bastidoreen ertz bietan militar bana, ezker-eskuin. “Suterik sortuko balitz edo”, argitu die Hansek. “Orain *sute* deitzen zaio?”, ausartu da Fakirra. Hansek beste nora-bait begiratu du. Antzokiak itzelak dira, baina zikin-es-talita daude: antzokian erratza pasatzea zegokionak ez du pasatu. Antzokiaren garbitasunaren ardura bermatzen duen langile bat ere bada, baina kamarada bati kargu hartzen hasi behar ote du ba? Hobe hautsa pila dadin uztea, geruzaz geruza. Horrela idazten da historia: pazientziarekin eta hautsarekin.

Weimarko Unibertsitatean gazteekin lasaiago hitz egiteko aukera izan dute; hauek ez dira gurasoak bezain izuak. “Dena ustelduta dago hemen. Alderdi Komunista bera, barruraino ustelduta. Gasolina banatze-ko moduak berak korrupzioa sustatzen du. Gure gutu-nak ireki egiten dituzte postetxean irakurtzeko”, bota die ziplo Hansek azkenean. Batzuetan, jada badakizu-

na aitortzen dizutenean preziatzen duzu gehien konfidentzia.

Mendebaldeko kanbio-etxeetan marko bakarra emango liekete ekialdeko bosten truke. Ekialdeko merkatu beltzean hamar behar dira mendebaldeko bakarra lortzeko. Bertako txanponean kobratzen dute-nez, diru hark ez du deus balio Comecon-etik kanpo: azken pfennig-a ere RDAn gastatu beste erremediorik ez dute, honenbestez. Hain billete sorta gizenik, zer-bait dela dirudi, pena edo apurua ematen die gasta-tzeak. Baina jostailuzko sosak dira, konfeti-papurrak egiteko ere ez dute balio. Hansek material optikoa erosteko gomendatu die: "Teknologia errusiarra, punta-puntakoa". Argazki kamerak, largabistak eta te-leobjektiboak feriatu dituzte; prismatikoak, konpas do-toreak eta rotring-ak, akordeoi bat eta biolin bat; kon-trolerako tresnak dira, diseinurako eta arterako, ho-rratx, hurrenez hurren, altzairuzko errezelaren bestal-deko hornigairik preziatuenak. Zinkunegik, partitura sorta ederra eskuratu arren, ez du diru guztia gasta-tzerik lortu. Fakirrak, bai. Fakirrak den-dena gastatu du. Etxeko marka: sosik gabe etorri eta sosik gabe martxa; dirua esan eta dirua hegan, sartu-ahala-fundi.

Azken gaua dute Berlinen. Euren zementuzko jatorria disimulatzen ez duten etxebizitzak, neoi bakanen bat antzokiren bateko markesinan, exotismoaren aldarri, amets urrun. Sekula inor inguratzen ez den leiho saldoak. Bulegoak ote? Hori da kontua, agian? Lan egin, etxean bazeunde bezala; bizi, bulegoan bazeunde bezala.

Hoteleko gelan moketa fina eta isila da. Hoteleko hall-ean moketa lodia eta are isilagoa da. Ez daitezela entzun inguratzen zaizkigun espian pauso hotsak, edo maitaleak nola egiten dien espiei ondotik alde; edo entzun dadila zeure pausoak baino hobeto prostitutek marko sorta zenbatzean ateratzen duten kromo-truke hotsa.

Hoteletik kanpo, mutu eta ilun uzkuratzen da Berlin. Jo duten antzokietako atarietan bestelakoak izan dira gauzak: marmola eta sabai altuak; halatsu eraikin ofizialetan ere; har dezala norberak pausorik pauso ateratzen duen zarata gogaikarriaren kontzientzia.

“Buelta bat eman beharko dugu, ala? Gure azken gaua da!”.

Hoteleko sarreran emakume gutxi dago gaur, baina bakarren batek lortu du atzeritarrekin edo militar errusiarrekin mozkortu eta oheratzeko ibilagiria.

Ilargiari distira betea dario: "Eskerrak eman Alderdi Komunistari".

Karratu zurien barruan ezkaratzen zenbakiak piztuta gauez. Sailkatu eta zenbatzea da lehen pausoa, ordena bat mantendu ahal izateko. Postariek erosoan lan egiten duten herrialdeak ote antolatuenak? Postariek erosoan lan egiten duten herrialdeak ote autoritarioenak? Argazki makinaz, rotringez eta partituraz betetako mailetak hartuta tren geltokira bidean doazela, jende gazte saldoa bistatu dute eraikin bat inguratzen. Ilara itzela da: kilometro erdikoa, gutxienez. Gazte zurbilak, baina alaiak. Lo gutxi eginak, baina freskoak. Ez dirudi janari bila etorri direnik. Ordenatu ki eta zintzo itxaroten egonagatik, gustagarri izango zaiela dakiten zerbaiten zain daudela dirudi. Goizeko opera matineren bat? Ekialdeko Alemaniako gazteek buruz dakizkiten sinfonia horietakoren bat? Rimski-Korsakov? Xostakovitx?

Bateria jotzeko imintzioak egin ditu zisne-lepoa izateko lodiegia den jertse nabarra daraman gazteak. Bateria jotzeko itxura egin du, latorrizko danborra kolpatzen ari balitz bezala, badaezpadako aire militar batekin. Bere tresna bateria izan arren piano-jotzaileak gehiago gustatzen zaizkion Jean-Marci grazia egin dio.

“Ringo Starr”, bota du gazteak.

“Ringo Starr?”, ulertu gabe, Jean-Marcek.

“Yeah, *The Beatles*”.

“The Beatles? Ekialdeko Berlinen?”.

“Beatlesen lehen diskoa heldu da. Zain gaude ale bana erosteko”.

Pagotxa. 1984. urtea da. Lau urte dira John Lennon hil dutela; hamalau, The Beatles taldea desagertua dela. Ezinezkoa da auresatea, baina bost urte barru eroriko da Berlingo harresia.

Behingoz patrikan espero baino sos gehiago due-
nez, sartu-ahala-fundi, Tatianarekin Parisera igo eta
lagun zaharrak bisitatzea erabaki dute urri hasieran,
Senako bazterrak oraindik sobera ilundu eta hotzituko
ez zirelakoan: Rue de la Moskova eta Rue Neuve des
Boulets. Lagun zaharrak besarkatu, Paco Ibañezen
atelierrean Rodanoko ardo zuria edan eta muskuiluak
jatea helburu, edota karakol kazolakada bat, eta, nola
ez, *une autre carafe de vin rouge*. “Iraultza barraskilo-
ena da!”. Baudelaire. Verlaine. Rimbaud. *Le bateau
ivre!* “*Da cippo, Paco! Akabo ba!*”.

Ze ezberdina Paris gauez. Egurrezko kontrabenta-na urdinak ixtean ezkutuan geratzen dira erakusleihokak. Dendak desagerrarazten dituen ilusionismo paristarra. Tatianak sumatzen zuen horren falta eta hasperen egiten du bere hiriko kaleak berreskuratzean.

Latin Auzoan etxea utzi diete Hagan bolada pasatzen ari diren Tatianaren Nazio Batuetako adiskide batzuek. Paco Ibañezi Seikori buruz galdegin diotenean, ez dira harritu “erakunde armatuaren alderik gogorre-nean” dagoela entzunda.

“Eta Pello?”.

“Pello? Nor da Pello?”.

“Karlos..., Fabio? *París-fabrica-adversarios-respetuosos*? Ez duzu oroitzen?”.

Paco ez da harekin gogoratzen.

“Arerio ondraduen... etengabe errepikatzen zenuen esaldi hori garai hartan, Paco... Zuri ikasi nizunik”.

“Benetan? Ez dut uste... Beste norbaiti entzungo zenion”.

Pacoren anaiari Arakisen helbidea eskatu dio Imanol. ETA utzi zuenetik Mexiko DFn dago eta Espainiako Gobernuarekin hizketan ari da bere abokatua, itzultzeko kausa pendienterik ba ote duen aztertzeko. Ta-

tianaren adiskideen etxean, haien seme-alaben argazkiz betetako gelan lo egin dute. Berrogei urteetara gerturatzen ari dira. Tatianak seme-alabak izateari buruz hitz egin dio eta Fakirrak ez du unea denik sentitzen. “Orain ez bada, noiz?”. Oraingoz pausoa ez ematea erabaki dute eta Tatiana ohi baino isilago itzuli da trenean. Nola heltzen diren trenak Hendaiara, azken geltokira, terminusera: arrain nagi eta muturluzeak akuarium bateko kristalaren kontra bezala. Hendaiatik Donostiarako trantzea behiala trentzatutako zerbait sendoaren desharilkadura izan dela sentitu du Fakirrak. Izu-laborria eragiten dio bizitza konbentzionalak. Panikoa. Bera ez da monogamoa eta ez du sekula guraso bilakatu nahi izan.

Paristik itzuli ondorengo egunetan heldu zaio Josu Ponceren heriotzaren berri. Josutxo, Txopo, Carmenen neba gaztea, Klabelin Komikeko baxu-jotzailea, aspal-dian berbena talde batekin zebilena. Izoztuta geratu dira Tatiana eta biak. Esker txarreko izan ohi gara albiste ilunekin: ez diegu sekula haien pertinentzia aglutinatzailea eskertzen. Haien borondatea baino askoz ere handiago, bilgarriago eta boteretsuagoa den berri txar horri esker berradiskidetu dira.

Mata Hari besarkatu dute hiletan. “Josurena ez da istripu bat izan”. Arrebak ez du bere nebaren erabakia ulertzen. Minduta dago. “Ez baitago ulertzerik”, diotsa xuxurlan belarrira Fakirrak, “ez duzu zertan ulertzen saiatu ere”. Baina berak bai, gau osoa pasatu du Imanollek gaiari bueltaka, John Dowlandena lauterako musika entzuten eta Josu Ponce, Josutxo, Txoporen erabakia ulertu ezinik. Heriotza finkatze bat da: lausotuta zegoen argazki bat diafano ageri da derrepente, ongi fokatuta. Argazkia albumean itsatsirik eta albuma itxirik. Ez da argazki gehiago izango. Eta heriotza finkatze bat bada, autofinkatze bat da norbere buruaz beste egitea, norberak fokatzen du eta izozten norbere burua, etorkizuneko anbiguotasunak eta potentzialitateak deuseztatu egiten dira. “Dagoena dago, edo hobe esan, *zegoena* da dagoena; eta ez da gehiago izango, neuk erabaki dudalako ez egotea”. Suizidio bat, etorkizunaren ukazioa adina izan liteke iraganaren gorespena. Federik eza etorkizunean edo fede gehiegi iraganean. Hori baino hoberik etorriko ez den ustean iraganari marko bat jartzea. Muturreko autorretratua.

“Bere arrebak behintzat bikiak dauzka, Carmenek badu zeri heldu”, hala ez izan arren eraso bezala bizi

ditu Fakirrak Tatianaren hitzak; berri txarren pertinen-
tzia aglutinatzailean zabaldutako pitzadura. “Buelta
bat ematera noan”. Bortitzegia litzateke hori soilik
esatea. Apur bat aldatu du azkenean, deklarazioa pro-
posamen bihurtuz: “Buelta bat ematera noan. Etorri
nahi?”.

Tatianak nahiago du etxean geratu. Aspaldiko par-
tez, Bekaintirori deituko lioke gustura kalean bakarrik
alderrai ez ibiltzeagatik, baina hura ere umezain dabil
aspaldion eta goiz jaiki beharko du aurrezki kutxara la-
nera joateko: beranduegi da jada borondate oneko
jendearen etxera hoska ibiltzeko. Desordena besarka-
tu beste aukerarik ez du, gauez, bakardadean. Gau
horretan ezagutuko du Koro eta astebete barru aitor-
tuko dio Tatianari norbait ezagutu duela.

Tatianak ez hotz eta ez motz erantzungo dio: “Aita
izateari itzuri egin eta beti seme izaten jarraitzeko
hautu bat da hau dena. Konturatzen zara, ezta?”.

“**Bere** amaren antz handia duelako gustatuko
zaio...”. Aspertu arte entzun behar izan du hori Aina-
rak Sixtoren ahotik. Hirurak dabilta elkarrekin plaze-
tan orain, eta Telmo Valdes baxu-jotzailea batzen zaie

tarteka. “Bingora joaten den andre nagusi horietako bat ematen ez din, bada! *Botellazo* oxigenatua, ile kardatua. Gure ama izan zitekeen Koro hori!”. Imanol haiek baino zaharragoa da, baina ez hainbeste. “Ez dakit ongi azaldu dizudan, Ainara. Ez da Imanol baino zaharragoa *dela*, baizik eta bera baino askoz zaharragoa *ematen duela*...”. Inor gutxik ulertzen du harremana. “Tatiana den samurrarekin, Tatiana den intelektualarekin, Tatiana den argalarekin eta frantsesarekin... Tatiana den *paristarrarekin*!”. Denek ados dirudite honetan: Tatiana zen “bere bizitzako emakumea”. Horrela doa historia ofiziala zure inguruan bilbatzen: “Tatianarekin gauzak ongi zihoazen, Tatiana utzi zue-
nez geroztik hasi ziren kontuak okertzen”. *Bere bizitzako emakumea*. Titulu nobiliario bat horman jartzeko. Zeinek dio bakarra denik eta nork ebazten du hurrenkera? Lasai, ez hartu nekerik: arduratuko da beste norbait zure partez. “Dirua dauka, zaindu egingo du; Ediporen konplexua, batek daki”. Harreman interesatua? Eta pasio hutsa balitz? Edertasuna dastatzeko bere modua? Edertasunaren dastatzailea baita, oroz gain, Fakirra.

Entsegura goiz iritsi den egun batean bakarrik daude biak, Ainara eta Fakirra. Pozik dator gizona eta

nekatuta, distira du begietan. Ez dio eskuarki Ainarari konfidentzia handirik egiten, gaztetxo ikusten duelako agian bere ahotsarekin hain ongi etortzen den kantaria; norbaiti kontatu behar dio gaurkoa, ordea, lehertu egingo da bestela. “Nire bizitzako txortaldia izan dinat eta berandutu egin zaidan, barka, grabeak txori herratuak ditun, hasiko gaitun entseatzen tonu bat beheragotik?”. Eta orduan bota kanperoen gainetik galtzak altxatu eta belaun pareraino bildu ditu: belaun ubelduak, belaun kolpatuak, belaun urratuak erakutsi dizkio, “zilipurdikatu garen alfonbra ez zen batere irandarra, zoramena izan da”. “Irakiarra zen alfonbra orduan, ala?”, bota dio, konplize, Ainarak, Iran eta Irak gerran daudela jakitun. Barre egin du Fakirrak. Agian ez dira sekula biak elkarrengandik hain gertu sentitu.

Ia bi metroko gizona maitaketan irudikatze hutsa zail egiten zaio Ainarari, nahiago du horretan ez pentsatu. Hala ere, *Fakirra* deitzen diote, dantzari izana da, ume handi bat, aitonumea, begiak piztuta dituen gaur. Tatianarekin zoriontsu izan zen eta orain zoriontsu da bere maitasun berri horrekin, ur oxigenatuaz ilea tindatu eta bingorako moduko *botellazoa* eta kardua dituen izter sendoko emakume heldu eta doto-re honekin. Kororekin. Edertasun mota hori preziatzen

dutelako bere John Lennonen miope begiek, Gandhiren miope begiek, begi ttipi, begi hippie, begi irakurri, begi distiratsu, zinez negarti eta hunkibera horiek; begi-nini kanalla horiek, bere buhame eta kinki begiek; maiteagoak, emakume heldu bipilaren gerria eta eskuak, eta haren eskuak bere gerrian. Emakumezko helduen besoetan baino gusturago inon ez, dotoreziaren zentzu hori du: haien sorbaldan negar egiten du eta barre eginarazten die, horrek ematen dio segurtasuna, etxean inork bere aitanoel ahotsa aintzakotzat hartzeak, hor baita indartsu bera, ahotsa delako bere karisma, hori gabe paralizatuta legoke, gatzezko estatua bilakaturik.

“Zilipurdikatu garen alfonbra ez zen batere irandarra”, patioan jolasean belaunak urratu dituen praka motzeko umearen pare antzaldatzen den aurpegi bat, kandelaren sugarra ispilu aurrean, Ainarari begira. Sehaska kanta bat abesteko gogoia erne dio horrek Irazokiri, Fakirrak gustuko ez dituela badakien arren.

Musikariak berandu datoz eta, piano-jotzaileari dagokionez, Ainarak badu bere susmoa.

“Sixto ez daukazu batere pozik”.

“Sixto, haserre? Zergatik?”.

“Ez nuke horretan sartu behar...”.

“Arren: ni baino hamabost urte zaharragoa den emakume batekin nire bizitzako larru-jotzea izan dudala aitortu berri dizut! Lagunak ginela uste nuen”.

Jakina, *adiskideak* dira. Ainarak bere ondoan abestu eta gehiegi distraitu eta gehiegi distiratu gabe koruak egiten dizkion bitartean, orduan bai, *adiskideak* dira. Bakarkako disko gehiago ateratzen ez duen bitartean bere letra propioak abestuz (esku bat Ainararen sorbaldan, bestea bere bihotzean: “Dauzkagun poetekin, Ainara...! Lagun baten aholkua da”). Bitarte horretan *adiskide* dira, baldintza horiekin izan daitezke sokako.

“Gutxietsia sentitzen da Sixto. Azken diskoan bere izena azalean ikustea espero zuen”.

“Ezin liteke! Txantxetan ari zara...”.

“Ezta batere. Eta behin elkarri egiak kontatzen hasita, nik ere, hainbeste merezi duela uste dut...”.

“Baina Sixto anarko bat da, gauza hauek bost inporta zitzaizkiola uste nuen”.

“Anarko edo ez, jendea mimatu beharra dago, Imanol... Badakizu nahi duzunean detallista izaten. Izan ba detaile bat harekin”.

Pentsakor geratu da Fakirra.

Bada suizida bati barkatu ezin zaiola dioenik, baina ezin diozu suizida baten arrazoiak ulertzeari uko egin, baldin eta suizida batek patxadaz eta denborari denbora emanik hartu badu erabaki hori. Kontua da ia inoiz ez dagoela hori modu fidagarrian ziurtatzerik: suizidio bakoitzak bizitza ematen du amaitutzat, gertaeren pilaketan aurrerantzean izango duen erantzukizunari muzin egin dio suizidak eta pilatutakoa aski dela deliberatu, baina, aldi berean, zulo beltz bat ere zabaltzen du, geratu direnen irudimenari egindako opari makur eta zurrupatzaile bat, amaierarik ez duen arrakala.

Izarren hautsaren antsia, jatorrira bueltatzeko gogo muturrekoa, sustraietara itzultzeko bulkada hori, jatorria eta sustraiak ezereza direnean, nola ez konpartitu hori dena, lasaitasun izendaezin hori? Errotua izatea norbaitek, mundura, iraupen ariketa hutsaz haraindi, ekintza zehatz batzuk egitera etorri garen ustea eta ekintza horiek konplituak dituen konbentzimendu osoa. Nola ez ulertu senaren galtzerdia alde-rantzikatzen denean indar guztia galtzerdiaren muturrera eramaten duenaren arranke bortitza, bat-batekoa edo meditatua. Bere burua itzaltzeko grina. Neke

abisal hori duenak atsedenerako eskubidea eskatzen du, azken oihu isil bat. Txoporen kasuan, hitz egin daiteke berekoikeriaz? Berekoikeria, bai, bizirik geratu direnena, agian: lagun guztiak dira berekoi, esate baterako, haren falta sumatzerakoan, denen lantuek entzuten zituenetakoa baitzen Txopo, denen saminen eta sasiminen ukendu egiazkoa. Isilik egoten zen luza-ro eta gero zentzuzko zerbait esaten zuen. Halaxe gertatu zen taldearen izenarekin. Klabelin Konbo, Klabelin Komik, zer axola zuen? Ezustea dago, jakina; xoka, hari argibideak eskatzeko gogo berantiar eta tamalez jada ase ezina, elkarrekin partekatuko ez ditugun urteekiko amorrua edo bertigoia, uneak eta urteak gauza bera direlako suiziden kasuan. Lagunaren alde behar eta merezi zuena garaiz ez egin izanaren susmo mikatza ere badago. Erruduntasun sentipena, seinaleen bilaketa –“arrastoren bat aterako genuen horren lagun eskasak izan ez bagina”–, ondotik alde egin digun norbaiten bizitza izen-deitura hutsetan eta izen-deitura horiek metafora batean kaiolatzeko tentazioa (metaforak burgesak ez balira), alfa eta omega, taxidermistaren lana: lehen ez genekien eta orain badakigu bere benetako izena, badakigu suiziden leinukoa zela. Haren izena aipatzen dugunero hura modu leial ba-

tean deskribatzeko erantzukizuna geratzen zaigu, eta hari buruzko gauza onak baino esaten ez ditugularik erantzukizun hori betetzearen ezintasuna.

Josu oroitzeko modu bakarra kanta bat egitea da Imanolentzat, kantak eternitatearen lagina direlako, erredentzioa, amaierarik eza. Gure soslairik onena, fotomatoi batean elkarrekin atera genuen argazkia. Kanta bat mezu puntuala izatetik, orotariko telegrama estandarra izatera igarotzen da -jarri puntutxodun le-
rroaren gainean zure izena, zeinahi izen; ezabatu zeure testigantzari ez dagokiokeen adjektiboa, edonorentzat balio du orain kantak, nahiz eta zure izena ez izan *Suzanne, Yolanda, Lili Marleen*; nahiz eta zeu ez izan *Itziarren semea*-. Erretratu bezala sortu den kanta ispilu bihurtuko du entzuleak. Kanta bat berrespen bat da; kantatu ondoren kantak dioena sinestera ailega zaitezke itsu-itsuan. Edo agian ez zaitu sekula konbentzituko. Kanta, orduan, hondakin bilakatuko da, trakeskeriari egindako monumentu toxikoa. Sortu zituenak berak abandonatutako kantaz gainezka daude hilerriak. Hamaika bider kanta berbera entzuten duenak bere kantaria asmatzen du, totem bat, gezurrezko kantaria, kantari bat gutxitan iristen baita bizitzan barna bere barne kanta gogoangarri eta inspiratuene-

tan erdietsi zuen maila garai horretara. Kanta onak zure aurretik doaz beti, kantik “bihar” dira; ez, ordea, kantagileak. Fakirra ere berdin: sentiberagoak dira bere kantik bera dena baino. Bere ahotsak, bere buruak ez dakizkien gauzak dakizki eta ahots harekin iristen den lekuetara ez da sekula ailegatuko bere kasa, hitz lauz edo oinez, zango bat libertarioaren zapatan, bestea ikusteke norenean. Batzuetan, intimidatu egiten du kanteekin duen barne lehiak, harreman intimoak. Batzuetan, jelskor jartzen da bere kanteak lortu bai, eta berak lortzen ez duen irismenarekin. Kanta bat gehiegi hazten denean, gogoia ematen dio hura desaktibatzeke, desakralizatzeke, hari garrantzia kendu eta nondik kopiatu zuen aitortzeke. Ordea, ezta bururatu ere zuk hori berbera kanpotik egiterik. Ez lizuke sekula barkatuko. Batzuetan, kanta izatea desio du, kanta bakarrik, kanta denbora guztian eta kanta ez beste ezer. Merezi du saiatzea, beraz. Ohikoa denaz bestaldera, hitzetatik abiatu beharrean musikatik abiatu da oraingoan: melodia bat egin eta, haien arteko harremana aspaldian apur bat hoztu den arren, Te-klassi deitu dio letrak jar diezazkion. Moskatel botila hustu dute erdi bana.

“Une onak izan genituen”.

Ezkutatu den lagunaren alde, zer besterik eta zer hoberik esan daiteke? *Une onak izan genituen*. Ez “pasa”, baizik eta “izan”. Iraunkorragoa da.

“Josuren alde”.

“Higatik, Txopo”.

Arraroa da norbaiten alde topa egitea eta ez haren osasunean. Hildako lagun baten osasunean, jada ezin daiteke topa egin.

Imanolek kanta jo dio gitarraz lagunduta, xuxurla leun batekin silabak markatuz. “Estudioan grabatzen duenean ez zaiok horren samur aterako”, pentsatu du istantean Teklasek. “Beti gertatzen zaiek: urduri jartzten dituk”. Ainararen kasuan, “afonia histerikoa” zen hitza, baina Fakirrak ere errespetu gehiegi zion batzuetan estudioko lanari.

Kopla gisako egitura du kantak eta berehala harra-patu du neurria. Handik bi egunera bertsoak helarazi dizkio makinaz jota.

“O-ak p bihurtzea, hire kontu”.

“Oraindik ez duk idazmakina berria erosi?”.

“Fetitxista nauk. Pena ematen zidak zaharra botatzeak”.

Neurrira egindako eskularrua dira Teklasen hitzak melodiarentzat.

Carmen etxera gonbidatu du. Bere gurasoen eskandalagarri, Zapatariko etxe okupan bizitzen jarraitzen du, bikotekiderik gabe bikiak izan dituen arren. Ogia egin eta auzoan saltzen dute. Buztingintzari eta sendabelarrei buruzko ikastaroak antolatzen dituzte. Carmen Ponce, alias *Mata Hari*, Teklas bera eta Fakirra. Elkarrekin, aspaldiko partez. Ilun txintan abestu dio Carmen neba hilberriari eskainitako kanta.

“Munduko kariño guztiarekin egin dinagu, Josu gogoratzeko. Gustatzen ez bazain ez dinagu diskoan sartuko, esan gabe doa”.

“Nola ez zait ba gustatuko, ederra da, oso ederra”.

Bi muxu eman dizkio eta gero beste bi, besarkada baino estuagoak diren muxuak. Ahaztua zuen Mata Hariren ezaugarri hura: muxuen antzeko egiten dituela besarkadak, eta besarkaden antzeko, muxuak. Berdina egin du Teklasekin, letra ere ederra dela adierazteko. Gero Fakirrarengana bueltatu da Carmen eta zintzilik geratu da haren lepotik, tarte luze batez.

Sortu bezala desegiten den behin-behineko senidetze batekin konformatzeaz ari gara. Inori pultsua kalkulatu ki hartzen ari gatzazkion sentipena eragin gabe hari bostekoa luzatzen jakiteaz, tinko baina ez itotzaile, kalkulurik gabe. Sor dadila hilkorren arteko

konplizitate bat, errukiarekin zerikusirik ez duena, samurra eta hauskorra, izenik gabea.

Zenbat eguerdi Sebastopol ostatuko kristalezko mosaikoaren bestaldetik trafikoari begira. Bizitza donostiarra, vermouthernen ezti garratz, itsaskorra lagun. “Donostian ere aurki daiteke Paris”, pentsatu nahi luke Fakirrak. Bada jendea Donostian Paris bilatzera dedikatzen dena, Parisen aztarna, Parisen lagina, Parisen islatxo, Parisen promesa. Parisko *voyeur* izaera ateratzen zaio agian, Parisko kafetxeren baten traza hartzen diolako Sebastopol tabernari, aulki batzuk eta mahaiak kalerantz begira daudelako, ongi prestatzen dituztelako bertan konbinatuak. Paretik autobus bat pasatzen den bakoitzean taberna guztiak egiten du dardara tabureteen pean, San Martin kaleko oinarri hondartsuen azpian, urari irabazitako zingiren gainean baitago eraikia hiriaren erdigunea. Han behean, itsasoa dago. Komuneko ponpari tira egitean kresalak lixibari gain hartzen dio taberna askotan. Horregatik du zentzua Nautikoko eraikin zuriak, sekula partitzeko tenorerik eta ausardiarik biltzen ez duen eraikin horixe baitahiriaren izpiritua.

Hasieran ez dio arnasa hartzen ere uzten. Etengabe deitzen dio Korori. Telefonoz hots egiten dio txoko guztietatik, taberna guztietako telefono guztietatik, “Colchonerian nagon, jaitsiko haiz?”. “*Estoy en la Colcho*”. “Mondragonen kontzertua dinagu, baina hirekin arratsalde pasa egitekotan, gaixo nagoela esan eta ez naun kontzertura joango”. Popatik bidaliko du Korok, jakina: berak lana dauka pentsioan, horretara dedikatzen da, Norteko geltokira trenez datozen turistak harrapatzera, bere pentsioan lo egin dezaten hotelean baino merkeago. Hilabete gutxiren buruan, harremani iraupenik opa eta aurreikusten ez zioten musikariren harridurarako, etxea erosi dute elkarrekin, Arroka kalean, erdi bana, Bekaintirok emandako hipotekari esker. Infernuan ere eduki behar baitira lagunak (“Hemen gauzak latz aldatuko dira aurki!”; “Kreditu hipotekarioa? Nola ez, ba? Noski, Trotski!”). Dena dago, etxea zein hipoteka, Kororen izenean. Fakirrak dirua daukanean brausta ematen dio, gaztetan amari ematen zion bezala. Ez daukanean, ez dio ematen, ez eta Korok eskatu ere. Bazkalostean kankak eskatzen dizkio, disko dedikatuak zuzenean: *Maitia nun zira*. “Hementxe ba, ez al duzu ikusten?”. Barreak. *Maitia*

nun zira. Beretzat bakarrik. Korok eskatu, Fakirrak kantatu.

“Hondarribiko institutuan greba abiatu ditene, hara noan”.

“Musutruk abestuko duzu?”.

“Zer nahi duzu? Gose greba dun, ikasleak ditune eta...”.

“Ez duk sekula espabilatuko”.

Eta halaxe joango da, Hondarribiko institutuko ikasleak beste zerbaitea egon arren, gose greban ezkutan Chiquilin galletak jatera, edo irakasle matxinatu eta solidarioekin mozkortzera. Fakirrak, beste behin ere madame Duprezen aholkuen kontra, bere gitarra txoarekin kantatuko du, solidarioki, nahiz eta elkartasuna jasotzen duten haiek ez bere musika bereziki estimatu. Rock erradikalaren garaiko semeek nahiago bestelako musika, mugituagoa, elektrikoa, Silvio entzuten hastean haien gurasoak maitemindu egin zirela jakin ongi dakiten arren, enamoratuen tarte akustiko lasaiak esparru ziurra izanagatik oraindik gazte sentiberenen artean.

“Ni gazte hilko naun, Koro”.

“Ez horrelakorik esan”.

“Egia dun eta, gazte hilko naun”.

Badirudi badaudela egunak zeinetan badakizun gauzak nola egin. Gauzak atera egiten dira, sortu edo etorri. Baina badabiltza. Euren kasa dabiltzala dirudi, gainera, zuk deus behartu gabe; antolatu baino ez dituzula egiten, onetsi besterik ez. Kanta eta letra txirikordatuta heltzen dira auskalo nondik mihi puntara, gitarrak zeure hatzei deitzen die eta programatutako pianola automatikoetako teklak bere burua sakatzen duen gisa berean zaramatzate harmoniara sokek, zeure arpegiatzeko teknika narrasa ez da gaur ezeren traba. Isurian doa dena. Balirudike, dakizuna nahikoa dela eta dakizun apurrari etekina ateratzea dela artearen benetako zentzua. Sistematizatzerik balego hori dena. Baina ez dago modurik, horretan datza lan honen xarma. Eta sistematizaziorik ezean, erritualizaziorako aukera baino ez zaigu geratzen, erritual horiek egun txarretan egun onei deitzeko modua direla sinestea. Errituala, nork berea; isolamendua, lanean hasi aurreko kafea, sortzeko egokiak diren trenpu eta lekuak hautatzea, zigarroaren keari putz egitea. Ez du zentzu askorik agian, baina zentzugabeagoa litzateke

deus ez egitea. Zer da sineskeria, denbora-pasa diziplinatua ez bada?

Fakirrak ez du egundo Ainarak bere bakarkako lehen diskoa argitaratu zuenean Sixtok eta Jean-Marc-ek agertu zuten kitzikadura eta miresmena ahaztu: “Ole, *gure* Ainara”. Bezperan Altsasun izanak ziren, asko gustatu zitzaien diskoaren zuzeneko aurkezpena, “ausarta eta freskoa” zela adierazi zuten, frontoia mukururu zegoela beteta eta jendeak gogoz eta zirraraz txalotu zuela. Adiskideek egin zioten kronikaren aurrean, Imanol arnasari eutsi ezinik tabernako eserlekuan deseroso mugitzen eta tragoa azkarregi edaten hasi zenean ohartu ziren haien hanka sartzeaz. “Zapal tentuz egoaren zelaia: hurkoaren garunean zabilta oinez”. Saiatu ziren orduan Sixto eta Jean-Marc Fakirraren bekaitza eta giro traketsa apur bat konpontzen: “Ezagun du asko ikasi duela zure ondoan, Imanol”. Txatal zatarra ziren ordea hitz haiek ordura arte ehundu zuten oihalean: mihiak trakeskeria egin duelarik, nekez etxekotuko duzu gero eta txokora otzan ekarraz. Disko azalean ageri zen Ainara, zutik eta ilea kazola gisara mozturik, irribarretsu, ondoan Jabier Lasheras gitarra-jotzailea aneazko aulki batean eserita zuela. Fakirrak diskoaren barruko aldean ipini zuen

arreta orduan, kanta zerrendan –“berak idatzi ditu letra guztiak?”–, eta bekaina altxatuz hartu zuen arnas, harridura baino gutxiespen gehiago adierazten zuen keinu batekin. Barruko orria atera, eta banan-banan irakurri zituen hitz guztiak. “Diskoa entzun gabe ezin askorik aurreratu; baina hitzak, eskasak”. Imanolek beti asmatzen zuen aitzakiaren bat gonbidapenak errefusatzeko; ez zuen sekula Ainara bakarka zuzenean kantatzen ikusi nahi izan.

Oraingo hau, ordea, ezberdina da. Ura bere bidean, denbora asko igaro da geroztik eta Ainararen disko berriak oihartzun apala izan du; Jean-Marci “estankatuta dagoela” entzun dionean “*gure* Ainara”, esaten hasi da berriro Imanol, eta, nahiz eta urteak diren ez dutela lehengo kuadrillakoek elkarrekin abesten, baztertuen azken furgoira jaso du berriro solasaldietan, galtzaile direlako estimua diegun haien leinura samurtasunez eman dio ongi etorria. Ainara zuzenean entzutea ez hunkigarri ez desarmatzaile suertatuko ez zaion segurtasun osoa duen honetan, Fakirra prest dago laudorioekin eskuzabal jokatzeko; erreskatekoak izango direlako laudorio hauek eta ez aitortzazkoak.

“Andoainen abestuko du gaur, joango al gara?”.

Kamerinoetan harekin elkartu direnean, zintzoa izan da Ainararen esker ona. Jabi Lasheras joana da jada, “alaba gaixorik dauka”, kantaria bakarrik dago eta Sixtok eta Jean-Marcek muxutan ito dute iritzi zintzoa emateko ausardia askirik ezaren lotsa. Gainera, hala dio idatzi gabeko arau batek, kontzertu amaitu berriaren beroan ez da zintzotasuna tokatzen. Jean-Marcen harridurarako, Fakirra izan da “Ole, Ainara!” esan duena, laudorio abstraktuaren bolea ttipiari horma biko maltzurra erantsi dion arren luze gabe, “jende gutxi etorri da, baina ba ote daki jendeak zer den ona?”; garbi ezarriz ardatzak non dauden eta nork duen inor koordenada horietan kokatzeko ahalmena.

“Ez duzue zorterik izan, ez da gure gaurik onena izan”, defendatu du nola edo hala bere burua Ainarak, Jabier Lasheras eserita egon den kamerinoko aulki hutsarentz begira (“Alaba gaixo? Koldar hori, zergatik ez ote zara nire ondoan geratu?”). Jean-Marcek Lasheraren deserosotasuna seinalatu du orduan, Ainararen zurigarri: “Pharosek esango lukeen bezala, aretoa piszina bat da, hezetasun gehiegi dago, ahotsa ez da garbi entzuten eta Lasheras urduri jartzen da halakotan”. Eta horri Imanolek erantzun, ia sadikoki: “Etorriko gaitun berriz ere beste batean, ez arduratu”.

Badirudi badaudela egunak zeinetan badakizun gauzak nola egin. Gauzak atera egiten dira, sortu edo etorri. Baina badabiltza. Euren kasa dabiltzala dirudi, gainera, zuk deus behartu gabe; antolatu baino ez dituzula egiten, onetsi besterik ez. Aldiz, badira beste egun batzuk dakizun guztia ahaztu egin duzula dirudienak. Ahazten duzu, ezer baino lehen, zeu izango zarela bihar ezinaren mirabe, panpina hauskor, ama-raunean harrapatutako zomorro.

Nola begiratzten dieten Korori eta biei paseoan dabiltzanean. Donostiarren zorion itxura kortso-patentea da, larrutzeko eta aholkuak emateko legitimazioa ispi-lu aurrean. Maiz-maiz, maiseaketa, “*en ausencia de*”. “Nik ez dut urlia juzgatzen” diote, baina juzgatzen ez dutela esatea bera da haien epaia.

Fidelidad, nobleza y lealtad, dio Donostiako armariak. Hiru hitz, gauza erdia esateko.

Ogerleko erdirik balio ez duen katedral neogotikotik gora Alderdi Ederrerrantz zoazela, artzain on batek artalderatutako ardiak dira hiritarrak: gezi bat bezala, xuxen-xuxen joanez gero hiriko alde zaharrera helduko zara handik, Santa Maria elizaraino. Eliza honetako

sarreran dagoena da hiriko San Sebastianen irudirik ikusgarriena: Fakirrak gogoan du oraindik Patti Smith abeslariak Victoria Eugenia bost minutu eman zituela harlanduzko eskultura honi buruz bakarrizketan. Entzuleek ez zuten ulertzen zertara zetorren kantari amerikarraren lilura, santuaren keinua eta alkandora hertsakorren posturaren imintzioak egin behar hura, Patti Smithek horren berea duen antzezpen enfatikoak. Zergatik ez zen behingoz abesten hasten?

Frankfurter Allgemeine, New York Times, Le Monde... Askatasunaren Hiribidean -lehen Avenida de España- paperezko akordeoiak bezala zabaldutako kioskoetan nazioarteko prentsa eskuragai egon da beti, ia denek irakurtzen duten arren probintziako egunkari nagusia, askok haren ildo ideologikoa deitoratuagatik. *El periódico* deitzen diote, eta saltzaileak irristatzeko prest izaten du zuk eskatu aurretik. Geziz jotako azkenak zeintzuk izan diren jakitea da premia-koena: eskelen eta martirien errolda eguneratuta daramate kazeta honi esker jubilatuek. Irakurle onak eta txarrak daude, jakina, eta gero daude hauek, irakurle putreak, goizero hatz-mamiak listuaz busti eta hildakoen erroldan ez daudela ziurtatzen dutenak. Inkontzienteki bada ere, donostiarrak geziak maite ditu eta

geziz jotakoei behatzea. Izatez, hori du zeregin nagusi; hori, eta emanaldi petoak antzezteko ttikiegiak diren hiriko antzokietan opera jibarizatuak entzutean ez lokartzen saiatu. Baina hiria zertara dagoen, zaratak salatuko dizu askotan: Sokolov pianista errusiar handia kexu agertu da antzokian Chopinen piezak jo ahala su festak entzun dituelako kanpoan.

Jarri gaitasun nominatiboak fantasiaren zerbitzura. Pequeño Casino, Rex, Astoria, Savoy: hiri estu baten mugak zabaldu nahi lituzketen zinema aretoen izenak. Tiffany's dantzalekua eta Le Parisien kafetegia. Gainerakoan, milandarren janzkera –milandarrak ziren, hain justu, Sebastian martiriaren gurasoak–, *un petit air parisien* eta Rio de Janeiroko hondartza barnebiltzen dituen hiri bonsaitzat dute askok, Urgulleko Cristo Redentor eta guzti. Modu baikorrean ikusita, “Hiri handien abantaila guztiak eta haien desabantailarik bat bera ere ez”. Berdin esan liteke kontrakoa. *Voyeurismo* zeiharra da donostiarrena, disimulatua eta bertutetsua, sofistikazio handiz fiskalizatzea bertute bada, bederen. Erantsi horri euri langarrari “xirimiri” deitu izanaren azertu paregabea. Baduzu hiriaren karikatura azkarra. Alde basa, Pasealeku Berriak jartzen du edo Haizearen Orraziak: bertan lehertzen dira marea

bizietan olatu itzelak, apar eta esne, orraztu gabe lehenak eta Txillidaren eskulturek eskuilatuak bigarrenak. Harro daude donostiarrak tokatu zaien itsaso zatiaz. Olatuek badakite hiritarrei falta zaien basakeria berezko batez arroketan zapart egiten.

Udal arkitektoek jelsia handiz zaintzen dute *zona romántica* izenez bataiatutako perimetroa. Noiz merrere itxurako noiz harrizko diruditen arren, egiaz, harreazko bihotza duten etxeak: pospolo batekin urratuz gero abarkillatu baietz bastimenduaren hormak. Badi-ra kerubintxoak errege zubietan elkarri hatza ukitzen; arretaz behatuz gero, lehoi ttipiak eta aingeru diskretuak bereiziko dituzu ezkaratz pinpirinetan, dragoitxoak, Jupiter, aurpegi batekin aurrera eta bestearekin atzera begiratzen duen bisaje biko Jano jainkoa, Fenix hegaztiak dinteletan. Interfonoetan eraztun doratuak eta ukimen nakaratua edo marfilkara, elefanteren baten letagin landua ukitzearen pare. Afrikako Serengetiak ere ordaindu ote dio hiriari zerga? Kontxako paseoa da hiriaren amua eta pasarela, baina askoz aproposagoa da Urumea ibaiaren ertza konfidentziarako, urtaroen joana dastatzeko, bikoteari esateko, ez-dazure-errua-nirea-baizik, haurdun zaudela edo gaixorik terminal. Udazkenean orbelez betetzen da Bizkaia pa-

sealekua, eta hosto lehorren zurrumurru lasaigarriak, hala esan zuen hiriko poetak, “erregalu-paperak urratzean ateratzen duen hots berbera egiten du”. Behin eta berriro zabaltzeaz nekatzen ez diren opari-papera da hiria bera bertakoentzat.

Imanoli gustatzen zaio ezezagunek kalean ezagutu eta geraraztea, diosal egin diezaioten, igurtz dezaitez, eska diezaiotela berriz ere bere Parisko ibileren berri kontatzeko, esan diezaiotela azken diskoko zein kanta gustatu zaien gehien eta zergatik. Antiguaraino oinez joan eta ama bisitatzen du askotan. Ama orain, ama beti. Gero, Kororekin paseatzen du, bere musika-riek amaren ordezkoa edo luzapena dela uste duten horrekin. Badaki bere lagun gehienek eta familiakoek gustukoago zutela Tatiana. Beti dago norbait gaiztoz min eman nahi duena.

“Imanolen ama zara?”.

“Ez, bere *amona* naiz”.

Zinezko diletante bohemioa da Imanol. Berak bai, bost egunkari irakurtzen ditu egunero. Gero, etxera berriz: opera entzuten du, Carlo Gesualdoren madrigalak, David Bowie, Pink Floyd eta Chico Buarque. Edozer. Disko bat bestearen atzetik. Inoiz ez dakizu zerk piztuko duen kanta berri baten txinparta. Ez dabil

Tatianarekin, baina maitale ohiari ikasitako zenbait ohiturak bizirik dira. Lehen ez bezala, poema liburuak irensten ditu orain, bata bestearen atzetik; nahas-mahas horretan ongi funtziona dezakeen zer-bait bilatzen saiatzen da.

Behingoagatik, bera da Koro leziazten duena: gus-tuko liburuetako pasarteak irakurri eta bestela inolaz ere entzungo ez lituzkeen diskoak entzunarazten diz-kio. Koro okupatuta badago, lagunekin geratzen da Imanol ilunabarrean, Enrike Larrearekin irratsaioa prestatzeko, edo Guria tabernan jazz entzuteko Telmo Valdes baxu-jotzaile gaztearekin. “Gordon's ala Larios?”. “Gordon's, jakina”. Lezio hori aspaldi ikasi dute: Gordon's eskatu behar da beti, hobe Gordon's; mundu guztiak daki Larios poliziek edaten duten gine-bra dela, eta gauza horiekin, broma gutxi.

Pio XII.eko Polizia Nazionalaren egoitzan dago Faki-rra. Bila dabilzkiola jakin orduko entregatu du bere burua.

Hotzikara ematen diote komisaldegiek, baina ten-pleari eusten dio. Masperoren liburu-dendako gorila dauka gogoan. Nork bere lana. Polizia zintzoarena egi-

ten duena uniformea ongien geratzen zaiona dela ebatzi du.

“Ezagutzen duzu Mikel Albisu?”, galdetu dio Ondo Geratzen Zaizu Uniformea jaunak.

“Jakina ezagutzen dudala Albisu, denek ezagutzen dute Albisu, antzerkia idazten du...”.

Pausa bat egin du, dramatiko izateko asmorik gabe dramatiko samar geratu zaiona.

“Badakizue kantaria naizela, ezta?”.

Lasaitasun plantak egin nahi eta gura gabeen harro azaltzea, bada marka. Sarri gertatzen zaie hori gorputz handiko gizonezkoei.

“Jakina badakigula kantaria zarela. *Denek* dakite kantaria zarela. Baita garai batean suarekin jolasean ibiltzea gustatzen zitzaizula ere”.

Suarekin jolasean? Bere ezizena jakingo ote duten darabil buruan. Dema estua da, baina baietz esango luke.

“Albisuk deitu zidan kartzelan abestuko ote nuen galdetzeko. Ideia ona iruditu zitzaidan, askotan egiten dut...”.

Infanteriako galdera azkarra, arkuan gezia:

“Hori bai interesgarria. Askotan kantatzen duzu kartzelan?”.

Nola uko egin behiala preso egon zinen espetxera kontzertu bat ematera itzultzeko aukerari?

“Kartzelan ez... Jubilatu etxeetan, eskoletan, institutuetan... Deitzen didaten leku guztietan. Edonon. Baietz esan nion, besterik gabe”.

“*Besterik gabe*, ez. Ez joan hain azkar: besterik asko dago hemen auzitan”.

“Badakizu Albisu desagertuta dagoela? Berak antolatu du hau dena”.

“Asko harritzen naiz, ez dut horrenbeste ere eza-gutzen..., baina ez dakit gai izango litzatekeen halako... halako operazioa berak...”.

“Non egon daitekeen arrastorik?”.

“Ez dakit non bizi den ere. Tabernetan ikusten dugu elkar, batzuetan”.

“Marujan, esan nahi duzu?”.

“Adibidez”.

“Zuek Larios, guk Gordon's”, pentsatu du Imanolek.

“Eta Ramon Maria Yoldi, ezagutzen duzu?”.

“Ramon? Horixe baietz. Aspaldiko lagunak gara”.

“Ramon Maria Yoldi, alias *Teklas*”, galdera ez izan arren, zerbait erantzutera derrigortzen zaituen tonu hori. “Eman-iezadazu-zerbait, mutiko”.

“Azkarra zen mekanografiatzen. Azkarra ez: azkarrena. Teklatuari begiratu ere egin gabe idazten zuen”.

“Hura non bizi den jakingo duzu, behintzat”. Esan nahian: “Tentuz, ez gaitzazu leloegitzat har”.

“Hemen, Amaran, baina ez dakit non, zehazki”.

“Komando bereko kideak izan zineten biok”. Nork dio ezetz, memoria historikoa, badu Poliziak.

“Oso aspaldiko kontuak dira horiek”.

“Komando bereko kideak zineten eta zeu zinen hirukoan buru”. Kutxilloa ahoan: “Izerdia botatzen baduzu konturatu egingo gara, eta konturatzen bagara, errudun zaren seinale”.

“Frankismoaz ari gara. Aspaldian utzi nuen nik ETA”.

“Beraz, sinetsi egin behar dugu Mikel Albisuk Martuteneko kartzela barruan kontzertu bat eskaintzeko deitu zizula eta zuk ez zenekiela fitsik ere planaz”.

“Ni ez naiz soinu ekipoaz arduratzen...”.

“Ez gara soinu ekipoaz ari orain. Bazenekien ala ez zenekien?”. Esan nahian bezala: “Galdera bat egin dizut”.

“Nola jakingo nuen ba?”. Erantzunik onena, galdera bat.

“Zuk esan: Albisuren bidez? Teklasen bidez? Beste norbait bazegoen operazioan sartuta?”.

“Ez zinen harritu bafleak handiak zirela ikusitakoan? Bi pare eraman zenituztela eta nahikoa zela bakarrarekin? Kartzelako telebista gelan baflerik gabe ere berdin-berdin kantatu ahalko zenukeen... Han ez dira ehun lagun baino gehiago sartzen”.

“Teloneroentzat izango zirela pentsatu nuen, ez dakit zer esan”. Gizagaixo aurpegia oraindik erabili ez duzunean, zilegi da behin karta hori jokatzeari.

“Joseba Sarrionandia ezagutzen duzu?”.

“Euskal poetarik onenetakoa da, poeta petoa...”.

“Poeta petoa eta terrorista petoagoa”.

“Hara, nik...”. Argi ibili: denbora gutxiegi igaro da gizagaixo aurpegia erabili duzun aurreko alditik.

“Beraz, ez dakizu ezer, baina *denak* ezagutzen dituzu...”.

“Denak ez... *Piti* ez nuen ezagutzen”.

Nomenklatura. Dios. Esan orduko jabetu da hanka sartu duela.

“Baina bere ezizena badakizu: *Piti*”.

“Irratian entzun dudalako... Hara, gaur goizean disko berria aurkezten aritu behar nuke; hori da nire lana, ez besterik... Artista naiz”.

Esan orduko damutu zaio, baina poliziek ez dute aintzakotzat hartu.

“Ez al da kasualitate handiegia? Esan nahi dut, ez dirudi oso logikoa, ala? Ulertzen duzu guk zalantzak izatea?”.

“Lagundu nahi nizueke, baina benetan, ni zuek bezain harrituta nago... Nire kasa etorri naiz bila zenbiltzatela jakin orduko”.

“Kontzertu bat antolatu da kartzela barruan eta bi presok ihes egin dute, itxura guztien arabera, bafleen barruan ezkutatuta. *Zure* kontzertu baten ondoren. Eta *zuk* ez dakizu ezer. Hara..., ziur ez dakizula, ala denbora behar duzu dakizuna gogoratzeko? Hori ere izan daiteke, ala?”.

“Zer esan nahi duzu?”.

“Utz dezagun burkoarekin kontsulta dezan, Alfonso”.

Errukitu egin dira eta irratitxo bat utzi diote ziegan bere diskoaren aurkezpenaren kronika entzun dezan.

Komisaldegikoek ere entzun dute zerbait, itxuraz. “Ez duzu gaizki abesten”, esan dio Ongi Geratzen Zaizu Uniformea jaunak.

Sonatua izan da ihesaldia. Egunkari guztietako azaletan agertu da Joseba Sarrionandiaren orein bisa-

je bizarduna. Teklas eta Imanol izan dira San Martin kaleko epaitegietako ziegan deklaratu zain geratu diren azkenak. Luze egon dira elkarri begira, deus esan gabe. *De Trevilleren azken hitzak* kantatu dute, denbora azkarrago pasa dadin: Fakirrak abestu eta Teklasek koruetan lagundu. Zaila da Fakirrak kantatuko ez lukeen egoera bat irudikatzea. Pitzadurarik gabe ageri da, planaz deus ez zekiela itxuratu du, eta agian, egia da. Teklas berriz, xixko eginda dago: Imanol deklaratzera deitzen dutelarik, bakar-bakarrak geratu da epaitegietako sotoan. “Hori bera da denen ixtoria/ Herriak bardintzen handi txipiak/ Zeren ilüsiene bat bera da/ Lürren gaineko gure pasajia”, hitz haiek iltzaturik buruan. Apurua eman dio Imanoli Teklas han utzi beharrak. Eskua belaunean ipini eta astindutxoa eman dio, autoaren martxa aldatu nahi balu bezala.

“Eutsi goiari, gizona. Hau ere pasatuko duk”.

Haien arteko harremana garai batekoa ez izan arren, besarkada hori eman nahi lioke lagunari, behin Bixarrek berari eman ziona Bartzelonan, burua pextuaren kontra estutu eta alkandorako patrikan laguna sartu nahi duenarena, baina zakar samar daramate deklaratzera eta ez dio denborarik eman.

Fakirra kargurik gabe utziko dute aske. Teklasek, ordea, ez du Imanolek adina zorte izan: bi aste egin beharko ditu atxilo Martutenen.

Deklaratu ondoren aske uztera doazela dakienean, Fakirrak Korori deitu dio komisaldegiko telefonotik: “Ekarri garagardo batzuk epaitegietara, hauek ez dizkidate emango-eta”. Kazetariak zain ditu irteeran. Telebistako eta irratietako kamera eta mikrofonoek inguratu dutenean, Keler botila bat dauka eskuan. Dzanga egin du erantzun aurretik. Kazetariak: “Zer moduz tratatu zaituzte?”. Fakirrak: “Goiko pisuan ongi, kafea eta kopa eta guzti... Behean, ordea, txandaren arabera... Txiza usaineko ziega kakatsu batean pasatu dut gaua, zerrikeriaz inguratuta”. Kazetariak: “Bazenekien zerbait Sarrionandiaren ihesaz?”. Ezetz, Fakirrak. Dena ukatu du.

Mikel Albisu, alias Mikel *Antza*, ihes operazioaren zerebroa, sasira pasatuko da, harik eta egunkariak ETako buru bezala haren inguruan hitz egiten hasiko diren arte, askoren harridurarako, hamabost urte geroago. Seiko edo Pello, tira. Baina Albisu? Fakirrari ez zaio buruan sartzen. Ez al zen, bada, idazle bat mires-ten zuen beste idazle bat? Musikazale amorratua, antzerkia irrikaz bizi zuena, maite zituen *Ubu Errege*,

Brecht, Ibsen. Imanolentzat, Albisu, Teklasen pareko letrazauritu bat baino ez zen.

Bi hamarkadaren buruan, “bere bizitzako antzezpenik onena” izan zela aitortuko du Fakirrak. Dena zekiela euskal-poeta-bizidunik-onena kartzelatik ateratzeko operazioari buruz, bere aurretik ihesean parte hartzeari ezezkoa eman zioten balizko bi euskal kantari ezagunen izenak barne. “Haiek beti perfumaturik, haiek beti garbi eta aratz... baina egiaren orduan...”. Egiaren orduan *espainolista afrantsesatu* baten kontzertuaren ondoren atera zituzten kartzelatik Joseba Sarrionandia eta *Piti*, inbutu itxurako bafle banatan ezkutatuta. Zerrendako hirugarren izena izan zen Fakirra, bi kantari perfumatuk uko egin ondorengoa, ala hirugarren aukerarena Fakirrak berak asmatu du, beti perfumaturik dabiltzan kantariekiko kontu kitatze modura? Kontatzen denaren eta izan zenaren arteko amildegia besarkagaitz horretan, hirugarren aukera bat dago beti: Fakirrak ez zekien deus operazioaz, baina bazekiela kontatzen zuen gero. “Tontoa izan behar zen bada, nik deus ez nekiela sinesteko”. Nork geratu nahi du tonto erabilgarri bezala? Nork bere bizitzaren narrazioarekiko kontrola izatea horixe baita: argazkirako norbere soslairik onena hautatzea. Kantetan ere hori-

xe egiten dute estudioan, soslairik onena bilatu. Kanta haien orpotik ibiliko ziren gero haiek, maila ezin emanik. Imanolek, ordean, gutxik izaten duten aukera hori izan du: bizitzan egin duen zerbaiti esker, bere bizitzako ekintza bat bere kanten parean jarri du, edo are gorago. Eta mundu guztiak oroituko du horregatik.

“Troiako zaldiarena egin genuen, baina alderantziz”, kontatuko du Imanol Lurgainek denboragarrenean, bere burua Moises eta Ulisesen artean kokatuz, abenturazale bat, menturazaleen sasoia aspaldi igaroa ez balitz.

1985eko uda da eta ez du Fakirrak trago bat bera ere ordaintzen. Etxearen kontura edo inguruko edalleen gonbidapenei esker horditzen da. Joseba Sarrionandiak kartzelatik ihes egin ondoren, inoizko kantaldi gehien egin dituzte Euskal Herri osoan Sixtorekin eta Telmorekin. Ongi funtzionatzen du hirukoak. Salbuespen bezala, Ainara batzen zaie batzuetan, dirua daukate ahots gehigarriak sartzeko. Ezin jakin zehazki zergatik txalotzen duten hainbeste: abesten dituen erromantzeak maite dituztelako, ala Sarrionandia kartzelatik ateratzen lagundu duelako? Benetan ezin du

jakin, ala nahiago du ez jakin? Txaloa beti txalo, ez gaitezen mokofin jarri, ez da orain publikoa ugaritu zaiolako kexatzen hasiko. Santi Auzmendi sastreak larruzko txupa eder bat oparitu dio, inolaz ere bere patrikatik ordaintzea amestuko ez zukeena, bere gauerdiko *cowboy* kanperoekin primeran doakiona. Arropa erosten duen lekuetan ohikoa da dendariak Fakirrarekin detaileak izatea: foulard bat, deskontu bat, gabardina erostean kapela opari. Gogoratzen denean, bera entzuteko sarrerak uzten dizkie trukean txarteldegian. Garrantzitsua da Imanolentzat detallista izatea. Dendari eta tabernariei diskoak eskaintzen dizkie, beti “bihotzez” hitza jarritz dedikatorian, eta batzuetan, emakumezkoekin bereziki, hotsandiko berbak edo modatik pasatutakoak erabiltzen ditu, “panpoxa” bezalakoak, musikari egomaniako guztiek legeztatik, dedikatzen duen disko bakoitza etorkizuneko konkista bat edo bere miresmenarekiko sometimendu bat izan daitekeen fantasia xalo eta harroari eutsiz. Irratietan mar-txa onean eta noiznahi entzuten dira Imanolen azken diskoko kantak. Salmentak ongi doaz. Diskoa uda amaieran atera den arren, Eguberrietan opari bezala saltzen segitzea espero dute; ibilbide luzea egiten dute maisulanek, hala behar du. Jean Pharosek setatu-

ta jarraitzen du, hala ere: sehaska kanten bilduma atera beharko luke. “Hori baino nahiago gorputza breaz eta lumaz estali eta giza zuzi bilakatu”. “*Tant pis, dommage*”. Oraindik ez du taloirik kobratu, baina aurrerapenaren zenbatekoa kalkulatu ondoren, xanpain kaxa bat erosi du, arrakasta aldeztu aurretik ospatzeko. Teklasi ere ongi etorri zaio Martutenekoa: aldizkariko lana utzi eta udal hauteskundeetara aurkezteko eskaintza egin dio Herri Batasunak. Zalantza askoren ondoren, onartu egin du.

“Nola aldatzen diren gauzak, kamarada. Bekainti-
ro aurrezki kutxan lanean eta hi *poeta zinegotzi*, hori izango haiz?”.

“Konparatu egingo duk...”.

Martutenen eman dituen bi asteek gogortu egin diote Teklasi aurpegia: ile zuriak atera zaizkio eta luzatzen utzi ditu kopetan behera, hontza begirada ezkutatatu nahi balu bezala. Lepo moztaka izan duen arren beti, kokotsa zintzurra baino beherago duela dirudi orain, soin-enborrean hondoratu balitzaio legez.

Bien bitartean, Arakisekin gutunak trukatzeko hasi da Fakirra. Bere arima bikia, haren lorratzeari ibili eta haren ohean lo egin arren egundo ezagutu ez duen emakume hura, Lurdes Arakistain. Tatianak, ordea,

mutu eta minduta jarraitzen du: Parisera itzuli zenetik, ez dio gutun bat bera ere erantzun. Tatianarekin mintzatzean bezala, Arakisen gutunak irakurtzean iruditzen zaio bera baino gertuago dagoela hura axola duten gauzetatik. Horrek, Arakisengandik gertuago egon nahi izatera darama bera, eta ez daki oso ongi axola duten gauzetara edo Arakisengana hurbildu nahi duen, zehazki. Kororekin ezberdina da, ukitzen den konbibentzia bat, Korok eta berak baino ulertzen ez duten zerbait, inori azaltzen nekatzen ez direna, nahiz eta hirian biak besotik ikustean txutxu-mutxuak pizten direla jakin. “Parisen nago berriro, ea noiz eza-gutzen dugun elkar behingoz”, idatzi dio Arakisek. Talde armatua utzi eta Euskal Herrira itzuli nahi du. ETako buruzagitza geratzen zaion konfiantzazko kide bakarrarekin zein Espainiako Gobernuarekin negoziatzen ari da bere itzulera, baina Barne Ministerioak filtratu egin du “damutuaren” albistea, eta Espainiako egunkariek hautsak harrotu dituzte. Morbo berezia ematen die, nonbait, “desertzioaren metafora” emakumea izateak (“Ez kezkatu horregatik: metafora guztiak burgesak dira, Arakis”, idatzi dio Imanolek). Faki-rrak ezin saihestu dezake pentsatzea nor ote den Arakisen “konfiantzazko kide bakarra ETA barruan”.

Gutun bat topatu du Fakirrak postontzian, Franzatik igorria eta erremiterik gabea. Arakisena izango dela pentsatu du hasieran, baina egun gutxiegi igaro dira berak berea bidali dionetik. Tatianaren letra ere ez da, tamalez. *Oroimeneko portua* izeneko poema bat, inzialekin sinatua: "J.S.". Ondoan, zaldi bat marraztua du, eta zaldiaren azpian, bi hitz parentesi artean: "Troiako zaldia". Paris-Montparnasseko zigilua dauka gutun-azalak eta ez dakar beste argibiderik. Ezta behar ere. Poema baino ez, eta gorritz idatzitako beste hiru hitz: "Kantagarria iruditzen zaik?". Joseba Sarrionandia Parisen dagoela dirudi, beraz. Arakis bezalaxe. Denak daude Parisen, itxuraz, bera izan ezik. Bai ote? Doinu malenkoniatsua ondu du, halabeharrez, Europa iparraldeko portuei dagokiena, esku-soinu bat edo bandoneoia eskatzen duena. Berehala etorri zaio melodia. *A capella* kantatu dio Korori.

Goizean goiz, irratia pizten du beti. Atentatu bat izan da eta hiru guardia zibil hil dituzte Madrilén, biribilgune batean lapa-bonba bat leherrarazita. Errutinazko albistea da, ez du heriotza urrun haien oihartzuak sobera mikaztu. Pello Huarteren izena entzun duen arte. Madril komandoko burua bera dela dio Radio Nacional de Españako kazetariaren ahotsak.

“Pello Huarte, alias Fabio”, esan du, “uno de los miembros más sanguinarios y escurridizos de la organización”.

AUTOREVERSE

Gauza onek irautea nahi izaten dugu. Errepika dai-tezela beti sekuentzia berdinean, ukigabe, aldaketarik gabe. Disko bera eta kanta berberak, hurrenkera be-rean, egunero. Onuragarri edo plazer emaile zaigula uste duguna iraunkortasunaren karrilera ekarri nahi izaten dugu eta bertan abiadura jarraitu batean man-tendu; zenbat eta motelago hobe, su baxu etenga-bean, martxan bai baina arnasa aise, hatsa eta pau-soa galdu gabe ralenti gozoan, inertzia samurrean; fermuki heldu nahi diogu sekula bere helmugara, se-kula bere akabura, sekula bere itzalgunera helduko ez den ilusio horri. Ez gara ohartzen oin biko sute ibilta-riak garela, geureugarren itxura ez dela ez argazki ez beste ezein trikimailuren bidez atzematerik, ona di-rudienaren balizko iraupena etenik gabe xahutzen den erregai baten iruzurra baino ez dela. Erretzen ari den erregai garela, eta hori, erregai izatea eta konbustio-an egotea, ez dela irautearekin bateragarri. Eta ez da-goela kanpotik erregairik ekartzerik garen sua xaxatu eta berpizteko. Ezin zaiola suari sua erantsi, ez dago-

elakougarra nondik maileguan hartu. Horregatik desio dugu agian hainbeste, hain azkar eta hain sakon, eta maitatzen ez dugunean geure maitatzeko ahalmen alferrik galduaren kontzientzia angustiaz txirikordatzen, edo horrenbeste maite dugun hori -angustia bera ere maita genezake- iraunkorra ez dela ikustean zapuztu; horregatik gara maitale kanibal, gaitibu geure bulkaden eta geure mihiaren -zer besterik da mihia, barne erraien abangoardia babesgabea ez bada?-. Ez gara jabetzen daukaguna daukagula eta kito, ez garela behin uste izan genuen kanibalak ere, edo, geure burua irensteko gaitasuna baino ez dugun kanibal hasiberriak garela, izatekotan. Eta ikatz biltegia iluna denez eta biltegiko zokoak barreiatuak, ez dakigu zehazki zenbat erregai daukagun metatuta geure makina-gelan, zenbat izan zaigun emana eta noiz agortuko den erregaia; zoko ilun horietan zenbat geratzen den, senak, susmoak eta egunean eguneko baikortasunak iradoki behar liguketen arren. Baina ez dute senak eta susmoak beti asmatzen, egunean eguneko baikortasuna bera aldakorra da, eta hor dago, patrikan zenbat geratzen zaigun ez jakitean, geure buru gainean dingilizka den heriotza kondena horren baitan, bizitzaren xarma. Eta xarmaren gordintasuna

onartzean datza xarmaren zati ez txikiena, behar bada.

“Denborak zizelkatzen bagaitu gu, guk hura zizelkatuko dugu”. Ez da egia: denborak zizelkatzen gaitu gu, eta guk, espazioa baino ezin genezake zizelkatu. Ez da egia, baina ezin diogu geure buruari gezurra denik sinetsarazi. Badaude geure buruari baimendu ezin dizkiogun egiak. Ez da ezintasun guztiekin hau gertatzen, baina bai denboraren aurkako borrokaren alferrikakotasunarekin: ezintasun hori ahaztea da ezintasun horri aurre egiteko lehen baldintza. Ahaztea, ez onartzea. Ahantz dezagun, bada. Eta onar dezagun ahaztu dugula.

Nola iraunarazi maite duguna? Hari behatuta, hura zainduta, hura goxatuta? Ala hari bizkarra ematea hobe, hor dagoela eta hor segituko duela auresuposatzea, abstrakzio bihurtu eta bere presentzia konbokatzea?

Oroitzapen sortu berriak oroitzapen estatusa izan aurretik hasten gara jada karraskariak bezala haiei er-tzetik hozka egiten, alda ez daitezen, iraun dezaten, ihes egin ez diezaguten. Baina, funtzioaren amaieran, egin daiteke ezer, isildu edo mundutik ezkutatu besterik? Egin daiteke ezer, behin izan zinen ahohandia lur-

peratu eta erregai gordekina ahalik eta mizkinen xahutzen segitu besterik? Zenbat erregai geratuko zaigu, ordea, izan ginen hura lurperatu ostean? Eza gutuko gaituzte gerora ere behiala adiskide min izandakoek? Elkarri zenbat zahartu garen ez esatearen kortesiaren dibisan elkar ordaintzearekin konformatuko gara, ala elkarri diosal egin gabe ondotik pasatuko? Hori da lagun zaharrek ematen diguten kontsolamendu flakoa: zahartu bai, zahartzen gara, baina ez gara aldatzen. Behin ginen zango biko amildegiak izaten jarraitzen dugu, azken beltzera arte.

“Ontzat jotzen ditugun gauzak”, diogu, baina zeintzuk dira gauza horiek? Gaztetasuna, pitzatu gabeko harreman bat, metastasia hiztegi hondoan lurperaturiko zientzia fikziozko hitza den sasoia? Eguberri egunean aulki guztiak beterik, zilarrerria eta loza garestia, bazkaltiarak ttanko arrain-zoparen inguruan eta herentzian jaso nahi genukeen osabaren barre jakintsua bibrazio irmo; presarik eza, egunak hogeita lau ordu eta asteak zazpi egun ditueneko uste osoa; denborak bere burua errespetatzeaz gain gu ere errespetatuko gaituela pentsatzera garamatzan erlijio antolatua: familia argazkia. Badaezpadako sineskeria horiek eta beste zenbait. Sinestea zeure zuhaitz genealogikoa ez

duela kolpe latz batek botako, belaunaldi hobe baten logikari eutsiko diotela etxeko txikienean, ez dituztela geure espektatibak zapuztuko, ospitalera bisitan baino ez dutela joan beharko –abstrakzio hutsa diren bisitak, betiere, irudikatu gabe inoiz “nor bisitatzer” joan beharko luketen–; gu baino zoriontsuago izango direla gure ondorengoak, ez dutela suizidioaren bele erraldoia begien atzean beira arrakalatu arte mokoka sentituko sekula. Eta “*el mío*”, eta “*la tuya*”, eta “*la pequeña es clavada a su padre*”, parkeetan esekita dirauten komiki-bunbuilo beti-berdin horietara zintzilikatzeko ama eta aita berririk ez dela faltako aurrerantzean ere; ordezeko fusibleak argindar instalazio zahar, iraunkorarentzat. “Osasuna ez dadila falta, hori gabe ez gara ezer”, esaldi maiztuegia da, eta, hala ere, libre da errepikatzea, esan eta berresan genezake guk ere. Osasunik gabe ez gara ezer, ez; baina osasunarekin bakarrik ere ez gara untxi saldo bat baino, karraskari eta belarri zut, bazkaren zain eta bazka bilakatze-ko gertu dagoen akuri multzoa.

Irauteko modurik ez dago, baina badira korrontearen alde zoazela sentitzen duzun zenbait urte, su-eten moduko bat –sua eteterik balego legez–; kontagailuko marra erdi parean dago eta motel doa gordailua hus-

ten. Mamia edozein delarik ere, errepikapenari esku irmoz eusten diozu, errepikapenaren ekintza bera eskuak erretzen hasten zaizun arte.

Donibane Garaziko harresiaren ondoan da kontzertua. Sixto haserre dago eta aurreko urteko ostatua itxita. Horrek ez dio, hala ere, aurreko urtean bezala lau Ricard edatea galarazi. Sixto ez dago bere onean kontzertua emateko. “Ongi hago?”; “Egongo ez nauk ba!”. Berari tokatzen zaio hastea, gainera. Nosferatu ematen du beso biak altxatzen dituenean: pianoari disonantzia ikaragarria atera dio, beldurrezko film baten hasierakoa, edo, are okerragoa, musika garaikide partitura batena. Jean-Marc ere haiekin da gaur, Telmok eta biek disimulurik gabe begiratu diote, baina apenas sartu ahal izan dituzte kontrabaxua eta eskobillak piano akorde gehiegizko horren gainean. Kanta ez hastea onena. “Nora hoa, Sixto? Ez duk Klabin Komiken garaietara itzultzeko unerik onena, txo”. Fakirrak berriro hasteko keinua egin die eta bar-kamena eskatu dio publikoari. Iparraldeko publiko txit edukatuak maite du Imanol Lurgainen musika, eta, oroz gain, bere kantatzeko manera. Parisko urteen

eragina? Akaso, bai. Bigarrenean ere kale egin du piano-jotzaileak: jarrera berbera... Goitik behera etorri dira Sixtoren eskuak, Condor legioa balira bezala, pianoa bondardatzera. Bai eta bonbardatu ere. Steinway pianoak burrunba. Biktima guztiak dira zibilak. Jendea zerura begira, ekaitza ote datorren. Baina uda betea da, urdin-urdin dago zerua, hala ez balego ez lirateke aire zabalean jaialdia egin eta hara Steinway bat ateratzera ausartuko. Hirugarren aldiz hastera doanean, Sixtok are gehiago altxatu ditu besoak, pianoari ahalik eta trumoikadarik handiena ateratzeko gogoia balu bezala. Zergatik ari da kontzertua saboteatzen? Disko azalean beraren izena Fakirraren maila berean ateratzea lortu ez duelako? Umekeria horregatik? Ainarak ohartarazi zion zer bait, baina ahaztuta dauka jada Imanolek. Hainbesterako da? Kantak berak *moldatzen* dizkion arren, kanta-konpontzaile estatusa soilik ematen diolako? “Ze ezberdintasun dago sortu eta moldatzearen artean?”, pentsa lezake arrazoiz Sixtok; moldatzen ez dena ez dabil, konponketarik gabe egon al daiteke sormenik, sortzea ez al da moldatzea eta moldatzea sortzea? Bien arteko liskarbide ezin konponduzkoa dago hor atzean, ala gehiegizko Ricarda ari da

Sixtoren burmuinetik eta hatzetatik hizketan, besterik gabe?

Hainbeste jaso ditu besoak Nosferatuk, atzerantz erori baita, taburete eta guzti. Trumoia bai, baina tranpaldoak egin duena. Harrizko isiltasuna: Sixtoren jakako patrikatik mandarina bat atera da (“Onak dira ajearentzat”), eta bere pasaporteak, muga pasatzeko derri-gorrezkoa. Pasaporteak lurrean geratu da eta mandarinak pirritan zeharkatu du eszenatokia, erdi-erditik. Publiko guztiaren begirada joan da mandarina birakari horretara. Jean-Marc eta Telmo, euren musika-tresnak utzi eta Sixtori laguntzera hurbildu dira.

“Ondo nagok, jarrai zezakeat!”, bota die lurretik Sixtok trapuzko mihiarekin, erasokor. Nola jarraituko du, ordea, hasi ere egin ez duenak? Jean-Marcek eta Telmok eszenatokitik jaisten lagundu diote Sixtori. Lagundu baino, derrigortu egin dute jaistera.

Ezin dute gehiago itxaron, jendea urduritzen ari da. *Euskadin, Castillan bezala* kantari ekin dio Fakirrak orduan. Entzuleek gogotik egin dute txalo amaitu denean. Bakarrik segitzen du eszenatokian bigarren kanta abesten hasi denean ere. Berdin hirugarrenarekin. Eta laugarrenarekin.

Sasoia zer den: Telmo eta Jean-Marc Sixtoren mozkorraldia zaintzen ari diren bitartean, Fakirrak *a cape-lla* eskaini du kontzertu osoa. Eta, dena esan behar bada, musikariek lagunduta bezain gustura eta lasai aritu da, gusturago ez bada.

Trabesia are bakartiago baterako gai dela jabetzeko modu bat.

“Nik esan dudan gauza bakarra duk kontzertu gehiegi ematen dituala, eta edozeinekin”.

“Nola?”.

“Doan kantatzen baduk edozein lekutan, gero normala dela inork ez guri deitzea kontzertuetarako, txo. Hain zaila al da ulertzen? Denon katxea errebajutzen ari haiz... Aukerak estutzen. Guk ere jan beharko diagu, ala? Mundu guztiarekin jotzen duk, bakarrik jotzen haiz askotan”.

“*Mundu guztiarekin* jotzen diat, bai, baina ez edozeinekin... Ez duk gauza bera”.

“Nahi duana: hobeto hautatu behar hituzke hire konpainiak... Noiz eta norekin agertu”.

“Hobeto hautatu? Nire konpainiak? Ez nazak izorra, Sixto... Jarri haiz sekula pentsatzen norekin jo ho-

beto pentsatuko banu agian ez nukeela zuekin disko-rik grabatuko? Pasa al zaik hori inoiz burutik?”.

Mutu geratu da Sixto. Gerripeko kolpea izan da hori.

“Satieren bi pieza ikasi eta Thelonious Monk zare-tela uste duzue!”.

Min sakona edo ziztada iraunkorra? Batzuetan biak, aldi berean.

Jean Pharosek aulki etzangarria jiratu du aterantz, ezer entzun ez balu bezala. Zer dabiltza bere aurrean sesioan?

“Bueno qué, grabamos pianoz ¿o qué?”.

“Ez zakiat, ba, galdetu berari: agian gure kantari goren txit agurgarriak beste piano-jotzaile bat du nahiago...”.

“Egia jakin nahi duk? Piano-jotzaileak, besterik ez zagok munduan, Sixto. Harri bati ostikada eman eta bat azaltzen duk... Ez zarete horren bereziak ere”.

Horixe entzutea besterik ez zuen falta. Alferrik saiatu da Telmo Imanol eta bien artean bakegile.

Soraio eta axolagabe agertu nahi izan du Fakirrak:

“Pianorik gabe egingo diagu, ea zelan geratzen den”.

Sixtoren atzetik atera da Telmo, baina kontrabaxua lurrean uzterako alde egina da hura, ez da inon ageri.

Pharosek piano-jotzaile gazte baten izena aipatu die, Iñigo Uriarte, deituko diola nahi badute.

“Toca jazz y eze tipo de pajaz, pero ez bueno. Muy discreto: le llaman el Hombre Invizible”.

Eguerdian amaren etxera joan da bazkaritara Imanol. Seme-alabarik ez duen gizonezkoa, semetasunean jarduten: gurasoen etxean haurrak behiala utzitako ubera ttipi horretan nola kabituko gizona, deseroso izan ez dadin, edo estu, kabituko daitezen oraindik biak, amatasuna eta semetasuna.

“Tatianaren berririk baduzu?”.

Ama oraindik ez da haren absentziara ohitu. Arrain-zopa hurruputzen du Fakirrak. Sei izan dira. Sei gutun idatzi dizkio eta ez dio bat bera ere erantzun. Zazpigarrena idatzita dauka, baina ez du hura igortzeko indarrik bildu. Bitarteko lagunei esker daki hari buruz dakien guztia.

“Deitu egin beharko zenioke tarteka”.

“Esan nizun bere ezkontzan izan nintzela. Eskumuinak eman zizkidan denontzat. Orain berak bere bizitza dauka eta nik nirea”.

Koilara muturren izaera ganbila dute amaren betazal itxiek zoparantz beheraturik.

Antiguatik erdigunerantz doala, gustatzen zaio marea igotzen ari den bitartean barandatik hondartzara begira jartzea: turista fidakorregiei nola bustitzen zaizkien toallak; nola aztoratuta altxatzen diren ezusteko olatu batek harrapaturik, inork ez dienez marea igotakoan hondartza erabat desagertuko dela abisatu. Ondarretara eta Kontxara joaten diren bainularien arteko alde nabarmenena: Kontxara doazenak kontzienteago dira denboraren igaroaz, naturaren oldarraz, gizakiaren hutsaltasunaz. Ezustekoak gustatzen ez zaizkienek, berriz, kontrolaren jabe izatea gustuko dutenek, nahiago Ondarreta, egonkorragoa baita bertan marearen eragina. Hagitzez abegikorragoa da, ordea, egunero birritan aurpegia garbitzen duen Loretopeko hondar umela. Ondarretako harea lehorrean gainka pilatzen dira eguzkipean bainulariak, Kontxan batetik bestera espazioa barreiatuagoa den bitartean: txutxumutxuak entzuteko eta ikusia izateko da bata; lasai arraio zeure kasa egoteko bestea. Gwendalekin Bretainia aldean eta Normandian barrena egindako kontzertuez oroitu da Imanol: Saint-Malo, Caen, Le Havre, Mont-Saint-Michel... Marea gorak paisajea eragiten

dituen aldaketa bortitzekin eta joan-etorri horrek biztanleriaren izaeran zizelkatzen duen nortasun moldagarri, zirkular, bizizale eta dinamiko horrekin.

Bulebarrean telefono kabina batera sartu da, Sixtori deitu eta barkamena eskatzeko asmo irmoarekin, baina Sixto ez dago etxean edo ez dio telefonorik hartu. Fakirrak gorroto du erantzungailua, ziega sonoroa, kaiolatxoa ahotsarentzat, norbere zalantzak salatzen dituzten segundo gutxitako telegramak uzteko aukera hori: giltzapeko kanario sentitzen da erantzungailuan mezu bat utzi behar duen bakoitzean. Bere ahotsa handiegia da erantzungailu batean kabitzeke eta ez dio mezurik utzi. Apartamentura heldu denean, gizon ikusezin baten mezua dauka berean: “Iñigo Uriarte naiz, Jean Pharosek esan dit piano-jotzaile bila zabiltzala. Ohore bat litzateke niretzat zurekin lan egitea”.

“Arazo bat gutxiago”, pentsatu du Imanolek.

Berdintsu da: Renault Dauphine, Simca 1000, Seat Panda..., aurrean eseriagatik ere ia auto guztiak zaizkio ttipi metro eta laurogeita hamarreko kankailuari: koplaka aritu liteke bere belaunekin. Tatianarekin ha-

rrerama eten zuenetik aurrera, piano-jotzaileek eramana izan dute autoan kontzertuetara. Eraman eta ekarri, ekarri eta eramana. Hasiera batean Sixtok; orain, Iñigo Uriartek. Jean Pharozen zirtoari barre egin dio aurrez aurre ikusi duenean: ehun eta hogeiki pisatuko du gutxienez *Gizon Ikusezin* deitzen dioten horrek. Aingeruek bezala jotzen du, ordea. Piano-jotzaileak eramaten eta ekartzen du kantaria, hark igoarazi dezake zeruraino, hark hondoratu dezake miserian. Piano-jotzaileak gai izan behar du kantariak modu abstraktuan “giro urdina” bataiatzen dituen itsasbera inpresionistak sortzeko, halakorik sortzea posible balitz bezala. Piano-jotzaileak probokatzen ditu itsasgora bortitzak, gero, entzuleak aho zabalik uzteraino, haietan nabiga dezan Fakirraren ahotsak. Ekaitza adierazteko ez dago pianoa bezalako musika-tresnarik: Bösendorfer. Euria adierazteko ere berdin: Pleyel. Izan Debussyren euria edo Satierena, aukeratu kadenztzia, konstantea edo zeiharra izatea nahi duzun, jasa edo langarra, txispa bakan urri hasiberria edo bibrafoaren xirimiria. Paisajea azpimarratu nahi duzun, edo perfilatu, edo kalkatu, edo zuzenean eta errukirik gabe, ezabatu. Hori dena aise lezake piano-jotzaile on batek. Hori, eta hori bezain garrantzitsu den beste ze-

regina: txofer lana. Edo sartzen zinen Fakirraren lan egiteko molde ez-ortodoxo hartan, edo jai zeneukan.

Musika taldeak, autoan egin eta desegiten dira, eszenatokian edo entsegu lokalean adina edo gehiago. Telmo ere pianista gazte berriarekin eta Fakirrarekin dator gaur, irrati eta guzti duen Seat Ibiza gorri distiratsuan. “Gustura aritu al zarete?”, galdetu die Fakirrak, betiko legean, kortes eta baliente, berak behintzat gozatu duela garbi utziz: “Ez etorri orain niri ez dakit zer kantatan berandu sartu naizen kontu horrekin”. Ahots paregabea eta afinazio aparta ditu berak, bai, baina erritmoarekin badu arazoren bat edo beste. Euren buruengan ziurtasunik ez duten hurrekin gertatu ohi da: jarri ume bat danborra jotzen eta jada badakizu bere arazoen berri.

“Gustura, bai ala ez?”.

“Izan dira momentu politak”, erantzun du Telmok diplomaziaz. Gau biribila edo magikoa suertatu ez denean –hau da, ia beti– erabili ohi diren klixek, lan errutinaren erdian piztu diren ñabardura baikorren bila, merezi izan ote duen ala ez nekearen gailurrera igotzeak beste gailurrik jo gabe, beste gau batez, merezi ote duen errepidean jarraitzeak.

“Ni apur bat galduta ibili naiz, hobeto aterako da Ataunen”, perfekzionista hutsa da Gizon Ikusezina. Chick Corea baino gehiago gustatzen zaio Keith Jarrett. Koloniako bere zuzenekoarekin *flipatzen* du. Gertu eduki behar dira gazteak, tarteka, zahartzen ari zarela etengabe gogorarazten dizuten faroen ozarke-ria duten arren. Gaur Sixtorekin gogoratu da Fakirra. Varese eta Zappa. Egun bateko idoloen segida. Pasio-aren presa. Louis Armstrongen *What a Wonderful World* kanta fortunatu da irratian. Armstrongen aho-tsak bete du auto barrualdea, haiekin doala dirudi, ondoan eserita. “Itsu batek honela entzungo du ortzadarr-ra bere buruan”, bota du Telmok. “Poeta!” burla egin dio pianista gazteak, martxa aldatu eta azeleragailua sakatu ahala. Fakirra koruak egiten hasi zaio orduan Satchmo handiari, Armstrongen ahots lakarra imita-tuz, hondartsua bezain gozoa; pattarretan bustitako gozoki xafla bat ertz zorrotzeko mila zatitxotan mailuz apurtua, eta, hala ere, belarritik samur eta ezti sar-tzen dena; urrezko pipitak zakarpaperetan bilduak, *bayou* goroldiotsua, Louisianako keimada. Louis Arms-trong: ekarri glaziar bat ron aintzira erraldoi honen tenplea freskatzeko! Irudika daiteke Armstrongen aho-tsa, denok eduki nahi genukeen aitona pailazoa, kase-

teko argazkian bezala zapi zuriarekin kopetatik izerdia xukatzen ari, zenbat hortz zuri eta zein handia hortzeria, *this trumpet kills fascists*, nahiago nuke egia baltz. Barrez lehertzen hasi dira orduan Gizon Ikusezina eta Telmo. “Nola ateratzen zaik horren ondo? Etxean entseatzen aritu haiz, ala?”. Kanta bukatu eta irratiko esatariak beste bat aurkeztu duenean, Fakirrak oraindik *What a Wonderful World* abestian kateatuta jarraitzen du, urratutako disko bat bezala, bere kasa. Zertarako egin Satchmori bigarren ahotsak, bera izan badaiteke kantari nagusi? Autoan doazenen barreak apaldu dira, baina berak berean darrai. “Dubi-dubi-dubi-bah-babaaaah!”. Txaloak jasotzen segi nahi du, autoko adiskideen arretari eutsi. Bi aldiz kontatutako txistearen sindromeak harrapatu du: audientzia patrikan duzularik zeure lorpena zapuzten duen kariño eskaera premiatsu, neurri bateraino desesperatu, neurri batetik aurrera, are, patetikoa.

Sarri gertatzen da: badirudi ez zaudela nekatuta, ahituta zaudela ohartzen zaren arte. Gogaikarria ere bada azkenerako Louis Armstrongen imitazioa, astuna. Konpromisoz barre egiten dute Telmok eta Gizon Ikusezinak. Eta gezurrezko barreak behartzeak asko

zahartzen zaitu. “Ikusten nire zimur hauek? Gogoz kontra barre egiteagatik atera zaizkit”.

What a Wonderful World... World Wonderful a What!

Egunkariko argazkiari begiratzen dio Fakirrak, dena bere begien bistan gertatu izan balitz bezala.

Bizitzaren egia kontatu ezin den zerbait da, agian. Hala kontatu zion gutun batean. Mexikon amatasunari buruz irakurri zituen liburu guztiak zabor hutsa direla pentsatzen du Arakisek. Hala aitortzen dio Fakirrari txori tropikalen zigiluak dituen gutun-azalean bidali eta DFn fetxatutako eskutitzean: “Harrigarria iruditzen zait milaka, hamar milaka urte erditzen daramatzagunean, zentzuzko literatura sinesgarririk ez idatzi izana inork ama izateari buruz. Egon behar du zer edo zer nonbait, baina nik ez dut oraindik topatu”. Arakisek antropologiako tesia osatuxea duen arren, ez du amatasunari buruzko liburu gogoangarririk irakurri: sortzeari buruz hitz egitea suntsitzeari buruz hitz egitea baino konplikatuagoa delako izango da? Fakirrak gogoan du zer erantzun zion: “Ni ez naiz sekula aita izango”. Arakisek beti ematen zion guztiari buelta, eta es-

pero gabea erantzun zion interesgarria dela antropologikoki, haurrak beren kasa abandonatu edo komunitate osoarenak bihurtzen diren tribuen kasua, bai eta erditzearen minaren antzezpena erditzen ari den emaztearen ondoan errepikatzen duten zenbait gizon-zkoren jokaera “xamaniko, katartiko eta mimetikoa” ere.

Traktorea handia da eta umea txikia. Umeak igo egin nahi du traktorera. Txikiegia da, ordea; traktorearen gurpilaren erradioa nahikoa luke barruan etzan eta lokartzeko. Apatx. Amak lagundu dio gidariaren eserlekuan jartzen. “Ez zaik ba ezer falta”, guraso gazteek umorez esan lezaketen zerbait, “Ez zaik ba ezer falta eta elkarrekin gozatuko diagu falta zaian guztia”, pentsatzen du bere artean. Hori esan nahi duen begirakunetik edaten du haurrak, deus jakin gabe zer ari zaion ama edatera ematen: jakin gabe dakiguna. Bera denborarik gabeko parajeen bizi da, doi-doi daki zer den haztea eta, hori ere, bere inguruko helduek azpimarra berezia jartzen dutelako horretan. Bide bat markatuko diote. Hasi dira bide hori markatzen. “A zer nolako seta hazi eta mutil handia egitearen horrekin”. Helduek irribarre egin dezan daukaten seta litzateke hurrena, zertarako baina, ze arrazoi dago horretarako?

Ez negarrik eta ez barrerik, ez al dira horrekin konformatzen? Geldirik egoteaz ez daki asko umeak, argazkilariaren inperatiboa dela bakarrik. Geldirik egon eta irribarre egiteko eskatzen diote diziplinaz helduek. Bai, garbi dago: hasi dira bide hori markatzen. Baina amak ez, amak libre uzten du edo besoetan hartu eta traktorearen gidariaren aulkian jartzen. Oraintxe bezala. Ama-enbor, ama-erraldoi, ama-garabi, ama-mendi. Mendi besarkagarri eta mendi diktadore. Denok egon ginen behin adar horretatik zintzilik.

Oso goiz da, bestalde, nahiz eta inoiz ez den dirudien bezain garaiz. Jaiak diren arren, ez dabil inor kailean. Plaza jendez beteko da bi ordu barru, baina Arakisek nahiago du orain bueltaxka bat eman, inor ez dabilenean.

Traktorea herriko plazaren erdi-erdian dago, erakusketa baten parte balitz bezala. Erakusketa honetan jolas liteke. Hala ari da bere semea, jolasten. Plaza gotoretik ikusterik izan ez duten arren, egunsentia kanonikoa izan da: lehenbizi izpi berde bat bakarra, *le rayon vert*, gero zauri gorria, gero urdin iluna eta gero zuria. Urduinduko du berriz gero ala ez. Eguraldi ona egingo duela dirudi. Bizilagunen arropa zintzilik ipinia ikusi du etxeko patiotik: nola zenbaitek nahiago duten

arropa biltzean pintzak sokan utzi hurrengoan saskitik ez hartu behar izateko; zertan ibili atzera eta aurrera beti gauza bera egiten. Pintzen burdina herdoil liteke, jakina, eta herdoilak mekanismoa izorratu eta metalak arropa orbandu. Ikuspuntu ezberdinak, arruntak diren gauzei buruz. Herri txiki bateko jokabide arruntak. Emakume heldu bat galtzerdiak alderantzikatzen ari da sokatik jaso arau. Narras bildu dezakezu arropa edo saskira bildu ahala tolestu.

Agindua emana dago eta hau da okasioa. Umea bertan egotea eragozpen garrantzitsua izan liteke, hori ez zegoen horrela aurreikusia. Baina izan dira beste ahalegin batzuk eta haiek ere ez ziren *egokiak*; ez, behintzat, perfektuak. Gutxitan tokatzen da pare-parean eta norberak edo erakundeak nahi bezala. Ez dute hura bezalako beste abagunerik izango, hori bere pertzepzio subjektiboa izan da, jasotako trebakuntza-ren eta esperientziaren arabera hotz-hotzean hartutako erabakia. Jakina, berak ere egon nahiko zukeen erabakia hartu zen unean eta gunean –benetan egon nahiko zukeen?–, baina bestelakoa zen bere zeregina. Ekintza egin aurretik ez zaizu eztarrian deus sartzen. Hiltzaileak ez du bere burua hiltzailetzat, dena da konplikatuagoa. Nolabait kontatu behar dira gertaerak,

nahiz eta oraindik ez duen hilketarik burutu eta garaiz dagoen egitera doana saihesteko. Heriotzaren hurbila usaindu baino lehen entzun du heriotza Arakisek. Pentsaezina zirudiena gertatu da. Guztiz pentsaezina ere ez zen: pentsatu zuen, behin baino gehiagotan. Agian esan egin dio, edo agian nahiko mezu izan dira berez harriaren gainean oinez entzun dituen pausoak. Tiroa hilgarria denean balak lehenago heltzen dira balen hotsa baino. Hilketaren hotsa, leherketa, pistolaren mintzoa, hilotza ez beste guztientzako da definitiboa.

Traktorea handia da eta umea bakarrik geratu da, amaren gorpuari begira. Uste baino lehenago heldu da tirokatzailea martxan dagoen autora. Traktorearen kontrakoa da autoa: abailarako eginda dago kotxe hura eta ez lurra goldatzeko.

“Emaiok” edo “Hanka”. Ez, seguruenik ez du Pellok ezer esan, buruaz baiezkoa egin besterik ez.

Heriotzaren zentzua bereganatu baino, muturreko gelditasun baten eta bere ama beste norbaitek ordezkatu duen ustearen arteko besarkada ulertu du, unean bertan, umeak. Magia beltza izan bada hori, posible behar luke atzera egin eta birbobinatzea, egindakoa desegitea.

“Dena ondo, Pello?”.

“Zenbat aldiz esan behar diat Pello ez deitzeko? Fabio nauk hiretzat”.

Laster irrati guztietan emango dute albistea.

“Fabio nauk hiretzat. Zenbat aldiz esan behar diat Pello ez deitzeko?”.

“Dena ondo, Pello?”.

Magia beltza izan bada hori, posible behar luke atzera egin eta birbobinatzea, egindakoa desegitea. Heriotzaren zentzua bereganatu baino, muturreko gelditasun baten eta bere ama beste norbaitek ordezkatu duen ustearen arteko besarkada ulertu du, unean bertan, umeak.

Ez, seguruenik ez du Pellok ezer esan, buruaz baiezkoa egin besterik ez. “Emaiok” edo “Hanka”.

Traktorea handia da eta umea bakarrik geratu da, amaren gorpuari begira.

Traktorearen kontrakoa da autoa: abailarako egin da dago kotxe hura eta ez lurra goldatzeko. Uste baino lehenago heldu da tirokatzailea martxan dagoen auto-
ra.

Hilketaren hotsa, leherketa, pistolaren mintzoa, hilotza ez beste guztientzako da definitiboa. Tiroa hilgarria denean balak lehenago heltzen dira balen hotsa baino. Agian esan egin dio, edo agian nahiko mezu

izan dira berez harriaren gainean oinez entzun dituen pausoak. Guztiz pentsaezina ere ez zen: pentsatu zuen, behin baino gehiagotan. Pentsaezina zirudiena gertatu da. Heriotzaren hurbila usaindu baino lehen entzuten du heriotza Arakisek. Hiltzaileak ez du bere burua hiltzailetzat, dena da konplikatuagoa. Nolabait kontatu behar dira gertaerak, nahiz eta oraindik ez duen hilketarik burutu eta garaiz dagoen egitera doana saihesteko. Ekintza egin aurretik ez zaizu ezta-rrian deus sartzen. Jakina, berak ere egon nahiko zukeen erabakia hartu zen unean eta gunean -benetan egon nahiko zukeen?-, baina bestelakoa zen bere zeregina. Ez dute hura bezalako beste abagunerik izango, hori bere pertzepzio subjektiboa izan da, jasotako trebakuntzaren eta esperientziaren arabera hotz-hotzean hartutako erabakia. Gutxitan tokatzen da pare-parean eta norberak edo erakundeak nahi bezala. Baina izan dira beste ahalegin batzuk eta haiek ere ez ziren egokiak; ez, behintzat, perfektuak. Umea bertan egotea eragozpen garrantzitsua izan liteke, hori ez zegoen horrela aurreikusia. Agindua emana dago eta hau da okasioa.

Narras bildu dezakezu arropa edo saskira bildu ahala tolestu. Emakume heldu bat galtzerdiak alde-

rantzikatzen ari da sokatik jaso arau. Herri txiki bateko jokabide arruntak. Ikuspuntu ezberdinak, arruntak diren gauzei buruz. Pintzen burdina herdoil liteke, jakina, eta herdoilak mekanismoa izorratu eta metalak arropa orbandu. Bizilagunen arropa zintzilik ipinia ikusi du etxeko patiotik: nola zenbaitek nahiago duten arropa biltzean pintzak sokan utzi hurrengoan saskitik ez hartu behar izateko; zertan ibili atzera eta aurrera beti gauza bera egiten. Eguraldi ona egingo duela dirudi. Urdinduko du berriz gero ala ez. Plaza gotorretik ikusterik izan ez duten arren, egunsentia kanonikoa izan da: lehenbizi izpi berde bat bakarra, *le rayon vert*, gero zauri gorria, gero urdin iluna eta gero zuria. Hala ari da bere semea, jolasten. Erakusketa honetan jolas liteke. Traktorea herriko plazaren erdi-erdian dago, erakusketa baten parte balitz bezala.

Plaza jendez beteko da bi ordu barru, baina Arakisek nahiago du orain bueltaxka bat eman, inor ez dabilenean. Jaiak diren arren, ez dabil inor kalean. Oso goiz da, bestalde, nahiz eta inoiz ez den dirudien bezain garaiz.

Denok egon ginen behin adar horretatik zintzilik. Mendi besarkagarri eta mendi diktadore. Ama-enbor, ama-erraldoi, ama-garabi, ama-mendi. Oraintxe beza-

la. Baina amak ez, amak libre uzten du edo besoetan hartu eta traktorearen gidariaren aulkian jartzen. Bai, garbi dago: hasi dira bide hori markatzen. Geldirik egon eta irribarre egiteko eskatzen diote diziplinaz helduek. Geldirik egoteaz ez daki asko umeak, argazkilariaren inperatiboa dela bakarrik. Ez negarrik eta ez barrerik, ez al dira horrekin konformatzen? Helduek irribarre egin dezan daukaten seta litzateke hurrena, zertarako baina, ze arrazoi dago horretarako? “A zer nolako seta hazi eta mutil handia egitearen horrekin”. Hasi dira bide hori markatzen. Bide bat markatuko diote. Bera denborarik gabeko parajeen bizi da, doi-doi daki zer den haztea eta, hori ere, bere inguruko helduek azpimarra berezia jartzen dutelako horretan. Hori esan nahi duen begirakunetik edaten du haurrak, deus jakin gabe zer ari zaion ama edatera ematen: jakin gabe dakiguna. “Ez zaik ba ezer falta”, guraso gazteek umorez esan lezaketen zerbait, “Ez zaik ba ezer falta eta elkarrekin gozatuko diagu falta zaian guztia”, pentsatzen du bere artean. Amak lagundu dio gidariaren eserlekuan jartzen. Apatx. Txikiegia da, ordea; traktorearen gorpilaren erradioa nahikoa luke barruan etzan eta lokartzeko. Umeak igo egin nahi du traktorera. Traktorea handia da eta umea txikia.

Arakisek beti ematen zion guztiari buelta, eta espero gabea erantzun zion interesgarria dela antropologikoki, haurrak beren kasa abandonatu edo komunitate osoarenak bihurtzen diren tribuen kasua, bai eta erditzearen minaren antzezpena erditzen ari den emaztearen ondoan errepikatzen duten zenbait gizonen jorkaera “xamaniko, katartiko eta mimetiko” ere. Fakirrak gogoan du zer erantzun zion: “Ni ez naiz sekula aita izango”. Arakisek antropologiako tesia osatzea duen arren, ez du amatasunari buruzko liburu gogoangarririk irakurri: sortzeari buruz hitz egitea suntsitzeari buruz hitz egitea baino konplikatuagoa delako izango da?

Hala aitortzen dio Fakirrari txori tropikalen zigiluak dituen gutun-azalean bidali eta DFn fetxatutako eskutitzean: “Harrigarria iruditzen zait milaka, hamar milaka urte erditzen daramatzagunean, zentzuzko literatura sinesgarririk ez idatzi izana inork ama izateari buruz. Egon behar du zer edo zer nonbait, baina nik ez dut oraindik topatu”. Mexikon amatasunari buruz irakurri zituen liburu guztiak zabor hutsa direla pentsatzen du Arakisek. Bizitzaren egia kontatu ezin den zerbait da, agian. Hala kontatu zion gutun batean.

Egunkariko argazkiari begiratzen dio Fakirrak, dena bere begien bistan gertatu izan balitz bezala.

Berez beldurti samarra da Imanol, eta, honenbestez, beldurti gehienak bezala, gauza oso ausartak egiteko gai. Duintasuna dotorea da beti, baita koldarren duintasuna denean ere. Saldotik apartatzea dotorea da beti. Etorkizunaren aldeko ereintza bat da esatea: “Hau ez dago ondo”. Eta etorkizunaren aldeko hautu estetiko bat ere bada zerbait ondo ez dagoenean salatzea. Etorkizunari ala estetikari diozun fede gehiago, hori, beharbada, zerorri ere ez zara pentsatzera ausartu. Baina agian zure hautu estetikoa izango da bihar etorkizunaren aldekotzat moralki berpiztuko zaituena.

Fakirrak ezin lezake deus askorik egin. Kantatzen besterik ez daki. Agian, duintasuna kantatzeko modurik onena da bakarrik kantatzea; edo kantatzea, bakarrik egon arren. Bakarrik utzi zaituztelako kantatzea.

Horrekin lotzen dute Bekaintirok eta Mata Harik Fakirrak Arakisen hilketaren ondoren hartu duen jarra: Ordizian Arakisen alde antolatu den kantaldian parte hartzeko prest agertu da, bera izan da Arakisen heriotza salatzeko gehien nabarmendu dena. Horrega-

tik doa Mata Harirekin Ordiziara Bekaintiro, lagun zaharren premia izango duela iruditu zaielako. Teklas badakite ez dela joango, zinegotzia delako eta Herri Batasunak ez duelako Arakisen hilketa salatu.

Jarrera etiko bat dago, ezer baino lehen, jakina, berezkoa du hori Fakirrak, gizakiaren alde eta bizitzaren alde paratzeko jarrera, bost urteko umearekin zegoela bere herriko plazan odol hotzean hil duten emakume batekiko elkartasuna eta hilketa egin duteneko arbuioa. Izango da noski, hilketa hau zurituko duenik: “Entzun behar ziren erakundearen barruan zegoenean Arakisek esaten zituenak, bera zen gogorrena traidoreekin”. Eta atera da hitza. *Traidore*.

Imanol Lurgain ETako militante izana zen eta atera egin zen organizaziotik. ETako militantea -buruzagia- izan zen Arakis, eta atera egin zen organizaziotik. Arakis, hil egin dute. Arakisen etxean bizi izan zen Imanol. Etxera itzuli denean hil dute Arakis. “Ni ere hil nazakete, haren lorratzean ibili naiz beti, gutunak idazten genizkion elkarri”. Edo, are gordinago: “Ni parte izan nintzen erakundeak hil du Arakis. Ni izan nintzenak hil du Arakis”. Inoiz partaide, afiliatu, kide edo saldoko izatearen ondorio saihetsezina da hori: parte hartu duzun saldo horrek, familia horrek, superstizio antolatu ho-

rrek, lehenago ala beranduago, beti izango du zer zuritua. “Taldea basati handi bat da gizartearen baitan”, idatzi zuen Ostiako hondartzan hil zuten Pier Paolo Pasolinik ere; “herri” esan zuen menturaz, “talderen” ordez? Fakirrak hauta zezakeen beste hau, baina ez du egin: dianan dagoena ispilutzat hartzea, eta ez autorretratutzat. Baina dianan dagoenari besoa luzatzea norbera tiro-eremuan sartzea da, ala? Ainara Irazokik horrela sentitu du, suizida dela Ordizian Fakirraren ondoan Arakisen omenaldian abestea, jarrera kamikazea. Haien kolega eta adiskideetako gehienek muzin egin diote Arakisen omenaldian kantatzeari, eta Ainarak ezin hobeto ulertzen ditu, berak abestu egin duen arren azkenean, haiek baino beldurtiagoa delako agian, eta, beraz, Fakirra bezala eta beldurti guztiak bezala, tarteka gauza oso ausartak, are, ausartegiak egiteko gai, bere burua izutzerainoko gauzak egiteko gai den beldurtia. Ausardia bere ertainean jokatzeko gai ez direnek, lantzean behin, fitxa guztiak jartzen dituzte mahai gainean.

Ainarak ez du gaur afonia histerikorik jasan. Fakirrak ez dio limoi-eztirik prestatu behar izan. Eta, hala ere, haien bizitzako kantaldirik gordinena izan da. Ito-garriena eta estuena. Ekitaldian parte hartu duten

bertsolariak mehatxatu egin dituzte herri sarreran: “Hik ikusi: hemen abesten baduk, akabo hire plazak”.

Akabo hire plazak, bere herriko plazan hil dute-nean Arakis.

“Ez gara hemendik bizirik aterako. Hil egingo gaituzte. Gure bizitzako azken eguna da gaur, Imanol”.

Hala sinetsita dago, hala jokatu du, hala kantatu du Ainarak. Baina, hala ere, kantatu egin du.

Lasaitzeko eskatu dio Fakirrak, ez dela horrenbeste-terako. Deus ez da aldatu, betiko lekuan daude haiek. ETaren alde, La Navaleko langileen alde, institutuko grebalarien alde, frankismoak errepresaliatuen alde abestu zuten lehenago, eta, orain, bizitzaren alde eta ETaren kontra abestuko dute, Arakisen alde. Hori delako duintasunak eskatzen duena.

“Historiak arrazoia emango digu, Ainara”.

“Eta guk ez dugu entzungo, lepoa moztuko digute-lako lehenago”.

“Paco Ibañez ere etorri da eta, ez digute ezer egingo”.

“Paco etorri da eta gero Parisera alde egingo du. Baina gu hemen geratuko gara”.

Handik astebetera eskela itxurako pintada agertu-ko da eliza bateko atarian, Arakisen aldeko kontzer-

tuan abestu duten guztien izen-deiturak barruan dituenak, laukizuzen beltz batean.

“Arakisen etxean bizi izan nintzen ni, bere etxean hil dute Arakis”, pentsatu du berriz Fakirrak. Handik urtebetera omenaldia errepikatu nahi izango dute. Apal eta xume, esker oneko eta zuhur eskatu die orduan Arakisen familiak: “Joan zen urtekoa zoragarria izan zen..., baina ez ezazue berriro egin”.

Galdutako ohitura txar bat berreskuratu du Imanolek: jotzeko ertzeko mahaietan esertzekoa, bizkarraren kontra, ateari begira. Fakirrak gorroto du saldoa. Dantza taldean ere, azken lerroan paratzen zuten beti. Zer pintatzen zuen berak han? Bakarlaria izan da beti, bakarka ibili zalea eta bakartia, zango biko amildegia. Telmo atletik sartu orduko ohartu da ez dakarrela albiste onik.

“Ataungo kontzertua, Aita Barandiaranen omenezko kantaldia, ez dakit ez ote den bertan behera geratuko. Bakarrik geratzen ari gaituk”.

Ez du ia inork berarekin abestu nahi izan. Ez dute nahi berarekin lot ditzaten. Banan-banan joan dira kantariak karteletik erortzen, erretiratzen, euren

burua ezabatzen. Izurria dauka Fakirrak. Plaga uxatze-ko azeri-dantzaren erdian dagoen xomorro-panpina da. Geziak hari, beste inork paira ez dezan gezirik. Tel-mori entzundakoak entzun ondoren, Fakirra ziur dago oraingoan ere: bertan behera utziko dute jaialdia. Uste guztien kontra, ez da, ordea, halakorik gertatu. Ataungo Udalekoek aurrera egin dute. Zerrendatik erortzen direnak erortzen direla, momentuaren soslaia, erretratu itsusia erakutsi nahi dute. Ainara eta beste inor gutxi agertu da jaialdian kantatzeko gertu. Ainara beti fidel, Ainara beti leial, Ainara beti noble. Oraingoan ere, Bekaintirok eta Mata Harik esan diote joango direla entzutera, bixkiak eramango dituela berarekin Mata Harik, ez dela bakarrik egongo. Bertan egon beharra sentitzen dute. Teklasek ez du oraingoan ere bizi seinalerik eman: ez du alderdiaren diziplina urratuko.

Udaletatik jada ez diote kontzertuak emateko deitzen, baina jendeak bai, deitzen dio. Jendeak asko deitzen dio Fakirrari telefonoz, traidore bat dela esateko, edo putakume bat, edo zerbait okerragoa. Gero, eseki egiten dute. Telefonoa hartzera doanean, beldur da. Behin norbaitek listua bota zion. Ez kalean, telefonoz baizik. Originala izan zela aitortu behar: primeran entzun zuen eztarriko zaunka-erdi igokari hori, listuaren

prestaketa, hasperen likatsu hura eta ondoren etorri zen karkaxa, listua, *japoa* belarri barruko tuturaino sartzen. Telefonoa, zer gauza. “Gixon erdi ere ez haiz, hi baino hobea lokatzarekin egingo nitek”, esan zion behin bere belaunaldiko kantari perfumatuetako batek haren kontzertua boikoteatzen saiatu zelarik. Bai, *mea culpa*-ren putzuan ere eror zitekeen Imanol: Fakirrak ere boikoteatu zituen inoren kantaldiak, Fakirra ere izana zen *perfumatuekiko* intrantsigente.

“Gixon erdi ere ez haiz, hi baino hobea lokatzarekin egingo nitek”. Irainaren hondoa ezagutzen baduzu, haur-kasketatxoak begitantzen zaizkizu hortik aurrera iseka guztiak; nondik abiatzen zaren da kontua, zaren zango biko amildegia non duen hondoa, entzuten ote den batere txanpon bat hondo horretara jaurtiz gero. Txanponik ere ez dauka, ordea, Fakirrak, froga egiteko. Zer zara zu? Gandhi ala Lennon? Lennon-Imagine ala Lennon-IRAr-dirua-eman-ziona? Ba-kezale itxura eman nahi luke orain. Lehen ez ote zuen nahikoa eman? “Baina nik ez diat armarik hartuko, armarik ez”.

“*Sí, ¿dígame?, Bai esan? Allo? Pronto?*”. Herrialde bakoitzean zein hitz erabiltzen den telefonoa hartzeko. Fakirrak gogoan du bere etxean aita eta ama

“¿Haber?” esaten zutela, “¿Haber?”. Absurdoa zen konbentzioa, “Haber” edo “a ver” zelarik ere; zer “eduki” edo “ikustekorik” zegoen bada telefono dei batean? Tatianari ikasi zion Japoniakoa, “*moshi moshi*?” esaten zela han, telefonoz bestaldean benetan gizon edo emakume bat zegoela frogatzeko modua ei zen, eta ez azeri zital bat. Gizaki bihurtzeko gaitasuna duten kondairako azeriek esan ezin dezaketen esamolde bakarra baita hori japoniarren ustez: “*Moshi moshi*”.

“Ramon, Ramon Yoldi”.

Ongi, Ramon Yoldi, alias *Teklas*; bazen garaia, beranduegi agian, baina deitu dio eta bada zerbait, teklatuari begiratu ere egin gabe mekanografiatzen zuena ez da horren azkarra telefonoz hots egiten, es-timatzekoa da, halere, haren ahots samurra hariaren bestaldean. Pribatuan bederen elkartasuna emateko bezain eskuzabala izateak harritu du hasieran, baina ez dio elkartasuna adierazteko deitu. Agian deitzea bera bada jada nahikoa elkartasun, kolean agurra ukatu dionez askok, espaloiz aldatzen direnez lagun zaharrak orain Imanol parean ikustean.

“Esadak, Teklas, zer berri?”.

“Hara, nola esan... Ez nago oso eroso zuk nire hitzak abestuta”.

Nola? *Pronto, allo-allo, haber, moshi moshi?* Kon-dairako azeria al dago bestaldean? Ongi entzun al du? Zer da hau? Zuka hitz egiten didak orain, Teklas? Zuka hitz egiten didazu, Ramon?

“Badakizu zinegotzi nagoela orain udalean”.

Jakina, badaki. *Poeta zinegotzia* da. Herritarren ordezkaria. Eta talde armatuaren adar politikoarena ere bai. Alderdiaren diziplina, eta abar. “Sartuta gauden gatazkaren ondorio mingarriak”, hortik harago joan ezina deklarazio publikoetan. Ze zerikusi dauka horrek hildako lagun bati erdi bana egindako kantarekin? Txoporen omenez idatzitako kanta abesteari utzi behar lioke? Moskatel botilez, Josutxoren heriotzaren ondoren isuritako malkoez, haren arreba Carmen besarkatu zuten egunaz ahaztu behar du? “Hau ez da inoiz gertatu, hau ez dut inoiz idatzi, hau ez duzu inoiz kantatu. Carmen Ponce, alias *Mata Hari*, Josuren arrebari ez genion sekula abestu etxean? *De Trevilleren azken hitzak* ez genuen elkarrekin abestu –“Hori bera da denen ixtoria”– Sarrionandiaren ihesaren ondoren deklarazioa hartzeko zain, etsaien territorioan, badaezpadako ziega likits hartan? Ez al ginen gu izan

xaman usteko txiletarrekin Pinocheten kolpearen bezperan Francoren argazkia erre genuenak? Ez ginen, *ia-ia*, ahate bat lepomozteko trantzean izan, Teklas, mahatsa biltzen ijitoekin? Zenbat aldiz errepasatu nituen nik zure poemak? Zenbat aldiz zure *ooemak* p letraren isatsaz hornitu? Erantzun ba zer edo zer! Hiri galdeztzen diat, *Preguntón!*".

"Hire kanta bakarra zeukaat orain errepertorioan, Ramon. Kanta berezia duk. Ondo dakik zergatik".

"Nahiago nuke jendaurrean kanta hori gehiago abestuko ez bazenu".

Uko egin dio orduan elkarlanari, elkarrekin iraganean egindakoari, "aizak, zer ari haiz, hemen ez gaituk ez hi eta ez ni garrantzitsuak, kanta kanta duk, berez bizi duk, hildako lagunagatik egin genian hau, ez politika zikinagatik, zer ari haiz, hoa antzarak ferra-tzera". Beste garai batean, erraietatik hitz egiten zue-nean, gazteagoa zenean, esan egingo ziokeen, edo telefonoa zintzilikatu -tu egin ez, hori sekula ez, nola egin liteke tu telefonoz? Haizearen kontra txiza egitea litzateke hori-. Ez dio, ordea, ezer esan. Baina latza begitandu zaio ezabaketa hura, bere buruaz beste egin duen lagun komun baten omenez idatzitako kanta bat bere buruaz beste egitera derrigortzea.

“Suizidatu ezazu kanta hori”. “Baina nola? Kantak berez bizi eta hiltzen dira, euren kasa, ez dago kanta bat norbere borondatez berpiztu edo akabatzerik”. Ez dio ezer esan, baina laztan bat edo opari bat erretiratzeari bezain doilorra iruditu zaio. Kantak ez baitira gureak; kantak oparitu daitezke, baina ezin dira desoparitu.

Horren ordez, “Zuk nahi bezala, Yoldi”, erantzun dio, otzan –“baina zu nor zara, nor haiz hi, Ramon, Teklas ala *Preguntón?*”–, ez duela, alegia, gehiago jendaurrean kanta hura abestuko, berak nahi ez badu.

EZ da kamutsa Koro, eta bai, zaintzen du Imanol, arrazoi pixka bat badute bere musikariek. Arakisenaren ondoren sobera edaten du-eta Fakirrak. Are gehiago, erabiltzen ez duen autoari lau gurpilak zulatu eta bere auzoan pintadak agertu direnetik.

“*FAKIR TRAIADOR*”. Eta ondoan diana bat.

Erraza baita diana bat marraztea, munduko gauzarik errazena: lehenbizi zirkulu bat marrazten da eta gero gurutze bat. Edo alderantziz. Batzuek bi zirkulu marrazten dituzte, diana zehatzagoa dela adierazi nahiko balute bezala.

Traidorea bera? Frankismoaren kontrako bizarduna, Parisen exiliatua, euskal kantaria, Joseba Sarriolandia kartzelatik ateratzen lagundu zuena? Inor ez da horretaz gogoratzen. Ez diote Arakisen aldeko kontzertua barkatuko. Lehoi kaiolatua baino amorratuago dabil pintaden kontu horrekin. Sekula egingo ez zuela uste zuena egin du: Teklasi deitu dio kontu eske asmoan, zerbait argituko diolakoan, baina hark telefonoa hartu aurretik damutu zaio eta zintzilikatu egin du. Badauka urguilu apur bat oraindik. Apur bat baino gehiago. Edanari eman aurretik jatea eskatzen dio Korok; baiki, ama balitz bezala zaintzen du batzuetan, harremana apurtu eta handik hilabete batzuetara ere arku-me txuletak eramango dizkio Prim kaleko etxera: “Ez edan baraurik bazaude. Jan zerbait lehenbizi”.

Baina jaioterrian jarraitzen du. Hiri honetan, Donostian. Hiri hau, zeinak bere buruaren nostalgia elikatzen duen. Inoiz izan ez den zerbaiten nostalgia: La Perla del Cantábrico, Cafetería Niza.

“Ni gazte hilko naun, Koro”.

“Ez horrelakorik esan”.

“Egia dun eta, gazte hilko naun. Zergatik ez haiz etorriko nirekin Beldurraren Kontrako Kontzertura?”.

Pintadak azaldu direnean, Fakirraren aldeko kontzertua antolatu du Udalak. Beldurraren kontrako izendatu dute. Kartelean kantari eta talde asko. Gehienak, madrildarrak. Kalean bolo-bolo dabilena: “Ez da harritzekoa: Imanol beti izan da espainolista”.

“Ez nauk joango ez dudalako horretan sinesten eta nik ez dudalako beldurrik”, esan dio Korok.

“Ba horregatik, ba. Besteek ere izan ez dezaten, ikus dezatela zenbat garen, ikus dezatela asko garela. Hemen ez duela ETAk agintzen, ez gaituztela kikiltzen. Joaquin Sabina ere etorriko dela uste dinat”.

“Etorri egingo duk eta joan. Paco Parisera bezala. Eta hi hemen geratuko haiz, ala? Ala Madrilera joango haiz bizitzera?”.

“Ez hi gabe, Koro”.

“Zergatik busti behar duk hik bakarrik? Busti daitezela besteak, non daude gainerako euskal kantariak? Kontzertuak ematea duk hire lana, kantatu eta kito. *Zapatero a tus zapatos*”.

Gustura esango lioke Korori: denok janzten ditugula, eta ez dagoela ezkerrekoa edo eskuinekoa ez den zapatarik. Baina kasu honetan berak ere ez daki ziur bereizketa horrek zerbaiterako balio ote duen. Futurista errusiarrek alderantzikatuta janzten zituztela ere

irakatsi zion Tatianak: ezker zapata eskuinean eta eskuinekoa ezkerrean, dibertsio hutsez.

Ataunen bezala, zenbait bakarleri euskaldunek baiezkoa eman dute hasieran, eta gero, ezezkoa.

“Batzuk bustiko ditun nirekin”.

“Zenbat, ordea? Karteletik erretiratu direnak, zergatik uste duk izena kenarazi dutela, azken unean?”.

“Izua libre delako”.

“Ez esan txorakeriarik, Imanol, nirekin ari haiz, entzun? Hau ez duk prentsaurreko bat. Erabili egingo haute, bost axola zaiek horiei hire kantagintza”.

“Kanta baino gauza garrantzitsuagoak bazeuden, badakin hori”.

Korok ezin dio horri erantzun. Badaki Fakirrak arrazoi duela, nahiz eta ez dion emango. Lurdes Arakistain. Traidore deitu zioten hari eta traidore deitu diote Fakirrari ere. Salbu al dago benetan? Ez dute funtsik mehatxuek? “Arakisen etxean bizi izan nintzen; bere etxean hil dute Arakis”.

“Hi ez haute hilko”.

“Gauza bera esaten zuten Arakisi buruz”.

Eta Fakirra haren lorratzean ibili da beti, haren etxean bizi, haren ohean lo, haren liburuak irakurri. Gutunak trukatu. Sekula ez aurrez aurre topatu arren.

“Hura buruzagia zuan, hura baimenik gabe itzuli zuan hona, endredatzera”.

Baimena. Eskatu behar den hori.

“Batzuetan Teklasek bezala hitz egiten dun, Koro. Endredatu ez, bizi besterik ez zinan egin nahi”.

“Obsesionatuta hago, Imanol. Ez izan paranoikoa”.

Enrike Larrearekin kalean dabilela, norbait inguratu zaie bizkarretik marmarka: “*Antes faquir, ahora mártir*”. Itsusia da esamoldea, baita fonetikoki ere. Indarra silaba ezberdinetan dute fakirrak eta martiriak, errima izorratzen dio horrek, jakin behar luke bota dionak, hura ere kantaria baita, kasualitatea, *kolega* bat. “Ez du fakir-martir bikoteak koplatarako ere balio”, pentsatu du Fakirrak, ez da “*un jour*” eta “*amour*” erri-matzea bezala. Arteak iraungo du, bere kantek iraungo dute. Tatianak oparitutako Yourcenarren liburuan azpimarratu bezala, “edertasunaren dastatzailea” delako Imanol. Sinesten du hori. Sinestea komeni zaio. Beste guztia bigarren mailakoa da. Aurrera jarraitu beharra dauka.

Kantak egiten ditu Fakirrak, koblakaria da bera. Baina kantek ez dezakete dena ahal. Kantak gaizki en-

tzuten dira eta okerrago gogoratu. Leloarekin geratzen gara zerbaitekin geratzekotan, edo kantaren hasierako ahapaldiarekin -izenburua baino ez, batzuetan-; esaldi gutziatsu bat, askotan kantaren osotasunarekin zerikusirik ez daukana, bidenabar; betelan gisara edo errima osatzeagatik jarritako hitza geratzen zaigu iltzatua eta ez kanta osoari eusten dion berba edo esamolde giltzarria inoiz. Kantaren barruko anekdotari egiten dio men memoria zitalak, eta ez kantaren euskarri autobiografikoari, narrazioari, ipuinari, osotasunari. Kantaren detailerik kapritxosoenak kautibatzen gaitu: hasierako tronpeta soloak, *sampler* lapurtu minimoak, gitarra baten punteoaren aproposak. Klipsearekin geratzen gara -*No Woman, No Cry, Love Will Tear Us Apart*- eta ez klisea desegin eta aurreiritzia hankaz gora jartzera datorren azken zirtoarekin. Kantak ez ziren iritzi berriak sortzeko asmatu, lehenetik zeuden haiek berresteko baizik. Entzuleak kantaren gorputzadar bati baino ez dio eskuarki heltzen, zakurrak hezurrari bezala, eta gorputzadar hari hortzekin tiraka setatzen da. Entzuleak, beren burua ongien ispilatuta ikusi duten kantaren zatian geratzen dira katigatuta, komeni zaiena hartzen dute. Geure buruaren "itxura bat" eman ahal izateko ispilu gisa erabiltzen

ditugu kantak. Kanta espazio habitagarria, kanta Arakisen etxea. Horixe ez zeukan, ordea, Arakisen etxeak: musika. Imanolek jarri behar izaten zuen bere eztarriz eta bere gitarrarekin; total, gero entzun behar izateko “Ez duk bada pentsatuko zuen gitarra horiekin bakarrik urrutira iritsiko garenik, ala?”.

Kantak, sendagaien armairutxoan gordetako anpulu ziztagarriak, desio den efektuaren arabera hautatu eta geure gorputzean sartzen ditugunak; azkar edan beharreko kafe kikara paristarrak, vodka titaretxo kolpe batean hustu beharrekoak edo beroegi daudelako tentuz eta poliki hurrupatzen hasten garen infusio exotikoak. Kantak bukle erromantiko bihurtzen dira sarri (*Suzanne*, Leonard Cohenek abestua) edo proposatu nahi zutenaren kontrako aldarri (*Born in the U.S.A.*, Bruce Springsteenek abestua). Kanta, edozertarako justifikazio bihur daiteke, zeure gainera jauzi egiteko, kasu (*“Because the night... belongs to lovers”*, Patti Smithek abestua), kantaren gainerakoa sobera zaigu, guk jarriko dugu guretik, guk lurperatuko dugu hezurra nahi dugun lekuan, *montagne d'ossements*, *hazur mendi*, gurea den parajea. “Gure kanta” esaten diogu bikotekide berriarekin hasitakoan kredentzial ustez sendo bat eman nahi diogunean be-

tiko nahi genukeen geure bikotetasun estreinatu berri eta, beraz, suntsiezinari. Zergatik? *Because. Because the night.* Kanta bat urteurren bat izan daitekeelako, efemeride hutsa, bizitzako aroak datatzeko modu bat, datatutakoa dastatu eta dastatutakoa datatzekoa, nahiz eta aspaldi utzi genion hura entzuteari. “Beste bat nintzen” aitzakiatuko dugu. Kantak hori du, itsatsita geratzen zaiola gure garai bateko gorputz zati bati, eta kanta hori erauzi nahi izatera, kanta bakarrik ez, hari itsatsitako gure azal samurra ere erauzi egin beharko geniokeela; horregatik, nahiago, aukeran, kantazala bere horretan utzi, epidermis musikala garelako funtsean, oihartzunak eta hotsak, lantzean behin esaldiren batek zipriztinduak edo ziztatuak. Geure behar eta premietarako erabiltzen ditugu kantak. Ondo diogu *premia* diogunean: primarioak diren premiez ari gara; zerbait egiteko behar dugun indarrari edo euforiarari deitu, larrua jo, negar egin, minutu pare batez xera entzungarri horietan kulunkatu, axalkiro hunkitu eta hunkipen hori sakona dela sinetsi. Zergatik? *Because.*

Kantak torturarako ere erabiltzen dira, ordea, kanta berbera, behin eta berriro, dezibelioak gora, Auschwitz eta Guantanamon.

Batzuetan kantak ezustean ereserki bihurtzen ditu komunitateak (*Xalbadorren heriotzean, Izarren hautsa*), ederra izan liteke hori, adinak eta kondizioak zeharkatzen dituen kanta bati denok zentzu berdintsua edo ematen diogula uste izatea, nahiz eta intimitatearen leizean hori ez den zehazki horrela. Laga dezagun intimitatea intimitate, laga dezagun leizea leize. Elkarrekin kantatzeaz ari gara, besoak elkarren sorbaldan jarrita. Baina Fakirra ez da inoiz taldekoa izan. Zer du, bada, txarretik, galerak eta galeraren ikasketak? *Capri c'est fini!* Kantak, ezer izatekotan, telegramak dira, badute larridura puntu hori, urgentea dena melodiarik bareenean ere, hasi eta bukatzen den *je ne sais quoi* azkar hori eta beste kanta baten premia segidakoa, itzaltzearen pospolo bat beste pospolo bat pizten, *because*. Kanta da gure aurpegia den su-eten ezinezko hori ispilu aurrean erretzen. Adikzio galdagarri eta galdatzailea da kanta, eskatu egiten du berea, exigitu, agindu. *The night*.

Esamolde zahar eta higatuekin errazago gogoratzeko da jada badakiguna. *Tractatus philosophicus* bat egitekotan bazabiltza, ez egin kanta bat, arren, txiste filosofikoa edo autolaguntza liburu bateko atal hiperlaburra aterako zaizu eta. *Philosophicusetik* baino ger-

tuago dago kanta *ficusetik*, uhinen bidez datorren apaindura bat. Kanta on batek gorputzeko hezetasun indizea aldatuko dizu; eta ez soilik begietan, barne errai konfesa ezinagoetan kilima ia likidoak eragingo dizkizu, norbere erraien kontzientzia dakarren txindurritze bat, pattarraren merkurioak eztarrian uzten duten anatomia lezioaren antzekoa (“ez nekien zehazki nire urdailak eta nire giltzurrunek forma hau zutenik, nire eskumuturretan sugandila muturluze baten pilpira bizi zenik..., nola jakin hori dena nire buruari buruz, nola ezagutu nire burua egiaz, kanta hau entzun arte?”). Inori entzundakoak geure eztarrian hartzen duen lekuaz ari gara.

Ahalguztiduna bezain galkorra da kanta baten anatomia. Eta kantan egitea ogibide hautatu dutenak izan ohi dira usualki ahalguztidun izatera jolasteko bezain xalo edo harro edo bihurri; izan ohi dira, oroz gain, gauza hauskorak haztatu eta eskuetan hartu eta gauza hauskor horiekin gauza ez diren gauzak eraiki zale den jendea.

Fakirrak badaki hori dena. Dakien ber gisan denbora asko behar dela gero bi minutu irauten duen kanta batean dena kondentatzeko, liederraren eta kanta tradizional baten arteko bidegurutzeari bizitza

osoan zuri eta zutarrei lagunduko dizuen adiskide leial bat topatzeko, deus ez den zerbait, baina bere ezdeusean haragi eta odolbildu bihurtzen dena, koblakaria bera hezurretan edo hilik dagoenean ere berpizkundearen dohaina dakarren uhinen bidezko edabea denez kanta, antidotoa bere baitan duen pozoia; esan beharrik ere ez dago, goxoagoa beti pozoia antidotoa baino. Eta sugeez jakin beharko lukeenez fakir onak, pozoiaz ere jakin beharko luke zerbait. Eta badaki.

“Hirekin geratuko nindukenan, hil arte, Koro. Hik badakin ni zaintzen”.

“Baina jada ez haut jasaten”.

Esan du esan badu eta harritu egin du egiak bere ahoan Koro, penatu baino gehiago. Esan ahalko luke bigarren aldiz?

“Jada ez haut jasaten, hori da kuestioa. Ez haiz konturatzen? Autosuntsipena deitzen zaiok. Hire burua txikitzen ari haiz”.

Horixe gogorra dela hori esatea, hain ongi moldatu direnean, Manterola kanean eta gero Hollywood pub-ean, Sheratonen Elvis Presleyren *Suspicious Minds* dantzatzen, elkar ezagutu zuten gau hartan,

edo belaunak urratzen batere irandarra ez zen alfonbra haren gainean. Sebastopol kokteleria dute kuttun, Moustakiri ere gustatu zitzaion diskoa elkarrekin grabatzera etorri eta hara gonbidatu zutenean, nahiz eta asko sumindu zen kamareroak disko hura jarri zutenean.

“Nor dabil hemen ni saboteatu nahian?”.

Zerbitzaria zurbil-zurbil jarri zen.

“Azken aldia izan dadila nire disko bat jartzen duzuna ni tabernan nagoen bitartean! Entzun? Azken aldia izan dadila!”.

Moustaki goxoa zen, ordea: sorbaldatik helduta besarkatu zuen Sebastopoleko zerbitzaria, ez bere purrustada aintzakotzat hartzeko, txantxetan ari zela, baina ez arren berriro egiteko, ez jartzeko bere biki enlatatu hori gehiago, oso gustu txarrekoa zela bera bertan egonik diskoa jartzea, “norbaiti buruz hilik balego bezala hitz egitea da hori, ulertzen? Eta ni ez nago oraindik hilik”. Harriduraz begiratu zion kamareroak, Moustakiri ez bezala, Imanoli ikaragarri gustatzen baitzitzaion bere ahotsa entzutea; puztu egiten zen hala-koetan tabernetan bere kantak jartzen zituztela ikusita, eta kantari guztiei euren ahotsa entzutea gustatuko zitzaielakoan zegoen zerbitzaria. Fakirra eta Mous-

taki lagun onak ziren, baina ezberdinak horretan. Moustakik ez zuen konpetentziarik nahi bere inguruan, ezta konpetentzia egiten ziona bere burua zenean ere.

“Madrilera noan datorren astean, etorriko haiz, Koro? Ana Parienteren etxean geratuko naun ziurrenik. Aspaldiko laguna dinat, Labordetaren agentea. Kontzertuak lortuko dizkidala esan zidan”.

“Ez, aspertu naiz honezkero. Bisitatu zure Madrilgo laguntxoak nahi baduzu. Badakit badauzkazula. Reyes hori bera, edo Yolanda...”.

Isilik geratu da Fakirra, gizon kankailuaren mututasun kankailuan.

“Ni ez naiz zu bezalakoa, Imanol: gizon bakarreko emakumea naiz, beste garai batekoa, nora zoaz zu amona honekin?”.

Korok maite izan du gizon hau. *Maitia nun zira*. Korok galdatu. Eta Fakirrak belarrira kantatu.

Ainara Irazoki Euskal Herriko giro itogarriaz nazkatu eta Rotterdamera bizitzera joan izana primeran etorri zaio Imanoli, hark Donostian hutsik laga duen etxea aloka diezaion. Dirudunaren ametsa da atiko hura: argia parrastadan horma zurien gainean isurtzen, leiho biribil zabalak, kupulatxo batean errematatutako

sabai altuak, bertaratu orduko apartamentua *Basilika* edo *La Coupole* bataiatzera eramango dutenak -beti Paris izendegian, beti Parisen aztarnaren bila-. Bereizi eta gutxira jabetu da Koro berarekin eraman dituela Fakirrak Zumetaren bi koadroak. Kimono itxurako bata ttipiegia soinean duela ireki dio atea, "Barka, baina orain ezin duzu sartu". Emakumezko baten oihartzun irtirina gela hondoan, "*Qui est-ce, mon cher?*" galdezka. Arcachongo *laguntxo* bat dauka ohean, egun gutxi batzuk baino ez dira pasatu eta inguratu du jada nor-bait. "Gehiago gustatzen zaizu ohea, jatea baino", esan zion behin Korok.

"Zumetaren koadroen bila nator".

"Oraintxe eraman nahi dituzu?".

"Horretara etorri naiz. Total, zuk ez dituzu sekula ikusi koadro barruko lehoiak".

"Lehoiak?".

"Zumetak berak esan zigun bere koadro guztietan lehoi bana marrazten duela, ezkutuan. Ez zara akordatzzen?".

Gustuko ditu Imanolek Zumetaren koadro haiek, baina itzuli egin dizkio, jakina. Itsusia da maitale frantsesarekin La Coupolen oheratzea zure bikotekide ohiarenak diren koadro haiek bistan direla, nahiz

oraindik lurrean, nahiz oraindik zintzilikatu ez, nahiz eta etxe hura, aurreko etxea, etxe guztiak, behin-behineko dituen Donostian existitzen ez den Montmartre badaezpadako baten bila jitoan dabilen bohemio paristar honek.

Eta, halere, bien arteko harremana ez da sekula erabat eten, apurtu, hautsi, itzali. Arcachongo lagun-txoek, Ménilmontantekoek eta Clichykoek ez diote irauten eta Kororen eta Fakirraren artean hari fin bat dago, alanbre gori bat, epeldu arren hoztu ez dena. Fakirrak gaixotu egingo dela uste du edo hil egingo dutela bestela, edo biak batera. Arakisen lorratzekoa delako bera.

Goizeko lauretan deitu dio halako batean, Enrike-ren etxean dela, *delirium tremens*-ak jota bezala:

“ETA nire atzetik dabil, zatoz nire bila, Koro”.

“Erotu egin al zara? Goizeko laurak dira. Ez naiz zure haurtzaina, Imanol. Ezin dut ordu honetan zure bila joan”.

“Ba ertzainei deituko diet orduan”.

“Ba deitu ba”.

Esan eta egin. Handik tarte batera ertzainek jo diote interfonoko txirrina. Amara Zaharreko etxeraino

eskoltatu dute Imanol, egunsentia urratzear dela. Sofan etzanarazi du Korok.

“Esan dizut ETA nire atzetik dabilela... Orain, hemen dago. Ez duzu ikusten?”.

“ETA hemen dagoela? Etakideak esan nahi duzu?”.

“Etakideak ez, ETA bera! Leku guztietan daude, begira horri, guri begira, guri destatzen! Pello eta Seiko... Lanparako euli gorriak... Pareta mugitzen ari da, inurriak dira. Zergatik dira inurri guztiak gorriak?”.

“Ez dakizu zer diozun ere”.

Kororen bibliotekako liburuak zabaldu eta arakatzeko hasi da orduan, orrien artean zerbaiten bila balebil bezala:

“Non daude hostoak? Non daude Bois de Boulogneko hostoak?”.

“Diru bila zabilta?”.

“Mozorrotuta dauden arren, ezagutzen ditut! Unibertsitatea leherraraziko dute maoistek eta gu barruan gaude, *une montagne d'ossements*, hezur mendi bat, ez da besterik geratuko!”.

“ETA, nun zira?”, pentsatu du Korok orduan, bere kolkorako. Ongi, hori da hipotesia, hori da Fakirrak barruan duena: ETA bere atzetik dabil, azeri, katagorri,

gelan sartutako katu bat balitz bezala mintzo da ETari buruz.

“Uxatu egingo dugu, egon lasai!” esan du. “Zoaz, zoazte denok hemendik!”, deiadar egin dio ezerezari Korok, kortako abelgorriak izutu edo ardiak eremu hesitutik atera nahi lituzkeenaren keinuekin. Atea itxi du, ataka larria, hesia, eskaleak edo lapurrak, zomorroak edo izurria, langosta gaitza uztarentzat, Momo, Mamorro, Mozorro, denak uxatu ditu, ateari emandako danbateko nabarmen batekin. Antzeztu egin du espulstioa, judutarrak Espainiatik bidali behar balitu ere, Isabel eta Fernandorena jokatu du, berdin litzaioke, “joan dira denak, laztana, bakarrik gaude zu eta biok orain”.

Eta lasaitu egin da Fakirra, eta baretu egin da Fakirra, eta luze-luze etzan eta konformatu eta amore eman du Fakirrak. Lokartu aurretik zerbait errepikatu du: “Pareta mugitzen ari da, inurriak dira”, eta gero ziplo erori da. Neke handiz lortu du Korok Fakirrari Santi Auzmendi sastreak oparitutako larruzko jaka erantzi eta arabeskodun bota marroi puska haiek oinetatik tiraka ateratzea. “Ohea gustatzen zaizu, jatea baino gehiago”. Fakir guztiei bezala, bestalde. Iltzeduna izan arren ohea.

Ez dago minik eta dagoen mina plazeraren alda-
gaia da, edo, asko jota, truke-txanpona. Abiapuntu bat
izan liteke. Sinestea komeni zaigun zerbait, baldin eta
balantzan sufrimendua nagusitzen ari bada tenore ho-
netan. Ez dago minik; gero letorkeen plazeraren ordai-
na besterik ez da. Konparaziorako parametro bat litza-
teke mina, beheko aldetik sufritzen ari garena, noiz-
bait, goiko aldetik goza genezakeen froga, ustea edo
esperantza. Baina soto sakonak dauzkagula jakiteak
ganbara altu eta argitsuak ziurtatzen dizkigu derrigor
giza-etxean, ala, sinpleki, handia izango dela soto ho-
rien gurekiko grabitate indarra?

Gosaria da lotsaren otordua.

“Hobeto zaude? Esan dizut ezin duzula hemen
bizi. Horrela ez”.

“Ni laster hilko naun, Koro”.

Konjuru bat da, aurrementipena, inbokazioa ala
baieztapena? Zango biko amildegiaren destinoa. Zer
da, ordea, “laster”? Errekaren lasterra, egia. Badoana
eta inoiz geratzen ez dena. *Orain* edo *bihar* baino
atzemanekinago eta ederragoa da “laster”. Ziurregia
da hori. Esatea laster hilko zarela, laster hil ez zaite-
zen: berri txar bat ereiten duzu orainean, eta etorkizu-
nak ezustekoak ekartzen dituen bez beti, otoitz egiten

duzu profeta txarra zarelako froga ekar dakizun etorkizunak opari.

“Zer egingo duzu ni hiltzen naizenean, Koro?”.

Hain ziur dirudi bere heriotzaren lasterraz, Koro hamabost urte zaharrago izanagatik, hain ziur.

“Lasai lo egin eta izarren salda edan. Ez da hori zure kantetan eskatzen duzuna? Kantatzeagatik kantatzen duzu, ala benetan sinesten duzulako?”.

“Letra ez da nirea”.

“Balitz bezala; zuk ematen diozu ahotsa”.

“Jarraituko duzu nire kantak entzuten?”.

“Zure diskoetako batzuk seme-alabei oparituko dizkiet eta beste batzuk beheko tabernariari edo Sebastopoleko jabeari, Negrescon ostra goxoak ateratzen dizkigun bikote galiziarrari... Zumetaren bi koa dro horiek soil-soilik geratuko dira horman eskegita, nik bai eta zuk sekula ikusten ez dituzun lehoi horiekin... Zure kasete bakarra gordeko dut, behin eta berriro entzuteko. Eta magnetofoa izorratzen denean... Magnetofoa izorratzen denean irratira deituko dut, zer erremedio, ez Euskadi Irratira, ez Radio Popularre-ra, ez: inork entzuten ez duen irrati ttipi horietako batera, Radio Reloj, Radio Miramar edo Radio Tamarindo hortera horretara, eta zure kanta bat eskatuko diet,

bazkalosteetan lehen belarrira kantatzeko eskatzen nizun berbera, *“¿Alguna canción en particular?”* lokutoreak; eta nik: *“Maitia nun zira”*, eta lokutoreak berri: *“Esa es especialmente bonita”*. Espero dezagun zure kanta jartzea, eta ez soprano horrekin egin zenuen bertsio horrorosoa”.

“Ze gauzak esaten dituzun, Koro”.

“Egia, besterik ez”.

Ainara Irazokiren nebak etxe premia dauka eta Prim kalekoa libre utzi beharko du laster Imanolek. Izatez, aitzakia bat baino ez da, Ainara nazkatu egin delako alokairua ordaintzen ez dion norbait apopilo izateaz. Dirua behar du Rotterdameko etxea pagatzeko eta nebari kontratua amaitzen zaionez berean, harekin egin du tratua. La Coupole utzi eta Grosera aldatu behar izan du Fakirrak, honenbestez, baina ez zaio alokairua berak bakarrik pagatzeko ailegatzen. Telmo ere bera baino askoz hobeto ez dagoenez, bien artean moldatzen dira alokairua ordaintzeko. Duran tabernan itxi dute tratua jabearekin eta gauzak ongi joan dira hasieran, gasa eten dieten arte.

“Aukeratu beharra zegoan, hori edo argindarra: argindarrik gabe ezingo genikek diskorik entzun”.

Lehentasun kontua, jakina.

“Lasai, aterako dituk kontzertuak. Madrilen, besterik ez bada. Badiat agente on bat han: Ana Pariente”.

Ez da guztiz egia: “Nahi baduk, mugituko diat hire izena Madrilen”, eskaini zion behin Anak, eta Imanolek, pentsatuko zuela esan eta sekula erantzun ez. Orain bozgora pentsatu du eta Ana Parienteri deitu behar izan dio mesede eske. Aspaldiko laguna du Ana, kantautore askoren ordezkaria. Baina Madrilen ere ez dira garairik onenak kantautoreentzat: *movida*-ren ondotik, jada ez dute koblakaririk nahi. Tarteka, bere diskografia errepasatzen du Fakirrak: nola den kantari oro suge eta nola doan disko bakoitzaren azalean bere larruazala uzten. Deprimenteak zaizkio gaztetako argazkiak eta bereziki pozten da lagun artistei kendutako azalekin, horiek ez baitira sekula zahartzen.

Ur berorik ez dutenez, erdiguneko gimnasio batera joaten dira Telmo eta biak dutxatzera. Aurretik gimnasia apur bat egiten dute, disimulatzeko. Musikaria beti dago postura behartuan, tendoi eta gihar berberak atrofiatu arte; gorputzaren hiru laurdenak sorgortuta ditu kontrabaxu-jotzaileak. Ondo etortzen zaie

ariketa apur bat, eta etxean ur berorik gabe bizitzera ohitu direla esatea gehiegi esatea den arren, egia da apartamentua ahalik eta gutxien zapaltzen saiatzen direla.

Kalean emakume heldu eta dotore bat ikusten duten bakoitzean, Fakirrak ukondoaz kolpetxoak ematen dio disimuluan Telmori. “Emakume puska ederra, e?”, diotsa, begien zuringoa betaurrekoen armazoitik gainezka duela. Telmok ez du Fakirraren aieru hori konpartitzen, baina ohitu egin da lagunaren gustueta-ra. Elkarriketa luzeak izaten dituzte “emakume ezinezkoei” buruz. Maitasun ezinezkoetan aditu bilakatu dira.

“Kuota ordaindu gabe daukazu”, ohartarazi diote gaur gimnasio irteeran, jakinarazpen ezaxola bat, “ederra azken diskoa” edo “bai ondo sopranoarekin gabon gaueko programan” irristatzen dionak bezala, bi kuxinen irribarrearen artean datorren eskakizun txanponarioa, jende ezagunari ohi zaion kortesia tar-tearekin, “zuk nahi duzunean, jakina: badakizu ez dagoela presarik”. Ez dago presarik, baina negozioa negozioa da eta dendaria dendari.

Fakirrak bere betiko mantra errepikatu du:

“Lasai, berehala sartuko dizuet dirua. Datorren astean ordainduko didate irratikoa”.

Gimnasiotik atera orduko, perfume garesti bat erosi du. Telmo ez da ausartzen galdetzera berarentzat ote den edota norbaiti oparitzeko. Jada ez dio diru kontuei buruz ezer galdetzen. Badaki, ordea, irratiko soldata joan zen astean ordaindu ziotela, eta sartu-ahala-fundi, jada ez zaiola sosik geratzen. Irakaskuntza gorroto duen arren, Telmo demonio bat bezala saiatzen da kontrabaxuarekin ikasleen hatz-mami gurinezkoak zailtzen, Fakirra Bulebarreko zumardira inguratzen den bitartean, ezagunen bat topatzeko itxaropen aski gertagarriaren barrandan. Ez du bazkalduko norbaitek baxoerdia hartzeko gonbita luzatu ezean, eta barauari emanik pasatuko du arratsaldea, moilan itsasoari begira, edo erramu koroa laukiztatua den Kontxako baranda zurian bermatuta gosea ere inspiragarri dela pentsatuz. Kanean ibiltzeko hotzegi bada soilik geratuko da etxean, ilundu arte musika entzuten, disko bat bestearen atzetik, apartamentuko zorua disko-azalez bete arte, halako moldez non gero disko bakoitza dagokion zorroan sartzeko lan amorragarria Telmok hartu beharko duen hurrengo goizean bere gain. Ongi moldatzen diren bikoteen kasuan bezala,

bien diskoak nahastuta daudenez gero, Telmori amon-
rru handia ematen dio disko bat ez dagokion zorroan
topatzeak. David Bowieren bat aise sar lezake Maria
Callasen zorroan. Amorragarriena da ikustea gero
David Bowierenean ez dagoela Maria Callas, baizik eta
Chico Buarque.

La Coupoletik Grosera aldatzea ez da munduko
mudantzarik onena: apartamentu berria handiegia eta
ilunegia da, ez du bestearen argiaren herenik; eguras-
tu gabea, tertziopelozko errezel astunak eta belarri za-
baleko besaulki handiak dauzka, puruak erretzeko
baino ez aproposak. Fakirrak irakurtzeko erabiltzen
ditu, ez baitu erretzen; leporatu egiten die, gainera,
lagun erretzaileei menpekotasuna, neurriz gaintxo
edandako whiskiaren hatsa izaten duen arren berak
sarri: "Nola erre dezakek oraindik, kopon? Pipan erre-
ko bahu, sikiera". Oroz gain, esteta bat da. Kaxmirrez-
ko bata batekin egiten dizu ongietorria, Varon Dandy
balitz bezala. Aspaldi ez du inork etxea garbitu. Draku-
la konde barojatar baten itxura hartzen ari da. Begi er-
tzak rimmelez margotzen ditu tarteka.

Arratsalde batez, Telmorekin Duran tabernan dela,
udako kanta egin duen Xipri Abasolo erromerietako
kantari ezaguna oldartu zaio, destaina eta gutxiespe-

na agerian: "Oraindik bizi al haiz?", esan dio, irribarre makurrez.

Sutu egin da Telmo. *Oraindik*. Gustura egurtuko luke.

"Hago lasai, Telmo. Ohituta nagok".

"Benetan hi hiltzeko gai direla uste al duk?", galdetu dio Telmok.

Erantzunik ez.

"Hik... beldurra daukak, Imanol?".

"Bai".

"Zergatik, baina?".

"Lehen, barruan nengoenean, ezagutzen nitian, bereizten nitian ahoberokeriak eta egiak. Baina orain ez".

"Hik ez daukak Arakisekin zerikusirik. Hau diferentea duk".

"Diferenteak diren gauzak bereizten ez dakien jende igualtsu gehiegi zagok, hori esaten zidak senak. Sutileziaren pribilegioa ez zaio mundu guztiari emana izan, Telmo".

Okindegitik datorren batean, ogiaren borrarakin danba eman dio buruan Telmori.

"Duela hiru egunekoa eman zidatek".

Komunikabideetan biktima estatusa erantsi diotetik ezin du gaintetik kendu. Madrilgo kazetariak gero eta elkarritzeta gehiago egiten dizkiote. Ez diote, ordea, musikari buruz fitsik galdetzen. *Interviú* aldizkaritik deitu diote eta lau orrialdeko erreportajea eskaini. *“Habría algo de dinero, piensa una cifra”*. Nazka eman dio. Bi bider pentsatu gabe egin dio uko. Zenbat eta elkarritzeta gehiago eman, orduan eta kontzertu gutxiago. Eta bera, kontzerturik gabe, zimeldu egiten da.

Ana Parienteri esker disko bat grabatu du Madrilgo zigilu batekin, gaztelaniaz. Bellas Arteseko aurkezpena etorri diren kazetari gehienak ez dira Musika atalekoak, ordea. Ezta Kulturakoak ere.

“¿Se siente usted amenazado? ¿Teme por su vida? ¿Se siente respaldado por el resto de los cantautores vascos?”.

Pintadak izan dira osina bete duen azken tanta. Isil-mandataria bat bidali diote irratira ETakoek, bere kontrako mehatxurik ez dagoela esateko. Pintada, *“FAKIR TRAIDOR”*, mutiko batzuen bihurrikeria dela. Baina ez da fidatzen. *El País*-en elkarritzeta egin diote. Kontrazalean. *“Ezkutuan ez: hormetan esandakoa, gezurtatu ezazue hormetan”*, oldartu zaie mehatxua zi-

rimarratu dutenei. Bularkoia da, arazo asko eman dizkio horrek bizitzan. Lagunak egiteko erraztasuna du, baita galtzekoa ere. Lehen aldia litzateke talde armatu batek horma batean egindako mehatxu bat horma berean atzera botatzen duena. Absurdoa da bere eskaera? Uргуилуaren talaia altu mantentzen du. Kaske-ta eta integritate morala, ilargiaren alde biak. Arrazoi du arrazoi izatea aski ez den mundu batean, hala esaten dio bere buruari. Gutxiengo langa morala oso jaso duen ume bat bezala portatzen da, ordea, eta horrek, ausarkeria begi-bistakoa izateaz gain, noblezia zaurgarri halako bat ematen dio. Haur laidoztatuaren distira du begiradan.

“Bakarrik utzi naute. Bakarrik utzi nauzue”.

Halako aurkezten dizute eta zuk hari bostekoa eman. Horrela hasten dira gauzak. Azkenean, aurkezten dizuten jendea bihurtzen zara. Ez haiek *bezalakoa*, baizik eta *jende hura bera*. Jende horrek ordezkatzan zaitu besteen begietara, eta zure ahotsa desagertzen da haien belarrietan. Edo, hala ez izan arren, hori uste dute egunkarietan jende horren konpainian ikusten zaituztenek. Are, bostekoa luzatu dizun jende horrek

ere halaxe uste du, haien ustez zentzuzkoena baita hori, ezin imajinatu dutenez haiena baino abaro hoberik zuretzat. “Ingurukoak etengabe juzga ditzakezu eta alda dezakezu haiekiko zure iritzia; zugandik urrun daudenak, ordea, aski da behin eta betiko epaitzearekin”, esanarazten zion Marguerite Yourcenarrek Hadriano enperadoreari. Fakirrak ez du ikusten nortasuna galtzeko arriskurik: inork imita ezin dezakeen ahots baten jabe da; eta zer esan bere-berezkoa duen tinbre gorenaz, Parisen madame Duprezekin bezatu zuen ez-tarriaz? Ez: ez dituzte bere ahotsa eta nortasuna berehala ezabatuko.

“Ez naute erabiliko; nik erabiliko ditut haiek”.

Fuchs Soler epaileak aitortu dio ez zuela ezagutzen bere lana, baina Beldurraren Kontrako Kontzertuaren ostean etorri zen Bakearen Aldeko Kontzertuaren ondoren bere diskoa erosi eta ikaragarri gustatu zaiola. “Barkaezina, gaurdaino zure kantarik ez entzun izana!”.

Fuchs Soler epaileak etxea eskaini dio Madrilen lotarako, “nahi duzunean”. Apur bat irreala da hura guztia, albistegietatik baino ezagutzen ez duen gizona, modako epailea, ETAko buruzagien borreroa, juje mediatikoa, estatu terrorismoari eta gobernuaren ustel-

keriari ere gogotik ematen saiatu dena, huraxe bere etxea lotarako eskaintzen. Pertsona arrunta da, txirula ahotsa dauka eta xuabea eta atsegina da tratuan. Fakirrari gehiegizkoa eta guzti iruditu zaio eskuzabal-tasun adierazpen hura, “euskaldun martiri” bat gerizatzeak morboa emango balio bezala edo faltan duen legitimazio morala indartu. Edo, auskalo, agian zinez hondo onekoa da Fuchs Soler, besterik gabe. Eta hari, Fuchs Soler epaileari berberari, disko bat sinatzen ari zaio oraintxe Madrilen Imanol, ETAk eragindako terrorismoaren biktimen ekitaldi batean, nork esan behar zion halakorik, Bekaintirok frankismoaren kontra borrokatzeko *kaptatu* zuenean. Eta horixe pentsatzen du hain zuzen ere Imanolek, diskoa dedikatzen dion bitartean: “Fuchs Solerri disko bat dedikatzen ari ez nauk ba!”, sinetsi ezinik, satisfakzio aztarrenik gabe, baina satisfakzio horren bila, hala ere, zerbaiten erdigunearen bila, jakin gabe zeren erdigunea den bilatzen duena, eta beraz, ez erdigune eta ez satisfakziorik aurkitu gabe. Ispiluaren alde hartan errealitatea etereoagoa izatea espero zuen, beharbada, ez horren uki-garria. Aitzitik, ukigarria da guztiz ispiluaren alde hartako errealitatea ere, hori, behintzat, baiezta lezake, nahiz bera sentitzen den orain ospetsuago diren ho-

rien ondoan etereo, irreal, lausotzeko joerarekin, eta, tarteka, desagertzeko gogoarekin.

Madrilen emango duen kontzertura etortzeko gonbita luzatu dio Fuchs Soler epaileari: “Joango naiz, baina gonbidapenik ez, arren: garesti aterako nintzai-zuke, eskolta bana behar dut ondoko besaulkietan; ordainduko ditut neronek sarrerak...”. Benetan esaten du? Ordaintzeko gogoa eta premia dauka, badauka garbitu beharreko erruren bat Europako epaile demokraten pedigria lortze aldera?

Eta Fuchs Solerrekin hitza bete du, hantxe dago hirugarren lerroan, *Poeta kaxkarra* kantatzen hasi orduko ikusi du, bizarra ongi eginda, ile sarria errotik estu eta atzerantz lapa-lapa orraztua. Epaile bat, berari txaloka. Ez edozein epaile: Fuchs Soler jujea.

Epaia puntu eta jarrai bezala ulertua. Epaia puntu eta amaiera bezala ulertua. Aurrera egin beharra dago eta Fakirrak ebatzi du hondo onekoa behar duela izan, zalantzarik ez du orain, Fuchs Soler adiskide horrek.

“Zatoz Madrilera: hemen hobeto egongo zara”.

John Lennon abandonatu du. Baita Gandhi ere. Gato Barbieri eta Miles Davis jazz izarrak bezala, Faki-

rra eguzkitako betaurrekoekin dabil kalean barrena. Madrilen ez du inork ezagutzen, eta hori, behingoagatik, lasaigarria zaio.

“Eta nire ama?”.

“Zergatik zaudete euskaldun guztiok amarekin maiteminduta?”.

Zorrotza da Ana Pariente, Teide ekoiztetxeko managerra. Badaki hatza non sartu. Kantautoreekin lan egiten du batez ere, giro horretan hazi da. Hark gonbidatuta dago Fakirra Madrilen, haren etxean geratu behar luke gaur lotan, hori Imanolen kasuan inoiz aldeztu aurretik jakiterik ez dagoen arren, Fuchs Soler eta beste, hiriburuan baduelako ohandza non aukeratu sobera. Anak baditu bere susmoak, lepoa egingo luke baietz azkenean Yolandarenean geratu, irribarre haiek, sorbaldan lur hartzen zuen esku-ahur hura. Esku-ahur bat sorbaldan paratzea da lehen pausoa, belaunaren aurreko eskailera maila da sorbalda, zapa-dorearen trintxera, sorbalda da abangoardia eta belauna atzeguardia, ahaide anatomiko gertukoak biak. Yolandak “lagunak bakarrik” direla esan dionean, ofenditu egin da Ana Pariente; “Aizan, hik ikusi, zaharregia naun inori gona-aferak medio kontu-eske ibiltzeko”. Yolanda Garcia Baños, modako idazlea, gehi-

garri literarioetan tarteka agertzen dena, modatik pasatuko dena, denak pasatzen diren legez.

Bere etxean lotan gera daitekeela esan dio Anak, eta Imanolek, eskaintza onartu ordez, eskerrak eman eta errefusatu. Hitzordua duela erantsi du, “lagun batekin”. Gaztelaniaz ari delarik ez dago disimulatzerik, “*una amiga*”, nahiz eta burutik pasatu zaion behin Paco Ibañezek erakutsitako formula anbiguo, apur bat barregarria, “*me quedaré a dormir en casa de una amistad*”. Hura bai zela salagarria: garbiegi uzten zuen txortan egiteko geratu zinela. Anak badaki Fakirra norekin dabilen. Hiri ttipietatik datozenek sarritan egiten dute akats hori: pentsatzea Madril bezalako hiri handietan errazagoa izango dela ezkutatu eta sekretuak gordetzea. Madril ez da Fakirrak uste duen bezain handia, ordea, eta, bestalde, hiria edozein delarik ere, nork bere lagun taldetxoa orbita bat bezala darama aldean itsatsita: hori da hiriaren diametroa zuretzat, hula-hop bat. Elkarren berri izaten amaituko duten lau lagun eta beste hainbeste taberna. Horregatik gomen-datu dio zintzoki Madrilera etortzea.

Aktorea da Fakirraren lagun berria, Reyes Morante, puntako antzezlea, telesail askotan lan egin du eta estimatua da Madrilgo antzokietan; bikote luminoso

osetzen dute; Imanol itsututa dago harekin, Telmori aitortu dio hezurretaraino maitemindu dela, nerabe bat bezala, baina Ana Parientek ondo ezagutzen ditu biak eta ez du uste luze iraungo dutenik. Iritzia eskatuko balio inork, esango lioke farandulako jendeak ez lukeela farandulako inorekin endredatu behar. Berdinen arteko harremanetan abiatu arren, beti izango da azkenean bat bestearen mirabe. Kantaria bata, koruko ahots bestea. Kanta kantariaren gainetik dago eta antzezpena antzezlearen gainetik... Antzezpen bat kanta batekin enkapritxatu denean eta ez kantari bat antzezle batekin, badu etorkizunik harremanak? Bien arteko elkarlanaren kimera ere hor dago, jakina: "Ahots bat behar dut nire diskorako"; "kanta bat behar dut nire antzezpenarako". Baina funtzionatzen ez badu elkarlanak edo gustuko suertatzen ez bazaio eskatzailerari, orduan zer? Ofentsa agerikoa, edo ofentsa agerikoa baino birrintzaileagoa den ofentsa erreprimituaren taupada ostendua. Bi farandulako elkarrekin? Ez, hobe nor bere bidetik. Lehia da artearen hanketako bat: norbere buruarekin, kasurik onenean, bai. Baina norbere buruarekin lehian ari diren guztiek talka egiten dute, goizago ala beranduago, bere buruarekin lehian dabilen beste norbaitekin.

Intelektualak gustatzen zaizkio Imanoli, gero bat-batean beste muturrera joaten den arren. Emakumez-koei aurkezten dienean ohartarazpen ttipia egiten die Anak, erdi txantxetan eta erdi serio, radarra zorroztu-tako jendeak ongi detektatzen duen seriotasun grabe hori modu dotorean azpimarratuz: “Kontuz honekin, *enkandiladore* hutsa da-eta”. Uler dezala norberak horrekin esan nahi duena, baina ia inork ez du *enkandilatze* hori zentzu txarrean hartzen. Jaiotzetiko limurtzaile batekin, nola, bada, txarto hartu? “Guapo nago bufanda honekin, ezta? Gay konpletoa ematen dut, ala?”. Itxura zaintzea gustatzen zaio Imanoli, gay konpletoarena serio esaten du eta ikaragarri laketzen da jolas horrekin. Urrezko kate lodi haiek, pultserak, jendezko harridun eraztunak edo blasoidunak, diskoetako azaletan erakusten dituenak, horretarako hatzak modu behartuan patrikatik atera behar baditu ere. Anbiguotasuna maite du, sor daitezela zurrumurruak inguruan; maite du nortasun finkoegi bat ez izatea, inguruan duen giro eta jendearen arabera manierak aldatzea, ispilu aurrean dantzan ari denugarra dela sentitzea.

Ezagutu ditu Espainian pil-pilean dabiltzan kantari ezkertiarretako batzuk. Elkartasuna adierazi diote

guztiek. "Ausarta zara. Ahoan bilorik ez duzu. Nik ez dakit zer egingo nukeen zure larruan". Jatorrak iruditu zaizkio keinuak, eta hitzak, zintzoak. Eskertu ditu bere pairakortasunarekiko erakutsi duten elkartasuna eta bere kantatzeko moduarekiko miresmena. Gonbidatu egin ditu Imanolek kontzertura. Denek esan diote joango direla, zalantza izpirik gabe. "Joaquin Sabina ezagutu dut! Ana Belen eta Victor Manuel! Denak etorriko dira!", ume bat bezala dago.

Ateneo Obreroan kontzertu bat lotu dute Laborde-tarekin. Ordu batzuk falta dira oraindik emanaldia has-teko eta Ana Parienteren etxean geratu dira Fakirra eta biak mokadu bat jateko.

"Zer diozu, orduan? Arnasa hartuko zenuke hemen. Zentzu guztietan. Zure arrebak han ditu amak, ez dago bakarrik. Gainera, Madril ez dago hain urrun".

Poeta kaxkarra kantarekin hasten ditu kontzertu guztiak Imanolek, hura delako amaren gustukoena. Eratzunari bueltaka dabil, zura ukitzearen sineskeriak metalarekin eginda zentzu gehiago balu legez.

"Gaur da Tatianaren urteurrena, badakizu?".

Bere bizitzako emakumea. Bere bizitzako *beste* emakume hura. Ana Parientek psikologoarena egin

behar izaten du sarri ordezkatzeko dituen kantariekin. Ohituta dago.

“Jakina, nola ahaztu. Tatiana ezin da ahaztu, nahitara ere”.

Ana Parientek haria eten nahi luke, hobe luke isildu, zerbait galdetzea tokatzen zaiola badakien arren. Bururatzen zaion galdera pertsonalegia da. Ez daki ausartu beharko lukeen hainbestera:

“Izan zinen Tatianaren hiletan?”.

“Bai, Parisera joan nintzen espreski. *Très émouvant*”.

Busti egin zaizkio begiak Fakirrari. Tatiana alaia, Tatiana antolatzailea, Tatiana altua, Tatiana fundamentu petoa zuen emakumea, etxeko martxa eramaten zuena. Maitale eta Pigmalion kultur-hezitzaile bakarrik ez, Fakirraren managerra ere bazen Tatiana sasoi hartan. Dena ondo zihoan haien artean, edo hala zirudien, urterik zoriontsuenak izan ziren edo agian euren gorputzetan txertatutako gaztaroaren aleazioa zen zoriontzat ulertzen zutena. Fakirrak Koro ezagutu eta Tatiana utzi zuen arte. Tatiana lur jota geratu zen orduan; ez zuen halakorik espero eta Parisera itzultzea erabaki zuen. Ttipiegia eta mingarriegia bihurtu zitzaion Donostia. Ezkondu egin zen handik urte batzue-

tara. Gazterik hil zen. Eta Fakirrak beti kontatzen du bietan izan zela, ezkontzan zein hiletan.

“Dirurik behar duzu?”.

“Behar-behar...”.

Ana Parientek badaki zein den musikarien bizimodua, “*vivir a mordiscos*” esaten dio berak.

“Aurrerapen bat eman diezazuket”.

“Koxka bat, eskura bazenu, ezin hobeto”.

“Musikarien soldata deskontatuko dizut, haiei zuzenean ordainduko diet neronek, ongi iruditzen bazai-zu”.

Badu eskarmentua kontu harekin. Sorbaldak altxatu ditu Fakirrak:

“Lan bat gutxiago niretzat”.

“Ez dena kolpean gastatu, ahal dela”.

Ume batek asteburuko paga bezala gorde du dirua. Ana Parientek badaki ez diola asko iraungo. Sartu-ahala-fundi, eskuak kiskaltzen dizkio diruak.

“Autoreetatik urratuko al dugu zerbait?”.

“SGAetik? Saiatuko gara, baina kontuan izan zenbait doinu tradizionalak direla eta kanten letrak ez direla zureak”.

Imanolek gitarra hartu du, ez du behar xaxatuko duenik, hori du ona, betipresteko gizona izatea. Berdin

hasiko zaizu kaleko musikari batekin kantari edo iloben urtebetetze bazkalostea supizteko kanta galopan. Horixe badaki ongi egiten: debaldeko festa preparamen.

Ateneo Obrerora doazela, Imanolek zinta bat jarri dio autoan Labordetari. Poema musikatu bat.

“Asmakizuna: norena dela esango zenuke letra?”.

“Ez zakiat ba, hiri gustatzen zaizkian poeta moderno horietakoren bat, seguru...”.

“Ia-ia: Lope de Vegarena duk”.

“Ba, moderno itxura dik...”.

“Gu baino modernoagoa zen-eta! Eta Madrilgo movidako guzti hauek baino askoz modernoagoa, zer esanik ez!”.

Ana Parientek lotu du bira, Labordetarekin adostuta. “Hi nahi haute udaletan. Hiri deituko ditek, ez berari. Eta nik esango zieat bira hau erdi bana dela. Imanol gabe hi ez hoala. Biok, ala inor ez. Ados zaude?”. “Ados”. “*Fifty fifty?*”. “Jakina”. “Imanolek ez zaukak zertan jakin”. Beste edonork katxearen erdia galtzen duela ulertuko zukeen. Ez Labordetak, ordea. Nahiago du pentsatu birarako lagun on bat irabazi duela.

Eszenatokira atera aurretik Reyesi buruz galdetu du Imanolek.

“Pelikula batekin dabilela uste dut... Epokako zerbait. Baina gainerakoan, kuadrilla osoa etorriko da”.

Fakirrak gutxitan hitz egiten du orainaldiko harremanei buruz. Ez dauka arazorik, ostera, iraganekoen inguruan luze aritzeko –Tatianaren hileta zehatz-mehatz deskriba dezake, hatz eta behatz: *très émouvant*-. Zaila da Fakirraren bizitza sentimentalaren arrastoari jarraitzea, ordea: Anak Korori buruz galdetu dionean, Imanolek izkin egin eta orain Telmorekin, bere kontrabaxu-jotzailearekin, bizi dela esan dio. Imanolen izaera da, baina ezin uka logika xomorroa denik: dabilenarekin ibili, aspaldi galdutakoari buruz mintzatu. Iraganari orojakilearen abantailekin begiratu eta hura interpretatu, ondorioak atera, antzaldatu; oraina kontraesanekin besarkatu, zetorren moduan, gertaeren kontraesanak zeureekin txirikorda daitezen utziz. Hori egiten du. Baina kontraesanak ditugun birtartean, hala uler daiteke, orainaldi bat ere badugu.

Kontzertua hasi aurretik berri onak ematea gustatzen zaio Anari:

“Bira bat lotu dugu Levante aldean. Labordetarekin. Zer iruditzen?”.

Poztu da Imanol.

“Madrilen bazeunde errazagoa litzateke dena”.

“Ongi da... Agian Yolandarenean geratuko naiz bolarada batez”.

Hala ere, ez du ama hil arte pausoa eman. Nazkatu da lagun guztien ahotik Donostia itogarri horretan jarraitzen badu maxkaldu egingo dela behin eta berriro entzun eta azalpenak eman beharraz. PPko eskoltak eta bizkartzainak biltzen diren tabernetan bakarrik sentitzen da jada seguru Donostian. Baina hura ez da bere giroa, ez zaio taberna hauetan jartzen duten musika gustatzen, ez eta bertan dabilen jendea ere. Haiek ez dakizkitez buruz bere letrak. *Famoso* kategorian ezagutzen dute eta hargatik gonbidatzen dute tragoak hartzera. Mehatxupear dagoen errukarriari bezala begiratzen diote ala ustezko gorentasun moralarekin miresten? Zenbaitek, desertore glamuroso bat dela uste dute. Levante aldera doanean, ez ditu sumatzen antzokiko patioan ezpainak mugitzen eta xuxurlatzen, mutuaren karaokea egiten Fakirraren ahotsari. Hori da dagoena.

Telefonoz deitu dio Yolandari, Madrilera aldatu eta bere etxera bizitzera joateko pausoa ematea erabaki duela esateko.

“Hartuko nauzu etxean?”.

“Jakina”.

“Pozten zara?”.

“Dudarik egiten al duzu?”.

Yolandak Ana Parienteri deitu dio segidan. “Ezin du nire etxera etorri, gehiegi edaten du. Problema bat dauka eta nik badaukat nahikoa nire putzuarekin. Zula ora eramango nau, ateratzen hasia naizenean... Esango diozu zuk ezin duela nirekin geratu?”. Ana Pariente suminduta dago. “Garcia Baños, Yolanda” izena bere agendatik ezabatu eta Imanoli deitu dio kontua argitu eta Madrilen lo lekuri ez daukala jakinarazteko, sentitzen duela, bera mezularia baino ez dela, nahi badu gera daitekeela bere etxean.

“Hor zaude?”.

Hor dago, baina zein zaila den batzuetan hor egoitea.

Ana Parientek bere isiltasunarekin lagundu dio Fakkirari. Orainaldia presentziaz hornitzen duen isiltasun bat da, eta hala ulertzen duelako eskerrak ematen dizkio Imanolek zintzilikatu aurretik.

Yolandak etxean hartu nahi ez duenez, erabaki du inoiz ez duela egiaz Madrilerako joateko gogorik izan.

Aspaldi elkar ikusi gabe. Bekaintirot eta Fakirrak elkar besarkatu dute kamerinoetan. “Etorri haiz!”; “Nola huts egingo nian, bada? Noiz ez nauk ni etorri?”; “Ondo al hago?”; “Noski, Trotski!”, betiko gerra oihua. Jada ez dute, jakina, *gerraz* hitz egiten, ezta *gerra dinamikaz* ere. Badaezpada. Biek susmatzen dutena baino gertuago egon daitezkeen arren haien ikuspuntuak eta iritziak. Elkartzeko ziren bideak zapuzteko suertatu izan dira, nahi baino gehiagotan. Munduak ez du haiek aurreikusitako biderik hartu. Euren begiradak eta munduan egoteko euren moduak deserosotasun eta kandore apur bat bereganatzen dute elkartzen direnean, esan nahi balute bezala “Erromantikoak ginen, xaloak ginen, gazteak ginen”. Desenkusa bat da? Inolaz ere ez: isilean harrotzen dira beren erromantizismoaz, xalotasunaz, mutur bietatik erretako kandela den gaztetasun peto, garaiz erabili eta sakon ustiatuaz.

“Guk egin genian gurea. Gaurko gazteak, izango ote dira hainbesterako gai?”. Isilean harrotzen dira eta isilean lotsatzen, baina lotsa iraultzailea dela esan zuen behin asko miretsi zuten norbaitek. Zango biko amildegiei dagokien bezala, kintoen bilera batean

legez mintzatzen dira, “gogoratzen nola?” eta “hori ez zuan horrela izan!”.

Bere berrogeita hamargarren urteurrenean denak elkartu nahi izan ditu Imanolek Casa Galician afaltze-ko, garai bateko kamaradak eta borroka-lagunak, kant-
talagunak eta musikariak, idazleak eta poetak, argaz-
kilariak eta artistak, lagunetako asko ETaren aurrean
hartutako jarrera antagonikoagatik elkarrekin etsaitu-
ta dauden arren. “Zenbat bilduko ote gara?”. Fakirrak
uste baino gehiago izan dira gonbita onartu dutenak.
Zenbait adiskidek oraindik estimatzen duten seinale.

“Imanolek eman du pausoa. Zuek, aldiz, keinu az-
tarrenik ere ez duzue oraindik egin bortxakeriaren
kontra”.

Lucas Azurmendi da, Bekaintirori begira.

“Erraza da hori esatea kanpoan bizi zarenean.
Baina gu hemen bizi gaituk, Azurmendi”.

“Ni ere hemen bizi nauk”.

“Astean behin baino ez haiz etortzen eta gero
hanka Madrilera berriz. Gu ez gaituk Madrilera eskean
joan”, ihardetsi dio Bekaintirok.

“Zer ote dakik hik... Kabernikola gutxiago zagok
Madrilen hemen baino, galdetu bestela Imanoli”.

“Ez sartu Imanol honetan, Lucas: hura erabiltzen ari zarete, mesede baino kalte gehiago egin diozue”.

“Guk, sikiera, ez zioagu bizkarrik eman”.

Otordua baino luzeagoa izan da bazkalosteko kantaldi inprobisatua, eskerrak horri. Jada kantuan baino ezin samur ditzakete distantziak, zauriak, orbainak. “Nola egingo dute haserreak leuntzeko kantuan egiten ez dutenek?”, galdetzen dio Bekaintirok bere buruari. Zerbitzari galiziarrek afaritarako mahaiak janzen hasiko ziratekeen eta haiek ostikada batez gustura kalera bidali, baina Casa Galician ez dute mahairik janzen. Banku korritua eta menu eskuzabala ematen duten lekua hautatu du propio Fakirrak bere mende erdia ospatzeko: olagarroa katxeloekin denentzat eta pantxineta labean. Albariñoa erruz, eta postrearekin, Calvados bana, hala nahi duenarentzat.

Rafael Albertiren poema abestu dute orduan: “*A galopar, a galopar, hasta enterrarlos en el mar...*”. Garai batean ez bezala, Mata Hari deseroso sentitu da letrarekin. Ez du uste inor itsaspean lurperatzeak ezer konpontzen duenik. Gauean, hain zuzen, Paco Ibañezen deia jaso du Imanolek. Ez bere urtebetetzea dela eta zoriontzeko asmoa duelako, Paco ez da mundu honetakoa eta bost axola zaizkio urtebetetzeak: Israele-

ra doala eta ezingo duela agindu zion bezala urrian Victoria Eugenia berarekin abestu. Eguneke azken opari mingotsa izan da. Kartelean argazki eta guzti iragarrita daude biak eta prentsa ohar bat atera behar da Pacoren ausentzia justifikatzeko. Calvadosaren goraldia du oraindik garunean eta zaputza hurrengo egunera atzeratzea erabaki du. Ez diote azken orduan bere urtebetetze eguna izorratuko.

Orain behintzat ur beroa eta telefonoa ordain ditzake. Luxu burges horiek eta loza zuriko ontzitxoetan edandako ardo zuriaren oihartzuna zintzurrean, hurrengo goizean ere izara arteko hats lodian iraungo duena. Bekaintioren deiak esnarazi du. Gosaltzeko geratu dira, hamaiketako hartzeko ordua den arren jada. Kafesne bana eta brioche bat Fakirrak, "hori ez, ondokoa, hain txigortua ez dagoena".

"Zu erabiltzen ari dira, ez al zara konturatzen?".

Urrun du begirada Imanolek.

"Hori uste duzu, Bekain? Ez ote ditut bada nik haiek erabiliko? Ez duzu pentsatu horretan?".

Erraldoia, Prometeo. Edo Erraldoiaren eta Prometeoren harrotasuna Prometeo izan gabe. Ameskeria.

"Igo hadi nirekin etxera, kanta berriak entzutera, atzo ez nitian denen aurrean horiek kantatu nahi

izan". Lagun zaharrarekiko deferentzia, begi kliska. Badoaz Imanolen etxera. Hankaz gora dago dena. Arropa nonahi lisaburdinaren eskean eta harrikoa egin gabe. Zerbait baikorragoa ere bai: neguari eskerrak, eulirik ez da.

"Eta Telmo, hire baxu-jotzailea? Ez al zuan hirekin bizi?".

"Norbait ezagutu dik, monamurtxo berri bat: Sonia".

Arrautza oskol baten puska bat eta zuringoaren lorde lehorra sukaldeko irratiairen heldulekuan, aparatu eramangarria arrautzak apurtzeko erabili izan balu bezala. Egunkari zimurtuak edonon, hemeroteka da-daista nahasia osatzeraino. Diskoak eta liburuak, egunkarien izarapean. Auskalo noizkoak. Igarri dio Imanolek lagunaren durduzadurari:

"Batzuetan kontzertu interesgarriak etortzen dituk agendan, baina ia beti izaten dituk duela bizpahiru hilabetekoak".

Gitarra hartuta kanta bat abestu eta iritzia eskatu dio Bekaintirori.

"Ederra da, nork idatzi du letra?".

"San Juan de la Cruzena da".

"San Juan de la Cruz?", harritu da Bekaintiro.

“Noski, Trotski!”.

“Ezagutzen haut: gurutzeagatik ari haiz hura irakurtzen, hi ere gurutziltzatu egin hautela uste dualako”, mamurtu du Bekaintirot, baina ez du bozgora ezer esan.

Zango biko amildegiak, zango bat du lokatzean; bestea, izpirituaren aratzean.

“Orain, asko gustatuko zaian disko bat!”.

Bere aurreko diskoa ipini du. Halakoxea da Fakirra, pudore amiñirik ez du. Ternezia eragiten du kantaria bere diskoa satisfetxo entzuten eta ingurukoei entzunarazten ikusteak. Halaxe nahasi zuen Sebastopoleko kamareroa ere, Moustakiren haserrealdia eragiteraino gero, kantari guztiak berdin egokume zirelakoan. Tarteke zerbait esaten dio Bekaintirori: “Hemen minorre pasatzen da, hara zer disonantzia pianoak, Gizon Ikusezinak alde egin zidak, baina pianista berri bat diat, gazteagoa are... Koruak ederki geratu dituk: neronek grabatu ditiat”. Koruak berak jarri ditu, beraz? Bere txisteak iruzkindu eta haiei oin-oharrak egiten dizkien txiste-kontalaria da Fakirra. Pazientzia handiz geratu da Bekaintiro hari konpainia noblea eginez, eta diskoaren A aldea amaitu denean aitzakiaren bat asmatu du altxatzeko.

Ez dio, ordea, horren erraz alde egiten utziko. Es-kuinerantz apur bat makurtu eta betaurrekoaren ezkerreko patilla igurtzi du hatzekin, keinu horrekin bere ahotsari bolumena kentzeko gaitasuna balu bezala.

“Juanjo?”.

“Bai?”.

“Izango huke diru pixarren bat, uzteko moduan? Lasai: irratikoa kobratu orduko itzuliko niake”.

Atariko interfonoa jo diotenean ez du gauza onik espero. Buzoia erre zioten duela bi egun, pospoloak sartu eta publizitate orriek su hartuta. Belztuta geratu dira, berea eta ingurukoak. “*FAKIR TRAIADOR*” pintada ez dute oraindik atariko hormatik ezabatu.

“Zoy Pharros, abre”.

Harritu egin da. Ongi moldatu izan dira beti, baina Jean Pharos ez du inoiz adiskide mintzat izan. Lehen aldia da etxera bisitan datorkiona. Desenkusatu egin da teknikaria: askotan saiatu dela telefonoz deitzen, baina ez diola hartzen.

“Linea moztu zigutek, baina ez duk larria, Bekaintirok dirua utzi zidak. Gero pasako nauk Telefonikatik ordaintzera”.

“Ez al daukak ordainketa helbideratua?”.

Ez daukala kontu korronterik erantzun dio, ez duela inoiz bere izenean halakorik izan. Beste edonori ez ziokeen sinetsiko, baina Imanolen kasuan logikoa dela pentsatu du. Pharosi beti iruditu izan zaio Fakirra garaiz kanpo dagoen norbait, lekuz kanpo jaioa eta bere nahien arau bizi dena. Agian horregatik identifikatzen da harekin teknikaria, aldeaz edo moldeaz, bera ere ez delako inoiz jendartean erosoegi sentitu. Norbere bokazioen esklabo dira biak, edo norbere talentuaren zerbitzari.

Hori da harrigarriena: mendiko arropaz jantzita datorrela gaur Pharos, bere ohiko txalekorik gabe. Proposamenak egiten baino hobea da aginduak ematen: doazen lekuan hotz egiten duela eta jartzeko zerbait soinean.

“Nora naramazu, Jean?”.

Barazarreraino isilik gidatu du Pharosek bere Volvoa, Jan Garbareken disko bat jarrita. Maletategia zabaldu duenean arrantzarako kanaberak ikusi ditu Imanolek: haiek garraiatzea bere ardura dela adierazi dio begiradaz teknikariak. “Zamaketa lanak egitera etorri ote nauk?”, Imanolek bere kolporako. Lo-zakuak atera ditu Pharosek.

“Hemen pasako dugu gaua?”.

Ez dutela lorik egingo, “gaupasa” baizik. Baina badaezpada.

Ehiza eskopetaren zorroa atera duenean, aho zabalik geratu da Fakirra.

“Ehiztariek, bestela, ez haute errespetatzen”.

Bakezaletzat zeukan Jean. Ia-ia animalistatzat ere baietz esango luke. Zer egiten du eskopeta batekin? Animaliak hiltzea ez dator haren nortasunarekin bat.

“Baina hemen ehizatu al daiteke ba?”.

Pharosek ez du erantzun. Arrantzan eman dute arratsaldea; izter parerainoko botak soinean Pharos, erreka ertzean paisajeari begira Imanol. Fakirrak zalantzak ditu horri buruz ere, baina ez dio galdetu arrantzarako lizentziarik ba ote daukan, sasoia ote den, paraje hura ez ote dagoen babestua. Non daude zehazki, dena dela? Ez luke asmatuko berak bakarrik erreka hura aurkitzen.

“Galdera bat egin diezazuket, Jean?”.

Fakirrak behar du audientzia. Lehen ez zitzaion hori gertatzen, baina orain, luzaroan isilik badago, luzaroan ez badu bere ahotsa entzuten, hura galduko ote duen beldur izaten hasi da.

“Bien sûr. Dizpara”.

“Nola ikusi duzu zuk hau dena? Arakisena, Bakearen Kontzertua... Benetan ni erabiltzen ari direla uste duzu?”.

Pharosek sorbaldak altxatu ditu. Hura baino, nahiago luke beste edozein galdera.

Amuarrainak harrapatu ahala, erabilera anitzeko labana suitzar batekin tripak atera eta arroka baten gainean utzi ditu, artezki. Berehala inguratu dira hegaztiak erraien usainera.

“Yo no ze de eso, solo ze de muzica”.

Hotsak bildumatzeagatik hasi zen Pharos mendira joaten: musikaz enpo eta hiriko bizitzaz ase, saturazio puntu batera heldu zen une jakin batean. Aspertu egiten zuten musikari eta talde guztiek. Dena egiten zitzaien ezaguna, errepikapen hutsa, nardagarria. Ezerk ez zuen jada asebetetzen. Bere Dylan kuttuna ere, garai batean hain estimatua, ezin zuen jada entzun, ez haren kanta zaharrak eta ezta berriak ere. Sustraie-tara jo eta soinu organikoen bila hastea erabaki zuen orduan, Imanoli azaldu dionez. Halaxe deskubritu zuen *berrea*: “Oreinek arraldi garaian ateratzen dituzten marruek”, esan dio, “ez dute parekorik munduan”. Aspaldiko oihartzun bat ekarri dio orbel okre lehorra-

ren usainak Imanoli: “Basoko bizitza ez-hain-basatia eta basoko bizitza guztiz basatia”.

Gauetz joan beharra zegoen, ezkutuan; eta zain geratu. Batzuetan azaltzen ziren eta beste batzuetan ez. Batzuetan entzuten zenituen eta beste batzuetan ez.

“Kanta onekin bezala, orduan”.

“Hain zuzen”.

Amuarrainen errairik ez da jada harri zapalaren gainean geratzen, salda likits bat baino ez.

“Badakizu, Jean? Behin ahate bat lepomoztear izan ginen, baina ez genion lepo-zintzurrik aurkitu... Arazoa ez baita ahatea lepomoztea, ahateak lepoan zintzurra izan dezakeela sinetsita eztarrian haren bila hastea baizik. Ez zaizu iruditzen?”.

“Nuez de Adam? Un canard? Je ne comprends pas...”.

Ilunabarra da Legutioko ubideko xenda batean barrera basoan sartu direnean, motxila ttipi batean ogi-tartekoa, urez betetako kantinplora aldean eta frontala kopetan. Labana bat eta sasia apartatzeko hurritz makila on bat, ez dute besterik behar. Fakirrak bere buruari basoaren erdian zer arraio ari ote den galde-tzen dionerako, beranduegi da. Lehenago atera behar

zituen kontuak. Ez du Pharosi ezetz esateko indarrik izan; orain, haren menpe dago erabat.

Ezkutatu egin dira, sasi artean, haizearen kontra-ko norakoan, oreinek susmorik har ez dezaten. “Usaina hartzen badizute, akabo: uxatu dituzu. Gaua basora etortzen denean zeu zara menderatua, kasu: ez dituzu ikusten, baina animalia begi asko sentitzen dituzu zuri begira, sentsazio beldurgarri ederra da”. *Effrayant*, hitza erabili du Pharosek.

Beti bakarrik etortzen dela esan dio. Salbuespen bat egin duela berarekin. Lehen aldia dela *berrea*-ra norbait ekartzen duena.

“Ez da edonorekin konparti daitekeen zerbait”, erantsi du.

Fakirrak pribilegiatu sentitu behar luke, baina horren ordeztu, nekatuta eta hoztuta baino ez da sentitzen. Heze-heze ditu oinak, salda izoztuan sartuta babilu legeztu. Kalekumea da bera, ebidentzia hori frogatzeko ez dauka Gorbeiaraino etorri beharrik, barren. Boterea galdu duzula sentitzea gustatzen bide zaio Pharosi, hala entzun dio. “Sometitua izatea”. Belarrira ari zaio, ia-ia xuxurlan. “Eta batzuetan, ez beti, ez gauero, orein ar bat, burua galduta marru batean entzuteko aukera izatea”, jarraitu du. “Lauhazka urduri

bat, zure kontra datorkeen erasoaren ustezko mehatxua. Ez da benetako mehatxua, jakina. Ez dator inor zure kontra. Eta marru berriro, altan den oreinak... Arra, burua galduta, eme gose, gainerako arreakin lehian”.

Eskopetaren zorroa zabaldu du. Fusilik ez: mikroaren pertxa atera du handik, eta ordezkotako bateria.

“Ez zenuen ba usteko benetako eskopeta bat zenik, ala?”.

Belarri pribilegiatua izan du beti Pharosek, baina ez daki oso ongi azaltzen zerk erakartzen duen berrea sasoian. Basatia eta aspaldikoa den zerbaiten lekuko izateak? Azken milaka urteetan aldatu ez den zerbaiten testigu? Taupada berdadero bat bilatzen du, bizitza osoa plastikozko kantari arimarik gabeak, imitazioen imitazioak eta triki-pop disko mortal aspergarriak grabatzen igaro ostean? Zerbait *autentikoa*? Etsaien lurraldean sentitu nahi du, berez garena bezala, zaurgarri eta hauskor? Ttipi sentitzearena hor dago, jakina. Imanoli ere horixe gustatzen zaio. Ttipi sentitu zen Georges Brassens eta Leo Ferre lehen aldiz entzun zituenean. Ttipi Colette Magny eta Barbara entzun zituenean. Gero, huraxe opa izan zion bere buruari, haien loriara hurbildu eta entzulea ttipi sentiaraziko

zuten kantak egitea. Baina Brassens eta Ferre, Magny eta Barbara, kantari frankofonoak ziren, eta bera, kantari euskalduna, hizkuntza debekatuaren pedigria ere jada galdua zuen herri ttipi bateko inurritxo. Aldea zegoen, urteekin ikasi du hori. Hizkuntzek ere, orein arrek legetxe borroka egiten zuten haien artean, eta bata bestea menperatzen zuen, deman adarrak elkarri apurtu, edo erraiak atera eta saientzat utzi. Inork ez zintuen horretaz ohartarazten, ez zen politikoki zuzena hori pentsatzea. Ez zukeen halakorik usteko Parisko exilioan frankismoaren kontra abestu eta denek zer kantatzen zuen ulertu gabe txalo jotzen ziotenean. Baina horrela zen. Oihaneko legean lehiatzen ziren hizkuntzak ere.

“Ahotsa leizea da, zure barruko leizea: kabida-dea... Barruan susmo bat daukazu, baina eztarritik ateratzen dena beste gauza bat da. Zeure buruaz dituzun susmoak baieztatu edo gezurtatu egiten dizkizu ahotsak. Gitarra? Pianoa? Horiek jotzea teknika menderatzea da. Sentsibiltatea? *Bien sûr*, bai: baina funtsean teknika, *c'est tout*. Musika-tresna bat jotzea, bon, oso ongi dago hori. Baina ahotsa menderatzea lortzen baduzu, zeure barruko arrankea menderatuko duzu, temperamentua kontrolatuko duzu. Barruko piz-

tia. Dagoen gauzarik zailena da hori: norbere ahotsa bridatzea. Onenean, belaunaldi baten sabel-hiztun bilakatzea. Haien ordeztu abestea. Ulertzen? Zuk lortu duzu hori guztia, Imanol". Jean Pharos ez da gorazarre merkeen zale izan sekula. Basoaren erdiraino bera erakarri eta hura esan izana ez dio sekula aski eskertuko.

"Ez dakit zer esan... Hitz egin duzu Sixtorekin honetaz inoiz?".

"Bien sûr... Sixto, un pianiste exceptionnel... Ezberdina da. Bera gai delako piano bakoitzari duen ahotsa ateratzeko... Baina zuek, kantariok, beste gauza bat zarete... Horregatik zarete hain zailak arrastoan sartzen".

"Arrastoan sartzen zailak, gu?".

"Ondo dakizu hala dela. *Sois delicadoz y mimoz*".

Arrastoan sartzearen abantailak dauzka agian Fakhirrak buruan. Mahats bilketa, *"Nos vamos a repartir los surcos de la siguiente manera"*. Bere bizitzan lehenengoz, nekatuta dago. Amore ematear.

Orduan darama hatz erakuslea ezpagnetara Pharo-
sek. Tinko heldu dio mikroaren pertxari. "Sssh... *Bouge pas!*". Adar kraskatuen, sasi igurtzien eta orbel

heze zanpatuaren hotsak, bila etorri diren huraxe, hain zuzen: ezeren antzik ez duen oreinaren marrua. “Batzuetan borrokak ere grabatu izan ditut”, xuxurlatu dio Pharosek, “bi ar muturka, bata besteari adarrak txikitu arte”. Mina, desesperazioa, amorrua. Orein umiliatua nola doan sasira bere burua hiltzen uztera, adarra burutik zintzilik, herren koitadu. Gizakiaren eta hizkuntzaren aurretik paratzen diren hotsak. Eta, agian, gizakiaren eta hizkuntzaren ondoren ere iraungo dutenak. Berrea. Tatianarekin Louvren ikusitako Gericaulten zaldiekin gogoratu da. Nola ez den infanteriako gudarosterik behar Waterlooko beldurak eta frakasoak adierazteko. Nola tximista batek zaldi beltzaren angelu eta gihar guztiak segundo batez argitu eta haren izua azaltzea aski den. Gero, iluntasuna itzultzen da berriro. Antzekoa izan da sentipena, baina betsarean barik, belarrietan zizelkatuta geratu zaio egiaren ulermen puska hura Imanoli. Orein arrak emea erakarri eta gainerako arrak uxatzeko egiten duen deiadarra. Elikatzeko egiten ez dena seduzitzeko egiten denez: edoskitzea ala libidoa, ez dugu beste bulkadarik.

Argitasun une haren ondoren geratzen dena beste zerbait da, ordea. Norbere memoria, norbere konta-

tzeko gogoa edo norbere isilik egoteko eskubidea. Fakirrak, antzoki batzuetan, noizean behin, bizi izan du hori. Tximista baten iraupena duen argialdia, printza-ren sastakaia, isila eta trumoirik gabekoa den zerbait, bere ahotsari esker segundo batzuk irautera irits daitekeena.

Merezi du kantari izatea hori bezalako uneen bila aritzeko. Hurrengo tximistari itxaroteko. Hurrengo irrikatu eta haren bila setatzeko.

TIMBUKTU

Garaiari dagokion bolada: grabazio estudioak zibilizaziotik aldentzen hasi dira 90eko hamarkadan. Ez dituzte jada hiri erdian kokatu nahi, ezta aldirietan ere; tentagarriagoa zaie lau sosen truke eskura dezaketen eskualde apartatu bateko etxalde handiaren lasaitasuna. Behingoagatik, orkestra oso bat sartu ahalko dute gela batean eta denak batera grabatu, hala nahi izatera. Baxua-bateria-gitarra-ahotsa lauкоaz haragoko anbizio sinfonikoak, soinu bandak grabatzearen fantasia, hamaika mikro sentsibilitate handiko eta beste hainbeste sarrera mahaian, txaston-tinbal-bonbo-plateren ñabardurak ehizatzeо батарея bakarrari sei-zortzi mikro jartzeko aukera, oihartzunak eta psikofoniak egiteko erabiltzen dituzten jostailutxo sofistikatuak, “eta gizona ahots egin zen”. Soinu ehiztaria da Pharos, hotsen druida. Ekualizazioaren apar koloretsua gora eta behera, nibelak berdindu eta *reverb*-a sartu. Masterizatu. Asko du sineskeriatik. Fede kontua da doinuak igurtzi eta beza daitezkeela uste izatea. Mundu digitalaren lilura, aberats berriarena, heldu da:

lehen koloretako zelo zatiekin egiten ziren trikimailuak ordenagailuaren xaguari klik eginda erdietsi ahal dira orain.

Francis Ford Coppolaren *The Conversation* da Pharozen film kuttuna. Beti izan du Gene Hackmanen sindromea, espia eta alkimista aldi berean izateko boka-zio zoro hori. Izen handiko audiozelataria da Gene Hackman, horregatik da entzuketak egiten ote dizkio-ten beldur. Ehiztari ehizatuaren parabola: etxeko lur eta enpapelatu guztia txikitzen du ezkutuko mikro bila. Ez du batere topatzen. Jazz diskoak entzuten eta saxoa jotzen geratzen da bertan, burua galduta, baina egon badago mikrorik non edo non, berak aurkitu ez arren: hots egiten diotenean, telefonoz bestaldetik jartzten diote bere etxean istantean grabatzen ari direna. Soinu bukle zoro horrek ixten du gidoia eta protagonistaren patu paranoikoa.

Zurrumurrua joera bihurtu da derrepente: halakok baserria erosi eta egokitu duela, beste hura bere bizitza guztiko bikotekidearekin harremana apurtu eta mendi puntara etorri dela bizitzera bere grabazio mahai eta guzti. Karratu estudioetako soldata segurua laga eta bere kabuz dabilela Pharos, hegaztien hotsak eta mendiko zaratak grabatzeko mikro berria ekarri

diotela Alemaniatik, musika gero eta gutxiago interesatzen zaiola eta hotsak gero eta gehiago; kanpando-re batetik bestera ei dabil herri guztietako kanpaikadak grabatzen. “Pharosen harrikadak”. Hala ere, adiskideei laguntzeko prest dago oraindik, jarraitzen du tarteka sos batzuk ateratzeko “disko konbentzionalak” grabatu eta lagunei zuzenekoetan teknikari lanak egiten, bere betiko esaldi lapidarioekin musikariak izutzen: *“Miz cabezas de ziervo... Zi tocas miegda, sale miegda”*.

Bide sigi-sagatsu estu bati segika iritsi dira Pharosen etxera. Paraje harrapagaitzetan diskoak grabatzea bada boladakoa, hauxe da lekua. Konbibentzia petoa, emakumezkoak gutxi eta, etortzen direnean, deseroso hain giro maskulinoaren erdian. Inork izatekotan, Ainara Irazokik izan zuen haiekin pazientzia, eta hark ere, aspaldi alde egin zien nazkaturik Rotterdamera.

Astebete musikariak musikariekin bizitzen, buruan kantak ondu eta grabatzea beste ezer ez dutela. Edo lehenbailehen bukatu eta zibilizaziora jaistea, berriro ere larrutan egin ahal izateko. Diskoa grabatu bitartean ez dute gizonezko kantariak eiakulatu behar: txori herratuak direnez grabeak, isurketa bakoitzeko

ahotsa oktaba erdi jaisten zaiela dio sinesmenak. Abantailak baino ez ditu isolamendu hark. Lan intensiboaren etekina bilatzen dute, kontzentrazioa. Eran-tsi horri soinu-mahaiaren ondoan siesta egitera ohitu-tako zakurrak edo katuak kontrazaletan agertzeko au-kerak pintoreskoa. Gaez afaldu eta txiste matxistak kontatzen dituzte ("kontatu dizuet inoiz Arnau, Terra Lliureko nire lagunarena?"), telezaborra ikusten dute, egiptologiari buruzko dokumentalak... Behar baino be-randuago hasten dira beti lanean, baina hori da rock and rolla, ala? Munduaren anabasari begira akordeak desorduetan sartzea. Zentzurik ez duenari zentzua ematen saiatzea, eta, ahal bada, astindu bat. Zibiliza-ziotik apartatuta egoteak gutxitu egiten du bisitari bazternahasleen tentazioa, bai eta zibilizaziora jaiste-ko musikarien gogoia ere. Interferentzia eta intromi-sioa, kontrolpean. Bada dioenik taldeek bereziki esti-matzen dutela nekazari ingurunean kokatutako estu-dioen kontu hau, desintoxikatzen ari direlako musika-rietako asko, edo modu errealista eta pragmatikoago-an esanda, droga mendekotasun bat edo beste albora uzteko ahaleginean, datorren droga berriari lekua egin ahal izateko gero. 70-80ko hamarkadetako diskoetako asko ketsuak eta psikodelikoak iruditzen zaizkie orain

entzunda, disonantzia eta ausarkeria ederrez josiak daude, ez dira batere ortodoxoak. 90eko hamarkada-koak, ordea, soinu aldetik hobeak izanagatik ere, zurrunagoak izaten hasi dira, korrektuegiak; elkarren antz gehiegi dute disko guztiek.

Erretiro izpiritual hauen errendimendua erdibidean geratzen da ia beti. Isolatuta egongo direla jakitun, beti dago musikarien artean sartzekoa etxetik dakarrenik, nahikoa eta sobera –“grabatzen hasi eta bate-re gabe geratzea besterik ez diagu behar!”–. Lanaz eta keaz harago (“Nola ez duzula The Magnetic Fields entzun?”), trantsittoa eta eskualdatutako diskoen zenbatekoa da ederra. Afalosteetako elkarrizketa lebitati-boak eta gosaritako elkarrizketa hondo ozeanikoeta-koak, lotsaren otordua denez gosaria: presio atmosferiko egoera ezberdinetan elkarrekin eztabaidatu, konfidentziaren bat trukatu eta datorren urteko diskoan azaltzeko moduko trikimailuak konpartitzean sentitzen zara ingurukoak sokako. Pharosek eskatutako soinu geruza hori lortzen duenean, kasu, haien arteko gutxieneko izendatzaile komuna zein den esatea nekeza suertatzen den arren, salda berean egosten den giza-talde batekin senidetuta sentitzen dira, itsaso bereko arrain.

Musika akuatikoa dago, izatez, modan, Bristoldik datorren *trip hop* musika, Massive Attack, Morcheeba, Portishead, Tricky... Sekula eguzkiaren izpirik ikusi ez duten ahots eme ospelak, tristeziaren bizioaren menpeko. Imanolek, berriz, bere frantseskeria, erromantze eta koblakari estiloari leial jarraitzen du, eta Pharos frantximanta pozik horrekin ("*deberiaz pensarte lo de...*"; "ezetz ba, ez dudala sehaska kantarik grabatuko!"). Horregatik gustatzen zaio Pharosi hainbeste, modak bost axola zaizkiolako, bere ahotsaren ardatzari fidel eusten diolako Imanolek. Fakirra leku berean dago beti. Mundua da lekuz aldatu dena, ez bera.

"Ez duzu grabazioa berriro entzun nahi?".

"Ez, Jean. Badakit ongi dagoela. Zer profesional klase nintzateke bestela?".

Lehen diskoa grabatu zionean aspertu arte entzuten zuen harraldi bakoitza, behin eta berriz. Bai eta gainerako guztiei akats bila entzunarazi ere. Orain, aldiz, ez du grabatutakoa behin ere entzun nahi. Bere ahotsaz ere aspertzen ari dela esango luke Pharosek. Utzikeria da, nekea, dezepzioa? Itxura, ez du onegia: begi ertzak rimmelez margotuak eta foulardak lepoan beti, *vedette* zahar baten traza hartzen ari da. *Vedette* bat, bizar eta guzti. Segurtasuna irabazi du Faki-

rrak eta eztarriko potentziagaldur. Deus ez larria, hala ere; deus ez Pharos aztiak bere aztikeriekin konpon ez dezakeenik.

Aurreikusitako epeetan egin dute diskoa. Karratu estudioek argitaratuko dute, baina nahiago izan dute mendi puntan grabatu, Pharosen estudio berrian. Horren prezioa, jakina, Pharosen teoriak entzun beharra da:

“Kobazuloetako bisonteen irudiak ikusten ditugun bezala entzungo ditugu egunen batean kobazulo horretan esan ziren hitzak. Marka ulergaitzak zirenak marka entzungarri izango dira, hizkuntza ezezagunak, murduskatutako hitzak, neanderthalen larru-jotzeen uluak eta bortxazko oldarraldiak entzungo ditu noiz-bait audio laborategi batean norbaitek. Geure tresnak aski sofistikutzen direnean, hotsek eta bibrazioek objektuetan garai bakoitzean utzitako arrasto gaur egun atzemangaitzak ehizatuko dituzte arkeologo musikalek... Egunen batean zaharkituta geratuko da esaldi hau ere: «hormek hitz egingo balute». Hormak hizketan hasiko baitira, egiaz. Umeak bezala zezelka lehenbizi, filosofoen buru-argitasunarekin gero. Ez baitira hormak mutuak baizik eta gu haiek diotenarekiko gor... Oihartzuna hor dago. Norbaitek horma hauen ar-

tean behin esandako hitzen oihartzuna. Esaten ditugun hitzak ez dira inora joan: pausatuta daude non-bait... Agian zuk ere badaukazu tostadora bat, *n'est-ce pas?*”.

Imanolek ez daki galderari nondik heldu.

“Tostadora bat?”.

“Ez derrigorrez nirea bezalakoa, ez derrigorrez pis-tatxo eta zilar kolorekoa, ez derrigorrez horren zaharra... Agian objektuek hitz egingo duten egunaren zain zaude zu ere: goizero, ogia txigortzean, ez zara kontziente grabagailu sofistikatuaren parekoa datekeela tostadora hori. Etxeko sukaldean esandako guztiak hortxe geratzen direla itsatsita, kutxilloz zuhaitz baten enborrean egindako maitasun deklarazioak bezain agerian aski belarri zorrotza daukanarentzat, mundu mikrokosmiko batean, tximeleta nano eta lokartuak, noiz esnatuko zain, lozorroan...”.

“Nire ogi-txigorgailua grabagailu bat dela esaten ari zatzaizkit, Jean?”.

“Jakina! Tostadora inerte horri begiratzen diozu, txigortzen duzu ogia behin eta berriro, eta ezin diozu txigorgailua grabagailu bat dela pentsatzeari utzi, *play* botoia sakatu nahi zenuke beste norbaitek egin dezan baino lehen, baina ez duzu *play* botoirik atze-

maten ahal... Eta, halere, badu! Grabagailuek ere galduko dute egunen batean beren eskusibitatea, ez-deus bilakatuko dira diskoteketan gordetako diskoak, biniloak, CDak, artxibo elektroniko oro geratuko da zaharkitu, barregarri, zabor sinbolikoaren pare. Pentsatu honetan: demagun altzarien gainean pausatzen den hautsa dela ahotsa...”.

Telmo Soniarekin bizitzera joan denetik, ez dute Imanolek eta biek horren sarri elkar ikusten. Amaitu dira jazz kontzertuak eta Colette Magnyren *Transit* diskoaren azal lizunari begira egindako entzunaldi konpartituak. Amaitu dira elkarbizitza desordenatua eta desamodiozko konfidentziak, gauero elkarri esandako hitz bihotz-altxagarriak. Fakirra pozten da bere lagunaren zorionagatik, baina ahalegin berezia egin behar du pozteko. Ez da inori txarrik opa diogunik, baina ezagutu genuenean zoritxarreko zen laguna, ezagutu genuenean konplexu baten eraginpean bizi zen laguna, ezagutu genuenean malenkoniaren kareletik erortzeaz zegoen laguna, hura, beti nahi genuke karikatura fosil, desesperazio puntu hartatik gertu disekaturik: haren zoritxarraren edo joera ezkorren ispiluan ikus-

ten ginen gu abantailan edo enpatiko, haren konplexuaren orbita neurotikoa uxatzea gustuko genuen neurri bateraino, malenkoniaren karelaren arriskuetatik alden zedin gure eskua irmo heltzeko eskaintzeak sentiarazten gintuen zintzo eta baliagarri haren ondorian. Zoritxarreko zena baikor-zoriontsu bilakatu bada, konplexua erotik gaingitu badu, malenkoniaren kareleri bizkar eman badio bere kasa -edo, are, baita geuri esker lortu balu ere putzutik irtetea-, ezgai edo deseroso senti gaitezke aurrerantzean nortasuna indartu zaion lagun horren alboan, eta, hau geure buruari sekula ez aitortu arren, laguntza lar eman izanaz damu. Zoriona opa genion hurkoari, noski opa geniola, opatuko ez genion ba! Ez, ordea, betetasuna irradiatzen duen zorion itsugarri hori. Benetan hauxe desio dugu: bere nortasunari gure begietara ustez xarma damaion tara edo gabezia horretaz ez dadila, arren eta mese-dez, sekula erabat askatu eta desjabetu. Lagunaren jarrera aldatu balitz, sendotu balitz munduan egoteko bere modua, geure harekiko jokamoldea ere -a zer nekea- egokitu egin beharko baitugu, eta amorragarria da hori amorragarria denez, etxetik prestatuta ez genekarren ahalegin eta elkarrizketagai esparru ezberdina eskatzen baitu, izpiritu eta animo aldaketa,

geure nortasunaren epeltze estrategiko ez-beti-gustu-koa. Batzuetan lortzen dugu esparru berri hori zabalduko duen portaeraren tenplantza; beste batzuetan, ez. Batzuetan eroso sentitzen gara rol berrian; beste batzuetan, barregarri edo aspergarri egiten zaigu inguruabarrak aldatzeak ezarri digun paper berria. Ez da inori txarrik opa diogunik, ez, baina garapena eta hobekuntza, sendabidea eta indartzea, kemenaren goraldia eta bozkarioa, gauza daitezela tamainan geure adiskideengan, geronen neurosi, zorigaitz eta zoriaren orbitarekiko distantzia paraleloak gehiegi aztoratu gabe, proportzio batzuen barruan beti. Autodefentsa kontua izan liteke, baina norberak ere antzeztu egiten du bere lehengotasuna sarri: gogorik izan ez arren nigandik espero duzuen juergazalea izaten segituko dut zuen ondoan, nigandik espero duzuen beldurtia izaten segituko dut, nigandik espero duzuen elbarri sentimentala... Edo estrategia dosifikatu batekin aldatuko naiz, aldatzekotan: osasun arazoengatik eta apurka-apurka utziko diot parrandari, nire beldurrik eza beldur berriekin konpentsatuko dut, zuen aurrean komeni baino indartsuago ez agertzeko -badakit eta, beldurti naizelako eta beldurti naizen heinean nauzuela maiteago; “zer nintzateke nire afonia histerikorik

gabe zuretzat?"-. "Nire bikote bizitza pozez petoari behazuntxoa asmatuko diot, hortaz, nitaz errukitzeak ematen dizuen plazera bazkatzeko, izan dezazuen hezur bat sikiera, adiskide maiteok, golden retriever maiteok, doberman kuttunok, zuokin lotzen nauden ozpinak eta mikatzak beren orekan mantentzen daitezkeen tinko eta garratz, jolas egin dezazuen eta goza nire hezurari atxikitako haragi zatiekin grauska". Den bezain zentzugabe izanda ere, giza hezibidearen oinarritzko arauetatik lekutan izanagatik ere jokaera hau, hori dio idatzi gabeko itunak, ala? Elkar ezagutu genuen sasoiko antzezpenari eutsi behar diogula betiko. Hori aldatuko balitz eta errotik izoztuko balitz harremanaren beroa, bejondeialaka hasiko gara, esamolde trakets batek salatuko gaitu: "Doakiola ongi". Baina "doakio" horrekin, bere bizitzatik ez ezik, geure orbitatik ere aldendu egin dela adieraziko dugu, ez dela geure baitakoa eta kastakoa, uste baino gehiago lotzen gintuela miserien ukendua elkarri emateko paradak edo premiak, eta hara, ez zen ez hain egiazkoa ez guk uste bezain desinteresatua ere harremana. Hartu eta ematean datzan harreman horretan beti dago zer hartu eta zer eman, baina gutxitan da zehazki guk uste genuena hartu eta ematen dugun hori. Eta are

gutxiago hartu eta ematen dugula aitortzeko prest gaudena. Dantza guztietan bietarik bat beti da bikoteko bestea baino panpinago, eta hala ez balitz, kide biak balira kalejiran esku-eramaile eta hala direla balekite, jo dute jada existentziaren erpina. Haiei behar genieke ikasi zer den dantza eta non egin planto.

Gertatzen da lagun batzuekin Fakirrari Bekaintirorekin gertatzen zaiona; harekin mundua aldatzen saiatu izan bazara inoiz, mundua aldatzeko presa hori izan baduzu gaztaroan norbaitekin, lagun horrekin ez dagoela erdibiderik: arima biki min bilakatuko zarete urteen poderioz, edo, alderantziz, elkarren notario go-gaikarri. Munduaren erritmo mineralaren kontra zer-bait egin dezakezun ustea delako, beharbada, gaztaroa. Eta nor ez da saiatu norbere buruari azkar aldatzen dela antzeman dionean mundua azkar eta presa-ka aldatzen; nork ez du bere haurtzaroa nerabezaro eta nerabezaroa gaztaro bihur daitekeen neurri berean ingurua ere hein bereko metamorfosi basati batekin astindu dezakeela pentsatu, gizartea bere lozorrotik, bere erdi arotik, erdizkakerien arotik eta bere haurtzarotik esnarazi daitekeela eta, traumak trauma, nerabezaro zentzagarri baten ondorengo helduaro oparoan mundua sarrarazi? Gertatzen da lagun ba-

tzuekin, mundua haien konpainian aldatu nahi izan genuen adiskide haiekin, zehazki, denboragarrenera jabetzea ez dagoela halakorik egiterik; ez, behintzat, presa horrekin; ez, behintzat, mineralogia makiavelikoaren eskuliburuak arretaz irakurri gabe. Borondate on edo txarreko norbanakoa saldoaren indarrak zurrupatzen duela goizago ala beranduago, artzain on eta artzain maltzurak badirela norberak artzaintzarako edo ardi izateko bokaziorik ez izan arren, giza-motroi-loa gaitzenean eta atzerakoienean artaldetzeko dagoela genetikoki programatua, kortarako borondatea eta amore ematekoa dituela gure espezieak bere, ausardia ez dela derrigor biziraupenaren lagun, kalkulua egin duena dela garaile eta ez dena ematen duena, gaztaroaren bolborarekin agortzen dela eskuarki gale-
ra jasan eta arriskuak hartzeko borondatea. Iraultza goratu eta larrua jo genuen hondartza goxoei dekoratu gisa begiratzen diegu orain, ahitu egiten dira indarrak eta lizundu muxu iraultzaileak, amodioa gozo eta luze egin nahi zuena liseriketa leun egitearekin konformatu da, bete gabeko promesen nagikeria mingotsa geratu zaigu ahoan, mundu mineraletik gero eta gertuago gaudelako ulertzen dugu munduaren mineralitatea. Gaztetasunean mikro guztiak zabalik eta

soinu guztiak barrura doazen bezala grabaketa gelan, mikrofono irekien gau beti, *jam* inprobisatua, zinismo-tik edo eszeptizismotik ekualizatzen duzu gerora kan-poko harrabotsa, zure buru barruko mamuen korua gobernatzen nahiko lan; *selektibo* bihurtzen zarela uste duzu akaso, hau bai eta hau ez, hori da zure ali-bia, sinplifikatu egiten duzula eta gauza ederra dela sinplifikatzen ikasi eta lagun kuadrilla estutzea; amai-tu da kandelari mutur bietatik su eman eta eskua erre zain geratze inkontziente hori, ongi etorria hausnarke-ta, esperientzia, “gure garaian” hitzekin hasten den dotrina-emailaren erretolika irrigarri, paternalista; ideia handiak laga eta kuita lurtarrak ustezko duinta-sun batez egitearen neke kontrolagarria, ongi etorria. Eta, halere, gertatzen da mundua aldatzeko ezintasun horri emandako erantzuna ezberdina izatea zuretzat eta niretzat, erabat uko egitea borondate horri nik eta neurri batzuen barruan ideal horri xumekiago eustea zuk; mundua aldatu ezean auzoa aldatzeko asmoei eustea zerorrek, zen-a eta tai chi-a eta auzolana eta janari makrobiotikoa hautatzea nik; ezkaratzeko bile-retan lidergo xume batekin konpromiso ttipia seriocki hartzea zuk, ikastetxeko hezkuntza sistema zurrune-giak aldatzen saiatzea ni. Eta, gero, urteen buruan zuk

eta nik elkar ikustean deseroso sentitzea biok, zer esanik gabe, mingarri bezain lotsa-eragile izan daitekeelako batzuetan baieztatzea behiala distantzia berberetik begiratu genion utopia harekiko begirada zein gune ezberdinetan paratzen dugun biok orain. Eta utopia dioenak berdin esan lezake beste edozer gauza; esan lezake, adibidez, errutinaren kontrako gerra, poz kolektiboa, bizitzaren abaraska, larru festa, barrearen akelarrea. Eta, gerta liteke guztiz kontrakoa, lotsen eta damuen gainerik, elkarrekin maitatu eta bakarka -baina ez oso luzerako- ohaide izan genituenen gainerik, izan ditugun eta izan ez ditugun seme-alaben kolegio pribatuen kuoten gainerik, geure zuhaitz genealogikoari esker aurreikusten genituen gaixotasunen gainerik eta ezerezetik ezustean etorri diren istri-pu makurren gainerik, gurasoen endekapenak eta heriotzak ekarri digun ozenago hitz egin eta munduaren zati honen kargu egiteko obligazio autoproklamatuaren erantzukizuna ulertzeko modu ezberdinen gainerik, guztiaren gainerik eta ahalegin berezirik gabe, konplize sentitzea oraindik. Konplize, ondraduki irabazi dugula geure buruari sinetsarazi diogun diru pixar erabilgarriaren eta mailegatu edo herentzian jasotako sos gizen zarrastelduen gainerik, modu naturalean eta

berez, barrutik hala ateratzen zaigulako, kamarada zaharren arteko leialtasun horri eustea, begiradan brillo bat, baita telefonoz deitzen dizutenean ere, ahotsak salatzen duen begietako brillo bat: “Oraintxe noak, zer behar dun, pozik gainera, nahi duanean etorri, hemen beti izango duk ardo botila bat hiretzat, Centraminaren bat akaso geratuko dun armairuan, faborez, hator eta to, izara garbiak jarri ditiat, ekarri plater bat gehiago mahaira, gorde itzak hiretzat esker horiek; noski, Trotski, horixe erabat serio ari naizela, popatik besteak, hi haiz onena, jakin behar huke hi izan haizela beti onena”.

Lagun haietariko bat da Bekaintiro Fakirrentzat. Eta Fakirra berdin Bekaintirorentzat, hala pentsatu nahi luke, nahiz Bekaintirok amaitzen duen beti aspal-diko urteotan entzulearen rolean eta kontalariarenean Fakirrak. Harengana jo du dirurik gabe geratu denean. Ez da lehen aldia eta ez da azkena izango.

“Kontzertuak aterako dituk, Juanjo, ziur baietz. Ahal dudanean itzuliko diat. Disko berria ordaintzeko izango duk... eta musikariekin dudan zorren bat”.

“Arren, Imanol: ez diat galdetu zertarako, baizik eta zenbat”.

Donostiako Kursaalean abestu nahi du. Ganbera aretoa eskaini diote, ttipia. Baina kubo handian abestu nahi luke berak, auditorioan. Programatzailearen borondatearen kontra bete dira bere nahiak: Fakirrari biktima mehatxatuaren estatusa aitortu diotenez, eskatzen duena emateko agindu die alkateak Kulturako-ei. Auditorio erdia estaltzen duen errezel beltza jarri behar izan dute, ordea, salmenta oso motela izan delako eta patio erdia baino gehiago hutsik dagoelako. Programatzaileek aurreikusi bezala, handiegia da aretoa beretzat. Gainera, ttipiegi geratzen ari da bere ahotsa areto handietarako, jibarizatzen, potentzia galtzen. Lasarte-Oriako Udaletik jaso du deia hurrena Ana Parientek. Diru asko, kontzertu baten truke. Nahiago luke boikotaren ur uherrak baretu arte itxoin, baina nabarmena da Fakirra sos premian dagoela, eta behingoz Labordetaren babesik gabe abestuko du, katxea osorik bereganatuz. “Sarrerak oparituko ditugu zinegotzi mehatxatuen artean, aforo duin bat segurtatzeko”, esan diete Lasarte-Oriako Udaletik. Beldur dira sarrerak doan banatu ezean ez ote den antzokia hutsik geratuko.

Leku sinbolikoa bihurtu da Lasarte-Oria. ETAk Miguel Angel Blanco Ermuko PPko zinegotzia bahitu ondoren, Lasarte-Oria utzi du, hiltzorian, xenda baten bazterrean odolusten, 1997ko San Ferminak amaitzeaz direla. Ospitalera bizirik iritsi eta handik ordu gutxira hilko da. ETAk hiltzen duen gizon-emakume bakoitzeko, samina areagotzen zaio Fakirrari. Oinazearen gainean haserre geruzak eta haserre geruzen gainean axolagabekeria ohiturati baten mintza doakio sortzen. Baina min egiten duen axolagabekeria klase hori da, azpian dituen haserrea eta oinazea baino askoz ere finagoa delako.

Kontzertuaren eguna iritsi da. Auto ofizialetan heldu dira PPko eta PSOEko kargudunak. Zinegotzi franko ere badago, eskoltarekin eta gabe. Antzoki erdia eskoltek betetzen dute, egiaz. Fuchs Soler epailearekin gogoratu da Fakirra, baina epaile madrildarren txaloak askoz zintzoagoak iruditu zitzaizkion gaurkoen aldean. Fakirra berehala ohartu da hura ez dela bere publikoa. Eszenatokiaren atzealdean, ertzainak, paisanoz jantzita. RDAko birarekin gogoratu da: “Suteren bat sortuko balitz edo”. “Orain *sute* deitzen zaio horri, Imanol?”. Orbita komunistako herrialdeen antzeko izatea amestu zuen garaian, ez zen zehazki hau bu-

ruan zeukana. Panorama ikusita, “pizgarri bat behar dut”, kontzertua hasi aurretik Cointreau botila bat eskatu dio Ana Parienteri. Anak ez dio ekarri nahi izan. “Trago bat, arren: eztarria berotzeko, besterik ez”. Agentea, ama, konfidentea, laguna, *dealer*-a. Ez dago dena izaterik. Ezezko biribila eman dio Anak. Bere bizitzan lehen aldiz, Imanol beldur da Ainarari bezala gertatuko ote zaion, afonia histeriko batek harrapatuko ote duen, eszenatokira irten orduko mutu geratuko ote den.

“Ez nazazu abandonatu”, pentsatu du. “*Ne me quittez pas*”, erregutu dio ahotsari.

Kontzertua hasi baino bost minutu lehenago Fakirra erabat mozkortuta dagoela ohartu da Telmo. “Errepertorioa aldatuko dugu”, eskatu die musikariei. Gizon lkusezinaren ondoren iritsi den piano-jotzaile gaztea izutu da gehien. Taldean sartzen azkenekoa izan da eta ezin izan dio ezezkorik eman: berak ekarri dio ezkutuan Cointreau botila eta damu da orain.

“Disko berriko kanta guztiak kanpora. Ez ditut gaur horiek abestuko”.

“Nola? Baina zergatik? Hiru aste daramatzagu entseatzan!”.

“Dena esan behar al zaizue? Ez ditudalako letrak oroitzen, kopon!”.

“Oholtza gainean utziko ditiagu folioak, irakurri ahalko dituk lurretik. Telmoren atrila erabili dezakegu, bestela”.

Paristar ttentteak miresten ditu Fakirrak, paristar ttenttea izan nahi du Imanolek.

“Ezta pentsatu ere, hori ez litzateke profesionala, Jean-Marc”.

“Letrak ahaztea profesionala balitz bezala”, otu zaio Jean-Marci. Eszenatokira edanda ateratzea profesionala balitz bezala.

“Zure tristura nabari dut, keinu partikular gisa”. Hasi da kontzertua. Esanda bezala, errepertorio zaharra jo dute. Aurrean dituztenek ez dute aldea nabarmendu, Fakirraren ibilbidearen jarraitzaile amorraturik ez baita apenas haien artean. Ez da soilik zer entzuten duzun, baizik eta norekin. Nolakoa da bizkartzainen txaloen hotsa? Profesionala, aseptikoa, instituzionala, barrenutsa. *Atrezzo* txaloa. Bizkarra txaplatzen dizuten kolpetxo hutsalen kamustasun berbera du. Sikua, paternalista eta ezaxola da. Audientzia alokatu baten txaloa, zolda sorbaldara bezala erortzen dena.

Ana Pariente suminduta dago, jakin nahi luke nork ekarri dion Cointreau botila hori. Erdiraino hustua du jada; kaltea eginda dago, baina ez du kataklismorik nahi. Botila atzeman orduko geratzen den guztia isuri du Parientek harraskan behera, Fakirra oholtzan den bitartean. Kontzertuaren lehen herenaren ondoren eszenatokia utzi du Fakirrak. Botila hutsa ikusi du orduan aldagelako zaborrontzian. Hatzak dardaraka ditu. Amorru batean kolpatu du mahaia, Anak ez du sekula horrela ikusi.

“Horrela ezin duzu jarraitu”. Zango bat autosuntsipenean eta bestea autoerrukian, esan nahi lioke.

Piano-jotzaile gazteak galdetu behar ez zuena galdetu du: “Bisik egingo al dugu?”.

“Jacques Brelek bisik ematen ez bazuen, guk ere ez”.

Kontzertua nola edo hala amaitu eta zinegotziak eta kargudunak badoaz auto ofizialetan. Gogorra da kantaldi bat amaitu eta antzokia hain azkar husten dela ikustea. Jendez husten eta urez betetzen, hondoratzen ari den ontzi-krosko. Musikariek, Fakirrarekin errukituta, ohi baino polikiago jaso dituzte euren tresnak, naufragiotik alde egiteko gogo itzela dutela gehiegi nabaritu ez dakien.

Imanolek jada ez die kontzertu eskasen ondotik bere musikariei zer moduz pasatu duten galdetzen. Bota du txanpon bat amildegiaren hondora. Bota du txanpon bat eta ez du hondora iritsi denean atera beharko lukeen hots zirkinik ere entzun. Lasarteko alkattea, zinegotziren bat eta kargudunen bat baino ez dartzio kamerinora agurtzera. Ez dute asko luzatu elkarriketa bere egoera penagarriaz jabetu direnean.

Fakirra bakarrik itzuli da Donostiara, autobusez.

Denak berarekin zorretan daudela uste duenaren zakuak erritmo bat du betetzen joateko. Kadentzia bat eskatzen du. Horretara ohitzen da bat eta deskalabrua ekartzen dio erritmoa aldatu edo eteteak. Tartean behin behar dugu saria, gozokia, azukre-kozkorra, adulazioa. Zooetan horrela funtzionatzen dute piztia kaiolatuek; zergatik izango gara gu diferente? Su hori behar elikatu, gero eta egur nobleagoekin, ahal balitz; gero eta azkarrago bihurtzen baita errauts botatzen diozuna, ez dadila pinu egurra izan, gereziandoa balitz hobe, egurraren izen noblea gorabehera, izan gaztai-nondo edo haritz, ez du asko irauten sugaiak. Laudorio bat konbustio geldokoa, hori bai ona: olibondo

mutur bat balitz, bikain. Behin jaso duzu laudorio bat urliarengandik, ezustekoa, aitortza eskergarri bat, ez zen aurrez sekula gertatu, zintzoa iritzi diozu, zure diskoa gustatu zaiolako eta ezin duelako azken boladan “zure diskoa beste ezer” entzun. Tira, apur bat puztu du kontua, baina ados, “serio, zure diskorik onena da”, hartuko diozu, erreserbekin bada ere onartuko diozu, eta intentsitate baxuko orgasmo baten oihartzun urrunaren gisako kilima sentituko duzu hori aditzean. Jakina, ez da orgasmoaren oihartzuna, gauzak puzten ari gara, orgasmoa baino errazagoa da kilima hau jendaurrean disimulatzen: “Eskerrik asko, eskerrik asko, ez da hainbesterako. Ez naiz horren ona ere”. “Bai, bazara”. Papar eta gandar. Poz uhin bat, zentroa urrun duen arren, zure gorputzetik ez baizik eta beste nonbaitetik datorrena. Zuri ere eragiten dizu, baina kanpotik datorren poz iturri baten parte zara. Norbaitek harri bat bota du banitatearen putzura eta uhin zabal zentrokideek, zenbat eta urrunago orduan eta geldoa-go, zenbat eta urrunago orduan eta zabalago, zeure ustea kilimatzen dute gorputz guztira hedatuz. Espero ez zenuen edukiontzi baten tamaina erakusten dizute laudorioek: “Hara, kanpotik ez zuen zakuak horren handia ematen...”. Itsu baten ahotsak katedral batean

oihartzun egiten duenean bezala, “altua da egoitza hau gero”, esango dizu, hormak doi bat makuluaz ukitze hutsarekin.

Laudorioa. Orain arte bizi ahal izan duzu hori gabe; hemendik aurrera, ez. Liseriketa azkarreko piztia da egoa: behin bere jatun-irensle kontzientzia esnatu delarik, ezer ez zaio aski izango, faltan izango du elika-dosia beti. Hedakortasun hori, banitatea, euforia, zenbait drogek ematen duten lebitazio-etxafuegoa, unibertsoaren jatorrizko big-bang-aren uhin perpetua- lekin sintonian sentitzea, nola uko egin horri gizakiak bere askazian zizelkatua badu arrastaka ibili arren, apur bat bederen, hegan egiteko nahimena? Probatu ez duenak ez daki zer den hau; probatu duenak errepikatu nahi, gaurik gau. Fruitua zuritu eta hatzekin mamia ukitu. Banitate irenslea, sexu ranpantea, droga bikoizlea. Hirurak batera, bata bestearen segidan, edo bata bestearen orde.

Kalean da hurrengo diskoa eta ez dute irratietan askorik jarri. “Gustua ipurtzuloan zukatek hauek, Telmo”. Erresonantzia kaxa bat behar du Fakirrak eta Telmo da bere antzokia, malenkoniarako joera duen talentu handiko kontrabaxu-jotzaile konplitua. “Bai gizarte utzia, zergatik jotzen dute errazenera beti, bai

irradi kate eskasak". "Dire Straits diozu? Faborez, ez gaude umekerietarako adinean... Nor dira Duncan Dhu horiek, zergatik haiek eta ez ni, Telmo...?, Esan nahi diat, zergatik ez *gu*?". Ez da disko berriarekin hitz goxorik iritsi behiala lausengua etorri zen lekutik -ahotik, ezpainenetik... ez gutxietsi hori; elikatzeke egiten ez dena seduzitzeko egiten da: edoskitzea ala libidoa, ez dugu beste bulkadarik-. "Ez ote zaio urliari diskoa gustatu? Zergatik zigortzen nau horrela? Hau bazen ordaina, hobe sekula aitortu izan ez balit nire aurreko lana gozatu izan zuenik". Ahaztu duzu kanta oro dela *bihar*, Fakir jauna, ahaztu duzu ez zarela bakarra munduan, lagunekin eta maitaleekin bidearen zati bat bakarrik egiten dela, eta gero bakardadea geratzen dela, zerorrek horrenbeste laudatzen zenuen Antonio Machadoren "bagajearen arina"? Non dago zure harrotasuna, "mundu guztiarentzat egiten ditut kantak, baina ez edonorentzat" esaten zuen indioilar buruaski, bere buruaz hain seguru zegoena, papar eta gandar? Banitatearen piztia irensleak dena nahi du, ordea. Dena nahi du, baina edonork emandako edozerekin konformatzen da, orojale zikoitz hori. Gerta liteke, behiala deitoratu genuen norbaitek, hozkia ematen digun parasito mespretxagarrienak bi hitz goxo bata bestearen

segidan jaulkitzen badizkigu ahuldade une batean, gu prest egotea hura ere erotik maitatu eta gure adiskideen zakuan sartzeko. Zakuan edo zerrendan. Lehen laudorioa sinesten duzun unean errenditu zara eta egin du zureak. Eta hau dena, piztiari jaten eman diotzulako. Behin eman zeniolako. Benetako lausengurik ezean, gezurrezkoak. Berdin zaizu, honetaz gero. Edozein behar du ausentziak; edozer galdatzen abstinentziak.

Kritika ttipienik ez du onartzen Fakirrak sasoi honetan. Berarekin ez bazaude, bere kontra zaude. Berak dena egiten du ondo. Ez okurritu, modu ponderatuan izanik ere deus kritikatzetik; ez dizu onartuko bi iruzkin goresgarriren ondorengo ñabardura txar erdirik. Zer diogu “txar”? Objekzio epel-edukatu eta “ez-hain-on” den edozer, gorde hobe zeure kolkorako artistaren obra petoa pitzatu nahi ezean. Ez jarri bainarik haren lanari. Bere miope begiekin egingo dizu desplante, bestela, “ikusten nola jada ez zaitudan ikusten? Jada ez nago hemen! Beste nonbait nago: atzo egin zenizkidan laudorioei esker harrapatu nuen gailur hartan segitzen dut, zuk igorri ninduzun parnaso, olimpo, podium hartan, gogoratzen? Lehengo berbera

naiz, baina askoz hobea disko berri honetan, ez al zara jabetzen, ergela?”.

Eta, hala ere, badira musikariak Fakirrari buruz galdegiten diezunean esango dizutenak: “Bera gustatzen zait gehien, bere izaera, bere algarak, bere txantxak, txiste zabar maiztuak eta bere eskuzabaltasun desordenatua; bere musika, ez hainbeste”. Eta, hala ere, bada gaztigatzen duenik: “Gutarikoa izan ez baltz, oso gaizki hitz egingo nukeen berataz”. Bada dioenik emakumezale porrokatua dela -bizizale porrokatua izaki, nola ez da ba izango?–; *panpoxa* hitza erabiltzen duten horietakoa oraindik, “zer moduz, panpoxa?”, beste garai batekoa. Bada uste duenik -kaleak bere taupada propioa dauka eta zurrumurruei esker hartzen du arnasa–, gizonezkoak gustatzen zaizkiola egiaz, *armairutik* sekula atera gabekoa dela, gay erreprimetua. Fakirrak ez du sekula gorbatarik janzten, baina beti doa elegante. Bada dioenik kontraesankorra dela, baina hala ere esankorra, lagunak egiten bezainbesteko gaitasuna duela lagunak galtzen, monogamo inperfektua dela edo promiskuo gardena. Bada dioenik leiala dela, batez ere oso leiala garai bateko leialtasunekiko, baina ez horregatik bihar haiekiko leial izaten jarraituko lukeen leialtasun berriak sortzen

kamutsa; bada oraindik ere traidoretzat duenik, maitekorra eta maitatua. Tribu barrukoek mesfidatu egiten dute berataz, “zerbait nahi horrek ere Madrilen, zerbait eskaini zioten gero bete ez dutena” -*nahi du ala eskaini egin diote?*-. “Erretzen zuen su bat gehiegi hauspotu zuen eta ez da komeni hori egiterik, zaren bezain Fakir izanda ere”. Bada dioenik *matxito* bat dela, bada dioenik ahanzkorra dela, nahita ahazten duela eta ez nahigabe (nola egiten da hori?). Bada dioenik ez duela sekula ahazten, “*veleta* bat, haizeak nondik ematen dion”, bada dioenik sentikorregia dela mundu honetarako, tipula-zuritzaile batek bezala egiten duela negar. Bada dioenik berak eginarazi zituela etxe atariko mehatxu pintadak bizi zuen egoera garbiago utzi eta biktima peto bilakatzeko. Bada dioenik existitzen ez diren kontzertuak asmatzen dituela New Yorkeko klubetan, urrutiko intxaurren promesarekin lanik eman ezin dien musikariek ondotik ihes egin ez diezaioten. “Ume handi bat”, diote gehienek, “erraldoi malgua” diote askok; “baldar arina”, “*zapatones* bat”, hanka bat libertarioaren pausoan eta bestea ikusteke oraindik non; “arrano batek besarkatzen zaitu bere ahotsa entzutean, bere ondoan abestea belatzaren hegadaren pean kantatzea da, gaindiezina da haren

ahotsaren hegaldia eszenatokian”, aitortzen diote ia denek.

Eta gero, jakina, mizkinenak daude, kazetarienak, zurrumurruzaleenak, miserableenak, txarrizketaren dibisa darabilten narratzaile orojakileak. Bada dioenik hementxe diogun hauxe, esaten hain erraza dena, errazena, beharbada: “Bada dioenik”.

Xaribari da gaur gaurkoz hiriko disko-denda txukunena: LPak bistara eta entzuteko moduan daude, eskatzen dituenarentzat. Argazkia ere ederra du dendak sarreran: neska bat zuri-beltzeko eskortzo diagonalan, aurikular handiak belarrietan dituela, gozamina belarrietatik ziztatzen. Argazkiaren egilea Fakirraren hainbat diskoetako azalen egile berbera da. Xaribari disko-dendara Karratu-ko komertziala azken nobedadeak ekartzera datorrenean, material berria erakutsi dio dendariari. “Eta Imanolen disko berria?”. “A, bai, egia: autoan ahaztuta laga ditut bere LPak, barka. Oraintxe nator”. Lotsa ala kalkulua, *liotan* ez sartu nahia? Zer da Karratukoak egindako inbertsioa berreskuratu ez eta dirua galtzea nahiago izatera daramatzana? Tabernetan ez dute jada bere diskorik jartzen.

Tabernaren baten atarian bere diskoak puskatu ote dituzten zurrumurrua ere zabaldu da.

Astean behin afaltzen du Enrike Larrearekin. Norbait inguratzen zaie tarteka:

“Oraindik bizirik hago?”.

Esan nahi baita, ez daukala honek zerikusirik beste poz adierazpen hauekin: “Bizi al haiz!”, “Bizi direnak azaltzen direla!”. Ez, ez da hori, guztiz bestelakoa baizik. Mehatxu sotila, adierazpen inozentea izanik ere azalean: bi aldiz kolpatzen du konstatazio hutsa dirudien horren azpitaupadak, mehatxu ustez sibilinoak. “Akabatuko haugu” esatea baino gogorra goa da batzuetan “Oraindik bizirik hago”.

Enrikek aurre egin nahi lioke mehatxuari, “nor haiz hi gu bakean mozkortzen ez uzteko?”. Imanolek, ordea, amorrua etxeko apalean aspaldi utzita, eskua ipiniko dio sorbalda gainean: “Utziok, Enrike: ez dik merezi”.

Bezperan ekarri du egunkariak: hamabost urteko kartzela zigorra bete ondoren aske geratu da Seiko.

“Ezagutzen duk, ezta?”.

“Teklas, Seiko... Denak ezagutzen ditiat. Denok ezagutzen diagu elkar”.

“Hamabost urte egin ditik barruan”.

“Kontra nagok ni”.

“Kontra? Nola kontra?”.

“Kartzelen kontra. Inork ez likek espetxean egon behar”.

Enrike, Sarrionandiaren ihesari buruz galdetzeko-tan egon da une horretan, azkenean ausartu ez bada ere. Pentsatzen du Imanolek arrebeekin igaroko duela Gabon gaua, baina esan dio ez daukala inorekin egoteko aldarterik. Etxera gonbidatu du orduan, “nola pasako duk Gabon gaua bakarrik?”.

“Ezagutzen al duk pianistaren bat, Enrike?”.

“Berriro gabe geratu haiz?”.

“Salsa talde batera alde egin zidak azkenekoak”.

Telebistan Eguberrietako kanta hasi direnean ere ez da oraingoan animatu.

“Ez Gabon eta ez Urtezahar. Aurten ez zidatek telebistatik kantatzeko ere deitu”.

“Urtero ezin”, kontsolatu du Enrikek. Ez dio esan ez zitzaiola sobera gustatu joan zen urtean sopranoarekin egin zuen saioa. Badaki halako glamour printzek bizia hauspotzen diotela Fakirrari: aktore baten besotik azaltzea argazkiren batean edo soprano baten ondoan egotea minutu batzuez telebistan. Gustatzen zaio Parisen ezagutu zituen loriak aldian behin berri-

tzea, Paco Ibañezekin edo Georges Moustakirekin duen harremanaz jardutea. Azken aldion Fuchs Soler epaileari buruz hitz egiten du asko. Eta Joaquín Sabínari buruz. Baina gero Madrilen kontzertu bat eman eta jaso gabeko gonbidapenen gutun-azalak ikusten ditu txarteldegian; han dago Joaquín Sabínarena, uki-gabe. “Ez da etorri”, esango du, eta etorriko zen esperantzarik batere ez zuten bere musikariei arima eroriko zaie oinetara kantaria txikikeria horregatik abailduta ikustean.

Bete ahala hustu dituzte xanpain kopak, txin-txin eta *santé*. Gutxi iraun du burbuilen eferbeszentziak, ordea: armairuko likoreen graduazio guztia beharko dute gaur txakalaldia gainditzeko. Enrikek galdetu nahi lioke azken aldian pasatu zizkion bere poemetarik bakarren bat gustatu ote zaion, kantagarriak ote diren, abestuko ote duen bat edo beste hurrengo diskoan, aurrekoan egin ez zuenez gero.

“Ez gaizki hartu, Enrike, baina azken aldion nahia-go ditiat hildako poetak, bizirik daudenak baino”.

Leioa ireki eta neguaren ziorra aurpegian sentitu beste aukerarik ez zaie jada geratzen, urte berria aza-lean geruzatuta gera dakien nolabait, geruza haietan

bereizten saiatzeko gero zer dakarren zehazki berritik, eta zer, zehazki, hotzetik.

Telmok eta Soniak herri sarreran utzi dute Imanol, Berako lagun musikariak bisitatzera doaz haiek eta bazkalostean bila pasatzekotan geratu dira. Doneztebe ondoko bide galdu batean gora abiatuta dago baserria. Atarian zain du Seiko eta urrunetik egin dio ongi etorritzat edo agurtzat berdin balio lezakeen keinu traza hori.

“Aspaldikoa”.

“Bai aspaldikoa ere”.

Tatianari buruz galdegin dionean, Imanolek erantzun dio ez daudela jada elkarrekin. Aspaldi utzi ziotela. Oso aspaldi.

“Parisera itzuli zen?”.

Ez dauka hil zela aitortzeko indarrik. Are gutxiago, haren ezkontzan eta hiletan egon zela berriz kontatzeko.

“Beti ari gara separatzen”, bota dio Seikok. “Hori ikasten dugun unetik aurrera ez dago gehiago ez tentsio eta ez galera sentipenik. Bizitza aldentze bat da: jaiotza separazioa da, inorengana hurbiltzea separa-

zio bat da, lehen geunden lekutik, baina baita hurbildu garen pertsona horrengandik ere...”.

Iluna deritzo Seikoren barbaroari. Kartzelatik aldatuta atera dela dirudi. Aldatuegi agian, Imanolen gusurako. Beharbada gehiago gustatzen zitzaion betiko Seiko gogorra, atea baimenik eskatu gabe zeharkatu eta erabakiak hartzen zituen, ordu txikietan abisatu gabe ohean esertzen zitzaiona; Seiko berriak Fakir berri bat galdatzen duelako, agian, eta etxetik pentsatuta zekarrenak ez duelako jada balio egoera honetan. Baina akaso arrazoi du Seikok. Imanol, gutxienez, beti ari da separaten: bere pianistengandik, bere bikote-kideengandik, inoiz besarkatu dituen talde politikoetako militantzia guztietatik... Indibidualista delako gertatzen zaio hori? Berekoia delako ala zintzoa delako? Pentsatzen duzuna esatea delako lagun berriak egin eta zaharrak galtzeko modurik ziurrena? Cartierretik, *Carti*, Casio edo Omega, eta azkenean Seiko, tenporizadoreak egiten zituen gizonak, begietara begiratzen dio, ezkutatzeko deus ez balu bezala. Doneztebeko aire garbiak biluz sentiarazten ditu biak, eta apur bat deseroso.

“Garantia bila etorri bazara, nik ezin dizkizut eman”.

“Ez niri iseka egin: ez nator horretara”.

“Zertara, orduan? Arakisena jakin nahi duzu?”.

Arakisen etxea, Arakisen gela, Arakisen ohea, Arakisen liburuak. Trukatutako gutunak. Orain, lorratz bat baino ez da.

“Pellorekin harremanik baduzu?”.

“Fabioarekin? Ez, aspaldian ez”.

“Zuk erakarri zenuen zure aldera, zuk sartu zenuen asuntoan”.

“Zer esan nahi duzu horrekin? *Asuntoan* norbera sartzen da. Zu sartu zinen, eta zeu atera, ala Bekaintiro egingo duzu orain erantzule?”.

“Gure aldean oso gaztea zen Pello, ordea... Ez zara erantzule sentitzen?”.

“Erantzule”, xuxurlatu du hasperen artean Seikok, baina ez du erantzun.

“Burges txikiena zen gure iraultza. Ego gehiegi eta intrantsigenteegiak denok... Baina ez zen hori izan Pello helarazi geniona”.

Geniona. Plurala erabil daiteke, errukiagatik ere, inori ezer leporatu beharrean norbera zakuan sartuz. Hala egin du Fakirrak.

“Oraindik ez genekien, Imanol. Ez genekizkien gauza asko. Beste sasoi bat zen”.

Zer geratzen da sasoi zaharretatik sasoi berrietan, sasoi zaharrak azaltzeko ezintasunaz haraindi? Te beltz bana hartu dute baserri atariko harrizko eserlekuan, eguzkiak aurpegia laztantzen dien bitartean. Egorik gabeko eguzki izpiak direla otu zaio Imanoli, haize leunarekin bat eginda datozenak.

Aitortu behar du gauzak egiteko zehaztasuna mantentzen duela Seikok: keinuaren zorrotza te poltsatxoaren pendulua tantarik erori gabe katilutik erretiratzen duenean. Hatzak, urregilearenak ditu oraindik, erlojugilearenak. Bixar eta biek hori konpartitzen zuten, batak tenporizadoreekin, besteak pasaporteeekin. Hori baino ez? Egia esan, Imanoli zaila suertatzen zaio Seikoren hatzek haren bizitza berrian zer engranaje birarazi ote lezaketen pentsatzea. Eskumuturrean, behintzat, ez darama erlojurik. “Berriro ikusi nintuen nire lagunak: ausentzia luze baten ondoren berriz ere harremanetan sartzearen plazer eskisitoarekin goxatu nintzen, berriro lagunak epaitu eta lagunak zu epai zaitzaten plazerarekin”, esanarazten dio Hadrianori Marguerite Yourcenarrek. Fakirrak Tatianari esker buruz dakizkien pasarte haietariko bat da.

“Gogoan duzu Trebiño enpresaria?”, harrigarria egin zaio aipamena, ezerezetik etorri da. Jakina, Ima-

nolek ongi gogoan du hogei egun bahituta eduki ondoren hil zuten gizona.

“Botazioan parte hartu nuen nik. Ondo dakizu nola zen kontua: ahitu arteko elkarrizketa kontsentsuaren bila, eta, adostasunik ezean, botazioa. Familiak ez eizekukan eskatzen zitzaizkion berrehun milioi pezetak. Badakizu zein izan zen botazioaren emaitza?”.

“Harritu nazazu”.

“Bi bozka familiak eskaintzen zuen dirua onartu eta askatzearen alde, hiru ez onartu eta hura hiltzearen alde, abstentzio bat”.

Labana gertu eta lepo-zintzuraren bila ahatearen lepoan laztan.

“Ikusten dut nola begiratzen didazun, ondo dakit nola begiratu izan nauzun beti...”.

“Disparate bat da”.

“Pentsatuko duzu begi kliskarik egin gabe eman nuela nire bozka... Hori uste duzu? Seiko gupidagabea, Seikoren errukirik eza... Berdin damutu nintzen hartutako erabakiarekin, egia. Abstenitu egin nintzen, ordea”.

Bestela bezala begiratu diote elkarri.

“Ez dakit baiezkoa eman zutenek nola bizikoduten, baina ni, hura hiltzeko agindua nik bakarrik

eman banu bezalaxe sentitzen naiz, ulertzen? Ez daukat nirekin batera bozka berbera eman zuen beste inoren babesik, ezin dezaket deus konpartitu inorekin, ez nuelako bere garaian zirt ala zart egiteko ausardiarik izan. Bakarrik geratu nintzen deliberorik ezean. Hartutako erabaki batek bizitza osoan jazar zaitzake..., baina ni, orduan hartu ez nuen erabakiak jazar-tzen nau. Baiezkoaren alde eman izan banu bozka, bederen, nire erantzukizuna konpartitua zatekeen. Ezezkoaren alde eman izan banu, agian ez zuketen Trebiño hilko. Baina abstenitu egin nintzen; abstenitu egin nintzen eta alferrik galdu nuen orain nik baino ez neukalako dirudien botere hura”.

Eten bat egin du arnasa hartzeko, ainerik faltako ez zaion segurtasuna izan nahi balu bezala.

“Ez da erruduntasun kontua ere, zehazki. Sei kide ginen han... Baina ni naiz bere ahotsa erabili ez zuen bakarra. Ispiluaren aurrean horixe naizela esaten diot nire buruari: hartu beharreko erabakia hartu ez zuena. Horixe dela nire muina eta nire funtsa. Eta horixe besterik ez naizela izango hil artean”.

Zauri irekiaren gomuta eta burla. Bere zehaztasun milimetrikoa kontra itzuli zaio Seikori: bere burua etengabe estutzen duen torloju-makineria zehatz

bihurtu da. Erlojugileek dakite agian ondoen ardi galdua ez bezala, aldi galdua ezin dela berreskuratu. Harrobiko langile ere izana zen Seiko aspaldian. Bi ofizioetan zeinek izan ote zuen pisu gehiago bere bizitzan eta erabakietan?

Seikok kartera ireki eta orri zimurtu bat atera du. Ikatz-ziriz marraztutako karikatura bat, duela ia lau hamarkada Bixarrek egindakoa: pinaburu bat dauka buruaren ordez.

“Horrela ikusten ninduzuen, ezta? Grazia egin zidan... Karteran eraman dut geroztik”.

Uste baino lehenago amaitu da enkontrua. Imanolek ez daki zehazki zer egiten duen han. Baserria atzean laga, muinoko aldapa bakarrik jaitsi eta errepi-de jeneral ertzean itxoin die Soniari eta Telmori, ordu-bete luzez, moztutako pago baten ipurdian berea jarrita.

“Ondo zegoen zure laguna?”, galdetu dio Telmok. Ez die haren izen-abizenik esan, ez die militantzia garraioa zenik argitu. Bitxia da, baina musikariek ez dakite deus askorik bere urte haiei buruz.

“Bai, ondo dago”.

Handik aste gutxitara Bekaintirok deitu dio, ba ote dakien.

“Zer jakin behar nuke?”.

“Seikorena”.

Nola gertatu den galdetzea atera zaio, “beti ari gara separatzen”.

“Mendian izan duk, arbola bat botatzen ari zela. Gainera erori zaiok. Suhiltzaileek hiru ordu behar izan ditiztek gorpua ateratzeko”.

Zur eta lur geratu da. Ez daki azaltzen zergatik, baina Fakirrari heriotza koherentea iruditu zaio. Gordina? Baita ere. Baina, batez ere, zehatza bere zehazgabetasunean. Enborraren traiektoria, orratzen alde edo kontra.

“Ez niri esan noiz den goizegi eta noiz beranduegi”.

“Batez ere, kasu orratz luzeari, orratz luzea da delikatuena”.

“Betia ari gara separatzen”.

Emakume alargunak eta eskaleak inguratzen zaizkio. Txantxillo bibrafono-jotzailea eta Gabriela Yestes, Mateo Ubiria poetaren alarguna. Zer iman klase ote dauka? Intxaurrondoko sozialistekin biltzekoa da Fakirra, baina kasino irteeran Gabriela topatu duenean,

harekin joan da jerez bat hartzera. Politikak itxaron dezake emakume heldu batekin ardo bat hartzeko aukeraren ondoan, ala? Lehentasunak garbi edukitzea komeni da. Ludopata ezaguna da Gabriela, igogailua zuen etxe bat eskatu ziona Udalari bere senarra zenaren poemen egile eskubideekin inolaz ere ordaindu ezin zuena. Alargundu zenetik hona bingoan eta patarrean xahutzen ditu bere egunak eta diru pixarrak.

“Badaukak ezer uzteko moduan, Imanol?”.

Ederrari eskatzen dio. Nahi badu Cinzano bat hartzera gonbidatuko duela Barandiaranen, baina hortik aurrera ezin diola sosik utzi.

“Nahiago Fernet bat, aukeran”.

Senarra zenari buruz hitz egin besterik ez du egingen Gabrielak, elkarrizketagai bakarra, horixe: zein gaizki tratatu zuten erakundeek, zein diru gutxi eman zieten euren biblioteka itzela Foru Aldundiari saldu nahi izan ziotenean, nola argitaletxeek mozkina lapurtu besterik ez dioten egin urte hauetan guztietan, nola dirua zor dioten guztiek eta miseria gorrian bizi den.

“Beste Fernet bat, otoi”.

Senarra zitatzen du, haren poema zatiak botatzen ditu buruz, eta Fakirrari, hiriko poeta ofiziala izan zenaren ia obra osoa irakurria duen arren, ez zaizkio Ga-

brielak errezitatzen dituen neurtitzak ezagunak egiten. Enrike Larreari galdetu zion behin horri buruz.

“Asmatu egiten ditik eta! Senarrarenak ere ez dituk botatzen dituen poemen erdiak. Gabrielak ez ditik sekula Mateoren liburuak irakurri”.

Aparteko arraza da artisten alargun eta seme-alaba umezurtzena: zenbaitek hil ostean dilapidatu egiten dute lanaren etekina; beste zenbaitek, egun batetik bestera neurritz gain balioetsi bizi zirelarik aintzakotzat hartu ez zuten obra, errezelo larregiz zaindu, inor gehiegi hurbil ez dadin haientzat ulergaitzak diren liburuetara. Hobeak dira kasik, lehen taldekoak. Hirugarren Ferneta orduko agortu zaio Gabrielari kexatzeko kemena eta barran burua pausatuta lo geratu da seko. Kamareroarekin begirada lotsorra trukatzear hasi, ez daki zer egin Imanolek. Tabernako sukaldariari abisatu izango diote, une horretan barra atzealdetik atera baita, disimulu gutxirekin, lankideak esandakoa bere begiekin berretsi asmoz –“hara ze bi zelebrementari ditugun hor”–.

Berehala erakarri du Imanol sukaldariaren presentziak. Sukaldariari berdina gertatu zaion segurtasuna du Fakirrak, nahiz eta askotan gertatzen zaion edonor eta noiznahi berarekiko erakarrita sentitzen den kime-

ratxoa bere irudimenean baino ez egotea. *Norbere aldeko paranoia goxoa* dei diezaiokegu eta aukeran hobe hori, etengabe mundua zure kontra konspiratzen ari dela uste izatearen tesitura nekagarria baino. Emakume zaildua da sukaldetik atera berria, hatz indartsuak dauzka, lanean ohituak, eta, hala ere, finak, pentsatu du. Gurutzerik gabeko urrezko kate mehea eta eraztunik ez. Gero jakingo du bereizita dagoela eta seme bat daukala, heldua jada.

“Nahi baduzu lagunduko dizut Yestes andrea etxera eramaten. Ez da lehen aldia tabernan lo geratzen zaiguna”.

Imanoli gustatu zaio nola esan duen: “Yestes andrea”.

“Badakizu non bizi den?”.

“Bai, duela gutxi aldatu zen: orain igogailua dauka. Berarentzat adinakoxe mesedea guretzat”.

Hain sakon dago lo, ez litzatekeela batere harritzekoa bien artean besotik helduta daramaten bitartean zurrungak entzutea. Besarkada hori zeinen litzatekeen eder, baldin Gabrielaren zakua tartean ez balute biek. Giltzak haren poltsan topatu eta atarian sartu dira lehenbizi, igogailuan gero. Ez dagokigun intimitate bortitz baten lekuko gara igogailuan, geure boron-

datearen kontra. Kubikulo estuan kanak eta zimurrak jaiotzen ikusi dizkiote elkarri. Eta asko gustatu zaizkio Fakirrari sukaldariarenak. Eskuak adina, ile zuriak zein zimurrak. Bizitza domestikoarekin zerikusirik ez duen zerbait kontatzen dute lerro artean: ozpinik eta kexurik gabe sortutakoak direla, kexatzeko arrazoirik balukeen arren sobera.

“Etxean, azkenik, Yestes andrea”. Argirik piztu gabe sarrarazi dute ohean. Giltzak Gabrielaren sukaldeko mahai gaineko hautsontzian paratu eta, igogailua hartu beharrean, eskaileretatik jaistea erabaki dute.

“Bide batez, Irene naiz”.

“Imanol naiz ni”.

“Mundu guztiak daki nor zaren”.

“Bukatu duzu txanda? Gustura gonbidatuko zintuzket”.

“Zeure etxera?”.

“Nahi baduzu. Baina jakin dezazula: nik ez daukat igogailurik”.

“Gora igo arte ez gara mozkortuko, orduan”.

Hiru egunetarako baino ez da etxera etorri: Utrechten kontzertua dauka etzi eta San Bizente elizako entsegu gongratu du Imanol, Bachen *San Juanen pasioa* entzutera. Ongi doakio Ainara Irazokiri, ez du zertan eskaintzen dizkioten lan guztiak onartu: zuzendaria eta ensamblea begiko ez baditu, uko egiten dio, obra gustukoa suertatu arren. “Ez naiz kexatzen, hemen ez dago antzinako musikarekin zeregin askorik, baina Europa erdialdean, besterik da. Bruselan bizi naiz duela hiru urte”. Ainarak argitu dio musikari penintsularrak “oso apasionatuak” direla Belgikakoekin eta Herbehereetakoekin alderatuta, erritmikoki zorrotzagoak, baina ez dagoela eslovakiarrak bezalakorik; haiek, teknika eta pasioa, biak uztartzen ei dituzte. Penintsulakoek kontaktu pertsonala bilatzen omen dute etengabe, jotzeko orduan –eta are, kanpoan–, hori ere kontatu dio, eta jeloskor sentitu da Imanol.

“Akats gehiago egiten dituzte, hori bai. Eta disper-tsoagoak dira”.

Ainarak bere jeloskortasuna sentitu duela iruditu zaio Fakirrari, kortesia moduko bat izan dela derrepente musikari eslovakiarren akatsak aipatzea. Bere musikariek gauza bera egiten zioten zeloak usaindu orduko. Amorratuta dago, zeloak sentitu dituelako, eta,

batez ere, Ainarak nabaritu egin dizkiolako, gardenegi jokatu duelako bere zeloekin eta horrek posizio ahu-lean paratu duelako haren aurrean. “Hain umea al naiz ba?”. Ebatzi du nekatuegi dagoela autoflagelaziorako.

“Zure ahotsa, zoragarria da. Beti izan zinen nire kankiderik kuttunena, Ainara. Badakizu, ezta?”.

“Ezin jakin, ez zenidan inoiz esan eta...”.

“Pozten nau jakiteak, koblakari apalok utzi bagintuzun, Bachekin joateko izan zela... Bach ez da edozein. Horrek kontsolatzen nau”.

Lotsatuta dago entzun duenarekin, eta badaki esker ona zintzoki ematen saiatuz gero ere ez lukeela Imanolek antzeztutako apaltasun gehiegi horri ongi erantzuten asmatuko.

“Bachen si minorreko meza abestea, otoitz egite-tik gertuen dagoena izan da nire bizitzan”, aitortu dio Ainarak. “Zu ere San Juan de la Cruzekin ibili zarela entzun dut...”.

“Espiritualitatea maite dut, ez erlijioa. Erlijioa errespetatzera iritsi banaiz, espiritualitate espazioak gordetzen dituelako izan da. Gutxienez, tarteka. Gutxienez, leku batzuetan”.

“Gustatu zaizu Bachen meza, orduan?”.

“Ikaragarri”.

“*Gratias eta Dona nobis pacem*, azken zatia, biak daude material berberarekin idatzia: lau nota gora-
kor, gero bostun bat gorago azalduko direnak, gorantz
eta gorantz, zerbait ukitu nahian bezala. Eta ukitzen
duena ez dago goian, barruan baizik. Mezaz eta kris-
tautasunaz harago, Bachek ulertzen zuen zerbait giza-
kiaz”.

“Zuk uste ulertzen zuela?”.

“Ulertzen ez bazuen, sumatu eta erreproduzitzeko
gaitasuna zeukan... Besterik da hark ulertu zuenak gu-
retzat balio duen ala ez. Ikaragarria da hau: Bachek
bere lan gorenak bi edo hiru aldiz baino ez zituela en-
tzun ahal izan bere bizitzan... Guk, aldiz, nahi adina
bider entzun genitzake egun bakarrean”.

“Horrek abantaila handia ematen digu”.

“Edo desabantaila... Ni ez nago seguru”.

Esandakoari lekua utzi nahi izan diote, bidea egin
dezan bere kasa. Ez du bide lar egin.

“Zaintzen duzu ahotsa? Lehen bezala erantzuten
dizu oraindik?”.

“Foniatra batekin nabil joan den hamar urteotan.
Hori bada jakin nahi duzuna, afonia histerikorik ez dut

behintzat aspaldian izan. Eta zuri? Eusten dizu aho-tsak zuzenekoetan?”.

Fakirrak ez du hortik jarraitu nahi, madame Duprezekin akordatu eta harekin zer gertatu ote den jakin nahi lukeen arren derrepente. “Grabeak hegazti herra-tuak dira”. Hilik egongo da, ziurrenik. Hura ere lorratz, hura ere hegazti herratu.

“Tatiana hil egin zen, bazenekien?”.

“Iritsi zitzaidan zerbait”.

“Bularreko minbizia”.

Isilune bat sortu da, luzea baina ez zurruna. Faki-rra makurtu egin da, askotan egiten du hori zerbait aitortu behar duenean. Makurtu eta betaurrekoen patilla igurtzi, hari finago baten bila. Ez du beti aitortu beharrekoa aurkitzen, eta aurkitzen duenean ere, ez du beti aitortzen.

“Badakizu? Jende guztiari esan nion onartzen zituela gure maiatz iraultzailearen arau berriak, maitasun libre eta zintzoarenak. Biok onartzen genituela eta haien arabera bizi ginela... Tatianak irakatsi zizkidala, funtsean, maitasun librearen teoria eta praktika. Ados zegoela nirekin monogamiaren glorifikazioaren kontra. Modu sanoan eta adiskide bezala harremanetan jarraitu genuela bereizi ondoren ere. Ezkontzara gon-

bidatu ninduela eta lege onean joan nintzela hura zoriontzera Parisera. Hil zenean haren hiletan izan nintzela... Baina...".

"Ez dut ongi ulertzen nora zoazen...".

"Dena gezurra da, Ainara. Nirekin minduta alde egin zuen. Ez zuen nitaz ezer gehiago jakin nahi izan Kororena eta gero".

"Niri ez didazu argibiderik zor, Imanol".

"Baina eman egin nahi nizkizun".

Ainarak erabaki du krudelegia dela egia esatea: hori guztia bazekiela berak. Berak bai, harremanetan jarraitu baitzuen Tatianarekin Fakirra eta bien arteko harremana eten ondoren ere. Ainara Irazoki bai, izan zen Tatianaren ezkontzan. Baita hiletan ere. Bietan. Minbiziak jota hil zen; ez zen bularrekoa izan, ordea, beranduegi atzemandako umetokiko sarkoma bat baizik. Baina hau guztia bere kolkorako gordetzea erabaki du.

"Eta Koro?".

"Ez da erraza ni jasatea. Entzungo zenuen zenbat piano-jotzaile izan dudan azken urteotan".

"Harremanak beti dira konplikatuak".

"Zuk uste?".

“Beti ari gara separatzen”, pentsatu du Fakirrak. Seikok ere utzi dio zerbait herentzian, nonbait. Prim kaleko etxea oroitu du. Basilika. La Coupole. Inoren etxean bizitzeko bere joera. Arakisen etxea eta Ainararena. “Garai onak izan ziren haiek. Separatzen ari ginen, separatzen jarraitzen dugu, baina aldea dago garai batetik bestera banantzearen kontu horretan ere”.

Muxu eman diote elkarri masailean eta aldendu egin da apurka-apurka Ainara Irazoki, pauso orekatu eta arinez. “Bere lekua aurkitu du”, pentsatu du Fakirrak, ez hain urrun pozetik, piezaren bat enkajatu izanaren ustearekin, harri bat katedralean. Mailegatua da harria eta besterena katedrala, baina harriarentzat lekua aurkitzeak, berdin balio du.

Garai bateko bizar sarria zainduago izatera lehenbizi, eta bizarraren souvenir hutsa den bibote ttipi zurtzen hasia lagatzera igaro da gero. Hiri honetan ez dago ongi ikusia burua estaltzea, baina kopeta burusoilak aitzakia ematen dio neguan kapela janzteko, fedora edo madrildar kalatua. Negua luzea balitz ere bost, kapelu horiei esker. Bere betiko foulard eta eraz-

tun lodei leial zaie oraindik Fakirra. Hori eta kanperokak. Rimmelez margotzen ditu begi ertzak, aspaldian bezala, baina orain ez da hori egiten duen gizonezko bakarra. Lehena izan zela, berak bakarrik daki. Irribarrearen ez zaio guztiz higitu, nahiz ahotsak kezkatzen duen. Jada ez baitu garai batekoa. Igarotako hersturek edo gorputzari emandako trote gehiegiak ote daukan errua, ez dago ziur jakiterik. Modulazioaren modulazioz, ahotsa gehiegi modulatzera igaro da, agian? Saldoak higitu dio edo berea-ez-den-saldoan oihuka ibiltzeak? Basamortuko predikatzailer izateak? Adina besterik ez da, ziurrenik. Hau seguru daki: ezingo luke jada kontzertu oso bat *a capella* eman, hasi eta buka, Donibane Garaziko harresiaren ondoan behin egin zuen bezala.

Bizitza soila darama, zaratatik urrun, Donostia heretik aparte, Mediterraneoan. Fibromialgia noitzen du Irenek eta eguraldi lehorra komeri zaio, horregatik aldatu dira Ireneren pentsio koxkorrearekin biak Torrevieja. Dario zakurra ateratzen du paseatzera egunean bitan. Egunkariak erosten ditu, titularrak gainetik eta kultur albisteak xehe-xehe irakurtzeko. Irenerekin gosalitzen du. Levante aldera etortzen diren turista alemaniarak ikusten ditu izen politak edukitzeko itsusie-

giak diren kaleetan promenatzen, egunetik egunera gerri zabalago eta azal gorriago. Inork ez du Fakirra ezagutzen. Turista haietako beste bat da bera. Agian orain bai, lortu du saldoan integratzea, bere bizitzan lehen aldiz.

Ezustean harrapatu du Irene proposamenak:

“Testamentua egin behar genuke, ez duzu uste?”.

“Ez al zeunden zu ezkontzaren kontra, jabetza pribatuaren kontra eta herentzia uztearen kontra, monamurtxo?”.

Dariok biei begiratu die, Ireneri eta Fakirrari, txandaka. Zergatik ez dute zakurrek izen-deiturarik? Zergatik izena bakarrik? Nomenklatura beti izan da garrantzitsua Imanolentzat. Norbaitek gauzei eta pertsoneri emandako izenak. Ez dago garbi “Dario” zakurra izena den ala deitura. Behin eztabaidatu zuten horri buruz. Irenek Ruben Dario esaten dio batzuetan eta Fakirrak, adarra jotzeagatik, Dario Fo. Ahoa zabalik du lauzangoak eta mihia dingilizka. Kalera atera nahi luke, edo agian zain dago jakiteko herentziaren zein zati utziko dioten berari.

Erabaki du zer nori laga. Ez latifundista baten moduan, jainko bihurri batek bezala baizik. Gustatzen zaio bera gabeko bere bizitzan izango duen presen-

tzian pentsatzea. Gauza preziatuak aipatzean pizten zaio begirada: bere gitarra, adibidez, edota urrezko katea nori utziko dion espekulatze hutsa zaio atsegin. Zer esanik ez kantek dakartzaten egile eskubideei buruz pentsatzen hasten denean; ahoa urtzen zaio. Kanta zehatzetan dauka burua, nork inspiratuak eta nori eskainiak dauden eta nola banatu nahi lituzkeen banan-banan: halako kantaren *mozkinak* halakori, beste kanta haren onurak beste hari... “Baina hori egi-tea apur bat konplikatua litzateke, Lurgain jauna”, gaztigatu diote notariotzan. Fuchs Solerrek egina zion paper bat bere garaian lagapen haiekin guztiekin, batek daki zein mudantzatan galduko zuen dokumen-tua, hainbeste etxe diferentetan bizi izan da. Irenek esan dio hobe duela musikatik eratorritako irabazi guztiak bere arrebei eta ilobei uztea, berak ez du deus behar; ez luke inolaz ere bere burua borroka horretan sartuta ikusi nahi, senarraren poemek emandako errenta bingoan eta pattarretan xahutzen duen Yestes andrearen gisako alargun-deman topeka. “Eta kontu korronteko dirua?”, galdegin diote notariotzakoek. Sorbaldak altxatu ditu Fakirrak. “Kontu korrontea? Ze kontu korronte?”. Notarioak barre egin du, serio ari dela jabetu den arte. “Higiezinen bat?”. “Ez daude

nire izenean". Listua irentsieta beste espezie batekoa balitz bezala begiratu diote. Bada, hein batean.

Irenek ere egin du bere testamentua, behin han daudenez gero, bidaia aprobetxatzeagatik. Fakirrari utzi dio dena.

"Baina zer dion, Irene? Hi ni baino luzeago biziko haiz eta!".

"Hori ez zagok inoiz jakiterik, laztana".

"Ni gazte hilko naun".

"Ba berandu habil jada, monamurtxo".

Hori da Fakirrak behar duen erantzuna. Eztarriaren leherketa hori. Aitanoelen algara berreskuratu du lipar batez, modulaziorik gabeko poz baten adierazpen desbridatua, barre gangar leizetsua. *Cointreau. Monsieur Rimbaud. Mister Honecker. Le bateau ivre!* "Hona hemen nire ahotsa, presente!". Hilabeteak dira ez duela alkohol tantarik probatu. Orain ohartu da ez ziola *monoa* pasatzen lagundu zion asteburu luze hura Telmori behar bezala eskertu, nola zaindu zuen Rose-sen itsasertzari begira hotel batean sartuta ura edaten eta izerdia botatzen ohean igaro zituen egun eternal haietan, nola aldatzen zituen Telmok izara izerdi-tuak eta toallak, nola jasotzen zituen goizero garbiak ate ondoan, hoteleko korridorean bertan, garbitzailea-

ri gelara sartzen utzi gabe –“ez kezkatu, geronek egingo dugu ohea, axola ez badizu”–. Nola ahortzi zein gutxi irauten zuen izara garbier freskotasunak, “izar azpian mundua dago, izarapean zerua... ”.

“Marikak garela usteko dik, eta jo eta su gabiltzala”.

“Hik ez zakiat, Telmo, baina nik ez diat sekula ohean horrenbeste izerdi bota”.

Barre gutxi egin zuten, baina oroitzeke moduko uneak izan ziren. Esku diezaiokegu gehiago adiskide bati? “Une onak izan genituen”.

Laranja zukutuak edaten zituen Fakirrak, bata bestearen atzetik.

“Martutenen kartzelan izan ninduan garaitik ez diat horrenbeste laranja dastatu”.

“Zer moduz hago?”.

“Izerdi gehiago botatzen jarraitzen badiat, bihar goizean xaboiarekin igurtziz gero dutxan behera desagertuko nauk”.

Apartamentura igo aurretik azken whisky bana hartu zuten biek, gibela izan zuten hori egiteko, alkohola betiko uztera zihoala ospatzeko alkoholarekin topa egiteko gibela.

Rosesekoa eta gero, ustez sendaturik edo ustez abstinentsia sindromea pasaturik, Donostiara igo ziren. Ebakuntza ttipi bat egin behar zioten han; erizainekin txantxetan ibili zen, batez ere erizain andre-morena batekin.

“Ekarri duzu osasun txartela?”.

“Ez daukat batere”.

“Etxean ahaztu duzu?”.

“Ez, ez daukat txartelik. Orain artean ez naiz behartu”.

Zoro bati bezala begiratu zion harrerakoak. Orde-nagailuan sartu zituen Imanol Lurgain Izetaren izendeiturak. Mamu bati bezala begiratu zion gero, lorratz bati bezala.

“Ez dut ulertzen. Ez zaude artxiboan. Ez Izeta bezala eta ezta Iceta bezala ere”.

“Horixe ez nagoela. Esan dizut”.

“Baina, ez da posible... Lehen aldia da hau gertatzen zaidana”.

Ez kontu korronte, ez osasun txartel. Imanoli ez zioten Donostiako Ospitalean ebakuntzaurreko frogarik egin, sasoian ikusi zutelako eta beltzaran. Baina zailtasunak zeuzkan arnasa hartzeko, gauzak okertu egin ziren ebakuntzan eta trakeotomia bat egin behar

izan zioten. Hiru aste koman igaro eta ahul atera zen, itxuraz hain konplikatua ez zen maskuri-ebakuntza hartatik; inkontinentziaren aurkako ebakuntza ttipia, prostata, minbiziaren sospetxa. Baina han ez zen minbizirik. Onik atera zen bere lehen heriotza hartatik, San Sebastian mauritaniarren gezietatik bezala, Andy Warhol Valerie Solanasen tiroketatik bezala.

“Torrevieja? Zergatik Torrevieja?”. Lagunek ez zuten ulertzen. Ezin zuen zatarragorik hautatu? “Han ez zagok ezer. Nazka-nazka egingo haiz”. Argia erruz dago, ordea, Torreviejan urte osoan. Habanera jaialdi dekadente samar bat. Eta batez ere, Irene dago.

“Baina zer presa daukak? Hi oraindik ez hago bi-daiatzeko moduan”, ohartarazi zion Telmok.

Ez zion esan egia. Ez zion esan: “Irene zain diat; hik Sonia bezala, nik ere badiat monamurtxo berri bat, joan beharra diat urgente”. Ez zion esan: “Maitasuna, maitasuna, romantikoen uharte”. Lotsa eman zion, eta jabetza pribatua baino, lotsa hura ez abolitu izanaren frakasoaren mikatza sentitu zuen mihipean.

“Zergatik Torrevieja?”.

“Hemen negua leuna duk eta askoz merkeagoak dituk etxeak”.

Ez dio Telmori esan: “Ez zidatek ezkaratzean pinto-tadarik egiten, ez zidatek *oraindik bizirik* ote nagoen galdetzen, ez zidatek buzoian pospolo pizturik sartzen, ez zizkidatek autoaren gurpilak zulatzen, ez zidatek gaur bezperetako ogia ematen, ez zidatek erantzungailuan mehatxurik uzten Torrebiejan”.

“Ondo nagok. Gustura. Torrebiejako klimak on egingo zidak”.

Esan ahala, Fakirrak bere kautarako pentsatu du: “Orain *klima* deitzen zaio horri, orduan, Imanol?”. Telmok zergatirik atzeman ez dion irribarre etsi bat egin du, hitzen berezko mugei geronek propio okerreko berbak hautatzean egin ohi diegun kimatze gehigarriaz oharturik. “Klima”. Malko bat irristatu begi ertetik eta rimmela lausotu zaio. Telmoren autoko erretrobisorean bisajearen ziurtagiria bilatu duenean, bere buruarekin gogorregi, prostituta bat ematen duela irizti dio.

“Puta zahar bat ematen diat, ala?”.

“Bai zera: operatu berri duten kantautore bat, besterik ez”.

“Nik nioena, orduan: puta zahar bat”.

Errepide ertzean gonbito egiteko geratu behar izan dute. Artean eriondo, puntuek tira egiten diote

saman, badaki mina pairatzea zer den. Zerbaitegatik jarri zioten ezizen hura: *Fakirra*. “Zatozte ba enegana, geziok! Zeren zain zaudete? Ni naiz diana!”. Baina ez, utikan, bera ez da martiri bat, ez nahastu, bila dezate-la beste bat martiri izateko, Imanol da bera eta ez Sebastian. Bizizalea da, ez da mundura beharrezkoa dena baino gehiago sufritzera etorri.

Orain Irenerekin bizi da Torre viejan. Ameskeria edo fantasia, Timbaktu deitzen dio berak Torre viejari, Prim kaleko apartamentuari La Coupole deitzen zion modu berean. Ez dio bere buruari hiriak eta lekuak bere kasa birbataiatzearen jolas hori ukatuko. Jolasa baita luxurik handiena; norbera jostailu apurtu bihurtzeko zorian dagoenean ulertzen da hori ondoen.

Marguerite Yourcenarren zita hura, buruz daki: “Igaro da presaren sasoia; behin iritsi naizen puntu honetara ailegaturik, itxaropena bezain gustu txarrekoa litzateke desesperazioa. Uko egin diot nire heriotza aurreratzeari”. Josu Poncek garaiz irakurri izan balu Hadrianoren aholkua... Alferrik zen, ordea, orain atsekabetzea. Haiek hil zuten Txopo bigarren goz, Te klasek eta Fakirrak berak, lehenengoak bigarrenari kanta hura gehiago ez kantatzeko eskatu zionean. Ez ote zukeen Fakirrak ere bere buruaz beste egingo,

zango biko amildegiaren erdira jauzi egingo, ezagutu izan ez balu garaiz Tatiana, oparitu izan ez balio hark Yourcenarren liburua, erakutsi izan ez balizkio Hadrianoen hitzak eta Gericaulten zaldia, bizi izan ez balitz mailegatutako etxe haietan guztietan apopilo, Arakisen lorratzean, Ainararen etxean, Kororenean, Telmorekin Grosen?

Luze egin zaie Terueletik aurrerako tartea, baina heldu dira azkenean. Hortxata bana hartu dute Torre viejako kasinoan, eta antigoaleko ispilu barrokoek markoztaturik begiztatu du Telmok Fakirraren pattala. Huraxe izango da memorian gordeko duen haren azken oroitzapena.

“Hemendik gertu bizi zara?”.

“Inguru samarrean”.

“Etixeraino laguntzea nahi?”.

“Ez, mila esker”.

Gabriela Yestesekin akordatu da Imanol, etxeraino nola lagundu zioten hiruko besarkada xelebrean Irenek eta biek. Fakirrak laguntza errefusatu ondoren, Telmori ez zaio egokia iruditu berriro eskaintzea. Ekipajerik izango balu, sikiera, koartada bat luke zamarekin laguntzeko. Baina motxila ttipi bat baino ez dakar eta susmoa dauka ez diola etxea erakutsi nahi, badue-

la lotsakizunen bat bertan. Berak jakingo du. Estuago besarkatuko zukeen azken besarkada dela jakin izate-ra.

“Laster arte, Imanol”.

Etxeratu orduko zakurra atera zaio bidera.

“Buona notte, Dario!”.

Ruben Dario. Dario Fo. Gizonen mundu honetan, eskerrak zakurrei.

Flamenko hotsak etxe barruan. Zalea da Irene. Fakhirrak lepoa egingo luke dantzan topatu baietz.

Mahats mordo bat ikusi du sukaldeko mahaian lehenbizi, musika altuegi dago eta sarraila hain isil-misilka zabaldu du, Irenek ez baitu sartzen entzun. Ardoa gozoa izango da, baina gozoagoa da mahats mordo horien leuna ezpainenetan. Bi ale eraman ditu ahora Irenerengana hurbildu aurretik. Ahoan urtzen dira, baina ez norberak hortzaren ertzaz agindu aurretik.

“Carita buena, carita de recoger; ¡ay, quien más recoja, que la luna se lo pague a él!”.

Egongelan sartu denean, Irene begiak itxita bakarrik dantzan ari dela ikusi du, musika ozen jarrita, hai-zemaile bati eragiten. Beste haizemaile bat hartu du berak eta ondoan jarri zaio dantzan, libre duen eskua-rekin Irenerentzat ekarri duen mahats alea haren

ahora eramateko. Irenek begiak ireki eta elkar besarkatu dutenean Imanolek galdetuko dio *“pregúntale al Preguntón”*, non erosi dituen hain mahats ale gozoak, eta supermerkatukoak direla esango dio Irenek, supermerkatu berri bat ireki dutela Timbuktun.

“Badakin zer, Irene? Mahats hauek neronek jaso nitinan, duela ehun urte. Esku hauexekin”.

“Mahats ale hauek, hain zuzen? Hatz hauexekin, gainera? Ez duk egia izango! Eta niretzat jaso hituen, menturaz?”.

“Norentzat, bestela?”.

Motel egin dute dantza, Imanolek soinean dituen puntuak ez askatzeko. Kriskitinik gabe, hatz mamiak laztandu dizkiote elkarri, eta horixe izan da gaur munduaren erdigunea non dagoen adierazteko asmatu duten modua, hatz erakusle bakar bat inondik ere aski izan ez denez sekula gauzen erdigunea topatu eta seinaltzeko.

Inoiz ez gaude prest, inoiz ez da nahikoa.

Eguerdi sargoria da Donostian Telmok Bekaintioren deia jaso duenean.

“Imanol hil da”.

Egun batzuk baino ez dira Alacantera autoz eramana zuela. Fakirraren apnea arazoak oroitu ditu Telmok, *insuficiencia respiratoria*, *muerte súbita*, inoiz ez da nahikoa, inoiz ez gaude prest. Beti geratzen da zer-bait amaitu gabe, zabalik, ameskeria baten zirriborro grinatsua.

Orihuelako ospitalean hil da. Hiltzeko Torrevieja baino leku hobea da Orihuela, Miguel Hernandez bertakoa zenez. Poetak santutzea eta santututako poetek zainduko gaituztela pentsatzea, belaunaldi baten gaitz xalo bezain miresgarria da hori ("Ez gaizki hartu, Enrike, baina azken aldion nahiago ditiat hildako poetak, bizirik daudenak baino"). Baina pribilegiatu batzuek baino ez dute hilko diren leku zehatza aukeratzeko, eta are gutxiagoren kasuan dator hautatutako lekua gustuko poeta baten jaioterriarekin bat. Fakirra kontziente zen Torreviejaren glamour eskasaz: horregatik deitzen zion berak Timbuktu. Zer egin hiri bat ttipiegi geratu zaizunean? Ez diren hiriak, maite dituzun beste hiriak bilatu ttipiegia geratu zaizun hirian. Donostian Parisen laginak bilatzen zituen gizon berberak, munduaren akaberako abenturaren printzak bilatu nahi izan zituen bere begirada miopearekin Torrevie-

jan. Torreviejan hil zen, Orihuelan hil zen, Alacanten hil zen, Timbuktun hil zen...

Torreviejan hil da Ireneren ondoan. Granitozko emakumea da Irene, Extremadurakoa, exilioaren alaba. Esan liteke negar egin duela telefonoa hartu eta deiak egiten hasi aurretik, aspaldi agurtu zuela badaezpada Fakirra, artean bizirik zela, behin baino gehiagotan despeditu direla eta benetako heriotzak ez duela ezustean harrapatu. "Eskutik heldu nion, baina ez zuen arnasarik hartzen; astintzen nion eskumuturra eta alferrik... Lasai zirudien, ahoa zabalik zeukan".

Torreviejan hil da, 2004ko ekainean, berrogeita hamazazpi urteak bete aurretik, maite duen emakume baten ondoan. Dorre Bikiak erortzen ikusi ahal izan ditu, baina ez ETaren azken hildakoa: Paristik gertu segurtasun indarrekin izandako tiroketa batean hilko den Jean-Serge Nerin brigada, 2010eko martxoan. Ausazkoa izan zen lehen biktima, Pardines guardia zibila, 1968an; ausazkoa, berrogeita bi urte geroago, Nerin jendarmearena. Hasieran eta amaieran sarri egon ohi dena egon da: ausazko gertaerak, zoria.

Torreviejan, hondartzara gehiago joaten zen Irene Imanol baino. Itzulerakoan bainujantzia kendu eta eguzkiaren marka erakusten zion: sabel beltzarana

eta zilbor definitiboa, gerrian franja zuria, izterra berri-
rrez ere beltzaran. “Zure beltzarana, nire bandera”,
esaten zion halakoetan kantari anarkistak (“Hitz egin
higatik: ni akrata nauk!”).

Torrevieja, Alacant. Kostako hiri turistikoa, udako
apartamentu merkez josia. Espainiako telebista publi-
koan 80ko hamarkadan, espainiartasuna zaharberri-
tzeko ahalegin proteikoaren barruan arrakastatsuena
zen *Un, dos, tres... responde otra vez* lehiaketak apar-
tamentuak oparitzen zituen barra-barra Torreviejan:
*“Han ganado ustedes un apartamento en Torrevieja,
Alicante”*; *“Han perdido ustedes un apartamento en
Torrevieja, Alicante”*; *“Podrían ustedes haber ganado
un apartamento en Torrevieja, Alicante”*. Halaxe zen
garai hartan, ostiralero, irabazi-galera urbanistikoak
eta geografia lezio bat, bi gauza, baten prezioan. Wim
Wendersen *Paris, Texas* bezala ia, *Torrevieja, Alicante*.

“Ez horregatik, aizu: Alacant non dagoen baldin
badakizu, jada badakizu non dagoen Torrevieja”.

Udako apartamentuak irabazitako lehiakide haie-
tako gehienak jubilatuta egongo dira honezkero, ba-
tzuk hilik ere bai jada, telebistako lehiaketak irabazten
dituen gazte jende alaia hilik imajinatzea zaila zen

arren orduan; baina apartamentu bat galtzeaz gain, bizitza ere gal zenezake Torreviejan, Alacanten.

Gauza batzuk ez dira aldatu; munduaren martxa ere ez espero zen norantzan, hori da munduaren xarma, ez dagoela igartzerik bere abaila, nondik hasiko zaizun zimeltzen edo kimuak ematen. Jendeak jarraitzen du irribarre egiten eta telebistako lehiaketetara joaten, sekula hilko ez balitz bezala jarraitzen du jendeak bizitzen, tabernetara hilik sartu eta berpizten. Zapatak janzen. Ezkerrekoa ezkerrean eta eskuinekoa eskuinean.

Fakirraren nekrologikek esango dute: “Bakarrik hil zen Torreviejan, tristuraz akabatu zen”. “Denok batera hil genuen, baztertu genuelako hil zen, tribuak kanporatu egin zuelako bere altzotik”. Mitoa da hori: luzaro komeniko dela uste duguna. San Sebastian geziz josia, Fakirra martiri. Zomorro bat, uxatu nahi zutena, molestutzen zuena besteak baino ausartagoa zelako edo bularkoiagoa; “beha iezadazue” esanez zihoan horietakoa, tarteka betaurrekoaren eskuineko patilla igurtzi eta makurtu egiten zen arren zure aurrean, betaurrekoek bere burua txikiagotzeko erresorte bat balute bezala.

Fakirraren familia, haren egile eskubideak kobratzen hasi aurretik abokatuak esanda jabetuko da zorrak zituela Imanol Lurgainek, zor handiak, Ogasunarekin eta bankuekin, eta herentzia osorik onartzekotan jasotakoarekin erantzun beharko lioketela zuloari. Egile eskubideak hamar urtez geroratu eta ez ordaintzeko eskatuko dute, izozteko mozkin musikalak mesedez, harik eta zorrak preskribatzen diren arte. Bankuekin eta Ogasunarekin zituen zorrei, hainbat lagunek bueltan ikusteko esperantzarik gabe emandako dirua gehitu behar zaie –“ez diat galdetu zertarako, Imanol, baizik eta zenbat”–, diru pixarrak eta ez hain pixarrak.

Ez zegoen asko xaxatu beharrik hura kantari has-teko. Bizitza maite zuen eta emakumeak maite zituen. “Garai hartan denok ginen arren apur bat bisexualak”, gogoratuko du Bekaintirok (“Ez al zait foularda ongi geratzen? Gay konpletoa ematen dut, ala?”, edo seguruago: “Marikoia ematen dut, ala?”). Garaia zen, jada erabiltzen ez diren hitzak erabiltzen ziren: *panpox*, *fulana*, *pinpirin*, *marika*. Eman zituen ehunka kontzertu horiek, doan eta *a capella*. Horiek gailentzen dira. Alkandorako mahukak lanerako biltzeko bere erraztasuna gailentzen da: kantatzea zen bere bokazioa, bulka-

da, misioa. Gorroto dutenek ez diote barkatzen, beharbada, eta isilean egosten dute euren erresumina. Batez ere, ez diote barkatzen goizegi hil izana, barkadamuen sasoi epelaren aurretik. Batez ere, agian, ez diote barkatzen bere ozarkerian haiek baino ausartagoa izan izana: ahotsa altxatu izana Arakis hil zutenean, Troiako zaldiaren txanponaren bestaldea erakutsi izana.

Eta, agian, kanta eder eta hilezkor eskutada eder hura utzi izana ere ez diote barkatzen.

Hor daude Telmo eta Sonia, hor dago Jean-Marc, hor dago Sixto Zinkunegi, azken orduan heldu den piano-jotzaile gizenari leku egiteko Jean-Marcen kontra estutzen. “Uste dut ez dugula elkar ezagutzen, Iñigo naiz”, bere burua aurkeztu dio Gizon Ikusezinak Sixtori; Fakirra ongien ezagutu zuen piano-jotzailea eta piano-jotzaile gaztea besoz beso eseri dira. Han da Lucas Azurmendi, Kanadan eskolak ematen dituen arren, handik espreski etorri berri. Han da Bixar, zurrumurruen arabera polimilien bahiketa batean *sobratu-tako* diruarekin estutasunean dauden artistek otordurik ordaintzen ez duten jatetxea zabaldu zuena. Teklas ere etorri da hiletara. Azken errenkadaren ondoan dago zutik eta urrunetik kasu egin diote Juanjok eta

Carmenek, Bekaintirok eta Mata Harik. Ainara Irazokik Carmenen alaba bikiekin batera Imanolen kanta eza-gunenetako bat abesten duen bitartean, Txoporen omenez elkarrekin egin zuten kanta ahapeka xuxurlatzen harrapatu du Teklasek bere burua.

Hil-kanpaiak entzun dira. Pharosi arruntak iruditu zaizkio, “bakunak eta konplikaziorik gabeak, automatizatuak, ez dituzte eskuz jotzen, ez du merezi haiek grabatzea”. Ez du ulertzen zertara datorren Fakirra bezalako pertsona bati hileta kristaua egitea. Ez ulertzeagatik, ez du ulertzen apaizak euskaraz dioena ere. Hasi zen lekuan amaitzen da dena: Antiguako elizan. Teklasen ondoan zutik dago Jean Pharos, baina ez dute elkar ezagutzen. Elizkizuna hasi delarik, Koro eta Irene sartu dira tenplura, nor bere aldetik eta isilpean, inor ez ohartzeko moduan, ate banatatik, diskrezioz. Gai-nezka dago eliza eta ez da lasto izpirik kabitzen. Baina kabituko balitz ere, kanpoan leudeke bi hauek: Enrike Larrea eta Gabriela Yestes. Eliza pareko tabernan isilik edan dute Fernet bana. Eta gero bigarrena. Esan gabe doa Fakirraren omenez ari direla eta inoiz ez dutela hirugarren bat eskatzeko motibo nobleagorik topatuko.

Fakirra ematekoa izan da beti eta ez du honek inor harritu: organo-emailea da, Fuchs Soler epaileak la-

gundu zion, testamentu bitala sinatu zuen bere garaian. Erabilgarri izan daitezkeen organoak kendu dizkiote eta erraustu egin dute Orihuelan, etxekoak eta inor gutxi gehiago aurrean direla. Donostiako Polloe hilerrian dute famili-panteoia. Han datza, besteak beste, bere amaren eta bere arreba zaharrenen ondoren.

Fakirra Torrebiejan hil dela jakin duenean, Donostiako alkateak ahizpetako bati deitu dio, “atsekabeen lagun”, errautsak etxera ekartzeko Udalaren autoa eskaintzeko. Ahizpek uko egin diote auto ofizialari. Torrebiejatik Donostiara 800 kilometro inguru daude. Hamar orduko bidaia, beraz. Errautsak magalean ekarri dituzte, ALSA konpainiako autobus batean. Errautsak zurixkak dira, eta, tarteka, beltzak. “Pinporta, partikula, filamentu ilunak hilkutxaren parte dira; gorpuari dagozkionak, aldiz, zurixkak”, azaldu die profesionaltasun paregabeaz hileta-etxeko nagusiak, hautsen artean estimazioa merezi duten azpihautsak zeintzuk diren bereiztea une saminotan lagungarri izan dakiekeelakoan. Hauts beltza eta hauts zurixka. Esan nahi balie bezala: “Ez bistatik galdu, azken beltzeraino, zein zen maite izan zenuten hura”.

Non dagoen Imanol eta non ez. Hain erraza balitz dena. Baina zuri guztiak ez dira irinak, ez beltz guztiak ikatzak. Kontua da jada ez dagoela inon. Urna funera-
ria, errauts-ontzia, magalean dakarte ahizpek. Faki-
rraren errautsak dira. Laztandu daiteke ontzia, hitz
egin diezaioke, baina ez dago jada Imanolik, ez dago
jada Fakirrik. Isilik datoz, autobusaren burrunba sorra,
martxa aldaketa eta ingurukoen jakin-minezko begira-
dak lagun; ez daramate ezkutuan, ez daramate kirol-
poltsa batean, eta Galerías Preciadoseko plastiko ba-
tean ezin sartuko zuten bada, ala? Izter sendoen gai-
nean dakarte bi ahizpek errauts-kutxa, denen agerian,
batak tarte batez eta gero besteak, txandaka, haurdu-
naldi berantiar bat balitz bezala, errautsezko haurdu-
naldia; nebaren errautsez nola erditu arreba bat, sa-
belaren kontra estututa, “nahi duzu tarte batez nik
eramatea orain?”; “Ez, ondo noa”.

Pharosek nahikoa dauka elizkizunarekin. Ez du hi-
lerrira joan nahi izan. Gizon Ikusezinak esanda jakingo
du gero Fakirren errautsak ez dituztela haizatu, Po-
lloeko hilerrian utzi dituztela. Pharosen ustez, errau-
tsak haizatzeko daude, zabaltzeko eta hedatzeko, gor-
puak lurperatzeko dauden moduan. Haizatu ezean,
zein da gorpu bat erraustearen zentzua? Urteen pode-

errioz hezurrek erdietsiko duten estatusa azkartzen zaio hildakoari, hori da eta ez beste ezein errausketaren funtsa. Hautsaren noblezia. Betidanik erre izan dira gorpuak; batailan hildako soldaduak zientoka, bata bestearen gainka pilatuta Antzinako Grezian. Baina zergatik errausten ditugu gaur? Agian ez dauka gure arbasoen motiboekin zerikusirik. Agian, lehenbailehen materiaren duintasunera itzultzeko antsietatea besterik ez da.

“Beti ari gara separatzen”.

Denboraren poderioz, euskarazko bere diskoak berargitaratuko dira, apurka-apurka. Frantziako zigiluek argitaratuak eta beste. Hizkuntza debekatuan egin zituen haiek, hain zuzen. Gaztelaniazkoak, aldiz, linboan geratuko dira gehienak, kanta zein disko. *Mayo* abestia da salbuespena. Ereserki ez izan arren, biribila da kanta hura, kimu eternoaren promesa bat beza-la lehertzen dena.

Norbaitek irratira deitu du:

“Koro, desde Amara Viejo... ¿Alguna canción en particular?”.

“Maitia nun zira”.

“Esa es especialmente bonita”.

Omenaldiak antolatu dira eta urteurrenak, eta antolatzaileak haien artean mokoka hasi dira. Norena da Fakirra? Nork ordezkatzeko du orain haren ahotsa? Fakirra minaren tximistorratza zen: Fakirra eta mina, denonak dira orain. Musika-areto bati jarri diote bere izena. Mural bat egingo da hirian, prozesu parte-hartzailea zabalik dago, lehiaketa bat egingo da, gezilari berriak dabilta Twitterren eta Facebooken iritziak jaurtitzen. *“Torrevieja, Alicante, podrían ustedes haber ganado un piso en”*. “Ez ginen Fakirrarekin ongi portatu, bakarrik utzi genuen”, asko errepikatuko den esaldia izango da. “Baina harroa zen, bere buruarekiko usteak okitua”. Hori ere bai.

Polloeko hilerritik behera nabari da hiriaren bibrazioa, eguzkiak epeldutako fatxadak, kareharri igurtzi doia dutenak, *belle époque* garaiko itxuranahia eta nostalgia. Eraikinen altuera zaintzeko fama du hiriak, burua atera eta destakatzen duenari lepoa mozteko ospea duen ber gisan: Orly, Anoeta eta Atotxako dorreak, hiru etxe orratz baino ez, hirutasun santua. Urrunago, Altza etaerrerako periferia, behiala jonkien bazkaleku ziren eraikin luzeak. Denak bistatu daitezke hilerritik. Solairu kopurua mugatzen dute udal ordenantzek, bai, baina atikoen gainean gainatikoak

eraiki dira eta gainatikoan gainean buhardillak, eta buhardillen gainean ganbarak, eta ganbara horien gainean, are, Udalaren etxebizitza-baimena hala moduz lortua duten usategiak daude erdiguneko *zona romántica*-n ere, gorantz eta disimuluan zukututako eraikinak, txabolismoa teilatuetan; sabela sartu eta ipurdia estutzen duen hiria delako hau. Kresalak salbatzen du, baiki, ziutatea. Zerbait ustela, zerbait naturala, zerbait egiazkoa, zerbait basatia. Fuga puntu bat. Arroketara itsatsi eta itsasbeherarekin eguzkitan useltzen diren algen kiratsa.

A pagar en destino. Razón:

Fakirra hil eta gutxira sobre akoltxatu bat jasoko du Pharosek, behar baino zigilu gutxiagorekin. Eskura ekarri diote. Txantxa iruditu zaio postetxean sobreaki ezarri dioten esaldi estanpatua.

“Kosta zaidak hire baserria aurkitzea”, bota dio postariak, izerdi patsetan eta ozpin.

Egiaz, espainierazko esamolde horiek grazia egin izan diote beti. Neurri batean, ez dio sekula frantsesa izateari utziko. Agian horregatik konektatzen zuen hain ongi Imanolekin, hura ere fantsezalea izaki. Pha-

rosek sekula euskararik ikasi ez duen arren, euskaraz abesten duten kantariak maite ditu, ororen gainetik. Euskaldunek sinpatia piztu eta grazia egin zioten hasieratik. Euskotar agoniko haiek atseginak zitzaizkiola-ko egin zien uko Bordeletik eta Paristik egin zizkioten lan eskaintza mamitsuei. Hain primitiboak eta hain bihozberak iruditzen zitzaizkion, nahiz teknikoki musikari eskasak izan gehienak... Bazuten autentikoa zen zer bait, bezatu gabekoa. 70eko hamarkadako musikari eta teknikari frantsesentzat nahiz Iparraldekoentzat, erraza zen Hegoaldeko euskaldunen ondoan distira egitea. Zerbaiten hasieran parte hartzen ari ziren gazteen irakinaldiak erakarri zituen, egiteke zeuden gauza ustez kolosal haietan parte hartzeko ilusioak eta elur erori berria zapaltzekoak, bai, baina baita, ez-kutuki, elbarri musikalen herri batean besamotzarena jota liluratzeko aukera aitorrezinak ere.

Sobrea urratu aurretik ere badaki kasete bat dakarrela barruan. Amateur askok halaxe bidali izan dituzte urtetan haien demoak. Hau ez da, ordea, hasiberri batena. Haraindiko kasetea, Fakirrak igorria, Torreviejatik, Alacantetik, Timbuktutik, munduaren amaieratik. Kasete hura entzun nahi du, baina bestalde, bel-
dur da. Hildako batek erdi hasita utzi duen ardo boti-

lari azken dzangada ematearen antzeko begitantzen zaio.

Sakatu dio azkenean *play* botoiari. Xuxurlatuak daude kanta guztiak, gitarra oinarri oso simple batekin. Batzuk ez daude amaierara arte, ahapaldi pare etena soilik, neurtitz batzuen faltan. Hastapenetan dauden ideiak dira, zirriborroak. Ez dago ongi grabatua, zakur baten zaunkak entzuten dira atzealdean eta emakume baten ahotsa, asko falta ote zaion galdetuz: “Hago isilik, Dario! Asko falta zaizu?”. Tragikoa ere bada hitz haiek orain entzutea, oilo ipurdia ipini diote Pharosi. Ez du Pharosek emakumearen ahotsa ezagutzen, baina poztu egin da Fakirragatik. “Ez zitzaizun amaierara arte zainduko zintuenik falta izan, *putain*”. Eta berak? Fakirrak ez ote zuen Irene zaindu, akaso? Jaki-na, detallista zen, bazekien detallista izaten. Harreman guztietan bezala, elkarri eman dioguna ezberdina izan arren, eta ezberdinagoa are gutako bakoitzak elkarri eman uste dioguna. Nahi gabe ematen duguna. Pharosi otu zaio lagunek osatu beharko dutela diskoa, Fakirraren ahotsaren ausentziari gorazarrea egin beharko diotela orain. “Berriro ikusi nituen nire lagunak: ausentzia luze baten ondoren berriz ere harremanetan sartzearen plazer eskisitoarekin goxatu nintzen, berri-

ro lagunak epaitu eta lagunek zu epai zaitzaten plazerarekin”.

Kanta zirriborroak, ez zuen gutxiago espero, ederrak dira, baina amildegi bat seinalatzen dute, hutsune bat. Bertigoa ematen dute, gabezia azpimarratzen. Pharosengatik balitz, tarareaturik argitaratuko zukeen disko hura, zaunka eta guzti, demo hutsa bere lardaskan, “asko falta zaizu?”, bere inperfekzio guztiekin, amaigabearen ederra.

Bitxiena da hamar sehaska kantaz osatutako bilduma bat dela Jean Pharosek bere eskuetan duena. Irribarre egin du, baina hunkiduran bildutako irribarrea izan da, hunkituago irribarretsu baino.

“Sehaska kantak? Utikan! Publikoa lokartzea, besterik ez diagu behar!”.

Kulunkan. Izen huraxe edo antzekoren bat jar ziezaiokeen diskoari. Zango biko amildegia, kulunkan.

A pagar en destino. Razón: Pharosek bere patriatik ordaindu behar izan dio falta dena postari izerdituari. Hil ondoren ere, dirua eskatzen segitzen du Fakirrak. Gauza ederra da hildako batek oraindik zu zerbait egitera derrigortzeko gaitasuna izatea. Areago, gaitasun hori inori barre eginarazteko moduko txantxa bada. Eta horixe egin du Pharosek postariari pagatu

dionean: gustura ordaindu, burua ezker-eskuin astinduz, ahopean “*Quel couillon!*” murtxikatzen duela. Espainierazko esaldi hura, demontre, ez du egundo inon irakurri, “frantximanta hi, hil arte, Jean!”. Egon behar dute –berari otutzen zaizkio–, hura baino modu errazagoak gutunak zigilu aski ez daukala adierazteko. Jar zezakeen *franqueo*. Baina ez. Beste gauza bat jartzen du.

A pagar en destino. Zenbat gramo pisatzen zuen, ba, patuak, zenbat ogerleko balio?

A pagar en destino. Razón:

Eta gero bi hitz haiek, Pharosen irribarrea.

A pagar en destino. Razón: timbre insuficiente.

Horixe zuen-eta paregabea Fakirrak, ezer izatekotan, horixe zuen gaindiezina.

CAPRI C'EST FINI (BONUS TRACK)

Bobina zaharra digitalizatzeke dauka Pharosek. Idazle batek ekarri dio, Fakirra hil eta handik hamabi urtera, haren aitak grabatu zion kanta bertan egon daitekeelakoan. Ustez huraxe izan liteke Fakirrak inoiz grabatu zuen lehena: Herve Vilarden *Capri c'est fini*. Ederra litzateke Fakirraren kanta galdua topatzea, zertan uka, haraindiko mezu bat, ahots gazte batek igorria. Jean Pharosek ez dauka grabazio hura berreskuratzekeo esperantza askorik, ordea, ziurrenik ezabatu eta gainetik beste zerbait grabatuko zutela aitortu baitzion idazleak berak; hala susmatzen zuen haren aitak. Zinta gutxi zituzten 60ko hamarkadan eta garestiak ziren aldiro berriak erosteko; berrerabili beharra zegoen. Bi egun geroago etortzeko eskatu dio Pharosek, teknikoki dena gertu eta digitalizatuta edukiko duela. Baina ez du lanik aurreratu. Jean Pharosek erabaki du ez duela zinta hura berak bakarrik entzun

nahi, lekuko bat behar duela. Idazleari deitu dio, honenbestez, biek batera entzun dezaten.

Entzule bila, beti. Espaziora ere ahots diren mezuak bidaltzen ditugu, denbora zeharkatuko duten itxaropenarekin. Gugatik zeharkatu, gure ordeztu. Gure ordeztu, baina gu gabe. Gure oroimenean eta gure omeztu. Imanol bere Parisko exiliotik itzuli zen urte beretan, 1977an, hainbat kanta igorri zituen NASAk *Voyager* zundaren barruan. Urrez estalitako diskoan, Chuck Berry, Blind Willie Johnson, Stravinski, Beethoven... Bat nabarmentzen zen, ordeztu, guztien artean: Johann Sebastian Bach. Ez bat eta ez bi, haren hiru pieza jaso zituen disko galaktikoak. The Beatles taldearen *Here Comes the Sun* ere hautatu zuten, baina EMI diskotxeak ez zuen erabiltzeko baimenik eman.

Pharosek ezinegonak ikusten du idazlearen begietan. Calvados bat hartzera gonbidatu du, apur bat lasaitu dadin. Esperientziaz daki beti funtzionatzeko duela.

"A Imanol le encantaba el Calvadoztu".

Harroxkoa iruditu zaio hasieran idazlea; azalpen gehiegi eman dizkio, liburua idazteko Imanolen zenbat lagun elkarrizketatzea lortu duen kontatu dio, nola gero nobela bat egin duen, nola pertsonaietako zen-

baiti izen-deiturak aldatu egin behar izan dizkien eta beste zenbait pertsonaia bakarraren barruan bildu. Nobela kolektibo bat izatea da bere asmoa, beraz, kontatu nahi izan diotenarekin eta kontatu nahi izan ez diotenarekin egina. Jendeak gogo onez egin dio harrrera, bere bizitza puskak eta bere denbora oparitu dizkio, eskuzabaltasunez. “Argitzal askoko pertsonaia zelako” interesatzen ei zaio Fakirra, bere kasakoa eta bakarra. Banidosoa eta uste handikoa iruditu zaio hasieran idazlea Jean Pharosi, baina gero, batez ere, xaloa begitandu zaio.

Liburuak zein izenburu izango duen galdetu dio.

“Fakirraren ahotsa”, erantzun dio idazleak.

“Ahotsa nondik datorren, hori da kontua”, bota dio Pharosek, zinta digitalizatzeko unea ahalik eta gehien atzeratu nahi balu bezala. Konturatu zen aurrekoan ere idazlea: Jean Pharosek badu teoria bat gai bakoitzerako. Edo bat baino gehiago.

“Ahotsak ez luke zintzurretik atera behar, ez eta, kanta-irakasleek errepikatu ohi duten legez, tripetatik ere”.

“Nondik, orduan?”.

“Tu parles français, n'est-ce pas?”, bere buruari idazle deitzen badio, jakin beharko lukeela suposatu

du Pharosek. Gaizki suposatua. Idazlearen erantzuna ez da oso bihotz-altxagarria izan:

"Un petit peu".

Frantsesez jarraitu du Pharosek, hala ere. Bere ama hizkuntzaren premia du hura behar bezala kontatzeko.

"Puskatzen denean da ahotsa ederren. Pitzatzen denean edo erdibitzen denean. Ahotsa ateak harrapatutako hatza da, ezusteko haserrearen trumoa, berdintzen gaituen negar lantuaren zezela... Orgasmoaren erpinean zeure gorputzak zugatik egiten duen eta haren zergatia jakitea zail den bokal-hautu inkontzientea. Eta zeure gorputzak behin bokal hori hautatu duelarik, eztarriak egosten du. Egosten eta eraldatzen. Eta beste bokal bat bilakatzen du hots hori, ulertzen? Eta txirikordatzen eta errepikatzen... Eta ohaidearen suspirioen konpasera ekartzen, haren hautu bokalikoarekin harmonizatzen, kalko solidario eta imitazio gozo. Idatzi ezin diren bokalak badirelako, *voilà*... Denok gara Arnold Schönberg eta Edgar Varese, The Ionious Monk eta Maria Callas, Nico eta Lou Reed, Leo Ferre eta Edith Piaf, larrutan egiten dugunean! Telefonoz larrurik jo ez duenak ez daki benetan larrutan egi-

teaz dena oraindik... Benaz, ez daki larrutan egiteaz deus!".

Gaiaren muinetik desbideratzen ari dela iruditzen zaio idazleari, baina jarraitzen utzi dio. Ez daki zer esan. Ez du zertan jakin, Pharosena baita bakarrikzke-ta:

"Badago zer entzun, oihartzunak baino ez izan arren. Eta oihartzun horietan geure ahotsarekin parte hartzeko aukera eman zaigu... Ezkutatu edo nabarmendu. Mintzatuta edo mintzatu gabe. Buru barruan geratzen diren ahotsak ere badirelako izan. Korua zara, bigarren ahotsa, grabe jarraitua? Zer demontre zara?".

Idazleak badaki ez dela galdera bat.

"Gustuko audientziari nahi diozu hitz egin ala audientzia arrotzari? Hauta, arren: liderraren segizio gregario izan ala lider bilakatu... Edo indibiduo bakarreko armada. Sortu nahi duzu ala inorena errepikatu? Gerra oihua da zurea ala hasperena? Ahotsak su baxuan egosten duena gorputz osoak ematen dio maileguan: nia eta agonia... Eta, halere, badaude kantari batzuk haien ahotsa hitz egiten dutenetik abesten dutenera erabat aldatzen zaiena... Batzuetan gertatzen da elkarriketan total edo arrunt dirudien ahots batek liluratu

egiten gaituela derrepente abesten hasi orduko, beste bat ematen du...”.

“Ez zen Fakirraren kasua. Nahiz eta hizketan aritu, lehen silaba ahoskatu orduko zenekien bera zela, ezta?”, eten du idazleak.

Izan ere, Imanolek zer bait bazuen, hori, nahastu ezin den ahotsa zen. Orain, jada hilik dagoenean, kantari jarraitzen duena, bizitzeko gonbita eginez, bera hiltzen den gauean izarren salda edan eta lasai lo egiteko eskatuz, gogoraraziz nekazari pobreek –damurik ala ez– bizitokiz aldatzen jarraituko dutela etzidamu ere. Arimaren penak arindu behar direla eta aldi berean arimarik ez dela batere eta hobe dugula gorputzaz gozatu. Arima ez dela ezer, ez bada irrika, ez bada gogoia, ez bada penak uxatu behar zaizkion norbere larrua bera, ez bada elkarri hitz egiteko arrakala mihi bat, hauspo estuko zakatz. Erretzen ari den aurpegi bat, ispilu aurreko sugar etengabea, agure, haur, nerabe eta heldu.

“Kanta on bat beti da bihar”, dio Pharosek.

Calvados ttanttarik ez duen kopa hurbildu du su-durrera, urruneko sagar baten lurrina atzeman nahian, usainek eta hotsek bat egiten duten puntua, gutako

bakoitza fruitu izan zen garaian zintzilik eduki gintuen adarra.

“Je parle trop, excusez-moi!”.

Revoxaren bobina hutsean katigatu du zinta magnetikoaren muturra. Bobina bat askatu eta husten hasi ahala, bestean kiribiltzen doa zinta. Ez dute abiadura-ekin berehalakoan asmatu, Revox batetik bestera aldea egoten delako eta ume ahots marrazki bizidunetako dirudielako honek. Kantarik ez batere, momentuz. Aparatuaren abiadura egokitzea lortu dutenean, gizonezko baten ahotsa bereizi dute: *“Derecho constitucional como pregunta de derecho político. En todas las sociedades, distinción entre gobernantes y gobernados...”*.

Idazleak zirkin egin du.

“Nire aitaren ahotsa da hori... Zuzenbidea ikasten zuen garaikoa ematen du. Lezioa grabatuko zuen, gero entzun eta buruz ikasteko!”.

Grabagailuak halako gauza praktikoetarako ere erabiltzen ziren garai hartan. Gutxi gorabehera, belarritz, errepikatuaren errepikatuz bilakatzen gara garena. Esate baterako, abokatu. Lezio grabatuak ez du, ordea, sobera iraun. Gainean beste zerbait dago grabatua, aurrekoarekin zerikusirik ez duen beste geruza

bat, beste gizona baten ahotsa, lodiagoa eta grabagoa, solemnitaterik handia eta ahots sakonez testu bat irakurtzen ari dena. Idazlearen aitak poeta baten grabazioarekin ezabatu zuen bere zuzenbide lezioa. Nicolas Guillen da, *Little Rock* poema errezitatzen:

*“Un blues llora con lágrimas de música
en la mañana fina.*

*El Sur blanco sacude
su látigo y golpea. Van los niños
negros entre fusiles pedagógicos
a su escuela de miedo.*

*Cuando a sus aulas lleguen,
Jim Crow será el maestro,
hijos de Lynch serán sus condiscípulos
y habrá en cada pupitre
de cada niño negro,
tinta de sangre, lápices de fuego.
Así es el Sur. Su látigo no cesa...”.*

“Disko bat utziko zion norbaitek. Aitari gustatu eta grabatu egingo zuen, etxerako”.

Aurrerago, txatal eta geruza gehiago: Rodrigo maisuaren *Aranjuezko kontzertua* Vicente Escudero-

ren bertsioan eta Atahualpa Yupanquiren *Camino del Indio*. 70eko hamarkada, horratik, puri-purian. Garai haren ausazko erretratua da zinta hura.

“Hori da dena? Ez dago besterik?”, presatu da idazlea.

“No, todavía hay maz. La cinta tiené doz caraz”.

Bobinaren bestaldean, Georges Brassensen kanta bat: *Je suis un voyou*. Eta segidan, Lasarteko herriko jaietako grabazio bat: Santa Anako herri epaiketaren parodiaren zuzenekoa, osorik emana.

“1976koa izan behar du, inondik ere, urte hartan gure aitak idatzi zuen libretoa”.

Zirtoa egin dio Pharosek:

“¿Todos los ezcritorez tienen padrez ezcritorez?”.

Santa Ana jaietako fartsa: *“Silencio en la sala... digo, en la plaza... Este tribunal se hace cargo del proceso contra Zaku y Zilbor, por inhibición del tribunal militar sobrecargado de trabajo en estas fechas...”*. Epaillearen mailua entzun da. *“El artículo 555 coma cinco del código penal”*. Barreak. *“¡Individuo lo será usted!”*. Barreak. *“Llamamos al testigo ocular, Cucufato Casinovés”*. Barreak. *“¡Secretario, domínese!”*. Barreak. *“La defensa llama a su testigo principal: Alcolino Cogorzas”*. Barre ozenak.

“Gaur egun ere oraindik antzezten da epaiketa far-
tsa hori. Herriko gertaeren urteko errepaso egin eta
su ematen zaie amaieran lastozko bi txorimalori, Za-
kuri eta Zilborri, Okendo plazaren erdian, Santa Ana
jaietan”.

Zaku eta Zilbor. Sebastian. Azeri-dantza. Erre be-
harreko txorimaloak denak. Kiskal daitezela, norbera
ez kiskaltzeko. Zomorroek hel diezaietela haiei, izurria
izan dadila besteentzat, salba dadila gure uzta. Erre
guztia eta uxa ditzala keak gure etsaiak.

Epaiketa amaitu denean, idazlearen aitaren aho-
tsa berragertu da: *“Anticolonialismo. Constitución es-
pañola. La liquidación de las deudas de guerra...”*.

Capri c'est fini kantaren aztarrenik ez, orde. Eta,
halere, zinta hura entzutea denbora kapsula batean
bidaiatzea izan da. Zuzenbide politikoko lezioa errep-
satzen duen idazlearen aitaren ahotsa, idazlearen ai-
tarena da, baina jada, ez da.

Pharos asko pozten da grabazioa idazleak eta biek
batera entzun izanaz. Elkarrekin entzuten denak beste
zentzu bat hartzen du. Elkarrekin eta behin bakarrik
entzuten denak, zer esanik ez. Beste esanahi bat izan
du hartara dezepzio konpartituak, espero zuten kanta
bertan ez aurkitzeak. Orain, Pharos eta bien patuak lo-

turik daude zelanbait. Idazlearen atsekabea irakur de-
zake haren aurpegian; aitortu ez arren, benetan zuen
zinta hartan Imanolen kanta galdua aurkitzeko itxaro-
pena.

Idazleari ere kontsolagarri suertatuko zaio Pharos-
ek egingo duen errituala. Binilo bat hartu du, Fakirra-
ren disko guztietatik kuttunen duena.

“Puedez acompañarme si quierez”.

Aspaldi ez du entzuten eta zikin egongo da segur,
hautsez estalia. Han ditu trapua, espraia, felpazko ze-
pilloa, biniloak garbitzeko *kit* osoa. Aurrez trapua pa-
satu eta garbitu gabe ipini du, hala ere. Harrituta be-
giratu dio idazleak, aditzea baitu entzumen zorrotze-
koa bezain maniatikoa dela Pharos bere disko bildu-
marekin. Hala deskribatu du nobelan; agian berridatzi
egin beharko du pasarte hori.

“Disko bat, zirkuluaren koadratura da: itzulika
dabil, baina aurrerantz doa. Tamalez, zirkunferentziak
gero eta estuagoak dira biniloak aurrera egin ahala”,
bota du Jean Pharos, “gazteak ez dira horretaz jabe-
tzen: denbora estutzen doala”.

Biniloa, kankak eta ahotsa, dena da gero datorre-
na egiteko aitzakia hutsa. Diskoa amaitu eta orratza-
ren muturrak zikinkeria pilatu duenean, altxatu delarik

disiko-jogailuaren besoa eta jatorriko puntura itzuli, orratzean pilatu den hauts bolatxoari putz egin dio Jean Pharosek, mendiko txikori belarrari edo urtebete-tze kandela bakarti bati putz egingo liokeen moduan.

Musikan pentsatu, erabat pausatu ez arren eten-gabe altzarien gainera erortzen ari dela dirudien hautsean pentsatzen duenak bezala.

Atariraino lagundu eta bueltako bidea topatzeko gai izango ote den galdetu dio.

“Postariak beti galtzen dira hemen”.

Moldatuko dela, ez arduratzeko.

Poliki baina hersturarik gabe egin du errepide nagusirainoko bidea, zidorra bide eta bidea errepide bilakatu zaizkion arte. Estuak eta traketsak dira lehen bihurguneak mendatean behera; ia-ia autoa geratzera derrigortu duten ferra itxurako kurba itxi pare bat ere bada gero, baina, apurka-apurka, bideak gidariaren ahalegina eskertu eta erraztu egiten du autoaren galopa; gero eta irekiagoak dira errebueltak, zabaltzen doa errepidea eta zuzentzen bidearen ardatza.

Leihatila ireki duenean, erre usaina sartu zaio kanpotik. Erabat ahaztua zuen San Juan bezpera dela.

Keak, kearen usain lausoaren ordeztu, erretako gauza zehatzagoen aire trinkoa duen urteko egun batarra.